

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**KURUTZIAGA
IKASTOLAKO
GORPUTZ
HEZKUNTZAN GIZA
GENERO EREDU
MOTORRAK**

DOKTOREGO TESIA

YOLANDA SANTEODORO EGIAk aurkeztua

Zuzendariak:

Dk. JOSEBA ETXEBESTE OTEGI

Dk. ASIER OIARBIDE GOIKOETXEA

Vitoria-Gasteiz 2015

**KURUTZIAGA
IKASTOLAKO
GORPUTZ
HEZKUNTZAN GIZA
GENERO EREDU
MOTORRAK**

DOKTOREGO TESIA
YOLANDA SANTEODORO EGIAk aurkeztua

Zuzendariak:
Dk. JOSEBA ETXEBESTE OTEGI
Dk. ASIER OIARBIDE GOIKOETXEA
Vitoria-Gasteiz 2015

ESKER ONAK

Nire eskerrik beroenak,

Joseba Etxebeste nire zuzendariari, egindako ekarpenagatik eta nigan konfiantza izateagatik. Horiei esker praktika motorren unibertsoa eta bereziki gorputz hezkuntza beste pentsamendu baterekin ulertzeko aukera izan baitut. Baita ere, esker beroenak eman dizkidan aholku, laguntzagatik.

Asier Oiarbide nire zuzendariari, eman dizkidan aholku eta jarraibidegatik eta lan hau txukuntzen hartu duen arduragatik. Lanaren erritmoari eusteko adorea berari zor diot.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateari, Gorputz eta Kirol Hezkuntzako Saiari eta EHUko Ekintza Motorraren Behaketako laborategiari, lan hau egitea erraztu didalako.

Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolari, lan hau egitera bultzatzeagatik eta aukera emateagatik.

Durangoko Kurutziaga Ikastolari, Lehen Hezkuntzako gorputz hezkuntzan murgiltzeko baimena eta aukera emateagatik. Berezi gorputz hezkuntzako irakasleari, bere lan eremuan sartzen eta egoten uzteagatik.

Esti, Flavia eta Javiri, nire kezkak eta zalantzak entzuteagatik.

Clarari, fitxategiaren eraketarako emandako irizpidegatik.

Nire familia guztiari, gurasoei, Leireri eta Eleneri, bete dudan lanaren garrantzia ulertzeagatik.

Maiteri, helmuga edozein izanda ekitea garrantzitsuena dela ulertarazteagatik.

LABURPENA

Ikerketa lan honetan helburua gorputz hezkuntza praktika motorrak sustatzen duen giza genero eredua ezagutzea da. Horretarako, Durangoko Kurutziaga ikastolan Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan jarri da arreta. Gorputz hezkuntzan, alde batetik, neskek eta mutilek gauzatu dituzten jarduera motorren barne logika aztertu da: espazioaren erabilerari, parte hartzaileen arteko elkarrekintzari, denboraren zentzuari eta objektuen erabilpenari dagozkien esanahiak miatu dira. Bestetik, aztertu den gorputz hezkuntza gauzatu den kulturaren ezaugarriak azaldu dira, arreta generoarekiko adierazpen kulturaletan jarritz. Ezaugarrien arteko uztarketa ikerketa etnografikotik abiatu da. Metodologia kualitatiboa erabili da, behaketa parte-hartzailea eta dokumentuen azterketak ikertu den gorputz hezkuntzaren testuingurua miatzeko baliabide metodologikoak izan dira. Datuen analisiari hurbiltze prozesua ardurarekin egin da. Lehenengo, Durangoko Kurutziaga ikastolako gorputz hezkuntzan proposatu diren jarduera motorren barne ezaugarriak banan-banan aztertu dira. Gero, ezaugarrien arteko loturen azterketa egiteko. Prozesu honen ondorioz genero ikuspuntutik errealtateak agertzen joan dira. Ikerketaren hasierako analisiak ikerketa sakontzeko bidea zabaldu dute. Kurutziaga ikastolako gorputz hezkuntzaren azterlan honetan ondorioztatu da emakumeari egotzitako giza genero eredua gizonari egotzitako eredu maskulino hegemonikoarekiko menpe kokatu dela, tradizioan ezarritako emakumezko eta gizonazko giza generoen arteko menpekotasun harremana sustatu da, giza genero harreman suspertzaileak saihestuz.

Gako hitzak

Lehen hezkuntza, Gorputz hezkuntza, behaketa parte-hartzailea, giza genero eredua, barne logika, maskulinitasun hegemonikoa, suspertzailea.

RESUMEN

El objetivo de este trabajo de investigación es conocer el modelo social de género que la educación física suscita. Para ello, se ha puesto la atención en el tercer ciclo de Educación Primaria de la ikastola Kurutziaga de Durango. Por una parte, se ha analizado la lógica interna de las actividades motrices que han realizado las chicas y chicos en educación física: se han analizado los significados referentes a la utilización del espacio, la interacción entre los participantes, el sentido del tiempo y la utilización de objeto. Por otra parte, se ha analizado el contexto cultural en el que se ha llevado a cabo la educación física analizada, poniendo la atención en las expresiones culturales referidas al género. La relación entre las características parte de una investigación etnográfica. Se ha utilizado una metodología cualitativa, la observación participante y el examen de documentos son los recursos metodológicos utilizados para analizar el contexto de la educación física que se ha investigado. El acercamiento al análisis de datos ha sido cuidadoso. Primeramente, se han analizado una a una las características de la lógica interna de las actividades motrices propuestas en la educación física de la ikastola Kurutziaga. Para posteriormente, realizar el examen de la relación existente entre esas características. En este trabajo de examen de la educación física de la ikastola Kurutziaga se ha concluido que el modelo de género social vinculado a la mujer se ha supeditado al modelo de género masculino hegemónico vinculado al hombre. Se ha promovido la relación de subordinación entre los géneros sociales femenino y masculino determinados tradicionalmente, evitando las relaciones sociales de género emergentes.

Palabras clave

Educación Primaria, educación física, observación participante, modelo social de género, lógica interna, masculinidad hegemónica, emergente.

ABSTRACT

The objective of this research is the study of the gender model promoted by mobility practices in physical education. This research has been carried out in a third cycle of primary education in Kurutziaga Ikastola, Durango. On the one hand, the internal logic of mobility practices performed by girls and boys in physical education has been analysed: the meaning of the use of the space, the interactions between participants, the sense of time or the use of objects. On the other hand, cultural characteristics have been described, emphasising cultural expressions related to gender. The relationship between characteristics has been initiated from an ethnographic point of view. The methodology has been qualitative, by means of participative observation and document analysis. Data has been collected carefully. First of all, the internal characteristics of mobility practices proposed in physical education in Kurutziaga Ikastola have been analysed individually; then, the relationships between those characteristics have been studied. This study uncovered different facts related to gender. Initial analysis opened new ways to go in depth in this research. The study of physical education in Kurutziaga Ikastola comes to the conclusion that the gender model ascribed to females is subdued by the hegemonic gender model ascribed to males, driving the traditional subordination relationship between female and male genders, eluding encouraging human gender relationships.

Key words

Primary education, physical education, participative observation, gender model, internal logic, male hegemony, encouraging.

AURKIBIDEA

Laburpena	5
Resumen	6
Abstract	7
HITZAURREA	19
1. GIZA GENERO EREDUAK ETA MOTRIZITATEA	21
1.1. Jarduera motorren sustrai historiko eta soziala	21
1.2. Egoera motorren ikuspuntu pertinente.....	
1.2.1. Akzio motorren domeinuen ezaugarri bereizgarriak.....	28
1.2.2. Etnomotrizitatea egiteko domeinu motorrak.....	28
1.2.2.1.Domeinuen sailkapenean egoera psikomotorrak eta beraiek sustatzen dituzten harremanak	29
1.2.2.2.Domeinuen sailkapenean egoera soziomotorrak eta beraiek sustatzen dituzten harremanak.....	31
1.2.2.3.Espazio motorra	37
1.2.2.4.Egoera motorretan denbora eta hartzen duen zentzua	39
1.2.2.5.Egoera motorretan objektuak eta hartzen duten zentzua	41
1.2.3. Akzio motorraren zientzia eta genero ikerketak	43
1.2.3.1. Giza eremu motorren ildoak.....	44
1.3. Emakumezko eta gizonezko eraikuntza soziala.....	50
1.3.1. Rol sexualaren genero eraikuntza	51
1.3.2. Genero estereotipoak	54
1.3.3. Ugaltze-lana eta ekoizpen-lana.....	55
1.3.4. Ausardia, oldartsutasuna eta frustrazio ezaugarri psikologikoak	57
1.3.5. Maskulinitasun ereduak	59
1.3.6. Patriarkatu sistema eta maskulinitasun hegemonikoa	64
1.3.7. Eredu hegemonikoaren ondorioak.....	65
1.3.8. Genero eta justizia soziala	68
1.4. Hezkidetza eta legedia	72
1.4.1. Sexu-diskriminazioarekiko ordenamendua antolatzen duen legeria	73
1.4.2. Hezkidetza.....	78

1.4.3. Eskola banatua, mistoa eta kohezitzailea	79
1.4.4. Hezkuntza curriculuma.....	82
1.4.5. Gorputz Hezkuntza arloa.....	83
2. METODOLOGIA	89
2.1. Ikerketaren helburua eta duen interesa.....	89
2.2. Ikerketa objektuaren aukeraketa	91
2.3. Informazioaren bilketa eta tratamendua	93
2.3.1. Parte hartze maila	95
2.3.2. Informazio bilketa	97
2.3.3. Datuen tratamendua	98
3. DATUEN AZTERKETA	105
3.1. Ikerketa burutu den testu-ingurunea.....	105
3.1.1. Durango.....	105
3.1.2. Kurutziaga ikastola, sorreratik gaur egun arte	106
3.1.3. Kurutziaga ikastolaren sorrera eta hezkuntzarekiko ardatz nagusiak.....	110
3.1.4. Kurutziaga ikastolan ematen den generoarekiko curriculum tratamendua	111
3.1.5. Gorputz hezkuntzako irakaslea	112
3.2. Behatu den gorputz hezkuntza.....	112
3.2.1. Gorputz hezkuntzaren planifikazioa Kurutziaga ikastolan.....	112
3.2.1.1. Kirolen hastapenaren izaera behatutako gorputz hezkuntzan...	113
3.2.1.2. Euskal Autonomia Erkidegoan kirolen eskaintza eta generoa ..	114
3.2.1.3. Oinarrizko gaitasun motorren zentzua	114
3.2.1.4. Planifikazioan joko-jolasak eta kirola ez diren jardueren pisua	115
3.2.2. Saioa eta generoa.....	117
3.2.3. Generoa eta talde hautaketa	120
3.2.4. Irakasleak generoarekiko duen diskurtsoa	122
4. GORPUTZ HEZKUNTZAN HEZKIDETZA ILDOAK	123
4.1. Denboraren eraikuntza eta izaera	124
4.1.1. Denboraren eraikuntza soziala.....	124
4.1.2. Denbora lineala eta ziklikoa	126
4.1.2.1. Eguneroko erritmoaren denbora lineala eta oporraldietako denbora ziklikoa	129
4.1.3. Emakumeek eta gizonen egiten duten denboraren erabilera.....	131
4.1.3.1. Ekoizpen-lana, ugalketa-lana eta aisialdia generoaren ikuspegitik.....	131
4.1.3.2. Ekoizpen-lanak, ugalketa-lanak eta aisialdiak islatzen duten denboraren zentzua	133

4.1.4. Euskal Autonomia Erkidegoan denboraren erabilera.....	135
4.1.5. Behatutako gorputz hezkuntzaren denbora ezaugarriak	137
4.1.5.1. Ikasturtean gorputz hezkuntza	137
4.1.5.2. Orduategia.....	137
4.1.5.3. Saioaren iraupena	138
4.1.6. Denbora sozialaren ikurrak kurutziaga ikastolan.....	139
4.1.7. Memoriadun eta memoria gabeko jarduera motorrak	140
4.1.7.1. Memoriadun eta memoria gabeko jarduerak sustatzen duten afektibitatea.....	142
4.1.8. Gorputz hezkuntzako saioen denbora izaera	143
4.1.9. Gorputz Hezkuntzak islatu duen denbora zentzua gizartean	144
4.2. Objektuen erabilera eta izaera	145
4.2.1. Kontsumo gizartea	146
4.2.2. Giza mailaren eta banakotasun plazeraren teoriak.....	148
4.2.3. Garapen teknologikoa marken ezarpenean moda nozioa aintzat hartuz	149
4.2.3.1. Moda nozioa.....	151
4.2.3.2. Markak definitzen gaituztelakoan.....	152
4.2.4. Kontsumoa hezkuntza curriculumean	154
4.2.5. Kirolean eta praktika fisikoetan objektuak	156
4.2.6. Erabili diren objektuak eta beraien ezaugarriak.....	157
4.2.7. Gorputz hezkuntza eta kontsumoa.....	161
4.2.7.1. Objektuen erabilera iraupena	163
4.2.8. Objektuen generoa kontsumo kulturaren	164
4.2.9. Gorputz hezkuntzan objektuen erabilera eta zentzua gizartean	166
4.3. Ingurune fisikoaren izaera	168
4.3.1. Espazio mota desberdinen ezaugarriak	169
4.3.2. Espazioarekiko ziurgabetasun kontzeptua	170
4.3.2.1. Espazioa egonkorra izateak garatzen dituen adimena eta afektibitatea.....	172
4.3.2.2. Diziplinazko gorputzen eraikuntza	173
4.3.2.3. Espazioarekiko ziurgabetasunak garatzen dituen adimena eta afektibitatea.....	174
4.3.3. Kurutziaga ikastolako Kirol instalazioak	175
4.3.4. Gorputz hezkuntzan erabili diren espazioen ezaugarriak.....	176
4.3.5. Gorputz hezkuntzak sustatu duen espazioarekiko harremana	181
4.3.6. Emakume eta gizonen funtzioak espazio publikoan eta pribatuan ..	183
4.3.6.1. Lan betekizunak generoan	185
4.3.7. Espazioarekiko ziurgabetasuna generoan	185

4.3.8. Gorputz hezkuntzak islatu duen espazioarekin harremana gizartean	186
4.4. Giza harremanen izaera	188
4.4.1. Giza harremanen izaera gizarte indibidualista eta kolektibistetan ...	188
4.4.1.1. Kapital soziala eta harremanak	190
4.4.2. Giza praktiketan komunikazioa.....	192
4.4.3. Esparru motorrean komunikazioa.....	193
4.4.4. Esparru motorrean harremanak: egoera soziomotorrak eta psikomotorrak	195
4.4.4.1. Egoera soziomotorrek sustatzen dituzten harremanak	196
4.4.4.2. Egoera soziomotorretan ziurgabetasun egoerak sustatzen dituen adimena eta afektibitatea	202
4.4.4.3. Egoera psikomotorrek sustatzen dituzten harremanak	204
4.4.4.4. Egoera psikomotorrek sustatzen duten adimena eta afektibitatea.....	205
4.4.5. Gorputz hezkuntzan harremanak.....	205
4.4.5.1. Irakasle-ikasleen arteko harremanak	206
4.4.5.2. Ikasleen arteko harremanak	208
4.4.6. Gorputz hezkuntzak sustatu dituen harreman egoera.....	211
4.4.6.1. Harreman motorretan eta egitura sozialean iraupena.....	211
4.4.7. Euskal Autonomia Erkidegoan egitura sozialak eta kirol parte hartzea	214
4.4.7.1. Gorputz hezkuntzan eta gizartean kiroletan eraso distantzia generotik aztertua	219
4.4.8. Gorputz hezkuntzak sustatu dituen harremanen zentzua gizartean.	221
5. GORPUTZ HEZKUNTZAN GIZA GENERO EREDUAK.....	223
5.1. Jarduera moten izaera eta gorputz hezkuntzan metodoa	224
5.2. Jarduera motak eta multzo motorrak.....	228
5.2.1. Multzo motorrek erakusten duten giza genero eredu.....	233
5.3. Giza genero ereduaren eta jarduera moten arteko uztarketa	236
5.4. Giza genero ereduaren proposamenaren ondorioak.....	239
6. GENERO GAIARI GORPUTZ HEZKUNTZAK EGIN DIEZAIÓKEEN EKARPENA	243
7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	247
8. ERANSKINA.....	257

Irudien aurkibidea

Irudia 1: Egoera motorren multzoaren S^3 simplex-ean sailkapena	29
Irudia 2: Saio praktikoa bakoitzean atal bakoitzaren pisuaren batezbesteko aritmetikoa eta burutu diren jarduera motak	120
Irudia 3: Behatutako gorputz hezkuntzan denbora nozioen erabilerearen iraupena	144
Irudia 4: Jardueretan objektuen espizifikotasunak izan duen pisua	158
Irudia 5: Berrizko belodromoan ikasleak bizikletak hartzen.....	159
Irudia 6: Behatutako gorputz hezkuntzan boleibolean erabilitako baloiak.....	159
Irudia 7: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako pilotak	160
Irudia 8: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako eskupilotak	160
Irudia 9: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako material desberdinez eginiko objektuak	160
Irudia 10: Behatutako gorputz hezkuntzan objektuen erabilera	163
Irudia 11: Behatutako gorputz hezkuntzan saskibaloiko zelaia	177
Irudia 12: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako gimnasioa	177
Irudia 13: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako futbito zelaia	178
Irudia 14: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako hareatza zelaia	179
Irudia 15: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako frontoia.....	179
Irudia 16: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako Abadiñoko trinketea	180
Irudia 17: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako Berrizko belodromoa.....	189
Irudia 18: Komunikazio edota kontrakomunikazio motorrearen iraupena	211
Irudia 19: Behatutako gorputz hezkuntzan islatu diren egitura sozialen iraupena	212
Irudia 20: Gorputz hezkuntzan proposatu diren jarduera motak.....	226
Irudia 21: Aztertu den gorputz hezkuntzan multzo motorrak.....	231
Irudia 22: Aztertu den gorputz hezkuntzan figura ludikoak	235

Taulen aurkibidea

Taula 1: Akzio motorren domeinuak bereizteko irizpideak	28
Taula 2: Barne logikaren lau domeinuen ezaugarriak	46
Taula 3: Posibilitate desberdinak joko eta jolasa eremuentzako	46
Taula 4: Arlo bakoitzaren eredu motorrak.....	47
Taula 5: Lege orokorren adierazpenak	77
Taula 6: Hezkuntza Legeak eta Dekretuak.....	78
Taula 7: EAEan batxilergoan 2010-2011 ikasturtean ikaskuntza arloka matrikulatutako ikasleria.....	83
Taula 8: Lehen Hezkuntza eta DBHn arlo eta ikasgaien banaketa	84
Taula 9: Derrigorrezko Lehen eta Bigarren etapetan gorputz hezkuntza	86
Taula 10: Lehen Hezkuntza eta DBHn gorputz hezkuntzako eduki multzoak..	87
Taula 11: fitxategia osatzen duten fitxa baten adibidea	99
Taula 12: SPSS fitxategia osatzeko aldagaiak, etiketak eta balioak	102
Taula 13: Durangon Haur Hezkuntza (HH), Lehen Hezkuntza (LH), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) edota Batxilergoa eskaintzen duten ikastetxeek	106
Taula 14: 2009-10 ikasturteko gorputz hezkuntza behatu diren kirolak.....	113
Taula 15: Euskal kirol federazioen lizentzia kopurua generoaren arabera (%)....	114
Taula 16: behatutako gorputz hezkuntza proposatu diren joko-jolasak eta kirola ez direnak	115
Taula 17: Jarduera motorren multzoa.....	116
Taula 18: Behatutako gorputz hezkuntza instituzioen pisua.....	117
Taula 19: Burutu den jarduera mota bakoitzaren deskribapena	118
Taula 20: Behatutako gorputz hezkuntza jarduera mota bakoitzaren pisua.....	119
Taula 21: Kurutziaga ikastolako hirugarren zikloko neska eta mutilen portzentajea.....	121
Taula 22: Behatutako gorpuz hezkuntza maila bakoitzeko generoarekiko taldeen antolaketa	121
Taula 23: Gizarte antolamenduan jarduera esparruak.....	135
Taula 24: Behatutako gorputz hezkuntzaren ordutegia	138
Taula 25: EAEan 2012an emakume eta gizonen kirol parte hartze maila.....	166
16 Taula 26: Kurutziaga ikastolan kirol instalazioak	175

Taula 27: Behatutako gorputz hezkuntza kirol instalazioak: pribatuak eta publikoak.....	182
Taula 28: EAEan naturan egiten diren kirolean parte hartze maila generoaren ikuspuntutik	186
Taula 29: Egoera soziomotorren egiturak.	199
Taula 30: Irakasle-ikasle elkarrekintza irakaslearen kontsigna mota.	206
Taula 31: Jarduera motorrak egiteko ikasleen antolamendua.	209
Taula 32: Jarduera motorrak egiteko ikasleak nork antolatu dituen.	209
Taula 33: Jarduera motorrak egiteko ikasleak nork antolatu dituen arabera talde mistoak/ez mistoak.	210
Taula 34: Behatutako gorputz hezkuntza berezko elkarrekintza motorren arabera egoeren iraupena.	211
Taula 35: Behatutako gorputz hezkuntza proposatu diren kirolek erakusten dituzten egitura soziala eta ezaugarriak.	216
Taula 36: EAEan kirolen egitura sozialaren arabera generoarekiko parte hartze maila.	217
Taula 37: Gorputz hezkuntza eta EAEan kirol eskaintza eraso distantzia	219
Taula 38: Jarduera mota eta giza genero eremu motorra aldagaien arteko erlazioaren kontingentzia.	238

HITZAURREA

Giza taldeen akzio, erabaki eta portaerak aztertzeko lan etnografikoa azaltzen da orrialde hauetan. Durangoko Kurutziaga ikastolan ematen den gorputz hezkuntzan bideratzen den genero eraikuntza ikertzeko saiakera bat da. Ikuspegi kualitatibotik abiatuz, behaketa parte hartzaile erabiliz hezkuntza agenteen zereginak burutu dituzten bezala ikusteko aukera izanik.

Gorputz hezkuntza praktika motorren araudia eta bestetik, praktika gauzatu den testuinguru sozialaren arteko uztarketa lana da hau. Zehatz-mehatz, neskek eta mutilek egin dituzten jarduera motorren barne egiturak erakutsi duen hezkidetzaren eredu eta gizarteak islatzen duenaren arteko uztarketa lana da.

Ikerlana sei kapituluz osatuta dago. Lehenengo kapituluan marko teorikoa azaltzen da, bigarrenean jarraitu dugun metodologia, hirugarren kapituluan aukeratu dugun ikastetxearen ezaugarriak eta behatu den gorputz hezkuntzaren ildo nagusiak azaltzen dira, laugarren ikastetxean burutu den gorputz hezkuntza azaltzen da, bosgarren behatu diren jarduera motorrek islatzen duten hezkidetzaren eredu eta gizarteak islatzen duenaren arteko lotura azaltzen da, aztertu den gorputz hezkuntzaren ezaugarrien bateratze lana da eta seigarren kapituluan ikerketak azeleratu duen generoarekiko errealitatea aintzat hartuz, gorputz hezkuntzak izan dezakeen eragina azaltzen da. Amaitzeko ikerketaren gabeziak eta bertuteak azaltzen dira.

Ondoren, ikerlanean erabili diren erreferentzia bibliografikoak zehazten dira. Ikerlana osatzeko eranskinean word fitxategia atxikitzen da.

Marko teorikoan, lehenengo eta behin, praktika motorrak aztertzeko ildo historiko nagusiak azaltzen dira. Gero, ikerlana burutzeko Parlebasek garatutako akzio motorren zientziaren ildo epistemologikoak azaltzen dira. Eta ikerlanean generoa aztertzeko den gaia izanik, genero kontzeptuaren eraikuntza azaltzen da. Marko teorikoa hezkidetzaren sustatzeko legerien bitartez hartzen diren erabaki politikoak azalduz bukatzen da.

Metodologiaren atalari dagokionean ikerketaren helburua eta beraren interesa zehazten dira. Eta helburua betetzeko aukeratu den

ikerketari objektuari buruz informazioa biltzeko bideak eta tratamendua azaltzen dira.

Behin ikerketaren objektua zehaztu ondoren, testuinguruan jarri da arreta, behatutako gorputz hezkuntzak erakutsi dituen antolamendua eta generoarekiko ikuspuntua azaltzen dira.

Jarraian gorputz hezkuntzan behatu diren jarduera motorren barne logika eta testuingurua azaltzen da; gorputz hezkuntzan ezaugarri bakoitzak erakutsi duen genero ikuspuntua gizarteak islatzen duenarekin uztartuz. Azterketa honek bosgarren kapituluan azaltzen den ezaugarrien bateratze lana erraztu du.

Gorputz hezkuntzaren ezaugarrien bateratze lanak curriculum ezku-tuaren eta ageriko curriculumaren arteko konparaketa bideratu du. Konparaketaren ondorioz gorputz hezkuntzak erakutsi duen hezkidetzaren eredu zehazki azaltzen da. Bosgarren kapitulua ikerketaren emaitzak borobiltzeko lana da eta gorputz hezkuntzak genero gaiari egon die-zaiokeen ekarpena azaltzeko lagungarria izan dena.

1. GIZA GENERO EREDUAK ETA MOTRIZITATEA

Ikerketa honen ildo akademikoak jardunbide motorrak eta generoa biltzen ditu, jarduera fisiko, kirol edo joko-jolas¹ tradizionalek eraikitzen duten emakumezkoen eta gizonezkoen izaera soziala aztertzeko metodo etnografikoa erabiliz.

Etnografiak giza talde baten kulturak batzen dituen ohiturak eta horiek gizartearen antolamenduan eta esanahien eraikuntzan duten eragina ulertzeko ikerketarako ildoak zabaltzen ditu. Ikerketak akzio motorren sustrai historikoarekin eta sozialarekin erlazionatzen duen etnomotrizitatea oinarritzko zeregin gisa hartzen du.

Parlebasek aitzindarien lanen ekarpena aintzat hartuz egiten duen akzio motorren zientziatik abiatzen gara. Jarduera ludiko motorren berezko logika aztertzeko tresnak garatzen dituenean, unibertso motorra aztertzeko ikuspuntu berria eskaintzen du. Gizarte baten baldintza politiko ekonomikoak kontuan hartuz, jardunbide motorren barne egiturak islatzen duen kultura ezagutzeko bidea zabaltzen du, behatu den gorputz hezkuntza jardunbide motorrak inkontzienteki generoarekiko islatu duen ikuspuntua aztertzeko.

Emakumeari eta gizonari egotzitako ezaugarrietatik hasi eta, lege eta hitzarmen orokorrak eta hezkuntza legeek eta dekretuek genero diskriminazioa saihesteko hartutako erabakiak aztertzen jarraitu eta behatutako jarduera motorren hezkidetzaren eredu zehazteko bideak dira.

1.1. Jarduera motorren sustrai historiko eta soziala

Gizartearen edota giza taldeen antolamendua eta esanahien eraikuntza hobeto ulertzeko, ikerketa etnografikoak “garaiak, uneak eta giza taldeen arabera dauden gorputz jardunbideen aniztasunak, arauak eta giza balioek gorputzaren erabilera duten eragina erakusten dute” (Parlebas, 2001, 227 or.).

Soziologian eta etnografian eragin handia izan duen Mausek gorputz teknika kontzeptua aztertu zuen, gizartearen arabera gorputza erabiltzeko hainbat teknika dagoela baieztatuz. Adibidez, “polinesioek ez dute guk bezala igeri egiten eta nire belaunaldiak ez du igeri egin gaur egungo belaunaldiak egiten duen bezala” (Mauss, 1991, 337 or.). Era honetan, Mausek (1991) gorputz teknikak giza fenomenoen ondorioak direla ikusten zuen, honela definituz: “pertsonen gizartez gizarte beraien gorputza erabiltzeko duten forma tradizionala” (Mauss,

¹ Ezaugarri ludikoa duten jarduera guztiak kontuan hartzen dituen hitza joko-jolasa da, zeren eta lehia eta dibertimendu egoerak hartzen ditu. Beraz, hemen joko edo jolasa erabili beharrean joko-jolasa hitza erabiliko da, beraz gaztelaniazko “juego” aipamenak itzultzean joko-jolasa erabiliko da.

1991, 337 or.). Gorputz teknikaz gain, objektua beharrezkoa duen teknika instrumentalaz ere hitz egiten du: “pertsonaren lehenengo tresna gorputza dela” (Mauss, 1991, 342 or.) baieztatzen bazuen ere, tresnarekin egiten den akzio bat teknika instrumentala litzateke, eta ez gorputz teknika.

Ikasgelan esertzeko era, ibiltzeko kadentzia eta erritmoa, igeri egiteko estiloak, desberdinak izango dira haurrak jasotzen duen heziketaren arabera, “giza gorputza erabiltzeko artearen edozein osagaitan hezkuntzaren gertaerek agintzen dute” (Mauss, 1991, 340 or.). Horrela, ibiltzeko teknika desberdina izango da makila edo makila barik, edo lurzorua laua edo zuloz beteriko aldapan bada. Lurzoruaren ezaugarriak eta tresna edo tresna barik aritzeak ibiltzeko gorputz teknika desberdinak eraikiko ditu.

Objektuen eta tresnen agerpenak eta beraien garapen teknologikoak gorputz teknika zaharkituak berreraikitzen dituzte. Olimpus hirian ospatzen ziren Joko Olinpikoetan jaurtitzailak erabiltzen zuen xabalina eta gaur erabiltzen denaren artean teknologikoaren ikuspegitik dagoen aldeak eraikitzen dituen gorputz teknikak (xabalina hartzeko era, besoa mugitzeko era) desberdinak dira. Gizakiak gizartearen eta garaiaren arabera ekintza bat egiterakoan gorputza erabiltzeko duen forma desberdina da. Eta tresnek akzioa egiteko baldintzak aldatzen dituzte. Zentzu horretan, gorputz teknikaz eta teknika instrumentalaz hitz egin beharrean, bakarraz aritu beharko ginatke, hau da, gorputz teknikaz.

Hala eta guztiz ere, Maussek (1991) gorputz teknika eta teknika instrumentala kontzeptuak aurrez aurre jartzen baditu ere, “mugimendu oinarrien aukeraketa soziala” (Mauss, 1991, 346 or.) dela baieztatzen duenean jardunbide motor anitzen etnomotrizitatea egiteko bidea zabaltzen du. Horrela, adibidez, hezkuntzaren bitartez ezartzen den kultura behatzen diren gorputz teknikei esker ezagutu daiteke.

Kulturaren sorreraren inguruan hausnarketa egin zuen Huizingak (2000) “joko-jolasatik, joko-jolasa bezala, gizakiaren kultura sortzen dela” argudiatu zuen (Huizinga, 2000, 8 or.). Kulturak joko-jolasaren ezaugarri bat zein neurrian islatzen duen aztertu zuen bereziki. Horrela, joko-jolasa kultura aurretik emandako bizitzeko forma gisa ulertu behar da eta, aldi berean, balioz eta esanahiz beteriko egitura sozial gisa: “bere fase primarioetan kulturak zerbait ludikoa du, hau da, joko-jolasaren gogoan eta formetan garatzen da” (Huizinga, 2000, 67 or.). Eta ezaugarri ludikoa duten formak azaldu zituen:

- Joko-jolas askoren lehia ezaugarriak bestea baino hobekien gaitasuna erakusteko aukera ematen du, eta Huizingak kulturaren era primitiboetan lehia eta erakusketa bilatzen direla azaltzen du etengabe: “irabazteak hau esan nahi du: norberaren burua erakustea, joko-jolasen amaieran, bestea baino nagusiagoa izatea” (Huizinga, 2000, 72 or.). Irabazten dena ospea eta ohorea dira. Adibidez, Huizingak azaltzen duen oparien jaial-

² Colombia britainiarrean indioen tribu batek ezaugarri agonal bizitza kulturalean antolatzen zuen oparien jaialdia da (potlach). Ondasunak familia batetik bestera pasatzeaz gain, norbere ondasuna suntsitzen zen eta era berean, bestea bere ondasuna hondatzera behartzen zen. Horrela, boterea eta ohorea erakutsiz.

dian² lehia formatuan ondasunak hondatzeak besteak baino botere eta ohore handiagoa erakusteko aukera ematen du.

- Eskubide legala eta joko-jolasaren arteko kidetasuna justizia administratzea “arau finkoen pean jarritako borroka gisa” ikustean dago, “lehiakide biek arbitroaren erabakiari begiratzen diote” (Huizinga, 2000, 104 or.).
- Gudak joko-jolasaren ezaugarria erakusten du dueluak *agona* ezaugarria adierazten baitu.
- Jakinduriak ere ezaugarri ludikoa du. Heriotzari edota haizearen jatorriari buruz jakin nahi duen haurrak egiten dituen galderen helburua enigma eza-gutzea da. Eta enigma “hasiera batean joko-jolas sakratua da, hau da, joko-jolasaren eta serioetasunaren artean dago” (Huizinga, 2000, 144 or.).
- “Poesia kultura, dibertimendua, festibala, joko-jolas soziala, trebezia artistikoa, proba edo enigma, eta irakaskuntza, konbentzitzea, xarma, igartzea, profezia eta lehia da” (Huizinga, 2000, 154 or.).

Ausardian, erresistentzian, trebezia artistikoan edo jakindurian lehiatzen da. Huizingak (Huizinga, 2000, 137 or.) forma horiek guztiek ezaugarri ludikoa gordetzen dutela azaltzen du, adierazpen sakratuetan ezaugarri ludiko horretan joko-jolasaren funtzio kulturala ulertzeko euskarri puntua baita. Eskubide legala, jakinduria, poesia, mitologia, tribu primitiboaren erritualak eta kultuak, joko-jolasaren ezaugarriak islatzen dituzte: askatasuna, tentsioa eta ziurgabetasuna, espazio eta denbora muga zehatzak, beste bat izatea eta ordena. Eta ezaugarri guztien artean erakusketa lehia formara heldu arteko nagusia eta errepikatuena litzateke: “inolako zalantzarik gabe, giza zibilizazioak joko-jolas kontzeptuari ez diola funtsezko ezaugarririk gehitu esan dezakegu” (Huizinga, 2000, 11 or.).

Huizingak (2000) joko-jolasa kontzeptua mugatu eta bere funtzio kulturalak bereiztu zituen giza zibilizazioaren eraikuntzan beste ikuspuntu interesgarria ezarri zuen. Baina, joko-jolasak eta kultura nahastu eta biak gauza bera balira bezala tratatzen ditu. Ez da argi geratzen bata eta bestea non hasten diren, eta ondorioz ez dago lekurik jarduera ludikoen azterketarako.

Kulturan narrazio mitologikoen islatzen dituzten pentsamendu primitiboak eta zibilizazioen arteko loturak azaldu zituen Lévi-Straussek (2012) ezaugarri mitologikoen dituzten istorioetan “itxurazko desordena horren atzean ordena mota bat zegoen” (Lévi-Strauss, 2012, 37 or.) aurkitu nahi izan zuen Mitoak, fenomeno gisa, esanahiz beteriko istorioak direla eta esanahiek kontzeptuak eraikitze bidea zabaltzen dutela ikusi zuen, gizarte zibilizatuen kontzeptuen sorrera mugatuz. Eta istorio mitologikoen “ezaugarri bat eraldatzen denean, beste osagaiak eraldatu den osagaiarekiko derrigorrez berregokitu behar dira” (Lévi-Strauss, 2012, 74 or.). Horrela, Lévi-Straussek (2012) fenomeno mitologikoen egituren garrantzia erakutsi zuen eta joko-jolasen fenomenoak ikuspuntu berdinetik aztertze bidea zabaltzen duen, hau da, esanahiz beteriko osagaien artean eragina duten joko-jolasen egituren ikuspuntua. Autorearen ekarpena eremu motorrean eramanen gero, “egoera motor baten ezaugarri bereizleena sistema” (Parlebas, 2001, 302 or.) ulergarriagoa egiten da.

Zibilizazio aurreko joko-jolasaren teorian Huizingak inork aurretik joko-jolasa ikusi ez den eremuetan azaltzen badu ere, autoreak ez ditu joko-jolasen deskribapena eta sailkapena eskaintzen. Hutsune horretaz jabetu zen Cailloisek “ohiko bizitzaren arauak joko-jolasetan ordezkaturata daudela” (Caillois, 1958, 17 or.) ikusirik joko-jolas anitzak sailkatzeko irizpidea ezarri zuen. Horrela, joko-jolasetan nagusitzen den ezaugarriaren arabera *agon*, *alea*, *mimicry* eta *ilinx* kategoriak bereiztu zituen. *Agonek* “arintasuna, erresistentzia, indarra, memoria, trebetasuna, buru-argitasuna, etab. nolakotasun bakar batean oinarritzen den lehia” (Caillois, 1958, 27 or.) islatzen du. Aurkariek baldintza berdinen menpe lehiatzen dute irabaztearen balioa goraiatuz. Adibidez, boxeo, saskibaloia, eskupilota edo errugbia *agon* kategorian daude. Baina, baita ere, damak, xakea edo billarra, besteak beste.

Alean³ “destinoa garailearen artisau bakarra da” (Caillois, 1958, 32 or.), parte hartzaileak ez du emaitzaren eraginik eta, norgehiagokan arituz gero, irabazleak galtzaileak baino zoriaren mesede handiagoa izaten du. Jokalariak era pasiboan patuaren zain egotea baino ez du. *Agon* kategorian ez bezala, *alea* lana eta esfortzua ez ditu ezaugarri nagusi. Adibidez, dado joko, erruleta, loteria edo kutxa eta pila *alea* kategorian daude.

*Mimicry*⁴ parte hartzaileak bere nortasuna ahaztu egiten du eta beste bat izatera jolasten da. Mozorroa edo antzerkia *mimicry* kategorian sartzen dira. Horietan plazer nagusia beste bat izatean dago.

*Ilinx*⁵ kategorian bat batean inguratzen gaituen errealtatea apurtzen da eta izugarriko bertigoa sortzen duten joko-jolasak batzen dira. Oinarrian *ilinx* kategoriako joko-jolasek “espasmoa, trantzea edo zorabioa bezalako zerbait lortzea” (Caillois, 1958, 42 or.) dute helburu. Eskiekin abiadura handia hartzeko maldan behera joatea, zubi batetik soka gorputz atal batean lotuta dagoela botatzea, ur handietan piraguarekin jaistea, eta baita ere, norberaren ardatz inguruan birak ematea *ilinx* kategoriaren adibideak dira.

Caillosek (1958) egindako joko-jolasen sailkapenak kategoria bakoitzean nagusitu den ezaugarriari du abiapuntua, baina nagusitasunak ez du eskusibotasuna bermatzen eta ondorioz joko-jolas bat hainbat kategoriatan egon daiteke, honek ikerketarako dakarren arazoaz. Adibidez, “kirol ikuskizun handiak *mimicry* aukera pribilegiatuak dira” (Caillois, 1958, 40 or.), ikusleak txapeladunarekin identifikatzen direnean *mimicry* kategoriaren bestea izatea ezaugarria agertzen da. Esku pilota partiduan *agon* trebetasunaren arabera apustuak (*alea*) etengabe aldatzen dira edo partiduen hasieran sakea nork egingo duen erabakia txanponaren eskuan utziz gero, irabazlearen destinoa mugatzen da. Guztia-ekin, kategorien arteko eskusibotasun ezak ez du Caillosek egindako ekarpen nagusia isiltzen, hau da, joko-jolasetatik abiatuz joerak, gustuak eta adimena deskribatzeko bidea eskaintzen dela. Horrela, “herri batek ondrazten duen joko-

³ Latinez aleak dadoen joko esan nahi du (Caillois, 1958, 32 or.).

⁴ *Mimicry* hitzak ingelesez intsektuen mimetismoa esan nahi du.

24 ⁵ *Ilinx* hitzak grekoz ur zurrumbiloa adierazten du.

jolasa bere ezaugarri moral eta intelektual batzuk definitzeko erabil daiteke (...) parte hartzaileen artean ezaugarri horiek indartuz” (Caillois, 1958, 89 or.). Era honetan, gizarte motaren arabera nagusitzen diren kategoriak identifikatzean soziologia eraikitzen hasten gara, adibidez, “gizarte primitiboetan (...) *mimicry* eta *ilinx* nagusitzen dira hauek bezalako baieztapenak eraikiz: ... gizarte orde-natuak, bulego, lasterketa, kode eta baremoarekin (...) *agon* eta *alea* lehen osagarri bezala agertzen dira”. Caillosek (1958) idazten duen bezala, “zibilizazio batean aurrera egiten duten joko-jolasetatik abiatuz bere diagnostikoa egitea ez da zentzugabeko ideia” (Caillois, 1958, 89 or.)

Kirola gizarte zientzietan ikerketarako gai onartua izango ote zen zalan-tzarekin, Elias eta Dunning soziologoek (1992) kirolaren sozio-genesia aztertu zuten. Gizartearen garapenarekiko hau baieztatzen zuten: “kirolaren garapenean egindako ikerketak sentimendu eta jokabideen kodigo eboluzio orokorrean norabide bera erakutsi zuen” (Elias eta Dunning, 1992, 33 or.). Adibidez, talde politikoen arteko bortizkeri fisikoa desagertzen da eta, aldi berean, gorputz indarra erabiltzea eskatzen duten kirolen arauak kirol txapelketetan bortizkeriaren ondorioz min fisikoak ekiditeko leuntzen dira. Eliasek azaltzen duen bezala, bata ez da bestearen ondorioa, baina gaur bereziki aisialdian praktikatzen den kirolaren prozesua aztertzeotan gizarte gaia den neurrian aztertu beharra dagoela ikusten zuen. Era honetan, XVIII. mendeko Ingalaterran “giza maila aberatsen parlamentarizazioak aisialdiko jardueren deportibizazioan izan zuen bere baliokidea” (Elias eta Dunning, 1992, 48 or.): legebiltzarrak eta kirolak botere egiturari aldaketa bera erakutsi zuten.

Aisialdiko kirolak zibilizazioaren prozesuan izan duen garapena aztertu zuten Elias eta Dunning soziologoek bulkada afektibo eta emozionalan jartzeko dute arreta, bortizkeria fisikoak gizarte desberdinetan izan duen onarpen maila aztertuz. Adibidez, Antzinateko Olinpiadetan boxeoan baimenduta zegoen bortizkeria maila gaur egun boxeoan baimenduta dagoena baino altuagoa zen, bulkadak maila gorenean erakustea onartua zegoen. Indar fisikoaren ondorioz aurkariak hilda bukatzen bazuen ere, “guda etikarekin boxeo borroka olinpikoan hildako gaztea edo gizona bere klan eta hiriaren osperako koroatua izaten zen” (Elias eta Dunning, 1992, 171 or.). Gaur bulkadak eta bereziki bulkada bortitzak kontrolatzeko lanak sortzen dituen tentsioak bideratzeko “aisialdi jarduera anitzak ikus daitezke, horietako bat kirola da”, (Elias eta Dunning, 1992, 56 or.) eta estatu antolatua aurreratuek bortizkeri fisikoa desagertu dadin ezartzen dituzten mekanismoak kirolean ere islatzen dira: bizitzaren zeregin serioetan azeleratu ezin daitezkeen emozioak dauden arren “futbol partidu batean ikusleek zelai jokoan gauzatzen den bataila mimetikoa-ren⁶ emozioa dastatu dezakete” (Elias eta Dunning, 1992, 58 or.).

⁶ Mimetismo hitzak ez du soilik imitazioa adierazten, kirol lehiaren ezaugarri mimetikoa honela azaldu daiteke: “borroka fisiko errealekin lotzen diren esperientzia emozionalaren ezaugarri batzuk kirol baten borroka imitatuak sortzen duen esperientzia emozionalen sartzen dira” (Elias eta Dunning, 1992, 65).

Kirolak praktikatzerakoan Eliasek eta Dunningek bete beharreko baldintzen eboluzioa giza kodeekin alderatzerakoan, zalantzarik gabe, kirola bakarrik ez, jarduera ludikoak oro har, isolatuak egongo balira bezala aztertzearen emaitza ahulak ikus arazten dizkigute. Beraien lanaren ildoak aintzat hartuz eta Marcel Maussen gorputz teknika nozioa gogoratuz Parlebasek jarduera ludiko motorren unibertsoa antolatzeke beraien berezko logika aztertzeke tresnak garatu eta azaltzen ditu. Parlebasek antzinako autoreen ekarpenei beste bira bat ematen die eta, inoiz ez bezala, ikertzaileei unibertso motorra ulertzeke ikuspuntu anatomiko eta fisiologikotik kanpo ikertzeke bidea zabaltzen digu.

Ikuspuntu soziologiko batetik, gizarte batean, herri batean egiten diren jardunbide motorrak aztertzeke Parlebasek ikertzeke bidea zabaltzen du: kultura bateko balio nagusiak aldatzen direnean, honek, egiten diren jardunbide motorren barne egitura duen eragina azaltzen da. Gertaera honen azalpena etnomotrizitatearen ikuspuntutik baino ezin da egin.

Alde batetik, herrialde baten baldintza politiko eta sozio ekonomikoak kontuan hartuz, eta bestetik jardunbide motorren arau ludikoak aztertuz, etnomotrizitateak jokalariek egiten dituzten aukera praxikoak eta hartzen dituzten estrategia motorrak arakatzeko aukera ematen du.

Eremu kulturala eta politikoa kontuan hartzerakoan, "Etnomotrizitate kontzeptuak akzio motor⁷ beraren sustrai historiko eta sozialarekin erlazionatzen du" (Parlebas, 2001, 231 or.).

1.2. Egoera motorren ikuspuntu pertinentea

Ikerketa Praxiologia motorren teoriaran oinarritzen da, "akzio motorren zientzia eta bereziki bere baldintzak, funtzionatzeko erak eta bere garapeneren emaitzak" izanik (Parlebas, 2001, 354 or.). Bere helburua jarduera motorretan adierazten den akzio motorra aztertzea da, akzio motorra "egoera motor batean aritzen den pertsona baten edo batzuen jokabide motorren egitearen prozesua" izanik (Parlebas, 2001, 41 or.). Arreta, alde batetik, egiten duten jarduleetan jarriz, eta bestetik, akzioaren fenomenoan. Lehenengoak, jarduera motorretan adierazten den akzio motorrak gauzatzen dituen jokabide motorrak hartzen ditu kontuan, eta bigarrenak, jarduera motorren barne egitura. Praxiologia motorrak bereak egiten dituen akzio motorren bi ikuspuntu hauek osagarriak dira. Horrela, jarduera motor batean parte hartzen duenaren ekimenak jarduera motor horren barne egiturak jartzen dituen muga objektiboekin koordinatu ezean, ezin izango dira adierazi. Barne logika, "egoera motor bati eta dagokion akzio motorra egiteak dakartzan ondorioei dagozkien ñabardura sistema" delarik (Parlebas, 2001, 302 or.).

Lehenengo eta behin, jarduera motor bakoitzaren barne logikaren ezaugarriak aztertzen dira: espazioa, harremanak eta komunikazio erak, denbora

eta objektuen zentzua eta erabilerari dagozkien esanahiak aztertuz. Era honetan, ikuspuntu zabalago batetik, akzio motorren, zehatzagoa den beste batera, jokabide motorren, jautzia egin dezakegu: jarduera motorretan parte hartzerakoan jarduera horien barne logikak garatzen dituen jokabide motorren ezaugarrietatik azaleratzen den adimena eta afektibitate motorra zedarriz.

Adimen motorra kontzeptua, "motrizitateari esker garatzen den adimena, akzio motorra antolatzeke printzipioen iturri bat izan daitekeela azpimarratzen saiatzen da" (Parlebas, 2001, 265 or.). Barne logikaren ezaugarrien arabera, parte hartzaileak eraikitzen dituen jokabide motorrak espazioarekin, besteekin, denborarekin eta objektuarekin ezartzen dituen harremanetan gaitasun semiotor⁸ erabiltzeko behararen arabera desberdinak izango dira. Parte hartzaileak semiotrizatzen ikasten du, hau da, "parte hartzen duen pertsonak, aintzat hartzen diren kode batzuen arabera, beraien jokabide motorrak antolatzeke baldintzak sortzea" (Parlebas, 2001, 419 or.). Kodea, "parte hartzen dutenek ekoiztu eta interpretatutako zeinuen sistema eta beraien konbinazioak" bezala definitzen da (Parlebas, 2001, 72 or.). Kodeen dekodifikazio semiotorrek parte hartzailearengan adimen motor bat sustatzen du.

Jokabide motorrak "portaera motorren antolamendu esanguratsua" (Parlebas, 2001, 80 or.), beha daiteke portaera eta behatutakoaren esanahia hartzen ditu kontuan. Ikuspuntu bikoitz baten aurrean gaude, zuzenean behatu daitekeena (portaera motorra) eta behatutakoaren esanahiaren (bizipen pertsonala) ikuspuntuak. Horrek leku ezin hobea ematen dio jokabide motorra kontzeptuari gorputz hezkuntzari dagokionez. Kognitibo, afektibo eta harreman mailan, seriotasun osoaz, azterketak ahalbidetzen duen kontzeptu hau helburu motorrak dituzten gorputz jardunbide guztien osagai komuna da. Garaia eta lekua edozein izanik ere, gorputz hezkuntzan egiten diren jarduerak guztiek parte hartzaileen jokabide motorretan eragina izaten dute. Hona hemen gorputz hezkuntzaren gakoak, jokabide motorren pedagogia bezala ulertu behar duguna (Parlebas, 2001, 172 or.).

Jokabide motorra gizartearen barrenean kokatuta dago eta ikasleak gizarte horrek dituen balioak bereganatzen ditu. Horrela, jardunbide motorrak eta kulturaren arteko lotura bat egiten da. Beraz, ikerketa ikuskera honek, behatzen den gorputz hezkuntzan gauzatzen diren gizartearen kultur ezaugarriak aztertzea eta hauek jarduera motorrekin duten lotura mugatzea eskatzen du. Horretarako, gaurko kultura motorren xehetasun etnomotorrak aztertu behar dira.

Etnomotrizitatea "jardunbide motorren eremua eta izaera, garatu diren kultura eta inguru sozialarekin duten harremanaren ikuspuntutik aztertuta" da (Parlebas, 2001, 227 or.). Ildo honetatik, kultura barneko azterketa ezinbestekoa egiten da, behatutako gorputz hezkuntzan agertutako aktoreen azterketa eta jarduerak gauzatzen diren kulturaren ezaugarrien azterketa eginez. Era honetan, dagokion gizarteak jardunbide motorrei ematen dien esan-

⁷ Akzio motorra: "egoera motor batean aritzen den pertsona baten edo batzuen jokabide motorren egitearen prozesua" da (Parlebas, 2001, 41)

⁸ Parte hartzaileen jokabide motorrekin lotutako zeinuen sistematik hartzen diren egoera motorrak.

nahian jartzen da arreta. “Beste era batera esanda, esanahi berriak egotzen dion kanpo logikarengatik jardunbide motor baten barne logika kanpotik interpretatu daiteke” (Parlebas, 2001, 307 or.). Honek, kanpo logikari dagozkion osagaien azterketa eta, bestetik, proposatu diren jarduera motorrei dagozkien barne logikaren azterketa egitea eskatzen du. Gero, azterketa esanguratsua gerta dadin, kanpo eta barne logikaren arteko uztarketa egiteko.

Gorputz hezkuntza esku hartze bat izanik aukeratzen diren jardunbide motorek eragina izango dute ikasleen gizarteratzean: jardueren arauak ikasleen jokabide motorrak (portaera eta bizipena) bideratuz eta irakasleak eskolak gidatuz.

1.2.1. Akzio motorren domeinuen ezaugarri bereizgarriak

Guztiarekin, akzio motorrean zientziaren paradigmaren ildo nagusiak azaldu dira. Ildo nagusi horien gakoak ziurgabetasun kontzeptua da, “informazio dimentsioak lehen mailako garrantzia hartzen duelako” (Parlebas, 2001, 58 or.) ziurgabetasun kontzeptua izanik. “Egoera motorren hainbat osagai lotutako ustekabe maila” bezala definitzen den ziurgabetasun kontzeptutik (Parlebas, 2001, 248 or.) abiatuz, kirol joko-jolasen sailkapena proposatzera koan akzio motorren domeinuak zabaltzen dira. Eta domeinuak taldekatzeko irizpidea “edozein egoera motorra ekiten duen gizabanakoa, inguru fisikoa eta beste parte hartzaileen arteko elkarrekintza sistema osoa bezala ulertzean datza” (Parlebas, 2001, 58 or.).

Ikuspuntu honetatik Parlebasek (2001) proposatzen duen kirol joko-jolasen sailkapena “eraikuntza zientifikaren garrantzi handiko une epistemologikoa da” (Parlebas, 2001, 56 or.), irizpide anatomiko fisiologikoetatik banaka aritzen den parte hartzailea aztertzea zaharkitua geratzen delarik.

1.2.2. Etnomotrizitatea egiteko domeinu motorrak


Horrela, ingurune fisikoarekiko ziurgabetasuna, sailkapenaren hiru irizpideetatik bat da. Beste irizpideak besteekiko elkarrekintza motorrari dagozkie, berezko elkarrekintza motorra egoera soziomotorren ezaugarri eta baldintza da, komunikazioa (elkarlana) edota kontra-komunikazioa (aurkaritza, oposizioa) bereziz. Eta berezko elkarrekintza motorrak ematen ez direnean, egoera psikomotorra da.

Taula 1: Akzio motorren domeinuak bereizteko irizpideak.

Ziurgabetasun egoerak	
Ziurgabetasun eza	Inguru fisikoarekiko Besteekiko (Egoera psikomotorrak)
Ziurgabetasuna	Inguru fisikoarekiko Besteekiko (egoera soziomotorrak)

Kirol joko-jolasetan parte hartzailea, inguru fisikoa eta beste parte hartzaileekin ezartzen diren elkarrekintzen arabera dekodifikazio semiotorraz baliatu beharko da, beti ziurgabetasunaren agerpenaren edo gabeziaren arabera. Egoera motorren multzoaren S^3 simplexaren bitartez Parlebasek (2001, 62 or.) hiru irizpidez osatutako KAZ⁹ domeinuak bereiztu zituen.

Espazioarekiko ziurgabetasuna, kidea eta arerioa kontutan izanik, KAZ zortzi kategoria bereizten dira. Bi horietatik egoera psikomotorrei dagozkie eta beste seiak egoera soziomotorrei.



Irudia 1: Egoera motorren multzoaren S^3 simplex-ean sailkapena. Hexaedroaren erpin bakoitzeko K-Z-A osagaien konbinaketak domeinu motor bar eraikitzen da. Domeinu bakoitzeko osagaien azpian marra izateak osagaiaren agerrera adieraziz eta alderantziz. Z: inguru fisikoa; K: kideak; A: arerioak.

Irudiak ingurune fisikoarekiko ziurgabetasunak eta besteekin komunikazio eta kontra-komunikazio elkarrekintzekiko ziurgabetasunak (inguru sozialarekiko ziurgabetasuna) hiru aldagaien konbinaketaren ondorioz egoera motorren sailkapena adierazten du. Aldagai bakoitzaren agerpenaz edo gabeziak egoera psikomotorretan eta soziomotorretan zortzi egoera motorrak banatzen dira. Horietako lau espazioarekiko ziurgabetasunean murgilduko dira eta beste laurak espazioa apenas deskodifikatu behar den inguruneetan:

1.2.2.1. Domeinuen sailkapenean egoera psikomotorrak eta beraiek sustatzen dituzten harremanak

1.- KAZ: Inguru fisikoarekiko eta sozialarekiko ziurgabetasun barik. Ingurune fisiko egonkor batean parte hartzailea bakarrik ari da. Errepikapenean oinarritutako jardunbidea bideratu daiteke, “eraginkortasun motorrengatik arduratuta, jardunbideak estereotipo motorrerantz doan joera izango

⁹ KAZak akzio motorren domeinuak bereizteko kategoriak banantzen ditu, non K= kooperazioa; A= aurkaria (oposizioa) eta Z= ziurgabetasuna da. Letra bakoitzaren azpian marra agertzeak irizpide baten gabezia adierazten du. Adibidez, KAZ kategoriak inguru fisikoarekiko ziurgabetasun eza eta kidearekiko kohesioan aurkaria ez dagoela aritzeak adierazten du.

du” (Parlebas, 2001, 61 or.): halterofilia, kirol gimnasia modalitateak, oreka barrak, barra asimetrikoak, atletismoko xabalina edo disko jaurtiketak, baina, baita ere malabareak edo ziba kategoria honen adibideak dira.

2.- KAZ: Ingurune sozialarekiko ziurgabetasunik ez dago, baina, inguru fisikoak ez usteak aurkeztu ditzake. Parte hartzailea inguru fisikoak bidaltzen dituen zeinuen dekodifikazio lanaz baliatu behar da: urpekaritza, parakaidismoa edo mendi trekkinga bakardadearen adibide batzuk dira.

Egoera psikomotorra, “berezko elkarrekintza motorrak¹⁰ ematen ez diren jardunbideen multzoa da” (Parlebas, 2001, 371 or.). Parte hartzaileak ez ditu bestearen zeinuak irakurri behar. Jarduera motorra burutzeko, ingurune sozialarekiko ziurgabetasun eza dago. Jarduleak berak bakarrik, ekintza burutuko du eta bere akzio motorretan eragin motorra izango duen beste akzio motorrik ez dago, elkarrekintza motorra hutsa da.

Malabareak praktikatzan dituen neska edo mutil bat irakaslearen kontsigna teknikoak entzun ondoren, keinua errepikatzen ariko da, pilotak lurrera jausi ez daitezzen, keinu egokia lortu arte. Era berean, 100 metroko abiadura lasterketan, beste kaleetan dauden atleten eragin afektiboa aintzat hartzen bada ere, lehiakide bakoitzak entrenamenduetan eraikitako programa praxikoa baino ez du gauzatuko. Ez dago ustekaberako lekurik.

Adimen psikomotorra, “jarduera psikomotorren garapenean akzioan dagoen gizabanakoak ezartzen duen irudikatze eta erabakitzeko gaitasun kognitiboa” bezala definitzen da (Parlebas, 2001, 265 or.). Komunikazio praxikoa ematen ez den jardueretan nekez gauzatuko da deszentrazioa. Jarduera psikomotorretan, jokalaria ez du jokaldia bestearen ikuspuntutik ikusteko ez beharrik ez aukerarik. Jarduera psikomotorretan gizabanako parte hartzailea da zeinuak jasotzen dituen bakarra, aukeren eta erabaki motorren abiapuntua parte hartzailea bera izanik. Informazio propiozeptiboan oinarrituta, keinua errepikatuko du estereotipo motorra lortu arte. Zesta jardunbidearen adibidean jokalaria, errepikapenaren ondorioz, programa praxiko bat garatzen du. Erabaki motorrak, berak jaurti duen pilotak hartzen duen norabidearen arabera hartzen ditu. Jokalaria, zestatik ateratzen duen pilotak horma jo behar duen gunean jotzen ez badu, hurrengo saiakeran besoaren ibilbidea, indarra, besoa gelditzeko uneri buruzko erabakiak hartu behar ditu. Horrela, jaso duen informazio propiozeptiboaren arabera bere hurrengo saiakeran akzio motorra birprogramatuko du estereotipo motorra eraiki arte.

Neskek eta mutilek, estereotipo motorrak eraikitzean jartzen dute arreta. Elkarrekintza motorrak ematen ez diren jarduera psikomotorrek giza onuraren garrantzia sustatzen dute. Esfortzuen ondorioz, ekin eta ekinez, itxaroten diren emaitzak lor daitezkeela ikasten da. Lana eta bere ondorioaren arteko

loturak neska eta mutilengan duen eragin afektiboa ezin da ukatu. Lorpenak neskaren eta mutilaren auto estimua igotzeko lagungarriak dira eta jarduera psikomotorrak gizabanako bakoitzak egindako ahaleginaren ondorioz, egin dezakeenaz ohartzeko aukera ezin hobeagoa dira.

1.2.2.2. Domeinuen sailkapenean egoera sozomotorrak eta beraiek sustatzen dituzten harremanak

- 3.- KAZ: parte hartzailea espazio egonkor batean kidearekin elkarrekintzan ziurgabetasuna ezabatzeko jarduten da. Kategoria honetan, “jokabide motorrek estereotipo motorrerantz jotzen dute” (Parlebas, 2001, 63 or.): Irristaketa artistikoa bikoteka edo akrosport adibide batzuk dira. Hauetan kideen arteko keinuen koordinazio estereotipo sozomotorra bilatzen da, baina soka-saltoa jolas tradizionala ere kategoria honen adibidea da.
- 4.- KAZ: ustekabeko inguru fisikoari kideen arteko elkarlanean aurre hartzen zaio. Kategoria honetako kirol joko-jolasak espazio natural batean praktikatzen direnez, parte hartzaileek ez dute keinuen estereotipoa eraikitzeo aukerarik eta kideen arteko gardentasuna bilatzen da: eskalada kordadan, rafting edo mendi irteerak taldean kategoria honen adibideak dira.
- 5.- KAZ: Aurkarien arteko elkarrekintza da, inguru fisikoarekiko ziurgabetasun ezean parte hartzailea elkarrekintza antagonikoen bitartez aurkariari aurre hartzen saiatzen da. Aurkariaren portaeraren dekodifikazio semiotorrek garrantzi handia hartzen du: borroka kirolak (boxeo, judoa edo karatea) edo tenisa adibideak dira.
- 6.- KAZ: Aurkarien arteko konfrontazioa inguru fisiko ez egonkorrean ematen da. Kategoria honetan ziurgabetasun iturria diren bi aldagaiak agertzen dira: banakako belaontzia txapelketak edo windsurfa adibideak dira.
- 7.- KAZ: Inguru fisiko egonkorrean parte hartzaileak kideekin eta aurkariekin duen elkarrekintzan, inguru sozialaren dekodifikazio eskakizuna handia da. Dinamika honen adibide argienak taldeko kirolak dira: saskibaloia, esku-baloia, eskupilota binaka, baina baita ere, zelai errea edo zapia jokoak.
- 8.- KAZ: Parte hartzaileen arteko elkarrekintza antagonikoak eta elkarlanekoak inguru fisiko ez egonkorrean ematen dira, inguru fisiko eta soziala ziurgabetasunez beteta daude: pista jokoak edo belaontzi txapelketak tripulazioarekin adibideak dira.

Egoera sozomotorra, “ezinbesteko elkarrekintza motorrak (edo komunikazio praxikoak) gauzatzea eskatzen duen egoera motorra da” (Parlebas, 2001, 427 or.). Komunikazio praxiko zuzenaz edo ez zuzenaz hitz egin daiteke. Komunikazio praxiko zuzenak edo elkarrekintza motorra zuzenak jarduera motorren arauak mugatuta “... parte hartzaileen arteko oposiziozko edota kooperaziozko harremanen ezaugarri teknikoak definitzen ditu” (Parlebas, 2001, 271 or.). Bestetik, komunikazio praxiko ez zuzenak edo elkarrekintza motorra ez zuzenak komunikazio praxiko zuzena eman dadin baldintzak osatzen baditu ere, ez

¹⁰ Berezko elkarrekintza motorrak parte hartzaileen arteko oposiziozko edota elkarlaneko harremanen ezaugarri teknikoak definitzen ditu.

dago jokoaren kodeen barruan. Gestema eta praxemak elkarrekintza ez zuzenaren adibideak dira. Gestemak parte hartzaileak jardura motorrean egiten dituen galdera bat transmititzeko keinuak eta jarrerak dira, adibidez, beso bat altxatu eta mugitu taldekide bati pilota eskatzeko gestema bat da, ahozko komunikazioa erabili beharrean gorputz komunikazioa erabiltzen da. Jokalari batek egiten duen gorputz zeinua eta honen esanahi taktikoaren artean egiten den loturak praxema bat osatzen du. Adibidez, “eskubaloian aurrelari baten oldarra albo baterantz hastean beha daitezkeen gorputzaren norabidea, ibilbidea edota azelerazio zakarra zeinu baten adierazleak dira, eta pilota daraman taldekideak pase eskaera esanahiarekin interpretatuko du” (Parlebas, 2001, 349 or.). Esan bezala, portaera motorren adierazleak esanahiarekin lotzerakoan praxema osatzen da. Adibidearekin jarraituz, praxema jokalaria batek pilota eskaera adierazteko egiten dituen sekuentzi motorrak dira.

Komunikazio praxiko zuzenak parte hartzaileen arteko oposiziozko edota kooperaziozko harreman motorrak definitzen ditu. Oposiziozko harreman motorrak izendatzeko kontra-komunikazio motorra kontzeptua “oposiziozko, berezko eta elkarrekintza motorra zuzena” bezala definitzen da (Parlebas, 2001, 99 or.). Kooperaziozko harreman motorrak izendatzeko komunikazio motorra kontzeptua “kooperaziozko, berezko eta elkarrekintza motorra zuzena” bezala definitzen da (Parlebas, 2001, 81 or.). kontra-komunikazio motorra jokalaria batek edo batzuek aurkariak egiten dituen akzioak zuzenean geldiarazteko erabiltzen dute. Jokalari batek bere taldekide bati egiten dion pasea aurkariak hartzen duenean edo harrapatzera jolasean rol aldaketa ematen denean harrapatzaileak jokalaria libre bat harrapatu duelako, kontra-komunikazio motorraren adibideak dira. Komunikazio motorra jokalaria batek edo batzuek zuzenean taldekide batek egiten dituen akzioen alde egiteko erabiltzen da. Lapurrak eta poliziak jokoan, kartzelan dagoen jokalaria bat askatzen denean edo taldekide bati eskubaloian egiten den pasea komunikazio motorraren adibideak dira. Eta “aldi berean komunikazio eta kontra-komunikazio motorrak eskatzen diren egoeretan” (Parlebas, 2001, 84 or.) parte hartzaileek, kideekin kooperazioan, aurkariari oposizio egiten diote, kooperazio-oposizio elkarrekintzak gauzatuz. Adibidez, boleibola bezalako talde kirolean, kideen arteko kooperaziozko elkarrekintzak gauzatzen dituzte baloia kolokatzekoan eta oposiziozkoak errematatzerakoan.

Jardura motorren azterketa egiterakoan, kontra-komunikazio eta komunikazio motorrak elkar osagarriak dira. Horrela, komunikazio motorren sarea eraikitzeke aukera ematen dute. Komunikazio motorren sarea “erpinak jokalaria adierazten dituzten eta arkuek arauak baimentzen dituzten komunikazio edota kontra-komunikazio motorrak adierazten dituzten kirol joko baten grafoa da” (Parlebas, 2001, 387 or.). Termino matematikoa den grafoa egoera motorrak aztertzeke ezin tresna hobea da eta ematen diren aldaketak eta jokoaren dinamika azaltzeke erabil daitezke. Horrela, egiten diren baloi paseak, edota ematen diren rol aldaketak grafoan jaso daitezke. Honekin batera, komunikazio motorren sarearen ezaugarriak definitzeko aukera zabaltzen da. Oinarrian,

komunikazio motorren sarea izan daiteke eskusiboa edo anibalentea eta egonkorra edo ez egonkorra. Sare eskusiboa “bi jokalaria, aldi berean lankideak eta aurkariak ezin direnean izan” bezala definitzen da (Lagardera eta Lavega, 2003, 147 or.) Jardura motor hauetan, parte hartzaileak badakite nortzuk diren lankideak eta nortzuk aurkariak. Soka saltoan edo zelai erre eta boleibola sare eskusiboak bezala definitzen dira. Aipatutako adibide hauetan, parte hartzaileen arteko kooperaziozko edo oposiziozko harremanak gauzatuko dira eta inoiz ez biak aldi berean. Sare anibalentea “edozein jokalaria lankide edota aurkari bezala ekin dezakeenean” bezala definitzen da (Lagardera eta Lavega, 2003, 148 or.). Pilota eserita sare anibalentearen adibidea da. Sare eskusiboak eta anibalenteak definitzen duten ezaugarria jardura motorra hasi eta amaitu arte mantentzen bada egonkorak direla esaten da. Horrela, sare eskusiboa egonkorra izango da baldin eta ezarrita dauden kontra-komunikazio eta komunikazio harremanak aldi berean bi jokalaria ez badituzte gauzatzen eta jardura hastera-koan eta amaitu arte lankideak eta aurkariak berdina badira. Errugbia edo zelai erre dira sare eskusibo egonkorren adibideak. Bestetik, sare anibalentea egonkorra izango da baldin eta anibalentzi hura jardura burutzen den bitartean eta amaitu arte jokalaria berdinen artean ematen bada. Joko paradoxikoak dira sare anibalente egonkorren adibideak, paradoxa aurkaria dudana ez erasotzean datza, horrela, eraso behar nautenak desagertzeko aukera handia dago. Azeriak, oiloak eta sugeak¹¹ joko sare anibalente egonkorren adibide bat da. Eta, “aurkariak eta lankideak ondo bereizten dituzten jarduerak baina, amaitu orduko komunikazio eta kontra-komunikazio harremanak aldatzen direnean” bezala sare eskusibo ez egonkorak definitzen dira (Lagardera eta Lavega, 2003, 158 or.). Sare anibalente ez egonkorretan parte hartzaileen borondatearen arabera gauzatzen dira harreman motorrak. Jardura motorra praktikatzeko den bitartean, aurkaria dena lankidean bihurtzen da eta hurrengo minutuan berriro etsaian. Ezer ez dago lotuta eta elkartasuna eta traizioa jardura motorraren ezaugarri konstanteak dira. Lau izkinak edo pilota eserita¹² adibideak dira.

Jardura motor batean parte hartzaileen artean gauzatzen den komunikazio praxikoaren arabera, oposiziozko, kooperaziozko edo oposizio/koopera-

¹¹ Hiru talde egingo dira, azeriak, oiloak eta sugeak, eta denon artean jolas eremu bat mugatuko da. Eremu horretan talde bakoitzak etxea non duen erabakiko du. Taldekideak ezberdintzeko, koloretako zapiak erabil daitezke. Jolas eremu hori errespetatuz, talde bakoitzak beste talde bateko jokalaria harrapatu beharko ditu: Azeriek oiloak harrapatu behar dituzte, eta azerien etxera eramana. Bertan atxilotuta geratuko dira. Oiloek sugeak harrapatu behar dituzte, eta oiloen etxera atxilotuta eramana. Sugeek azeriak harrapatuko dituzte, eta beraien etxera eramana. Atxilotuta daudenak askatzeko, atxilotuta dauden tokira sartu beharko du bere kideren batek. (Urtxintxa, 2010)

¹² Pilota eserita: Jokalaria espaziotik sakabanatuta daude. Baloiaren lekuan geldik jaurtiketa egiten du jokalaria bat baloiarekin jotzeko. Baloi lurrean jaurtiketa jokalaria jotzen bada hau esertzen da. Eserita dagoenak berriro zutuntzeko baloia ukitzea lortu behar du. Lortuz gero, jolasten jarraitu dezake. Baina, baloia hartzen bada zutundu aurretik eserita dagoen beste jokalaria bati pasatu ahal dio baloia. Era honetan, biek jolasten jarraituko dute. Zutunik dagoenak ezin dio eserita dagoen bati pasea egin. Joko-jolas honetan bakoitzak ikusten du norekin egiten eta apurtzen dituen aliantzak.

ziozko harremanak bereizten dira. Gauzatzen den jarduera motorra hasi eta bukatu arte ematen diren elkarrekintza motorrek harreman mota desberdinak sustatzen dituzte. Banako esku pilotan, soilik oposiziozko harreman motorra ematen da; bikoteka egiten den eskaladan, soilik kooperaziozko harremana; eta boleibolean oposizio/kooperaziozkoa.

Aipatutako adibide hauek egoera soziomotorrak dira. Ematen den elkarrekintza motorraren arabera, “besteen jokabideetatik datorren ziurgabetasunak” (Parlebas, 2001, 428 or.) eta inguru fisikotik etorri daitekeenak izaera desberdina dute. Ingurune sozialarekiko deskodifikazio lanaren beharra areagotu edo desagertu egin daiteke. Egoera motor baten “zenbait osagairekin lotuta dagoen aurreikuspen-gabezia maila” (Parlebas, 2001, 248 or.) gisa definitzen den ziurgabetasuna besteen portaerekin lotuta datorrenean, besteen jarrera, aukera eta erabakiak irakurtzea ezinbestekoa egiten da. Parte hartzaileen arteko oposiziozko harremanetan besteak bidaltzen dituen zeinuen deskodifikazioaren beharra areagotzen da. Parte hartzailea aurkariaren jokabide motorrei aurre hartzen jarduten da. Jarduera motorren izaera semiotrizitatea da, eta hemen “parte hartzaileen jokabide motorrekin zuzenean lotutako zeinuen sistemak” (Parlebas, 2001, 406 or.) etengabe deskodifikatzen dira. Zeinu bakoitzari esanahi bat ematen zaio eta horren arabera, jokalaria bere erabaki motorrak eta estrategia motorrak eraikitzen ditu. Era berean, kooperazio-oposizio harremanetan jokalaria beraien “portaerak eragindako ziurgabetasuna” (Parlebas, 2001, 252 or.) aurkariaren aurrean handitzen saiatzen dira eta taldeko kideen aurrean hutseratzen. Talde kirol joko-jolasetan (boleibolean, zelai errean) semiotrizitateak keinu korapilatsuak erabiltzen ditu, komunikazio eta kontra-komunikazio motorrak gurutzatzen direlako. Aurkariaren aurrean aurreikuspen-gabezia maila areagotzen den neurrian taldekideen aurrean ezabatu egiten da. Azkenean, kooperaziozko elkarrekintzak ematen diren jardueretan komunikazio praxikoa garden bihurtzen denez, egin behar semiotrizita desagertzen da. Inguru sozialarekiko ziurgabetasuna maila gorenean badago oposiziozko eta kooperazio-oposiziozko harremanetan, kooperaziozko harremanetan ia desagertu egiten da. Besteekiko ziurgabetasunaren arabera, funtzio semiotrizita areagotu edo hutseratu egiten da.

Oposiziozko eta kooperazio-oposiziozko jarduera motorretan parte hartzaileek etengabe erabaki motorrak hartu behar dituzte. Besteak egiten dituen akzio motorren arabera erabakitzen da. Honek, “bestearen lekuan ipintzen saiatzean, akzioan dagoen pertsonak bestearen ikuspuntua hartzen duen prozesua” (Parlebas, 2001, 146 or.) bezala definitzen den deszentrazio motorraz baliatzea eskatzen du. Eta prozesua berak, “elkarrekintzan aritzen den giza banako bat beste parte hartzaile baten ikuspuntua ulertzen saiatu eta beraren akzioa erabakiaren jokabide motorrak gauzatzeko kontuan hartzen duenaren prozesua” (Parlebas, 2001, 188 or.) bezala definitzen den enpatia motorra kontzeptua dakar.

Berezko elkarrekintza motorrean aritzen diren parte hartzaileek besteak azaltzen dituzten zeinuen irakurketa eta interpretazioa egin behar dute. Gero, egitza deskodifikazio motorraren ondorioz, erabaki motorra hartzeko eta erabakia jokabide motorretan gauzatzeko. Erabaki motorra “egoera baten ziurgabetasu-

nari lotuta, jokabide motorra egiterakoan adierazten den aukera da. Erabaki honek akzioaren fluxu beran, portaera motorrean islatzen dela originaltasuna du, eta ekintza motor baten ebazpena egiterakoan lekuan bertan hartzen du parte” (Parlebas, 2001, 101 or.) bezala definitzen den erabaki motorra oposiziozko eta oposizio/kooperaziozko harremanetan gauzatzen da. Emaizta arrakastatsua izan dadin eta porrota ekiditeko, parte hartzaileak erabaki eraginkorrena hartzeko, deszentrazio motorraz baliatu behar dira. Honek dakarren enpatia sustatuz.

Gakoa bestari aurre hartzean datza. Aurre hartze motorra “baldintza hobereenetan ekiteko prestatzeko asmoarekin, espazioan eta denboran esku-hartzearen garapenean, egoeraren ahalezko eboluzioa aktiboki kontuan hartzen duen jokalaria baten jokabide motorra da” (Parlebas, 2001, 48 or.). Zelai errean, besteak egingo dituzten portaera motorrei aurreratu behar da. Horrela, baloia duen aurkari batek adierazten duen praxemari aurre hartzen bazaio erreta ez izateko aukera bat egongo da.

Jokalaria “egoera motor zehatz batek proposatutako ekintza ebazteko xedearekin, lekuan bertan banako edo taldeko plan baten ezarpena” (Parlebas, 2001, 215 or.) den estrategia motorra eraikitzen du. Baina estrategiaz hitz egiten denean, definizioan azaltzen den bezala, jarduera motorrean parte hartzen den bitartean eraikitzen den estrategiaz ari da. Eta ez alde aurretik, adibidez partidua hasi aurretik edo entrenamendu saioetan, aukera teorikoetan oinarrituz, eraikitzen den estrategiaz.

Egoera soziomotorretan gauzatu behar diren akzioak elkarrekintzan oinarritzen dira. Jokalariaren artean ematen diren elkarrekintza motorrak ezinbestekoak dira, egoera soziomotorren baldintzak dira. Zelai errea, esku pilota edo harrapatzera jarduera motorrak komunikazio barik ezin dira burutu. Neska eta mutilen nortasuna egoera soziomotorretan sustatzen diren berezko elkarrekintza motorren arabera eraikitzen da.

Horrela, kontra-komunikazio motorrak neskari eta mutilari oso konplexuak diren ahalezko kalkulak egitea eskatzen zaie. Arrakasta lortzeko, oposiziozko harreman honetan ematen den enpatia soziomotorrak bestari aurre hartzeko aukera ematen du. Neskek eta mutilek deskodifikazio semiotorrek eskatzen duen prozesu kognitiboen ondorioz, ingurune sozial horrekiko ziurgabetasunean, porrota ekiditeko estrategia motorrak eraikiko dituzte. Ingurune sozialak oposiziozko harreman motorrean, bestea, aurkaria etengabe irakurtzea eskatzen du.

Era berean, komunikazio motorrak, “ikuspuntu sozioafektibotik... taldearen kohesioan eragin nabarmen bat izan daiteke” (Parlebas, 2001, 271 or.). Mendira taldean egiten den zeharkaldian sustatzen diren kooperaziozko harremanek taldean elkartasun sentimendua sorrarazten dute. “Zeharkaldian parte hartzaile bakoitzaren portaera motorra ez da ulergarria taldetik kanpo... aurretik zihoan gidak talde guztiarentzako egokia zen erritmoa jartzen zuen” (Oiarbide, 2009a, 167 or.).

Bestetik, oposizio/kooperaziozko harremanak ematen diren jardueren taldekideen arteko elkartasuna bultzatzeaz gain, neskak eta mutilek aurkariaren

aurrean taldean aritzeak duen garrantziaz jabetzen dira. Kirol modernoan harreman eksklusiboetan, arrakasta lortzeko abilezi semiotorrak aski ezaguna den aurkari aurre hartzean prozesu kognitibo konplexuaz baliatzea eskatzen du.

Baina, egoera soziala guztiz aldentzen da parte hartzaileen arteko harreman anibalenteetan. Hainbat joko eta jolas paradoxikoetan, parte hartzaileak adierazten dituen zeinuen esanahiaren kontrako portaera motorrak burutzen ditu. Mundu errealairean harreman anbiguen hastapenerako, lau izkina edo pilota eserita jarduerak ezin aukera hobeago ematen dute. Giza harreman zital eta maltzuraren islak direnak. Parte hartzaileen arteko harreman anibalentea ezaugarria betetzen dituzten jarduerak motorrek ondorio ludiko maltzurra dute. “Boudonek egin duen ondorio maltzuraren azterketak jokalaria asmoa, erabakia eta autonomia gaitasunekin hornitu beharra dagoela baieztatzen du” (Parlebas, 2001, 177 or.). Kanpoko talde indarren egile soil bat izan beharrean, norberak bere erabakiak hartzea eskatzen dituzten jarduerak motorrak dira. Lau izkinan¹³, jokalarien arteko ematen diren erpin trukeak jokalaria bakoitzaren menpe daude. Bakoitzak erabakitzen du erakusten duen asmoa eta egingo duena bat etorriko diren, araukiko orden zehatz bati jarraitzerik ez dagoela autonomia osoarekin erabakitzen du.

Jarduera sozomotorren interes pedagogikoa “kognitibo, adierazpen eta erabakien gaitasunak egoera sozomotorretan elkarrekintzan aritzen diren pertsonengatik ezarrita” (Parlebas, 2001, 266 or.) den adimen sozomotorra garatzen datza. Eta taldeko egoeretan, elkartasun sentimendua sortzearen garrantziak parte hartzaileen afektibitatean du eragina. Kirol joko-jolasek ezartzen dituzten komunikazio praktikek parte hartzaileen arteko zaharragoak diren harremanak ezabatu eta harreman berriak sustatu ditzakete, hau da, taldeen berrantolaketa afektiboa eragin dezakete (Parlebas, 2001, 391 or.). Era honetan, jarduera sozomotorren eremu soziodognitiboa eta sozioafektiboa aintzat hartzen dira.

Beraz, gorputz hezkuntzako saioak erabakitzerakoan, komunikazio sarean aberastasun pedagogikoa aintzat hartu beharko litzateke. Horrela, taldeko kirolen duelu egitura itxiek elkartasuna oposiziozko harremanen menpe kokatzen dute. Taldekideen artean, joko ondo lotzeko egiten diren paseek menpekotasuna sustatzen dute, jokalaria guztiek funtsezkoa irabaztea dela badakite. Neskek eta mutilek kirola praktikatzekoan, garrantzitsuena, parte hartzea baino, irabaztea dela barneratu dezakete. Errugbia, boleibola edota zelai erre bezalako talde kirolek eta jokoek abilezi maila handiagoa erakusten dutenekiko, menperatze harreman eragin dezakete. Bestetik, banako dueluetan eta ematen den elkarrekintza motorra soilik oposiziozkoa diren jarduerak motorretan, buruz buruko txapelketak dira. Ustez, baldintza berdinetan, norgehiagoka aritu behar da eta ez dago kooperazioa edota elkartasunerako lekurik. Sustatzen den harreman bakarra lehia da eta lehian, elkarrekintza antagonikoak baino ez dira eragiten eta ematen. Atenaseko jainkoei eskainitako joko olinpikoetan bezala, pugilak galdu ala irabazi arte ekin egiten zuen, hil ala bizi.

Baina, dueluen egituratik urruntzeko aukera ematen duten jarduerak motorrak ugari daude. Hauek ere, aintzat hartu beharko lirateke eta eragiten dituzten adimen eta afektibitate ezagutu. Horrela, pilota eserita bezalako jarduerak parte hartzailearengan sustatu dezaken ekimenak neska eta mutilen erabakia eta autonomia garatzeko ezin aukera hobeago ematen du.

Gizartean ematen diren harreman motak ondoren zehazten diren egitura sozialetan islatzen dira: Kooperazioa, bat denon kontra, denok denon kontra eta egoera paradoxikoen egitura sozialen interes pedagogikoa ekartzen da gogora.

Soka saltoan¹⁴ aritzen diren neskak eta mutilak sokari eragiterakoan saltoka dagoen erritmora egokitzen direnean kooperaziozko elkarrekintza motorra gauzatzen dute. Besteak (saltoka dagoenak) ondo egin dezan, laguntza eta babesa eskaintzea parte hartzailearen arduraren bihurtzen da.

Harrapatzera¹⁵ jolasean, harrapatzaileak estatus sozomotorren aldaketa ahalik eta arinen izan dadin, beste jokalaria guztien lasterketa egiteko abilezia neurtzen du, harrapakina nor izango den erabakitzeko. Harrapatzailea denon kontra aritzen da baina ez aldi berean. Harrapatzaile eta harrapakinaren arteko aurkaritza harreman sortzen da. Sare eksklusiboa den harrapatzera jolasean, harrapatzaileak aurkaria aukeratzen du eta, askotan, harrapatzaileak islatzen duen arriskuaren aurrean besteak arriskatzeko hartzen duten aukeraren arabera, harrapatzailearengandik ihes egin beharrean, gertu jarriko dira. Zezenetan bezala, parte hartzaileek zezena, harrapatzailea, zirikatzen dutenean.

Denok denon kontra egiturak sor dezakeen anibalentziak, esan bezala, ekimena eta autonomia sustatzen ditu. Lau izkina jardueran aurkari bat ondo bereizten bada ere eta beste guztiak laguntzat hartzen badira ere, une batetik bestera laguna dena aurkaria bihurtu daiteke, norberaren erabakian datza elkarrekintza motorren aldaketa.

Egoera paradoxikoaren adibidea den azeriak, oiloak eta sugeak jarduerak, parte hartzaileengan sustatzen diren anibalentzi harremanak eragiten ditu. Aurkaritza hartzen dena lankidean bihurtzen denean.

1.2.2.3. Espazio motorra

Jarduera motorrak praktikatzeko espazioetan gizakiak egiten dituen aldaketan arabera etxekotu eta basati espazioaz hitz egin daiteke. Horrela, etxekotu/basati dimentsioak “gizonak kirol praktika ludikoak¹⁶ gauzatzeko inguru fisikoan egiten duen kodifikazio eta aldaketa maila hartzen du kontuan, eta bereziki naturan egiten diren praktika motorrak gauzatzeko” (Parlebas, 2001,

¹⁴ Fitxategian 235. jarduera

¹⁵ Fitxategian 24. jarduera

¹⁶ Jarduera motorren barne logikak espazioarekin, besteekin eta objektuekin ezartzen dituen harremanak eta definitzen duen denbora nozioak parte hartzaileen akzio motorren ezauzgarriak ezarri eta jokabide motorrak (motibazioak, aurre hartzeak, erabakiak...) sustatzen dituztenean egoera motorraz hitz egiten da. Instituzio ofizialek “kodifikatuta dagoen konfrontazio egoera motorra” (Parlebas, 2001, 276.) joko edo kirola izendatzen dute.

155 or.). Eskalaren mutur bakoitzean, dimentsioaren kontzeptu bat kokatzen da. Etxekotu muturrean, gizakiagatik guztiz egokituta eta landuta dauden espaziotan praktikatzen diren jardura motorrak kokatzen dira. Espazio mota hauek era bereko eta mugiezinak dira. Atletismoko tartan pista edo futbola praktikatzeko zelaia espazio mota honen adibideak dira. Baina, baita ere, erreka artifiziala edo jauziak egiteko tranpolina.

Eskalaren beste muturrean, basati muturrean, inguru fisikoa egokitu ez den espazioa dago. Espazioa naturala da eta piraguan egiten den erreka jaitsiera edo trekking bezalako jarduerak praktikatzen dira. Baina, bi muturren artean etxekotu eta basati espaziora hurbiltzen edo urruntzen diren jardura motor ugari aurkitzen dira. Horrela, espazioaren ezaugarri basatian edo etxekotuan progresio bat dagoela ikus daiteke.

Etxekotu eta basati kontzeptuen arteko *continuum*-a azaltzeko Parlebasek (2001, 157 or.) ipinitako adibideen artean piraguismoa ekartzen da gogora. Urmael artifizialean ondo mugatutako korridoretan egiten diren lasterketek guztiz etxekotua den espazioaren egoera azaltzen dute. Baina, ur bizieta egiten den eslaloma ibilbidea mugatuta eta zeharkatu beharreko ateekin guztiz basatia den espazioaz hitz egin beharrean partzialki egokitutako espazioaz hitz egin behar da. Ibilbidea mugatzen dituzte kordelak eta atea kenduz gero abenturako jaitsiera jardura motorra azaltzen da, guztiz basatia den espazioan praktikatzen dena.

Jardura motorra gauzatzen den espazio motorraren ezaugarrien arabera, parte hartzaileak deskodifikazio semiotorraren beharra handiagoa edo txikiagoa izango du. "Egoera motorraren hainbat osagaiei lotutako ustekabe maila" bezala definitzen den ziurgabetasun kontzeptuak (Parlebas, 2001, 248 or.), parte hartzailearen gaitasun semiotorraren erabilera mugatzen du. Horrela, guztiz etxekotuta dagoen espazioan gauzatzen diren jardura motorren gaitasun semiotorraren eskakizunak ez du garrantzirik, inguru fisikoekiko ziurgabetasun eza nabaria baita. Egoera motor honetan, ez da parte hartzailean espazioarekiko kognizio gatazkarik ematen. Baina, espazio motorraren ezaugarriak mutur basatirantz hurbiltzen den heinean, inguru fisikoak dituen kodeak interpretatu behar dira, emaitza arrakastatsua izan dadin, ziurgabetasuna agerian dago.

Inguru fisikoarekiko ziurgabetasun ezak aurre programatutako portaera motorrak behin eta berriro errepikatzeko aukera ematen du. Urmael artifizialean, ondo mugatutako kaleetan egiten den abiadura lasterketak edo atletismoan egiten den xabalina jaurtiketak ez dute lan semiotorra eskatzen. Baina, inguru fisikoarekiko ziurgabetasunak parte hartzaileari egoera berrien aurrean etengabe erabakiak hartzea eskatzen dio, espazioarekin harremanetan lan semiotorra ezin bestekoa egiten da. Egoera beti berria da eta berritasunaren aurrean, emozioa eta zirrara areagotzen dira, parte hartzaileak erreka baten abenturako jaitsieran edo eskiekin mendi zeharkaldian inguru fisikoa irakurtzeko beharra du.

Parlebasek aurkezten duen akzio motorren domeinuetan jardura motorren barne logikaren objektuaren erabilera eta denbora nozioa ezaugarriak esplizituki agertzen ez badira ere, azaldutako kategorien adibideek objektuen beharra

eta emaitzen garrantziaz mintzatzen dira. Edo nola, domeinuen arabera parte hartzaileengan sustatzen diren balioak, emozioak, generoarekiko desberdintasunak edota gatazken saihepena praktika motorrak zuzentzen dituen pedagogiaren eskuetan dago. Adibidez, gorputz hezkuntzan bideratzen den eskuhartze praktikoa kontziente edota inkontzienteko neskengan eta mutilengan sustatzen dituen balioak (irabaztearen plazera, besteekin konpartitzearen plazera, objektuen espezializatuen erabilerean garrantzia, denbora pasan egonean edo esfortzuaren ondorioz irabaztearen garrantzia) eta azaleratzen dituen emozioak proposatzen diren jardura motorren arabera egongo da, hau da, proposatzen diren kategoria edo domeinu motorren arabera.

1.2.2.4. Egoera motorretan denbora eta hartzen duen zentzua

Komunikazio motorren sarearen azpi-sarea den marka elkarrekintza sarea "jokalari guztientzako arauengatik aurreikusita dauden kooperazio edota oposiziozko marka elkarrekintzen multzoa ordezkatzeko duen kirol joko baten grafia da" (Parlebas, 2001, 393 or.). Definizio honetatik egon daitezkeen harreman motor guztien artean, marka elkarrekintzak baino ez dira kontuan hartzen. Horrela, "kirol joko baten helburu kodifikatuak lortzeko aukera ematen duen komunikazio edo kontra-komunikazio motorrak eta tanteoaren edo estatus sozomotorraren aldaketan baloratzen den estatutu ludikoa duena" (Parlebas, 2001, 267 or.) bezala definitzen den marka elkarrekintzaren adibideak kirol instituzionalean zein tradizionalean ikus daitezke. Estatus sozomotorra "kontratu ludikoaren arauak jokalarik bati agintzen dioten betebeharrak, eskubide eta debekuen multzoa da, eta jokalarik berari baimentzen zaizkion akzio motorren eremua definitzen dute" (Parlebas, 2001, 208 or.).

Adibidez, errugbian, denbora zehatz batean, talde bietatik puntu gehien lortzen duenak irabazten du. Aurkariaren entsegu gunean baloia uzten denean akzio antagonikoa da. Baina, talde kide bati baloia pasatuz gero, kooperaziozko marka elkarrekintza da. Errugbia marka elkarrekintza antagoniko eta kooperaziozkoak batzen dituen kirola da. Eta, tanteo batu barik gauzatzen den pilota eserita taldeka¹⁷ jardura motorrean, jokalarik bat erretzeko egiten den jaurtiketa eta, erreta, eserita dagoenari egiten den pasea, marka elkarrekintza antagoniko eta kooperaziozko adibideak dira. Elkarrekintza marka hauek jokalarien estatus sozomotorraren aldaketa dakarte.

Burutzen den jardura motorrean, estatus sozomotorraren aldaketak, etengabe eman daitezke. Eta aldaketak ez dira memorian gordetzen. Barne arauak ez dute jardueraren amaiera zehazten. Harrapatzera jolasean, parte hartzaileek etengabe rol aldaketak gauzatzen dituzte. Harrapakina harrapatzailean bihurtuz eta harrapatzailea harrapakina.

Bestetik, gauzatzen diren marka elkarrekintzak tanto-kopuru handiena lortzeko egiten direnean, irabazlea eta galtzailea ezagutzen dira. Tanto-kopuru sistema "aukera guztien garapenari zein irabazle eta galtzaileen balizko izen-

dapenari dagokionez, esplizituki jokoaren kodeagatik aurreikusiak, kirol joko bateko taldeek edo jokalariek lortzen dituzten garaipenak edo puntuak asmatzeen sarea da” (Parlebas, 2001, 421 or.). Jokalariak, jokoaren barne logikaren arabera oso aberatsak eta aldakorak diren jokabide estrategikoez baliatzen dira, azkenean, puntu zenbaketak garaileak direla esan dezan. “Puntu kopuruaren esleipen eta asmatzeen atribuzio multzoa den” marka euskarria (Parlebas, 2001, 435 or.) tanto-kopuru sistemaren giltzarria izanik.

Berdinketa saihesteko adibidez boleibolean edo tenisean muga puntuazioa ezartzen da. Baina, futbolean edo errugbian denbora mugatu ondoren partiduaren emaitzak garailea izendatzen du. Judoan edo boxeoa muga puntuazioa eta denbora mugatuen konbinaketa ematen da.

Tanto-kopuru sistemaren bitartez, mugatutako denbora edota puntuazioa heltzen denean, garailea ezagutzen da eta jarduera motorra bukatutzat ematen da, puntuak memorian gordetzen dira

Baina, “betebeharreko ondorioa eskatzen ez duten” (Parlebas, 2001, 438 or.) jarduera motorretan gertaerak ez dira memorian gordetzen.

Harrapatzera jolasean bezala, arrakastak harrapakina harrapatzerakoan adibidez, ez dira memorian gordetzen. Harrapatzearen akzio motorra ez da puntuagarria. Jarduera motorren arauak definitzen duten barne logikak ezartzen dituen gertaerak ez dute garailerik edo galtzailerik mugatzen. Akzio motorrak etengabe errepikatzen dira. Harrapatzera jolasean, errepikapena estatus sozio-motorraren aldaketan islatzen da.

Laburbilduz, jarduera motorrek ezartzen duten denborarekiko harremanean, bi egoera motorrak bereizten dira. Alde batetik, lorpenak eta emaitzak memorian gordetzen diren egoera motorrak bereizten dira. Bestetik, memorian gordetzen ez direnak. Horrela, denborarekiko memoriadun eta memoria gabeko jarduera motorrak bereizten dira.

Jarduera motor bateko garapenean, burutzen diren marka elkarrekintzen arabera, jokalarien jokabidea harreman motor batzuek bilatzera bideratzen da. Jokalarien aurrean aurkezten diren erronken arabera, marka elkarrekintza antagonikoak, kooperaziozkoak edo antagoniko/kooperaziozkoak burutuko dira. Harrapatzera jolasean harrapatzaileak harrapakina ukitzen duenean, ematen den marka elkarrekintza antagonikoa da. Gertaera motor honek parte hartzaileengan sorrarazten duen bizipena guztiz desberdina izan daiteke. Horrela, harrapatzaileak arrakastak ematen dion pozaz disfrutatuko du eta harrapakina porrotaz jabetuko da. Baina, harrapatzera jolasean gauzatzen diren gertaera motorrek dituzten eragin afektiboak kanpo, ez dira azkeneko emaitza definitzeko eta garailea izendatzeko memorian gordetzen. Parte hartzaileak, denbora bat konpartitzen dute, “besteekin jolastearen plazerean” heziko dira (Lagardera eta Lavega, 2003, 171 or.).

Ultimate jokoa¹⁸, taldekideen artean jaurtiketa gunean egiten den pasea, kooperaziozko marka elkarrekintza bat da. Gertaera motor honek, puntua lortzeko aukera eman dezake. Horrela izanez gero, puntua esleituko da. Jokala-

riek, lortzen duten puntu bakoitza memorian gordetzen dute, garailea nor den ezagutu arte. Ultimate adibidean, denbora mugatu batean, markako euskarrian esleitutako puntu multzoak garailea izendatzen du. Irabazteak bestea bainoa hobeagoa zarela erakusteko aukera ematen du. Eta, aldi berean, ospe soziala areagotzen du. Lana eta esfortzuaren ondoren lortutako ospe autoestimuan duen eraginak eta ospearen pozaz disfrutatzeak garaileari boterea ematen dio. Garailea dagoen tokian galtzailea dagoenez, jokalariak galtzen ikasten dute. Oraingo porrotak geroko arrakastan bihurtzeko bideak aztertzen eta eraikitzen ahaleginduko direla. Jokalariek “aurkariak irabazteko plazerarean” (Lagardera eta Lavega, 2003, 171 or.) heziko dira.

Jarduera motorren barne logikak denborarekiko ezartzen dituen ezaugarriak konpartitzearen eta lehiatzearen pedagogiak bereizten dituzte. Neskak eta mutilak lorpenak eta porrotak erlatibizatzen ikasten dute baldin eta jarduera motorrean parte hartzearen arrazoia eta helburua konpartitzea bada. Besteekin jolastearen plazera bilatzeak, porrotak eta arrakastak desdramatizatzen laguntzen du. “Balentriak eta porrotak desdramatizatzen dira eta jokabide motorren etengabeko joan-etorrian arin lausotzen dira” (Parlebas, 2001, 268 or.). Baina, helburua irabaztea denean, neskak eta mutilak, ahalik eta marka elkarrekintza kopuru handiena lortzen saiatzen dira. “Izan ere garaipena edo porrota kopuruz hartzen dute” (Parlebas, 2001, 268 or.).

1.2.2.5. Egoera motorretan objektuak eta hartzen duten zentzua

Gizartearen arabera aldatzen den gorputz teknika “gizakiek gizarte gizarte beraien gorputza erabiltzeko forma tradizionala” (Mauss, 1991, 337 or.) bezala definitzerakoan gorputz teknikaren eraikuntza objektuak eta tresnak duten eragina aintzat hartzeko beharra zabaltzen da. Baina, gorputz bera tresna den unetik, objektuak eta tresnak gorputza erabiltzeko formak mugatzen dituzte eta objektuarekin harremanaren interesa objektu eta tresna bakoitzak sor ditzakeen gorputz teknika ezagutzetik kulturak objektu eta tresnen erabilerari ematen dion garrantzira pasatzen da.

Horrela, objektuen erabilerari dagokionez lehenengo galdera gauzatzen diren jarduera motorren barne logikak objektuen beharra ezartzen duen izango litzateke. Gero, objektu horien ezaugarri kulturalak zehazteko.

Objektua behar ez duten jardueren aukeraketak zereginak gorputzarekin egiteari ematen dio pisua, jarduera motorren helburua lortzeko gorputzak du giltzarria. Era berean, objektua behar duten jarduera motorren aukeraketak zereginak objektua erabiltzen duen gorputzari ematen dio garrantzia. Beraz, objektu edo objektu barik aritzean gorputzak du garrantzia. Egoera bietan ezaugarri kulturalak jarduera motorra egiten duenaren giza balioak sustatzen ditu. Adibidez, aurrerapen teknologikoei esker “... gurpileko patinek bezala, zerbait ahaztuta, lerroko patinekin gaztetasun berri bat ezagutu dute...” (Parlebas, 2001, 97 or.). Irristatzeko objektu espezializatuaz baliatzen gara, lehen gurpilekin eta

¹⁸ Fitxategian 239. jarduera

orain lerroko patinekin irristatzeko gorputz teknika aldatzen bada ere, garrantziak objektuen espezializazio hartzen du. Behin objektua behar dela ezartzen denean irristatzeko gunea eta garaiaren arabera objektuekiko kultura bat zabal-tzen da: objektu espezializatuen edo objektu orokorren kultura.

Kirol, joko eta jolasetan parte hartzen duenak “araua, hau da, konpromi-soa talde praktika harmoniko baterako eta norbere adierazpen motorrerako beharrezko baldintza izan daitekeela kontzientzia hartzen du” (Parlebas, 2001, 97 or.) eta kirol, joko eta jolas bakoitzean aritzeko objektua behar dela araua den neurrian, objektu berdinarekin jardun daiteke. Parte hartzaileak “zelai zehatzean eta baloi berdinarekin joko-jolas desberdinetan parte har dezake...” (Parlebas, 2001, 97 or.). Edo, joko-jolas bakoitzean baloi espeziala erabil dezake, kirolean bezala saskibaloia, errugbia, futbola edo boleibola kirol bakoitzerako baloi bat erabil dezake.

Nola edo hala, objektuen espezializazioa kulturak ezartzen duen ezaugarria da eta “joko-jolas batean parte hartzen dutenei esleitzen zaien adostasun esplizitu eta tazitua” (Parlebas, 2001, 94 or.) den hitzarmen ludikoa ez da aldatzen.

Joko-jolas ekologikoa “harmonikoki natura (espazioa, natura eta materia-lak) deitzen diogun ingurunearekin lotzen da, iraingarriki etxekotzen edo goi teknologiarengatik ordezkatzeko saiatu barik” (Parlebas, 2001, 170 or.).

Industrializazio aurreko joko-jolasak (kanikak¹⁹ adibidez) gehien bat eko joko-jolasak dira, “ez dituzte tresna sofistikuak erabiltzen, izan ere tresnek ingurune naturalean (...) edo domestiko eta artisauan (...) dute jatorria” (Parlebas, 2001, 170 or.), makilak, fruta hezurra, zapiak edo olak eko joko-jolasetan objektuak dira.

Teknologia berriei esker gaur jardunbide motorrak gauzatzeko objektu sofistikuak eta aldi berean, espezializatuak erabiltzea “etnomotrizitatearen adierazpen argia da, mugitzeko eta gorputza eta objektuak erabiltzeko erak garaiak islatzen dituen ezaugarri kulturalak osatzen dute” (Parlebas, 2001, 171 or.).

Horrela, gaur egiten diren jarduera motorren barne logikak objektuaren beharra ezartzen duenean teknojokoak aurkitzen ditugu zeinen adierazpen nagusia kirola da. “Garapen teknologikoaren ondorioz (espazioa, osagaiak, ekipamendua...) praktika baldintzetan eta modalitateetan sakonki eraginda kirol jokoak guztiz artifizialak izateko joera duten ingurunean eta materialekin egite-raino” (Parlebas, 2001, 443 or.) gisa definitzen den teknojokoaren adibide ugari ditugu. Saskibaloia edo boleibola batzuk dira, baina baita ere, naturan egiten diren kirolak “guztiz kultura kirolak dira zeinetan oso sofistikuak diren materia-lak esperimendatzen dira” (Parlebas, 2001, 443 or.). Karbono zuntza, poliuretano edo aleazio berriek eskiak, belaontziak edo piraguak eraikitzeke erabiltzen dira,

¹⁹ Kanikak esfera forma dute eta metalezko, harrizko edo kristalezkoak izan daitezke, baina, baita ere, oliba hezurrez eginiak. Parte hartzaileek eskuarekin beste kanikengana hurbiltzeko kanikak jaurtitzeko dituzte.

kirolak naturan egiteko tresnak baina jatorria ingurune naturaletik urrun dutenak. Industrializazioaren ondorioz naturan praktikatzeko tresna sofistikuak eta espezializatuak teknojokoan, hau da kirolen lekukoak dira.

Jarduera motorretan objektu behararen galderari erantzutea premiazkoa bihurtzen da. Izan ere, objektua erabiltzea objektu barik aritzea bezain garrantzitsua da. Galderak soilik gorputzarekin edo gorputza objektuarekin aritzen garen eta objektuarekin bada, zeintzuk diren objektu horien ezaugarri kulturalak lirake.

Guztiarekin “epistemologiaren helburu interesanteenetariko bat xedeetan agertzen diren baldintza sozialak, ekonomikoak eta kulturalak deskubritzea da, eta arau pedagogikoen aukeraketan presio teoriko eta instituzionalen mekanismoak analizatzea” (Parlebas, 2001, 347).

1.2.3. Akzio motorraren zientzia eta genero ikerketak

Praktika motorrak aztertzeke Parlebasek garatutako akzio motorraren zientziatik abiatzen diren ikerketek azaltzen den ikerlanari pisua ematen diotenez, bereziki, generotik azterketak interesanteak egiten zaizkigu.

Prozesuan dagoen nazioarteko ikerketa²⁰ barruan eginiko emozioen azterketen lehenengo emaitzek egoera motorrak domeinu handietan sailkatzea ikerketarako tresnan bihurtu dela baieztatzen dute.

Horrela, bakarka, oposizioan, kooperazioan edo kooperazio-oposizioan egiten diren jarduera motorren eragina desberdina izan daiteke, adibidez emozioetan, akzio motorraren domeinuaren arabera domeinu bakoitzak emakumeengan eta gizonengan era desberdinean izan dezake eragina. Hain zuzen ere, Vitoria-Gasteizen eta Lleidako unibertsitatean eginiko azterketen ildoak dira hauek.

Euskal Herriko Unibertsitateko Jarduera Fisiko eta Kirolaren Fakultatetik eginiko emozioen azterketaren helburua kooperazio-oposiziozko joko-jolas-ek parte hartzaileengan duten eragina eta bizipena parte hartzaileen genero-aren menpe dagoen ezagutzea izan da. Hain zuzen ere, emakume eta gizon unibertsitarioen aldarrean zehaztutako akzio motorraren domeinuan dauden joko-jolas egin ondoren eragina aztertu nahi izan da. Dimentsio emozionalak²¹ neurtzen dituzten bost multzoen arabera emaitzek “gizonek lau dimentsio emozional negatiboetatik (TA izan ezik) hirutan emakumeek baino ondorengo balio handiagoak erakusten zituzten eta baxuagoak dimentsio positibo bakarrean (IJ)” (Oiarbide, Martínez-Santos, Usabiaga, Etxebeste, eta Urdanga-

²⁰ Prozesuan dagoen nazioarteko ikerketan parte hartzen duten herrialdeak eta hiriak: Girona, Huesca, Lleida, Murtzia, Donostia, Vitoria-Gasteiz eta Zaragoza Unibertsitateak Espainian; Coimbra Portugalen; Locarnokoa Suitzan; Galesekoa Erresuma Batuan; eta Santa Maria-koa eta Campinas Unibertsitateak Brasilear

²¹ Tentsio – Antsietate (TA) ; Depresio – Abaildura (DA) ; Amorruta – Etsaitasuna (borroka) (AE) ; Indarra – Jarduera (IJ); Nekea – Gelditasuna (NG)

rin, 2014, 60 or.). Praktiken ondoren emakumeen aldarte orokorra²² ea aldatu ez den bitartean, gizonena baxuagoa izanik: “Kooperazio-oposiziozko joko-jolasek parte hartu zuten gizon eta emakumeengan bizipen desberdinak sustatu zituzten” (Oiarbide eta lag., 2014, 61 or.).

Lleidako Unibertsitateko INEFCeko²³ ikasleen emozioen ikerlanaren garrantziaz ere jabetzen gara. Prozesuan dagoen ikerketaren lehenengo emaitzek kooperaziozko elkarrekintzetan “gizonek eta emakumeek ez dituztela portaera berdina erakusten” baieztatu dute (Lagardera, Lavega Burgués, Sáez de Ocáriz, Serna, eta Aires Araujo, 2011, 1 or.). Joko-jolas motorretan parte hartzaileek adierazten dituzten emozio positibo, negatibo eta anbiguoak aztertzen dituen ikerlanak genero aldagaia aztertzerakoan emakume eta gizonen arteko desberdintasunak daudela ikusi du.

Horrela, generoarekiko egoera mistoetan joko-jolas kooperatibo memoria-dunetan irabaztearekin lotutako emozio positiboen (umorea, poza, zoriontasuna) adierazpenak gizonengandik altuagoak direla ikusi da. Eta egoera ez mistoetan “irabazteari aipamena egiten dioten gizonen adierazpenak biderkatzen dira” (Lagardera eta lag., 2011, 18 or.). Emakumeek irabaztea besteekin elkarrekintzari esker ikusten dute.

Bestetik, joko-jolas kooperatibo memoria gabeetan, nahiz eta emaitzak hain esanguratsuak ez izan, irabaztearekin lotutako gizonen adierazpenak altuagoak izaten jarraitzen dute.

Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetan ikasgela mistoetan akzio motorren domeinuen arabera sortzen diren gatazkak ikertu duen Sáez de Ocárizek “gatazken edozein eraldatze pedagogikoaren hobekuntzak joko-jolas motorren barne logikatik (propietateak) eta kanpo logikatik (...), adina, generoa...) eratorritako aldagaiak hartu behar lituzke kontuan” (Sáez de Ocáriz, 2011, V. or.) baieztatzen du. Are gehiago, lortutako emaitzek “mutilek gatazka motor gehiago sortzen dituztela” (Sáez de Ocáriz, 2011, 384 or.) eza gutzen denean. Sáez de Ocárizaren ikerlanak genero gaia aztertzen duen gai bakarra ez bada ere, akzio motorra zientziaren paradigmatik genero ikuspegi ikertu daitekeela beste adibide bat dugu.

1.2.3.1. Giza eremu motorren ildoak

Era berean, Euskal curriculumaren gorputz hezkuntzarako proposamenean Etxebestek (2001) gorputz hezkuntza arloaren etnomotrizitatea eduki multzoa osatzeko hiru giza eremu motorrak antolatu zituen. Joko-jolasen barne logikaren ezaugarriak elkartzeko joerak adierazten duen sinbolismoak ekartzen ditu gogora. Parlebasek denbora, espazioa eta harremanak ezaugarriekin eraiki dituen kirol joko-jolasen sailkapenetik (KAZ) Etxebestek pausu bat aur-

rera ematen du. Jokoa giza eremu motorra muturra eta jolasa giza eremu motorra muturraren arteko “continuum” horretan jolasa-jokoa giza eremu motorra zehaztearekin batera, eremu bakoitzak islatzen duen generoa azaldu baitzuen: “gizon-plaza gizarte ereduaren jokabidea da jokoa” (Etxebeste, 2001, 7 or.), “etxekoen arteko ereduaren jokabidea da jolasa. (...) Arloa mistoa da” (Etxebeste, 2001, 9 or.) eta “neskarentzako tradiziozko jolas-jokoak dira, soka saltoa” (Etxebeste, 2001, 10 or.).

Ikuspuntu hori kontutan izanik egin duen ikerketa etnomotorrak Euskal kultura tradizionalan haurren sozializazioaren prozesua azaleratu da, barne logikaren ezaugarrietan oinarritutako azterlana eginez: espazioa, jokalarien arteko harremana, objektuak eta denbora barne logika eta testuinguruari dagokionez aztertuz. Aipatutako barne logikaren lau ezaugarri horiek duten elkartzeko joera eta biko konbinaketa ingurune sozialarekin alderatzerakoan hiru euskal giza portaera eremu bereizten ditu (Etxebeste, 2002, 280):

- Jokoa: egoera psikomotorra, espazio ziurra, irabazlearekin eta tresnarekin izango da. Lau ezaugarri horietatik hiru dituztenak ere figura ludiko honen barrenean sartzen dira. Jokoa irabaztearen plazera balioa garatzen du, gizonen eremua da, hau da, gizonak kanpokoekin harreman publikoak ezartzen ditu etxekoen interesak babesteko. Adibidez, bana-kako kirola eta taldeko kirola ditugu jokoa eremuaren adibideak.
- Jolasa: egoera sozomotorra, ziurgabetasuna sortzen duen espazioa, irabazlerik gabeko denbora eta tresnarik gabeko aldagaiak jolasa eremua definitzen dute. Aipatutako lau ezaugarri horietatik hiru dituztenak ere multzo honetan sartzen dira. Jolasak konpartitzearen plazeraren balioa garatzen du, gizon eta emakumeen eremua da, hau da, familia bateko harremanen isla. Ezkutaketa edo harrapatzera bezalako jardura motorrak ditugu jolasa eremuaren adibidetzat.
- Jolasa-jokoa: jokoa bi aldagai eta jolasaren beste bi aldagai dituen eremua jolasa-jokoa eremua da, errepikatzearen plazeraren balioa garatzen duena, emakumearen eremua da, egunero errepikatzen diren etxeko lanen isla. Soka saltoa bezalako jardura motorrak ditugu jolasa-jokoa eremuaren adibidetzat.

Joko-jolasen azterketaren nondik norakoak ulertzeko Etxebestek eginiko ekarpena azaltzearekin dator. Euskal tradizioan haur joko-jolasen ezaugarriak islatzen duten giza eremuak zehazteko tresnan bihurtu dena:

Etniker taldearen Atlas etnografikoan (Etniker, 1993) azaltzen diren Euskal Herri osoko 861 joko-jolas motor bakoitzari gizarteak ematen dion lekua aztertzerakoan Etxebestek haur-euskaldunen sozializazio prozesua azaldu du.

Euskal haurren joko-jolas tradizionalak erakusten zuten aisiaren ezaugarriak aztertu dituen Etxebestek (2012) beraien barne logikaren ezaugarriak elkartzeko erakusten duten joeraren arabera bi mundu bereizten ditu: jokoa

²² Aldarte orokorra: 100+IJ-TA-DA-AE-NG

44 ²³ Institut Nacional d'Educació Física de Catalunya

eta jolasa. “Joko-jolas psikomotorrak objektuarekin ziurgabetasun eza eta puntuazioarekin ... eta beste aldetik, joko-jolas soziomotorrak objektu barik ziurgabetasunarekin eta puntuazio memoria gabearekin” (Etxebeste, 2012, 44 or.) urrenez urren, berezko jokoa eta berezko jolasa munduen ezaugarriak dira. Bi mundu motor hauen arteko continuum batean kirol eta joko-jolas tradizionalen sorta zabalduz. “Jokoa eta jolasaren ideiek barne logikaren ezaugarrien arabera joko-jolasak banatzen dituen eskala bat osatzen dute” (Etxebeste, 2012, 50 or.)

Taula 2: Barne logikaren lau domeinuen ezaugarriak.

MODALITATEAK		
Domeinuak	Aldagaiak	Kodea
Jokalarien harremana	Psikomotorra	0
Espazioarekiko harremana	Soziomotorra	1
Denborarekiko harremana	Ziurgabetasun eza	0
Tresnarekiko harremana	Ziurgabetasuna	1
	Memoriaduna	0
	Memoria gabea	1
	Objektuarekin	0
	Objektu gabe	1

Domeinuak: barne logikaren ezaugarriak
Kodea: aldagai bakoitzari dagokion kodea

Iturria: Etxebeste, J. (2012). *Á cloche-pied: les jeux sportifs traditionnels et la socialisation des enfants basques*. 43 or. Saarbrücken: Éditions universitaires Européennes.

Taulan zehazten diren barne logikaren ezaugarrien biko konbinaketan aldagaiak elkartzeko erakusten duten joerak bereizten diren eremu motorrak berezko jokotik berezko jokora zabaltzen banantzen dira.

Taula 3: Posibilitate desberdinak jokoa eta jolasa eremuentzako.

←-----→				
BEREZKO JOKOA	IA JOKOA	JOLASA-JOKOA	IA JOLASA	BEREZKO JOLASA
Jokoaren 4 aldagai	Jokoaren 3 aldagai	Jokoaren 2 aldagai	Jokoaren 1 aldagai	Jokoaren 0 aldagai
Jolasaren 0 aldagai	Jolasaren 1 aldagai	Jolasaren 2 aldagai	Jolasaren 3 aldagai	Jolasaren 4 aldagai

Iturria: Etxebeste, J. (2012). *Á cloche-pied: les jeux sportifs traditionnels et la socialisation des enfants basques*. 47 or. Saarbrücken: Éditions universitaires Européennes.

“Eskala berezko jokotik berezko jolaseraino doa jolasa-jokoa deritzogun bi domeinu nagusien tarteko espaziotik pasatuz” (Etxebeste, 2012, 50 or.). Bi er-tzen erdian eremu berria agertzen dela konturatu behar gara, jolasa-jokoa-rena. Horrela, berezko jokoa eta ia jokoa eremuek jokoa eremu motorra osatzen dute eta berezko jolasa eta ia jolasa eremuek jolasa eremu motorra. Jolasa-jokoa eremuarekin batera euskal haurren sozializazioa margotuz.

Jokoa, jolasa eta jolasa-jokoa hiru eremu motorrak akordeoi baten gisa zabaltzerakoan Etxebestek Euskal aisialdi ludiko motorraren mapa zehaztu zuen “hiru taldeen arabera sailkapen bat posiblea” izanik (Etxebeste, 2012, 49 or.):

Taula 4: Arlo bakoitzaren eredu motorrak.

Arloa ²⁴	Eredu motorrak
JOKOA	<ul style="list-style-type: none"> Berezkoa Ziurgabetasunarekin Soziomotorra Memoria gabea Objektu barik
JOLASA-JOKOA	<ul style="list-style-type: none"> Jolasa espazioa- denbora / Jokoa jokalaria- objektua Jokoa espazioa- denbora / Jolasa jokalaria- objektua Jokoa espazioa- objektua / Jolasa denbora-jokalaria Jolasa espazioa- objektua / Jokoa denbora- jokalaria Jolasa espazioa- jokalaria / Jokoa denbora- objektua Jolasa denbora- objektua / Jokoa espazio- jokalaria
JOLASA	<ul style="list-style-type: none"> Objektuarekin Ziurgabetasun eza Psikomotorra Memoriaduna Berezkoa

Iturria: (Etxebeste, 2012)

Eredu motor bakoitzak (arloak) eredu desberdinez osatuta egonik:

- Jokoa: berezko jokoa, ziurgabetasunarekin jokoa, joko soziomotorra, memoria gabeko jokoa eta objektu gabeko jokoa osatzen duten joko-jolasen multzoaz osatuta dagoena.
- Jolasa-jokoa: jokoa eta jolasaren ezaugarri orekatuen konbinaketaz osatzen diren joko-jolas guztiak dira. Bi domeinu nagusien arteko inflexio-puntua da, asmo ludikoaren giza artikulazioa.

²⁴ Jokoa, jolasa eta jolasa-jokoa arlo bakoitzak giza eremu motor bat adierazten du.

- Jolasa: berezko jolasa, ziurgabetasun ezarekin jolasa, jolasa psikomotorra, memoriarekin jolasa eta objektuarekin jolasa osatzen duten joko-jolasen multzoaz osatuta dagoena.

Sailkapen-printzipio horren arabera ia jokoak deiturikoen artean lau kasu daude:

- 1.- Joko soziomotorra. Jolasaren ezaugarri bakarra, jokalarien arteko harreman soziomotorra, izango da, baina, pilotaren adibidean bezalaxe, espazio ziurra eta tresnarekin egindako lehia izango da beti.
- 2.- Tresna gabeko jokoak. Tresnarik ez izatea da jolasaren ezaugarri bakarra, beste hirurak jokoarenak dira.
- 3.- Ziurgabetasunarekin jokoak. Espazio aldakorrean emandako jokoak, espazioaren informazioa irakurri behar duten lehiak dira, hain zuzen ere. Portugaleten (Bizkaia), haurrek paperezko hegazkinekin jokatuko dute norik urrutien botako. Haizearen irakurketa eta erabilera beharrezkoak dira ondo aritzeko.
- 4.- Memoria gabeko jokoak. Joko horrek ez ditu emaitzak gordetzen, ezta onetik txarrenera haurrak sailkatzen, horra adibide gisa: yo-yo jokoak. Jokalariak, bakarka, espazioa leunean, besteen aurrean irudiak egiten ditu yo-yoarekin, duen trebezia adieraziz, berak nahi izan arte. Berezko jokoaren prestaketa dela dirudi.

Modu berebean eginda, ia-jolasak lau hauek izango dira:

- 1.- Jolas psikomotorra. Neska-mutilak ziurgabetasun espazioan, itsasoan adibidez, lehia eta tresna gabeko jolasean, bakarka jolastutako jolasa da. Oso ezagunak dira, adibidez, "txanpetan" ibiltzea hondartzako olatu-tuetan. Jokalariak igeri egin behar du, asmatu olatua noiz apurtuko den eta, horretaz baliatuta, olatuak ertzera eramanean dezan lortu.
- 2.- Tresnadun jolasak. Lehia gabeko ziurgabetasun espazioan jolastutako jolas soziomotorra da, baina tresnak erabilia. Oso ezagunak eta herri-koiak diren jolasak, adibidez, tiragomaz egindako txori-ehiza edo potepoteka gordeketa jolasak.
- 3.- Ziurgabetasun ezarekin jolasak. Harrapaketa-jolas gehienak honelakoak dira. Haurrak elkarrekin jolasten dira, elkarrekintzan, amaiera eta tresna gabeko jolasean, alabaina, herriko plazan aritzen dira, eremu ziuurrean.
- 4.- Memoriadun jolasak. Oso jolas bereziak eta irabazlea nor den adierazten dute. Hala ere, herriko jaietan maiz agertzen den jolasa da, kaietan ahate deslaia edo ahate askaketa, adibidez. Olatuz beteriko espazio aldakorrean, haurrak askatutako ahate saiatzen dira eskuz harrapatzen, eta lortzen duenak, ahate gordeko sari gisa.

Eta jokoak eta jolasaren arteko biko ezaugarrien sei konbinaketek jolasak jokoak eremua osatzen dute:

- 1.- Jolasa espazio-denbora + jokoak jokalaritresna. Zalantza espazioa eta irabazle eza dute jolasaren ezaugarriak, eta jokalarien arteko harreman psikomotorra eta tresnaduna jokoaren ezaugarriak, ordea. Neska-mutilak makilatxo batean jostorratza baten bitartez iltzatutako paperezko erro-tatxo jira egin araztea da jolas-joko mota honen adibidea, baita egurrez eta kojinetez jositako malda behera abian jaisteko "goiti-bera" ere.
- 2.- Jokoak espazio-denbora + jolas jokalaritresna. Mota honetako jolas-jokoak, jokoaren espazio ziurra eta irabazledun ezaugarriak ditu eta jolasaren tresna gabeko harreman psikomotorra. Aisi ekintza nabarmenetan agertzen diren ezaugarriak, hain zuzen ere. Marro-marroka, adibide ospetsua da. Toki zabal eta garbian egiten den harrapaketa egoera, non talde batek beste harrapatu nahien egiten da, bi taldeen arteko kontrako duelu simetrikoa, babes-etxe irteeraren arabera harrapatzeko araudi berezi baten kontrolpean.
- 3.- Jolasa espazio-tresna + jokoak jokalaridenbora. Batetik, jolasaren ziurtasun gabeko espazio eta tresna gabeko ezaugarriak eta bestetik, jokoaren harreman psikomotorra eta garaile ezaugarriak dira jolas-joko honen erakusgarriak. Arabako Artzeniega herrian "a arrancar cucañas" jolasten dira, naturan landare aurkitze lehia, alegia.
- 4.- Jokoak espazio-tresna + jolas jokalaridenbora. Gure harridurarako, arlo honetako adibideak anitz dira, jokoen albotik espazio ziurra eta tresnaduna oron ezaugarriak eta jolasen tartetik garaile gabeko eta harreman soziomotorra. Hots, aurkeztutako soka-saltoak edo goma saltoak.
- 5.- Jolasa denbora-tresna + jokoak jokalariespazio. Hauek azal daitezke garaile eta tresnadun joko ezaugarriak beteta eta espazio ziurtasun gabeko eta harreman soziomotorra jolas adierazgarriez jositak. Mutil talde batek beste bat ezkutalekuz hornitutako muino batetik kanporatzearen elkarrekin arteko borroka da adibide zabaldua. Naturan egindako lasterketak ez dira oso ezagunak, nahiz eta Muskizen (Bi) umeek egindako flotagailuekin egiten omen zen.
- 6.- Jokoak denbora-tresna + jolas jokalariespazio. Hau da, batetik, ez garailerik ez tresnarik, jolas ezaugarriak eta bestetik, psikomotorra eta espazio ziurra, joko ezaugarriak. Denbora-pasa hauetan, haurra eremu ziuurrean bakarrik tresna gabe egindako trebeziak dira, jausiak, alegia. Atzen itzalarekin abere antza duten irudiak besteen aurrean egitea oso adierazgarria da. Lehia gabeko egoera kuantitatiboetan ere agertzen dira horrelakoak, hain zuzen ere, hondartzan pilotutako hondar ton-torra saltatzea. Araudi iraunkorraren eza eragina izan dezake.

Guztira, azaldutako joko-jolas kategoriatan hauek berezko jokoak eta berezko jolasarekin 16 kategoriatan osatzen dira.

Joko-jolasen azterketatik eratorritako sailkapena haurren sozializazioan azalartzen den generoa egiten den ikerketari seriotasuna erantzen dio. Jar-

duera motorren unibertsoan islatzen diren generoarekiko giza balioak multzoka aztertzeo aukera zabaltzen baita.

Horrela, joko-jolasen barne logikaren lau ezaugarrien biko konbinaketan oinarriturik Euskal gizartean joko-jolasen eremu motorrak bereiztean eta beraien berezitasunak zehaztean Euskal haurren gizarteratze prozesuan akzio motorren bitartez bereganatzen diren pentsamendua eta morala ezagutzeko ezin aukera hobeagoa zabaltzen da. Gizarte gaia den generoerekiko islatzen diren ildoak zehaztuz.

Izan ere, haurren zeregin nagusia jolastea dela baieztatzen denean haurrak haur-lan jarduten direla esaten da. Baina, baieztapen honek zereginen ondorioz haurrak eraikitzen dituzten eskemak heldutasunean dagokion gizartean bizitzeko baliogarriak diren galdera sortzen da. Euskal gizartean burutzen zituzten joko-jolasen azterketa generoaren ikuspuntutik egiterakoan Etxebeste "joko-jolas gehienak bi sexuentzako dira... Besteak mutilentzako eta neskentzako eskusiboki" direla ikusi du (Etxebeste, 2012, 61 or.). Mutilek joko arloan parte hartzeo joera handia erakutsiz, neskek jolasa-jokoan eta mutilak eta neskak biek jolasa arloan.

Euskal kulturaren etxeak (baserriak) pertsonen pentsamenduan eta azken finean, sozializazio prozesuan izan duen eragina aintzat hartuz, etxeoak eta kanpokoak errez bereizten dira. Euskal baserrian gizon eta emakumearen funtzioak banatuz. Gizonek kanpokoaren aurrean etxeoaren interesak defendatzearen funtzioa eta emakumeek etxeoaren zaintza funtzioa betez. Plazagizon eta etxeoandre hitzekin urrenez urren bi funtzioak adieraziz. "Jokoa mundua gizonekin hertsiki lotuta dago" (Etxebeste, 2012, 70 or.), aurkaria (kanpoko) irabaztearen plazera gizonen eremua izanik. Denok elkarrekin aritzeko jolasa mundua emakume zein gizonarekin lotuta dago, etxea (baserria) bizilagunen artean konpartitzeko plazera lekua izanik. Eta jolasa-jokoa mundua emakumeekin lotuta dago, neskak errepikatzearen plazerean hazten dira jolasa-jokoa kooperatiboaren bitartez, soka-saltoarena, etxeoandre izaten ikasten dute, egunero errepikatzen den lanaren plazera emakumearen eremua izanik.

Ikerketa etnografiko honen ondorioak egin den ikerketa jardura motorren barne logikaren ezaugarrien azterketarekin osatzeko, eta ondorioz, azaleratzen diren eremuek zein giza genero portaera eredu bultzatzen den baieztatzeo aintzat hartzen dira.

1.3. Emakumezko eta gizonetzko eraikuntza soziala

Behatutako gorputz hezkuntzak proposatu dituen jardura motorren bitartez sustatu duen hezkidetzako eredu azaleratzeko asmoarekin idazten den tesi honek genero kontzeptuaren inguruan hausnarketa egitea eskatzen du. Horrela, emakumezkoen generoa eta gizonetzkoen generoa desberdintzearen sorrerak generoak desberdintzeak giza antolamenduan duen eragina, genero bakoitzak azaleratzen dituen ezaugarri psikologikoak desberdintzeak, emaku-

meen eta gizonen arteko botere desorekan duen eragina eta desorekari aurre egiteko feminismoaren ekarpenak eta maskulinitasun teoriak genero arazoaren nondik norakoak azaltzeo aztertzen dira. Eta era berean, aztertzen den derrigorrezko giza praktikan, hau da, gorputz hezkuntzan genero arazoari ematen zaion erantzuna ezagutzeko hausnarketan bihurtzen da.

Nahiz eta, "bi emakumeen eta bi gizonen arteko portaerekiko eta ezaugarriekiko ezberdintasunak emakume baten eta gizon baten artekoak baino sakonagoak izan daitezkeela onartu, emakumeak eta gizonak oso ezberdinak diren gizaki gisa adierazteko joera orokortua dago" (Barberá, 2006, 59 or.). Emakumea edo gizona hitzak entzuten ditugunean, berehala, gaua eta eguna edo zuria eta beltza bezala, osatzen duten binomioaz pentsatzen da. Distantzian dauden bi mutur banan kokatzen diren emakumeak eta gizonak genero arazoaz mintzatzeo eraman dute eta arlo desberdinetatik egin diren ekarpenak arazoa ulertzeo lagungarri bihurtu dira. Zentzu honetan, psikologiak emakumearen eta gizonaren izaera aztertu duen bezala, soziologia edota antropologia giza prozesuaz arduratu dira. Ikerketa eremu hauek jaioberriaren heldze prozesuan emakumea edo gizona eraikitzeo bideak argitzeo helburua dute, aipatutako bi mutur horietan ezartzen diren bi gizaki moten arteko harremanak kontuan hartuz.

1.3.1. Rol sexualaren genero eraikuntza

Rol sexualaren kontzeptuaren inguruan hausnarketa egiterakoan emea edo arra izategatik portaera sozial zehatzak erakusteko joera dagoela onartzen da. Adibidez, tango edo pasodoblea dantzetan rol osagarriez hitz egiten da "dantzan gizon eta emakumei funtzio desberdinak esleitzeko tradizioari oso lotua dagoen osagarri hau (...) gizonaren rola betetzen duenarentzako liderra da eta emakumearen bada, jarraitzailea" (Urdangarin, 2009a, 281 or.). Izan ere, giza portaera mugatzen duen rolak "egitura sozialean betetzen den lekua arau kulturelekin lotzeo aukera ematen du" (Connell, 2003, 41 or.) eta aukera hori desberdintasun biologikoengatik ematen da. Rol sexualaren definizioan arreta sexuan jartzerakoan sozializazio prozesuak pertsonen nortasunaren eraikuntzan eta gizarte batean pertsonak betetzen dituzten funtzioak bereiztean duen eragina bigarren mailan geratzen da. Hau da, emakume eta gizonen arteko banaketa eta botere desorekaren argudioak arrazoi biologikoetan geratzen dira. Argudio honi aurre egiten den "el segundo sexo" liburuan feminitatea eraiki soziala dela aldarrikatu zen, "ez gara emakumeak jaiotzen, emakumeak egiten gara" baieztatuz (De Beauvoir, 2008, 371 or.).

Beraz, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen oinarri biologikoak motz geratzen dira eta giza zientzien eskutik indarra hartzen duen kontzeptua zabaltzen da: genero kontzeptua. Generoa "giza taldeen funtzioen desberdintzeari buruzko giza lege orokorraren ondorioa da" (Connell, 2003, 42 or.). Emakumea edo gizona izategatik, baina baita ere, giza maila edota arrazagatik sozializazioaren ondorioz rolak baneratu dira. Horrela, "ikerketa psikologikoak,

gizakiaren sexu moten ondorioz, sexu hitza emakumeen eta gizonen ezaugarri zehatzak aipatzeko erabili du, bestetik, genero hitzak, kulturak gizonei eta emakumeei itsatsi dizkien ezaugarriak aipatzen ditu, beraz, generoak oinarri psikologikoa, kulturala eta soziala ditu” (Barberá, 2006, 65 or.). Gaur, emakume eta gizona desberdintzen dituzten ezaugarri biologikoen ondorioz, sozialki eta kulturalki eraiki diren emakume eta gizon genero kontzeptua erabili arte.

Nola edo hala, ikuspuntu desberdinetatik ikertzaile eta autore askok emakume eta gizonen arteko desberdintasunak aztertu dituzte:

Behaketa klinikoan oinarritutako ezagupen analitikoan nagusitzen den ikertzaile eta zientifikoen artean Freud autoreak pentsamendu inkontzientea irakurtzeko garatu zuen teknikari esker, heldutasun sexuala eta generoa bizitzan zehar aldatzen direla erakutsi zuen. Generoa arazoz betetako prozesu luze baten ondorioz eraikitzen dela ikusi zuen. Bere hipotesia “gizaki guztiek izaera bisexuala dutela eta edozein pertsonan ezaugarri maskulinoak eta femeninoak daudela” izan zen (Connell, 2003, 23 or.) eta “edipo konplexua”²⁵ teoriarik oinarritzen zen. Adibidez, gizonen kasuan, krisia aitarekin dagoen lehian eta kastratua izateari duten beldurrean islatzen dela argudiatzerakoan.

Aurrerago, Freudaren maskulinitasun teoriarik “superyo”-a epaitu, zentsuratu eta idealak aurkezten dituen agentzia bezala definitzen da. Freudek superyoaren dimentsio soziologikoa aztertzerakoan “kulturak gizabanakoaren nahia kontrolatzen duen tresna bezala identifikatu zuen” (Connell, 2003, 24 or.). Freud autoreak berak El malestar en la cultura liburuan azaltzen duen bezala “berezko izaera, gizabanakoak murrizketarik ezagutzen ez duen heinean, erkidego baten kideen nahiak betetzeko aukera murrizten duten ideian oinarritzen da” (Freud, 1930, 29 or.).

Emakume eta gizonen arteko desberdintze prozesuaren eta arrazoiak azaltzeko nahian Jung autoreak ingurune sozialarekin harremanaren ondorioz eraikitzen den “nia” eta inkontzientean, errepresioaren osagaien ondorioz, sortzen den niaren arteko desberdintasuna azaltzen du. Lehenari pertsona deitzen dio eta bigarrenari arima. Nagusiki, pertsona eta arimaren arteko orekan jartzen da arreta. Jungk “gizonetan feminitatearen agerreran jartzen duen interesa” (Connell, 2003, 28 or.). Freud autoreak bezala, Jungk gizonetan feminitatea agertzen dela ikusten zuen. Baina, nagusiki, gizonetzkoaren pertsona eta emakumetzkoaren arimaren arteko orekan jartzen du arreta. Era honetan, maskulinitasuna eta feminitatea polaritateaz hitz egiten duenean polaritate honek “gizakien psikoan betiko egietan du sustraia” (Connell, 2005, 13 or.). Beraz, maskuli-

notasun eta feminitatearen eraikuntzan aldaketa historikoa ematea ezinezkoa egiten da. Eta egon daitekeen aldaketa bakarra polaritateak osatzen dituen bi izaeren arteko orekan da: balantzak maskulinitasunerantz edo feminitaterantz egiten duenean. Jungaren idatziek feminismoa estereotipo femeninoaren baieztapena bezala interpretatzen dute eta gizonak emakumea menderatzen dutenak direla baieztatu ordez, pertsonen alde maskulinoak femeninoa (arima) dominatzen duela azaltzen dute.

Connellaren esanetan Jungaren teoriak feminismoa emakumek jasan duten zapalkuntzari aurre egiteko bidea bezala ulertu beharrean, estereotipo femeninoaren birbaieztapena bezala ulertzeko aukera ematen du. Gaur, feminismo modernoak Bourdieuk (2007) azaltzen duen maskulinitasun hegemonikoaren kontra egiten duenean, balantzak feminitatearen alde (emakumetzkoaren pertsonaren alde) egiten du.

Adler autoreak, maskulinitasunaren teoriarik polaritatearen alde bat indartzen du eta bestea ahultasunarekin lotzen du. Era honetan, mutilek helduekin (gurasoak) duten harremanean bere burua ahul ikusten dute. Ahultasun sentimendu honek maskulinitasuna eskuratuko ez duten beldurrekin batera, feminitate zentzua garatzen die. Mutikoak bizi duen kontraesan honetan, ahultasunaren aurrean “oldarkortasuna eta arrakasta lortzeko izugarritzko ahalegin urduriaren alde egiten du” (Connell, 2005, 16 or.).

Psikoanalisi erradikalaren barruan nagusitzen den Adler autoreak Jungk bezala, maskulinitasunaren eta feminitatearen arteko polaritatea ikusten du. Baina, Adlerrek feminismoaren ikuspuntua konpartitzen du polaritatearen alde batek kulturalki beste aldea gutxiesten duela baieztatzerakoan.

Jaiotzen den haurrak dituen ezaugarri biologikoen jaioberriaren sexua baino ez dute definitzen. Freud, Jung edota Adler autoreen genero arazoaren inguruko idatziek gizabanakoaren nortasunean kulturak duen eraginaren ikuspuntua azaltzen dutenean ezaugarri biologikoen bigarren mailan geratzen dira.

Psikologiak zabaldu duen androginia psikologikoen kontzeptuak “gizonak eta emakumeak gizonetzkoen eta emakumetzkoen ezaugarriak partekatzen ditugun ideiarik egiten dio erreferentzia, eta gizonetzkoen eta emakumetzkoen ezaugarriak gizona edo emakumea jaiotzearen gertaera biologikorekiko menpe ez daudela erakutsi digu” (Barberá, 2006, 62 or.). Ikerketa psikologikoen bide luzean zehar, androginia maila neurtzeko metodo ezberdinak erabili dira. Ikerketa hauen helburua, emakume eta gizonen ezaugarrietan agertzen diren parekotasun eta ezberdintasun maila ezagutzea izan da. Baina, interesa aldatu egin da, eta eztabaida psikologikoen gizon eta emakumeen arteko konparazioen eta ezberdintasunen inguruan aritzen badira ere, gaur egun, ezberdintasun psikologikoen horien arrazoiak eta ondorioak arduraz azaltzen dira. Hain

²⁵ Haurtzaroen ematen den nahasmen emozionalak, guraso batenganako nahia eta bestearengandik anaka gorrotoa erakusten duena.

zuzen ere, psikologiaren interes berri honek, arreta genero estereotipoetan jartzera bultzatu du eta, ikerketa psikologikoei, kulturalki emakume eta gizonei atxikitzen zaizkien ezaugarrietan jartzen dute arreta.

Ezaugarri biologikoetan oinarrituta, giza arauak itxaroten diren ezaugarriak eraiki arazteko rolak mugatzen dituzte eta generoaren eraikuntzan, giza rolek gizon eta emakumeen nortasuna mugatzen dituzte. Era honetan, gizakiok dagozkigun rol arauak jarraituz nortasuna eraikitzen dugu. Baina, Foucaultek baieztatzen duen bezala, rola berezko nortasunaren gainetik jartzerakoan, genero politikaz hitz egin dezakegu eta “rol sexuala arautuaren teoriak alda-keta sozialak baretzen laguntzen du” (Connell, 2005, 25 or.).

1.3.2. Genero estereotipoak

Estereotipo hitza etimologikoki “stereos” (sendoa) eta “typos” (eredu) hitz grekoetatik dator. Orokorrean, estereotipoa talde bati egotzen zaizkien gaitasun eta jokabide ereduak bezala ulertzen da. Askotan, estereotipo hitzak zentzu ezkorra izaten du, giza maila, aberastasuna edota generoaren arabera aurreikusten diren portaerak mugatzen direlako. Eta honek sormenerako leku gutxi uzten du. Harluxet Hiztegi Entziklopedikoan horrela definitzen da estereotipo hitza: “Pertsona, giza talde eta abarri buruz banan-banako azterketa-rik gabe erazten den aurretiazko iritzi-multzoa, mota osoaz izaten den iritzia banako bakoitzari sistematikoki ezarriz sortua” (Jaurilaritza, 2008)

Horrela, emakumeek eta gizonek lotuta dituzten ezaugarriak deskribatzeaz gain, gizon eta emakumeen ezaugarriak preskribatzeaz hitz egiten da. Preskribatzea gizonezkoen edo emakumezkoen sexua izateagatik betebeharreko portaerak eta jarrerak mugatzea da. Preskribatutako portaerak eta jarrerak betetzean edo ez betetzean, gizon eta emakumearekiko giza jarrera baldintzatuz. Era honetan, tradizioan, gizonezkoaren estereotipoaren barruan nor bere burua baloratzeko, bizitzari aurre egiteko eta nahi eta pentsatzen dena ziurtasunez komunikatzeko gaitasunak preskribatzen dira. Aldiz, emakumezkoaren estereotipoaren barruan komunikaziorako, harremanak ezartzeko eta emozioak sortzeko gaitasunak ezartzen dira. Zer esanik ez dago, sexuari lotutako ezaugarri hauetan, gizartearen antolamenduan egon daitezkeen aldaketek eragina dutela. Honen ildotik, gizarte modernoetan emakumea lan mundura murgiltzeak emakumeak gizonezkoen ezaugarriez jabetzea ekarri du eta, estereotipoen aldaketa hau gizarte maila edo estratu guztietan era berean onartua ez bada izan ere, orokorrean emakumeak gizonezkoen aributuak erakustearikiko giza jarrera ona dela baieztatu daiteke.

Pertsonen nortasuna bizi garen gizarteak eraikitzen du. Meadek (1963) “Sexo y temperamento en las sociedades primitivas” liburuan azaldu zuen bezala, ausarta, indartsua, menderatzailea eta oldarkorra izatea ez dago sexupean, baizik eta, beste hainbat arrazoen pean, hots, adina edo indibidualismoak duen indarraren arabera, gizarte talde batek sexu bati edo besteari erazten, eta beraz onartzen zaizkio ezaugarriak “bi sexuen nortasunak sozialki eraikiak dira” (Mead, 1963, 339.).

Gizakiaren heldze prozesuan, “ikerketa berriek erakusten dute haurrek, urte eta erditik eta hiru urtera bitartean, bere burua sexudun pertsona bezala ikusten dutela eta ez forma generikoan” (Baker, 1992, 92 or.). Haurrek haien burua sexu bati edo beste bati lotuta dagoela sentitzen dute eta, ezagupen honi itsatsita, pertsonaren nortasunaren garapena ematen da. Beraz, haurrak kulturalki ezarrita dauden genero bakoitzarekiko ezaugarri psikologikoak onartzen eta bereak egiten ikasten du eta, era honetan, gizon edo emakumearen talde barnean sentitzen da. Haurra emakumezkoaren edo gizonezkoaren nortasuna ez izatearen mehatxuari uko eginez, giza talde batean egoten saiatzen da. Pertsona sexudun izatek genero nortasuna garatu arte. Azken finean, dagokion taldeari egotzitako ezaugarri psikologikoei uko eginez gero, taldetik kanpo geratuko litzateke eta, heldze prozesuan izatearen zentzua galduko luke. Ez existitzearen sentimendu eta bizipen honen ondorio psikologiko latzak ekiditeko, gizakiok, sexuaren arabera, kulturalki ezarritako ezaugarri psikologikoak eta portaerak onartzen ditugu, era naturalean egiten dugula pentsatuz.

Dagoeneko, generoen bereizketa ulertu nahian, instituzioen bitartez kulturalki gizontasun eta emetasun ezaugarriak ezartzen direla azaldu bada ere, zein ezaugarri hitz egiten dugun azaltzea izango da hurrengo ardura. Emakumearen izaera definitzen duten ezaugarriak eta gizonen nortasuna mugatzen dutenak binomioaren mutur bakoitzean kokatzen dira.

1.3.3. Ugaltze-lana eta ekoizpen-lana

Gizonek eta emakumeek heldze prozesuan, gizarteratzerakoan, garatzen dituzten ezaugarri psikologikoetan egin eta eman akzioak desberdintzen dira. Eman akzioa emakumeek bete nahi izaten duten akzioa da. “Emakumeek gizonek baino askoz denbora gehiago ematen dute emateari buruz hitz egiten” (Baker, 1992, 68 or.). Emateari uztea ez da haiek duten proposamena izaten. Alderantziz, besteei emateari uzteak ekarri ditzakeen ondorioen beldur agertzen dira eta, etengabe, nahiko ematen duten edo nahiko emateko gai diren beraien buruari galdetzen diote. Akzio hau ugaltze-lanean islatzen da. Lan eremu honek eskatzen dituen akzioen artean etxeko lanak (garbiketa, etxekoan elikadura) eta bere kabuz moldatu ezin diren pertsonen zaintza nagusitzen dira. Kultura tradizionalan emakumeek betebeharrak hau onartu dute eta gizonearen, gaixoen edota haurren zaintza eta etxeko lanen ardurak bete dituzte. Gaur egun ongizatearen Estatuak ugaltze-lanen sozializazioa ekarri badu ere, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ikusten dira. Adibidez, Euskal Autonomi Erkidegoan, 2011an ez aktiboan dauden gizon eta emakumeen artean, pertsonen biziraupenerako beharrezkoa den ugaltze-lanetan sarritan aritzen diren emakumeen portzentajea (%73,32) gizonena (%20,68) baino handiagoa da (Eustat, 2011b). “Partaide bakoitzak senideak zaintzeko eman duen batez besteko denbora ere, ordu eta minututan zenbatuta, emakumezkoen kasuan luzeagoa izan da; horretarako mota ezberdinak aztertu dira. Alde hori batez ere umeen zaintzan (1:60 emakumeek eta 1:19 gizonek) eta adinekoen zaintzan (2:15 eta 1:58) eman da (Eustat, 2012a, 2 or.).

Tradizioan emakumeari egotzi izan zaion ugaltze-lanen ardura Estatuak hartu du. Hirugarren sektorean, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak herrialde bakoitzeko administrazioek hartu dituzte. Hautzaindegien bitartez haurren zaintzaren ardura kanporatu egin da; denontzako eta dohainik den Derrigorrezko Hezkuntzaren antolamenduan haurren eta nerabeen heziketa irakasleen ardurapean geratzen da ikastetxeetan; osasuna ere denon eskubidea da, eta administrazioen ardura pean dago. Hain zuzen ere, zerbitzu-sektorea osatzen duten lanpostuak ugaltze-lanari dagozkion irakasleek eta medikuek betetzen dituzte, hirugarren sektorea “enplegu femeninoa gehien handitu den” sektorea izanik (Pérez, 2012, 191 or.). Zerbitzu sektorean, adibidez, EAE-n “enpleguaren banaketa sexuari jarraiki” gizonetzkoa %35koa den bitartean, emakumezkoa %65koa da” (Eustat, 2014). Ugaltze-lanak profesionalizatu egin dira, gizakiaren iraunkortasunaren ardura gizarteak hartzen du.

Emakumeari egotzi izan zaion zaintzaren betebeharrari gizarte tradizionalak ez diote gizonak betetzen dituzten betebeharrari beste balio eman. Honek, gizonak beste zaintzaren arduraren aurrean hartu duten erantzuna azaltzen du. Gizarteak berak bezala, gizonak zaintza ekintza bigarren mailako ardura bezala ikusten dute, eta etxekoen ardura betetzeko era eta helburua desberdina izan da. Gizonak, *egin* akzioari eman diote garrantzia eta akzio hau behar ekonomikoak bermatze ekintzan gauzatu da.

Gizonei, eredu tradizionalari jarraituz, ez zaie bultzatzen zaintza ardura hartzea. Izan ere, badaude ardura hori hartzen duten beste batzuk, emakumeak. Mutikoek, beraien heltze prozesu osoan ikusi duten errealitate bat da eta haien pentsamenduan eragin handia izaten du.

Esandakoak gizakiaren natura teoriak ekartzen ditu gogora. “Horiatariko batek gizatasuna egozentrikoa, lehiakorra, erasokorra eta suntsitzailea dela esaten du” (Baker, 1992, 91 or.). Emakumeek bete izan duten eta gaur egun betetzen duten ugaltze-lanak emakumeari nor bere burua ahaztu eta besteen beharretan sartzea, norbere asmoak eta helburuak ahaztu eta besteen helburuei (haurren eta gizonaren helburuei) garrantzia ematea eta zaintzen dutenen arteko harremanak bideratzeko maitekorra, bakezalea eta sortzailea izatea eskatu dizkio. Firestonek (1976) argudiatu bezala, “botere patriarkalak emakumeak erditze ekintza biologikoetara eta haurren hazkuntzara mugatzean desabantailan utzi zituen emakumea” (Pérez, 2012, 218 or.). Emakumea gizartearen aurrerapenerako egiten diren akzioetatik kanpo geratu da. Hain zuzen ere, adin-duen, gaixoen eta haurren zaintza, bizitzaren akzio printzipaletatik kanpo dauden ardura izaten delako. Beraz, emakumea mundu irreal batean bizi da eta mundu errealean (lan profesionalak betez edota ardura politikoak hartuz) sartu denean, gizonak eraiki dituzten instituzioen bitartez sartu da. Desberdintasunaren feminismoak edo feminismo kulturalak saihestu nahi duen egoera. Desberdintasunaren feminismoaren premisa nagusian “emakumeek egiten duenak gizonak egiten duenak beste balio duela” (Pérez, 2012, 230 or.) baieztatzen da. Gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna ez da gizonen antza izatean oinarritzen “baizik eta genero femeninoaren desberdintasunetik berdina izatea

lortzean” (Pérez, 2012, 230 or.), emakumeek bete dituzten zaintza arduren garrantziaren balioa denona eginez.

Gaur egun, alde batetik, herrialde modernoetan generoaren ikuspuntua integratzeko asmoa ikusi da. Eta bestetik, emakumeak lan emankorretik kanpo ez geratzeko nahia agerikoa da. Ekoizpen-lanean emakumearen indizearen igoerak adierazten duen bezala. Errealitateak ahalegin hau islatzen du. Adibidez, EAEn gizon eta emakumeen enplegu tasa parekoa ez bada ere, ezin da ukatu azken hamarkadan emakumearen enplegu-tasa nabari igo dela, %45,7koa izatetik 2011. urtean %59,4koa izatera. Apurka baina gorantz egin da. “Hala ere, tasa hori gizonak urte horretan izan dutena (%69,5) baino txikiagoa izan da (Eustat, 2012a, 2 or.)”.

1.3.4. Ausardia, oldartsutasuna eta frustrazio ezaugarri psikologikoak

Gizonetan ausardia, indarra, oldarra eta frustrazioa onartuagoa daude. Baieztape honen harira kondentatuen indizeetan arreta jarritz gero, emakume eta gizonen arteko izaeran dagoen aldea ikus daiteke. Horrela, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE), 2010ko zigortuen estatistikan, delitu moten arabera, gizonen eta emakumeen zigor indizea erakusten du. Sexu delituei dagokionez, Espainia mailan zenbatzen diren sexu-eraso eta sexu-jazarpena delituen osotasunaren %100 gizonak burututakoak dira. Mehatxua bezalako delituari dagokionez, gizonen zigortuen tasa %97,89koa da eta bortxa delituari dagokionez, %94,53koa (INE, 2010b). Era berean, Euskal Autonomi Erkidegoan, zigortuen tasak errepikatzen dira, emakume eta gizonen ezaugarri psikologikoen sexuen arabera zigortuen tasetan izan ditzakeen eragina nabarmenduz: gizonen delituen tasa %97,11koa mehatxu delituan, %96,29koa bortxa delituan eta aztertutako hiru sexu delitu guztietan %100koa (INE, 2010a). Arerioaren aurrean errukitsu eta sentimental agertzeak gudara joan behar izan duen gizonari ez ote diolako bere herrialdea (familia, etxekoak) babesten laguntzen?

Sozializazio prozesuan “haurrei beraien buruaren beste aspektuak garatzeagatik saritu egiten zaie... Emakumezko garapen parametroak eta gizonetzkoarenak ez dira berdina” (Baker, 1992, 110 or.). Jaiotzen garenean, inguratzen gaituzten pertsonen lotuta hasten dugu bizitza. Baina, gizonari, emakumeari ez bezala, afiliazio lotura hauek haustera bultzatzen zaio. Gizonak garatzen duen oldarkortasunak loturak apurtzeko bidea errazten du eta, ondorioz, bere zeregina betetzeko aukerak zabaltzen dira: aurrerapena, edonola lortua bada ere eta nagusiki, ekonomikoa.

Honen ildotik, Kabiliako²⁶ berberen gizartearen azterketa etnografikoa ekartzen da gogora, zeinek erritu sinbolikoek diskurtsoa eraikitzen dutela azaltzen du. Adibide bezala, amarekiko mutikoaren emantzipazioa *banaketa* izeneko

²⁶ Kabilia Aljeriako iparraldean menditsu eskualdean dago. Atlas mendikatean eta Mediterraneo itsasertzean kokatuta dago.

errituak adierazten du: “(...) lehen ile-mozketaren garrantzia adatsa, femeninoa, mutikoa ama-munduarekin erlazionatzen duten lotura sinbolikoen bat dela gertaerarekin elkartua doa. Aitari inaugurazio mozqueta hau labanarekin egitea dagokio, gizonetzkoen tresna...” (Bourdieu, 2007, 41 or.). Esan bezala, gizonak egin akzioarekin etxeokak babestuko ditu eta horretarako, bere lehenengo etxeokoekin izandako loturak (gurasoak) haustu behar ditu. Eta sortu duen etxe berriko partaideenganako lotura (menpekotasuna) sortzen du.

Ahultasuna eta hunkiberatasun sentimenduak, gizonentzako zein emakumeentzako ezagunak badira ere, gizonaren garapenean, heldutasunera helduzean, gizarteak debekatu egiten dizkio. “Mendebaldeko gizartean, gizonari ahul edo babesgabe sentitzeari beldur izaten, gaitzesten edo uko egiten irakasten zaio” (Baker, 1992, 45 or.). Gizonen menderatze tradizioan, gizonak indartsu erakutsi behar du bere burua. Gizonari ahultasun sentimendua ukatuzera bultzatzen zaio eta emakumeari bere burua babesgabe edo ahultasun sentimenduak erakustera.

Eredu maskulino hegemonikoan kulturak azpimarratu dituen beste ezaugarri batzuen artean bat frustrazioa jasateko gaitasuna da. “Eredu maskulinoan, helburua lortzean konpontzen da frustrazio arazoa, eta hala ez denean, horren ondorioz sortzen da agresibitatea” (Emakunde, 2008, 89 or.). Semeari alabari baino hobeto onartzen zaizkio oldarkortasun egoerak eta semeek erakusten duten haserre ulergarriago bezala ulertzen da. Probokazioen aurrean mutikoen engandik erantzuna itxaroten da, bere burua babesteko gai dela erakutsi dezala. Baina alabei, errieta egiten zaie. Neskatilak nahia ez lortzerakoan erakutsi dezakeen haserrearen aurrean, helduek (gurasoak, maisu-maistrak) zigorra edota debekuak bezalako kontrol mekanismoak erabiliz, bere burua gaitzotzat hartzen dute eta gurasoen maitasuna galtzeko arriskua dagoela sentitzen du. Era honetan, generoen kontrolerako bideak ezartzen dira. Eta mutikoak eta neskatilak, helduak egiten direnerako, gizarteak eta kulturak mugatzen dituen genero eredu ezaugarriak barneratuta dituzte, era naturalean gertatu dela pentsatuz.

Nahien arazoa ulertzean, gizon eta emakumeen ezaugarrien sorrera ezagutzen da. Gizonen nahiak legitimatzen dira eta beste nahien gainetik kokatzen dira. Hortik egozentrismoa, gizoni itsasten zaien ezaugarrienetarikoa bat: “bakoitzaren nahiak dira garrantzitsuenak, eta gainontzekoak (emakumearenak adibidez) nahi horiek asetzera behartuta daude...” (Emakunde, 2008, 91 or.). Bestetik, lortzen ez diren desirak ekartzen duten frustrazioaren aurrean gizonen jokabidea autoritarismoa da. Guzti honek emakumeengan gutxiago denaren sentsazioa eta sentimendua zabaltzen du. Ondorioz, emakumea, besteen (gizonen eta haurren) desirak eta helburuak igartzen saiatzen da. Etengabe, emakumea besteek izan ditzaketen asmoak, desirak baita beldurrak deszifratzeko ahalgintetan jarduten da, enpatia egoera emakumeen etengabeko zereginetan bihurtuz. Era honetan, emakumea, besteen menpe kokatzen da. Honen ildotik, gogora ekartzen da Baker autoreak (1992) bere “Psicología de la mujer” liburuan azaltzen duen adibidetarikoa bat. Gizona lanpostu hobegoa onartzeko

aukera izan zuen. Lana onartu aurretik, gizona ezintasun fisiko batzuk sumatzen hasi zen. Gizonak ez zuen ezer esan, baina emaztea adi, begira eta entzuten zegoen. Eta noski, emazteak gizonaren urduritasunaren ikusirik, elikadura aldatzeko aholkua eman zion. Adibide honetan, emakumeak erakusten duen enpatia argi ikus daiteke. Baina, autoreak azaltzen duen etsenpluan, gizonak ahultasun sentimenduari uko egiteko erakusten duten joera azaltzeko erabili zuen. Izan ere, emazteak ematen duen aholkuaren aurrean gizonaren lehenengo erantzuna haserre izan zen. Haserre horrek bere beharrek erakutsi dezaketen ahultasuna agerian uztearen aurrean beldur sentimenduari erantzuten du. Lehenago azaldu den bezala, semea, mutikoa, gizona beraz, egoera desberdinen eta besteen aurrean bere burua babesteko gai dela erakusteko hazten da. Ahultasunak ez du gaitasun honetan lekurik.

Gizartean nagusitzen diren diskurtsoek maskulinitasun hegemonikoaren ezaugarriak mugatzen dituzte. Frustrazioaren aurrean agresibitatearen permissibitatea, nahien legitimazioa eta ondorengo egozentrismoa edota ahultasunari uko egitea, gaur egun ezaugarri maskulinoak direla onartzen da. Baina, gizarte baten norabide politikoek instituzioen bitartez (familia, eliza, eskola) ezartzen duten hegemonia maskulinoari gizonak ez diote era berdinean erantzuten. Horrela, gizon batzuk menpeko maskulinitasun ereduaren aurrean garatzen dute beraien berezko psikea. “Gehienetan gizon homosexuali esleitzen zaien jokabidea, nahiz eta maila horren barne beste gizonak ere egon daitezkeen” (Emakunde, 2008, 24 or.).

Era berean, gizarteak ezartzen duten eredu femeninoarekiko emakume batzuen kokapena aipagarria da. Ahulak, sentiberak eta maitekorrak izateari utzi barik, gizarte modernoetako emakumeak gizonari egotzi izan zaien esparruan sartu dira. Bide luze eta astunen ondoren, legeen laguntzarekin eta antisorgailuei eta lan aukerei esker, emakumea bizitza pribatu bat soilik izatetik eremu publikoan bizitza bat izatera ere igaro da. Nagusiki, murgiltze prozesu horretan, emakumeak maskulinitasun eredu hegemonikoa jarraitu du. Eta oldarkortasun, autoritarismoa edota egozentrismo ezaugarriak bereak egin ditu.

1.3.5. Maskulinitasun ereduak

Antropologiak gaur aski ezaguna den ikertzeko metodo etnografikoaren bitartez, maskulinitasunari buruz ikertu eta emakumeen bizitza dokumentatu ditu. Adibidez, Messner autoreak kirolen bitartez maskulinitasunaren eraikuntzak instituzio eremuan duen garrantziaz hitz egiten du. Horrela, autoreak “haurrak kirol lehiakor bat praktikatzen hasten direnean, jokoa zertan datzan ikasteaz gain, antolatuta dagoen instituzioan barneratzen dira. “... kirol munduan maskulinitasunaren produkzioak lehiakor eta hierarkikoa den egitura instituzionala du ezaugarri” (Connell, 2003, 59 or.), eta haurrak horretan hazten dira.

Baina, Connell soziologoak (2003, 72 or.) ez du maskulinitasun eredu bakarraz hitz egiten, baizik eta eredu anitzez, eta horrela azaltzen da: maskulinitasun

ereduak “genero harremanengatik egituratuak praktikaren konfigurazioak dira. Historiari datzekionak, eta aldaketa sozialaren norabidean eta gizartearen interesen orekan eragina duen prozesu politiko bezala egiten eta berregiten dira”.

Maskulinitasun kontzeptuaren inguruan hausnarketa egiterakoan. Connellek (2003) giza zientzia positibista, definizio esentzialistak eta normatiboak aintzat hartzen ditu. Ikuspuntu desberdin bakoitzetik egiten den ekarpenari kritika zorrotza eginez.

Definizio esentzialistak maskulinoa definitzen duen ezaugarri bat aukeratzeko du. Baina ezaugarriaren aukeraketa arbitrarioa denez, maskulinitasuna ikuspuntu honetatik definitzea arriskutsua izan daiteke. Emakumeari atxikitzen zaizkion *eman* akzioaren ezaugarriak eta gizonari *ekin* akzioaren ezaugarriak genero banaketa bermatzen dute, baina ez dute gizonen edo emakumeen nortasuna aintzat hartzen. Giza zientzia positibistak psikologiak garatutako maskulinitasun/feminitate eskaletan oinarritzen dira, eta gizonak eta emakumeak hasieratik bereiztea eskatzen dute. Definizio normatibok arauak ezartzerakoan gizonak izan behar duten giza portaera mugatzen dute. Arauen bitartez gizonaren eta emakumearen portaerak ezartzerakoan rol sexualen teoriara hurbiltzen gara. Horrela, portaerak mugatzen dira baina ez izaera. Desberdinak diren gizonak eta desberdinak diren emakumeak ezarritako arau berdinetara hurbiltzen dira. Definizio normatiboek, beraz, rola eta nortasunaren nahasmena ekarri dute.

Beraz, emakumea eta gizona bereizten dituzten ezaugarriak era arbitrarioan edo eskala batean antolatuta egoteak arauak ezartzerakoan generoaren giza praktiken konfigurazio dinamikoak maskulinitasuna eta feminitatea genero proiektu bezala ulertzera eramaten du. Politikek giza praktiken konfigurazioetan eragina izanik.

Horrela, genero politikek botere, ekoizpena eta emozio dimentsioetan eragina dute. “Gutxienez, hiru dimentsioetan ekiten duen genero egiturarako eredu bat behar dugu” (Connell, 2003, 112 or.). Botere harremanen dimentsioaren ardatzak emakumearen menpekotasuna eta gizonaren menderatzea dira. Produktzioaren harremanen dimentsioak generoagatik lan banaketa du ardatz nagusia. Eta emozioekiko harremanen dimentsioa (Catexis), naturalizat hartzen den nahi eta joera sexualari dagokio.

Del Vallek (2002) “Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género” liburuan Euskal gizartean genero adierazpenetan eredu suspertzaileak aztertzen ditu. *Eredu* kontzeptua “abstrakzio era bat da, zeinetan giza talde zehatz bateko gizabanakoek euren burua hautemateko praktika, balio eta eretan aldiberekotasunak adierazten dira” bezala definitzen du (Del Valle eta lag., 2002, 31 or.). Bestetik, *suspertzaile* hitza “etengabe sortzen diren esanahi eta balio berriak, etika berriak, harreman eta harreman mota berriak zein ordezkioak edo oposiziozko osagaiak” hartzen ditu kontuan (Del Valle eta lag., 2002, 31 or.).

Euskal gizartean Del Vallek (2002) eginiko eredu suspertzaileen azterketa Connellek (2003) genero harremanen eremuan bereizten dituen boterea, produktzioa (lan ordaindua) eta cathesis (emozioen eremua) hartuz egin da. Hiru dimentsio hauetan ager daitezkeen genero eredu suspertzaileak ezagutzeko giza maila, adina, sexua eta ideologia aldagaiak izanik. Ikerketaren lagina osatzen duten pertsona desberdinei egindako elkarrizketan oinarrituz: “horrela, gaur egun, sozializazio berrien beharrak era desberdinean eragiten die frankismo belaunaldiari zegozkion 30 eta 55 urte bitarteko emakumeei eta gero jaio eta belaunaldi berria izena eman dioten horretan sartzen direnei” (Del Valle eta lag., 2002, 42 or.).

Generoaren botere egituraren ereduak aztertzerakoan pertsona nagusietan rol sexuala oso definituta egon dela baieztatzen da. Emakumeei egotzi zaizkien etxeko lanek ez die utzi autonomia izaten. Etxeko ardura izateak ez die beraien akzioak zuzentzen utzi, alegia, beraien denbora eta espazio bat izatea. Horrela irakur daiteke emakume nagusi bati eginiko elkarrizketaren transkripzioan: “... Eurek (gizonek), jatearekin eta edan, arropa garbia... Oso ona, baina ez (laguntzeaz ezer). Ni lanera joan naiz eta lanetik etorri ondoren nire etxeko lan guztiak egin behar izan ditut” (Del Valle eta lag., 2002, 51 or.).

Baina, emakume gaztea bizitza maila guztietan kudeatzeko gaitasuna garai batetik hona generoarekiko sortzen joan diren eredu berrien isla da. Etxeko zereginak ez dira emakume gazteen bizi-proiektuen ardatza eta euren bizitzaren jabe izateko espazioak bilatzen dituzte (lan produktiboaren esparruan edota harreman pertsonaletan).

Rol sexualak era naturalizatuan desberdintzeak botere kuota desberdina ekarri du, baina Del Vallek (2002) gizareratze prozesuan dinamika berriek desberdintasunaren naturalizazioa gainditzea ekar dezaketela erakutsi du.

Herrialdeek erabakitzen dituzten politiken arabera, gizonaren eta emakumearen arteko harremana definitzen da. Zentzu honetan, botere politikoetan emakumearen presentziak gizon eta emakumearen arteko harreman orekatua bermatzeko eta diskriminazioa saihesteko duen garrantzia erakusten du. Azken urteetan, emakumearen presentzia botere politikoan igo bada ere, parekotasun-irizpideak²⁷ ezartzen duen %40tik urrun dago. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2005eko legean “pertsona anitzeko administrazio-organotan ordezkariak izateko erabakia, hain zuzen, sexu biek %40ko ordezkariak izateko, gutxienez, dutenean joko da” (Legea 4/2005, otsailaren 18koa, 3225 or.).

Estatistika Institutu Nazionalak bere Emakumeak eta Gizonak Espainian atalean botere eta erabakiak hartzeko gaiaren inguruan egin dituen azterketa estatistikoek horrela erakusten dute. Parte hartze politikoa, emakumeak beteazle karguetan eta gobernuan dokumentuan aztertutako partidu politikoen²⁸

²⁷ Estatu, erkidego zein herri mailan organo eta erantzukizun-karguetan osaketa orekatuaren irizpideak sexu bien presentzia esanguratsua bermatu nahi du. Presentzia %40ra heltzen denean parekotasun-irizpidea betetzen dela onartuta dago.

²⁸ PSOE, PP, IU, EAJ PNV, CiU, ERC eta CC.

kargu betearazlearen osotasunean, emakumeen portzentajea 2010. urtean %30ekoa zen eta 2011. urtean %33,8koa (INE, 2011, 2 or.). Emakumeak legebiltzar autonomikoetan eta Europan dokumentuan islatzen diren datuen komentarioetan “sexu bien presentzia orekatua ematen diren eremu politikoak oso gutxi dira, kontuan hartzen den organo politikoaren arabera aldakortasun handia dago, hainbat organo konstituzionaletan emakumearen presentzia oso urria da eta parekotasun-irizpidea betetzen da batzorde autonomikoetan” baieztatzen da (INE, 2011, 1 or.). Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, legebiltzarren osaketan parekotasun irizpidea gainditzen da, 2010. urtean emakumearen presentzia %45koa zen (INE, 2011, 3 or.). Bestetik, Europako Legebiltzarrean 2009ko ekainaren hauteskundearen ondoren, emakumearen presentzia %35,1ekoa zen (INE, 2011, 2 or.).

Baina, botere politikoan parekotasun-irizpidea betetzeko ahaleginak egin direla erakusten dituzten datuak badaude ere, egoera hau ez dela beti horrela izan ikusten da. Batez ere, azken hamarkadan emakumea botere politikoan presentziaren igoera begiztatzen da. Emakumeak Eusko Legebiltzarrean izan duen presentzia legealdien arabera aldakorra izan da. Horrela, 1980. urtean, emakumearen presentzia %6,7koa bazen, 2001eko legealdian emakumearen presentzia %37,3ko indizera igo zen. Baina, emakumearen presentzia gizona baino handiago ez da 2005eko legealdia arte izango, %53koa izan baitzen. “Gorakada hori lotuta dago, zalantzarik gabe, 2005eko martxoan lege hau onartu izanarekin: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Otsailaren 18ko 4/2005 Legea” (Emakunde, 2010b, 137 or.). Aurreko hamarkadetan, emakumeak botere politikoan izan duen presentzia urria gizonen tradizioan era naturalean ezarritako ohiturei jarraituz bermatu da. Boterea izan duten gizonen jarraitu dituzten portaerak, jarrerak eta zereginak mugatzerakoan, gauzen ordena naturala ezarri da. Era naturalean, menderatuek balio gutxiago dituzten zereginak (besteen zaintza) eta menderatzaileek ondo baloratuta daudenak (baliabide ekonomikoen bermea) betetzera eramanez. Era honetan, gizartearen antolamendu tradizionala bermatu zen.

Horrela, botere, produkzio eta emozio dimentsio bakoitzarekiko gizabanakoen arteko harremanak aztertuz, sustatzen diren genero proiektuak bereiz daitezke: maskulinitasun eta feminitate ereduak. Ildo honetatik, Connellek (2005) botere, produkzio eta emozioekin harremanetan giza praktikek eragiten dituzten maskulinitasun ereduak bereiztu zituen: maskulinitasun gaizkidea, menpeko maskulinitasuna eta maskulinitasun hegemonikoa. Baina, maskulinitasun eredu hauek ez dituzte nortasun finkoak sortzen. Azken finean, genero praktiken konfigurazioak dinamikoak dira eta unearen arabera aldatzen dira.

Maskulinitasun hegemonikoa, patriarkatuak definitzen dituen ezaugarrien arabera eraikitzen da. Horrela patriarkatua definitzen dituen baldintzak aldatzen direnean, maskulinitasunaren menderatzearen oinarriak aldatzen dira.

Menpekotasun maskulinitasunak gizon taldeen artean ematen den menpekotasunari egiten dio aipamena. Adibide argiena, maskulinitasun homosexuala da.

Maskulinitasun gaizkidea eredu hegemonikoa guztiz jarraitzen ez duen maskulinitasuna da. Proiektu hegemonikoarekin gaizkide harremanari egiten dio erreferentzia, hegemoniaren abantailak (kristalezko sabaia²⁹, soldadak eta lan baldintzetan) dituzten gizonen mugimendu feministek adierazten dituzten lan produktiboa eta zaintzaren arteko banaketaren aldarrikapenekin bat egiten dute.

Adibidez, Estatu batuetan 70eko hamarkadan gizon eta feminismo gaien inguruko terapiak³⁰ hedatu ziren. Nagusiki gizonen emozioen kontrolan jarritzen zuten arreta. Terapian honen bitartez, neurri batean, emakumeen menpekotasun egoeraz jabetzeaz gain, gizonen emakumeen egoerarekiko erruduntasun zentzua handitu nahi zen. Baina, feminismo eta emakumeen askatasun mugimenduen ondorioz, gizonen askatasunaren politika zabaltzen hasi zen, “maskulinitasun politika hauen egiturazko oinarria maskulinitasun gaizkidea da” (Connell, 2003, 283 or.). Maskulinitasun eredu honek, isilean, patriarkatutik etekinak ateratzen errazten die gizonen. Gizon hauek, emakumeekin harremanak doitzeko prest agertzen dira, baina ez aldaketa sakonak egiteko.

Hegemonia, menpekotasuna eta gaizkidea maskulinitasun ereduak “genero ordenaren barne harremanak dira” (Connell, 2003, 121 or.). Kultura hegemoniko batean, menderatze eta menpekotasun harremanak ematen dira. Eta menpekotasunaz baliatuz, gizonen hegemonia bermatzeko, gizonen arteko konplizitateaz hitz egin daiteke. Era honetan, giza praktikek maskulinitasun hegemonikoa bereizten dute.

Bestetik, generoa, arraza eta giza maila egiturekin elkarrekintzak maskulinitasunaren arteko harreman berriak sortzen ditu. Horrela, giza maila edota arrazaren arabera hegemoniarekiko estatusa aldatzen da. Testuinguru batean, gizona izateagatik, boterea eta kontrola (larderia, bortizkeria edota inteligentziaz lortua) izateak ez daude bermatuta testuinguru horretatik kanpo. Adibidez, Connellek (2005) ikertu duen bezala, behe giza mailako mutikoen hegemonia neskekiko harreman ezkorretan, bortizkerian eta delinkuentzian islatzen da. Baina, giza ordena eta arauak etengabe apurtzean, botere instituzionala eta eredu kulturalaren aurrean erantzukizuna dakar, eta boterea izateko bortizkeria erabili duen mutikoa poliziaren edota ordena bermatzen duen agenteen boterearen pean aurkituko da. Atleta beltzak maskulinitasun hegemonikoaren isla badira ere, lortzen duten arrakasta eta aberastasuna ez dira nagusitasun sozialean bilakatzeko. Guztiarekin aurreko hiru maskulinitasun ereduaz gain, maskulinitasun marjinala bereiztu daiteke. Immigrazioaren fenomenoak maskulinitasun marji-

²⁹ Emakumeen lan profesionalaren ibilbidean ikusezina den goiko gainalde bati esaten zaio. Beraien ibilbide profesionala mugatzen duen teilatua da, gainditzeko saila eta aurrera jarraitzen uzten ez diena. Emakumeen ibilbide laborala zehazki mugatzen dituzten ofizial eta ezarritako dauden arau edo legeak ez daudelako ikusezina esaten zaio (Wikipedia)

³⁰ Gida baten laguntzarekin banako meditazioa, emozioak edota esperientziak konpartitzeko tailerrak, belarren erabilpenean oinarritzen den medizina edota masajek eta ekialdeko erlijioak gizona, feminismoa, sexualitate maskulinoa, gizonen askatasuna eta gizonen gaien inguruko terapiak ziren.

nalaren adibidea izanik. Arraza eta kultura berekoen aurrean gizonak duen hegemonia, jatorrizko biztanleriaren aurrean marjinala bilakatzen da.

Beraz, azken finean, maskulinitasun ereduak aintzat hartuz, gizon eta emakumearen arteko menpekotasun harremana, gizonen artean ere ematen dela ikus daiteke.

Maskulinitasun ezaugarrien azterketak patriarkatuaren giza botere egitura eta maskulinitasun eraikuntzaren arteko loturak ulertzeko bideak zabaltzen ditu. Maskulinitasun motak bereiztean jartzen da arreta. Gero, patriarkatuak bermatzen duen gizon nortasuna zein den bereizteko eta gaurko gizartearen emakume eta gizonen arteko harremanak ulertzeko. Honek, lehenik, teoriakoek eta ikertzaileek bereiztu dituzten maskulinitasun ereduak zehaztera eramanez izan du: "... menderatze, konplize eta marjinal maskulinitasunak" (Wedgwood, 2009, 335 or.).

1.3.6. Patriarkatu sistema eta maskulinitasun hegemonikoa

Patriarkatu kontzeptuak aitaren legea adierazten du, beraz, aitek emazte eta alabengan eragiten duten kontrolari egiten dio aipamena. Ikerketa feministen teorian patriarkatu sistemaz hitz egiten da: gizartearen atal maskulinoa goi mailako talde bezala egituratzen duen sistema da eta boterea emanez, talde femeninoaren gainean kokatzen dena. Sistema patriarkatua bermatzeko gizarteek hartu dituzten neurriak ugariak dira. Adibidez, familia eraikitzeke heterosexualtasunaren baldintzak edota herentzien inguruko araudia batzuk dira.

Botere maskulinoaren gunea den patriarkatua aurkakotasun generikoa, emakumeen arteko areriotasuna eta matxismoaren fenomeno kulturala baldintzetan baieztatzen da. Aurkakotasun generikoa emakumeen zapalkuntzarekin eta gizonen menderatzearekin lotzen da. Emakumeen arteko areriotasun historikoaren ondorioa genero femeninoaren zatiketa da. Baldintza hau gizonengatik erakutsi duten borrokan eta, beraien ezaugarriengatik, egotzi izan zaien bizitzeko gunea betetzeko borrokan islatzen da. Azkenik, matxismoaren fenomeno gizontasun zapaltzailearen gorespenean oinarritzen da. "Haien kontzientzia eta borondate-tik baino urrunago, lehenik, gizonak gizona izateagatik, zapaltzaile patriarkalak dira, baita ere, haien instituzioak eta arauak (Estatua: gizarte politikoa, baina baita ere, gizarte zibila)..." (Lagarde y de lo Ríos, 2011, 118 or.).

Hegemonia "bizitza sozialean aginte posizio eskatzen eta exijitzen duen talde baten bitartez kulturaren dinamika egiten dio aipamena" (Connell, 2003, 117 or.). Maskulinitasun hegemonikoa genero praktikaren konfigurazio bezala definitu daiteke, patriarkatuaren legitimitatearen arazoari, une zehatz batean, erantzun onartua emanen diona. Maskulinitasuna eta boterea elkarrekin lotzen diren aztergaietan bihurtzen dira. Maskulinitasun hegemonikoa sustatzen duen emakumearekiko eta, gutxiesten diren beste agente sozialekiko (gay, urritasun fisiko edota mentalak, imigrantea), boterearen isla da. Teoria hau onartzerakoan, giza harreman orekatua arazo bezala ikusten da. Eta hartzen diren erabaki poli-

tiko eta instituzionalaren erabakiak arrazoitza hartzen dira, ez ondorio bezala. Beste era batera esanda, "ez da izango konponketa instituzionalek desberdintasuna sortzen dutela eta, orduan, maskulinitasuna zalantza jartzen dituzten tira birak sortu dituztela?" (Connell, 2003, 70 or.).

Patriarkatu sistemak menpeko eta menderatzaileen arteko harremana bermatu du. Baina, sistema hura gaituzte dugula pentsa arazten gaituzten indizeen gainetik (adibidez, emakumea lan esparruan agertzearena) patriarkatu leuna ezarri da. Aro berrien patriarkatu leunaren sisteman, menpekoak ustezko aukerak egiten ditu berezko aukera egiten duela pentsatuz. Emakumeek eta gizonen berezko aukera bat egiten dutela uste badute ere, kultura hegemonikoak ezartzen dituen baldintzen arabera egiten dituzte aukerak. Menpekotasun egoera (agerikoa edo leuna) bermatzeko edo gainditzeko polita publikoek legeen bitartez gizarte penalak edo diziplinazko gizarteak sortzen dituzte.

Mendebaldeko herrialde modernoetan, politika publikoek lege eta arau batzuen bitartez, gizon eta emakumeen arteko harreman ez orekatua gainditzeko nahia erakutsi dute. Europan, "amatasun baimenak" arauarekin, haurra zaintzeko baimena amak zein aitak har dezake, edo, bien artean, zaintza ardua banandu dezakete. Gai honen inguruan, errealitateak amatasun baimena amek hartzen dutela erakusten du. Lanaldi motaren arabera emakumearen aldeko euskal institutuak eginiko ikerketan islatzen den bezala, "emakumeak gehiegizko ordezkariak dute aldi baterako langileen kolektiboan, 2007an kolektibo horren %83,2koa baitzen" (Emakunde, 2010a, 41 or.). Amatasun baimena hartzeko arazoien artean lan baldintzak eragina badute ere, institutu berak eginiko beste ikerketan Vitoria-Gasteizko haur bi dituen 34 urteko emakumeak esaten duena ekartzen da gogora: "nire ustez pisua guk daramagu, ez bakarrik mundua antolatua dagoen moduagatik, baizik eta gu geu behartuta sentitzen garela ere. Ulertuko bagenu betebeharra ez dela gurea bakarrik, egoera hau amaitu egingo litzateke... Baina erruduntasun sentimendua izaten dugu, egiten ez dugunean, joaten garenean, haurrak amarekin edo aitarekin uzten ditugunean... Hori da arazoa. Emakumea izateagatik hori, egotea, guri dagokigula sentitzen dugula..." (Emakunde, 2007, 45 or.).

Emakumeek aukeratzeko eskubidea izan dutela bizi dute, baina azkenean, tradizioan emakumeari egotzi zaion rola betetzen jarraitzen dute Beraz, gaur, era sotilago batean, menpekotasun harremanak bermatzen dituzten gizarte-politikek diziplinazko gizarteaz hitz egitera eramanez dute.

1.3.7. Edu hegemonikoaren ondorioak

Nortasunaren giza eraikuntzaren inguruan soziologian egin diren landa lan ikerketek nagusiki gai zehatz batzuek aztertzen dituzte: eguneroko bizitzan maskulinitasunaren eraikuntza; egitura instituzionalen eta ekonomikoaren garrantzia; maskulinitasun formen artean desberdintasunaren esanahia; eta generoaren ezaugarri dinamikoak eta kontraesankorra. Bestetik, emakumearen nor-

tasuna eraikuntzan baldintzak ere aztertu dira. Baina, "Ikerketa historikoak, denboraren joatean, emakumea izatearen baldintzan eman diren aldaketen deskripzioak egitera ezin dira mugatu... epealdi bakoitzean, familia, eliza, estatua eta eskola instituzio eta agenteen sistemaren egoera mugatu behar dute" (Bourdieu, 2007, 105 or.). Era berean, Connellek (2005) maskulinitasun teoria bat eraikitzerakoan, maskulinitasun eredu bakarra eraikitzen dituzten politikek eskola, familia edota kirol instituzioen bitartez osatzen dela ikusten du. Hala ere, politikek sustatzen dituzten maskulinitasun hegemonikoak gain, eredu gehiago daudela baieztatzen du. Era honetan, maskulinitasun aniztasuna bereiztea garrantzitsua dela ikusten bada ere, are gehiago maskulinitasun forma ezberdinen artean sortzen diren harremanak.

Gizon batek barneratu duen maskulinitasuna neurtzeko, historiaren zehar, froga ugari ezarri dira. Instituzio politikoek egoerak erabili dituzten neurrian, historikoki egon zitezkeen giza eredu berrien eraikuntzaren aukeren porrota ekarri dute. Era honetan, adibidez, kirola eta guda maskulinitasuna neurtzeko eta probatzeko mekanismo bezala erabili eta erabiltzen dira. Gizontasuna probatzeko tresnak bezala ulertzen dira. Honen ildotik, zein maskulinitasun ereduaz hitz egiten den galdera erantzun behar da.

Genero gaia aintzat hartuz, giza genero hegemonikoak, gizon eta emakumearen arteko menderatze harremanaz hitz egitera baino, pertsonen artekoaz ematen denari buruz hitz egitera eramaten du. Politikek indartzen duten nor-tasun eredu eta, eredu bizitzako eremu guztietan, familia, erlijioa, hezkuntza eta kirolaren bitartez islatzeko egiten dituzten ahaleginek, pertsonak gauzen orden naturala bezala gertatzen dela ulertzera eramaten dute. Gizonek eta emakumeek ezartzen den eredu beraiena egiten dute. Kirol batean parte hartzen duen neskak edo mutilak arrakastak eskaintzan dion botereari, emozionala baino ez bada ere, nekez egingo dio uko. Are gutxiago, neska edo mutil horrek inguratzen dutenen (gurasoak, entrenatzaileak, lagunak) poza eta harrotasuna ikusten duenean.

Gizakiok emakume eta gizonen ezaugarriak partekatzen baditugu ere, gizon eta emakumeen arteko izaera, portaera eta jarrerarekiko islatzen diren ezberdintasunak agerian daude. Ezberdintasunek bi edo agente gehiagoren arteko harremanak aberasteko bidea bezala ulertuko bagenituzke, gaur ez ginateke genero arazoak hitz egiten egongo. Baina, errealitateak eta gaiaren inguruan idatzi eta ikertu denaren ondorioz, gizon eta emakumeen arteko botere harremanaz berba egitera eramaten du. Hain zuzen ere, menderatzaile eta menderatuen arteko harremanaz. "Emakumeak neurri handi batean, morroi leinuen antzera, menpekotasun posizioa bete izan du" (Baker, 1992, 15 or.). Mota hauetako harremanak, eguneroko bizitzan, adibide ugari aurkitzen ditugu. Heldua eta hauraren, medikua eta gaixoaren, irakasle eta ikaslearen artean dira batzuk. Baina, aipatutako adibide hauetan, helduak, medikuak edota irakasleak duten boterea menderatuei zerbitzu bat eskaintzeko erabiltzen dute eta, kasu guztietan, ezberdintasun harremanarekin bukatu nahi da.

Gizon eta emakumearen arteko harreman ez orekatuaz hitz egiten denean menderatzailea eta menderatuaren arteko etengabeko harremanaz hari da berba egiten.

Generoari buruz idatzi den lehenengo tesiaren autoreak, Millettek (1970), familiaren eraikuntzan patriarkatuaren oinarriak deseraiki zituen eta "sexu desberdintasunak botere harremanekin lotu zituen" (Pérez, 2012, 216 or.). Generoaren gaian egin zuen ekarpena inflexio puntutzat hartzen da. Izan ere menderatzaileen eta menderatuen arteko harremanen jatorriaz arduratzen da. Bere politika kontzeptu berria "botere estrategien multzoa menderatze sistema zehatza antolatzeko eta mantentzeko garatzen dena" gisa definitu zuen (Ibid. 2012, 216 or.). Eta familia eta sexualitatea bera antolatzen den menderatze sistema horren baitan sortzen direla baieztatu zuen. Milletten (1970) ustez, eremu pertsonal eta pribatu gisa ulertzen diren familian eta sexualitatean "gizartearen egitura patriarkalak, harreman sexualen formak menderatzeko harremanak sortu zituen" (Pérez, 2012, 216 or.), *pertsonala politiko* bihurtuz. Feminismo erradikalaren leloa "berdintasuna ekimenetik eta askatasunaren eraginetik baino ezin da lortu" da (Ibid. 2012, 209 or.). Leloa "sexuaren eta amatasunaren arteko banaketa" (Pérez, 2012, 223 or.) gauzatzen bermatzen da. Hain zuzen ere, emakumea amatasunaren mende ez egoteak bikotearekiko autonomia eragin du. Familia eraikitzeke bestearen beharra ere saihestu du, harreman heterosexualen subiranotasuna kolokan jarri du. Sexuaren eta amatasunaren arteko banaketan antisorgailuek eta lagunduriko ugalketak izan duten eragina giza praktika berrietan islatzen da.

Muturreko feminismo erradikala atzean geratu bada ere, gaur bere eraginez pertsonen arteko harremanetan balio berriak itsatsi dira. Emakumearen eta gizonaren arteko harreman pertsonaletan eta pribatuetan praktika berrien legitimitatea areagotu da. Horietako giza praktika bat harremanaren helburua familia tradizionala ez izatea da. "Herrialde bakoitzean bioteknologiaren erregulazio politikoak" (Pérez, 2012, 249 or.) bermatuko du. Intseminazio artifiziala, obuluen edo haziaren donazioa, edota ordezkotako amatasuna gertatzen politikak dira. Eremu pertsonalean eragina dutenak, hain zuzen ere. Eta ondorioz, emakumearen eta gizonaren arteko elkarbizitza proiektua, harreman pertsonalen plazeraren balioa sustatzeko aukera ematen duena, kolokan jarri daiteke. Izan ere, EAEan familia tradizionalaren eredu "1986an familia mota guztien %63a izatetik, 1996an %51ra eta 2006an ea %41era izatera pasatu da" (Eustat, 2006, 6 or.).

Bourdieu (2007) menderatzaile izaeraren eraikuntza azaltzeko soziodizearen estrategian jartzen du arreta. Ezberdintasun sozialak, eraiki sozialaren prozesu bezala ulertu beharrean, gauzen naturaren parte bezala ulertzerakoan menderatzaile eta menderatuen estatusak bermatzen direla baieztatuz. Estrategia honek gizonaren, menderatzailearen indarra areagotzen du. "Soziodize maskulinoaren indarra bi eragiketarik dator: natura biologikoan legitimatzen den menderatze harremana inskribatzen du, natura biologikoa, berez, eraiki

soziala naturalizatu izanik” (Bourdieu, 2007, 37 or.). Tradizioan ezarri diren emakumearen gorputzarekiko arauekin apurtu dutelakoan daudenek, gorputzaren erakusketa kontrolatuan askapen aztarna ikusten badute ere, gaur gorputzaren erabilerak gizonezkoaren ikuspunturekiko menpe jarraitzen duela ikusten da. “Oinarrizko hezkuntzak gorputza maneiatzeko erak irakasteko joera du” (Bourdieu, 2007, 42 or.). Gorputzaren sozializazioan pertsonen janzkerak eta mugimenduak mugatzen dira. Horrela, gonak edota takoiak emakumeen mugimenduak determinatzen dituzte (lasterketa egiteko, esertzeko). Baina, nahiz eta, janzkerak aldatu, gorputza mantentzeko era hauek irauten dute. Adibidez, gizonen egozten zaizkien gorputz jarrera erlaxatuak edota mahai gainean oinak jartzeari bezalako posturak emakume batentzako imajinaezinak dira. Era berean, publizitatean, eskaintzen eta ukatzen den emakumezkoaren gorputza, gizonen eta emakumeen dakiten bezala, sinbolikoki liluratzeko, erakartzeko eta gizona ondartzeko erabiltzen da. Emakumeen gorputzaren konfinamendu sinboliko honek menperatuen psikologia bermatuz.

Guztiarekin, ez dugu ahaztu behar “... giza mugimendu berriak, feminismoak bereziki eta pedagogia berritzeko mugimenduak eredu berrien bultzatzaileak izan direla” (Del Valle eta lag., 2002, 113 or.). Eta, emakume eta gizonen arteko botere desoreka gainditzeko hezkuntza dekretuen ondorioz ikastetxeetan bultzatzen diren hezkuntza proiektuek Connellek (2005) mugatutako eredu hegemonikoa, gaizkilea eta marjinala pertsonen arteko berdintasunerako eredueta bilakatu ditzaketela, eredu suspertzaileak ez badira ere.

Azken finean, “gizona eta emakumea izatearen zentzu fisikoa genero kulturaren interpretaziorako ardatz nagusia da” (Connell, 2003, 83 or.). Gorputza (eremu fisikoa) azala sentitzeko erak, gihar tentsioak, mugitzeko erak, posturak eta sexu aukerak izateko tresna da. Beraz, gorputz esperientziak gure bizitzaren memorian duten garrantzia nortzuk garen eta zer garen ulertzeko oinarria da: “Kirolak, gizonen gorputza mugimenduan erakusteko aukera ematen du” (Connell, 2003, 85 or.). Erakusleihoa da. Kirolari batek egiten dituen abilezi zehatzek gorputzaren bat eraikitzen dute.

1.3.8. Genero eta justizia soziala

Genero ordena, bere osotasunean hartuta, krisirako duen joeraren arabera bilakatu daiteke eta Del Vallek (2002) bere “modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género” liburuan azaltzen duen bezala, genero politikak maskulinitasun eta feminitate eredu zaharrak aldatu ditzake. Krisirako joera lehenago azaldutako genero harremanen hiru egituretan ikus daiteke. Botere harremanetan, botere patriarkatuaren subiranotasuna zalantzan jartzeko eta emakumeen emantzipaziorako mugimendu mundialak genero eredu aldaketak ekarri dituzte. Produkzio harremanetan, emakumea lan esparuan sartzeak ekarri dituen gatazkek aldaketarako bidea jorratzen dituzte. Adibidez, zaintza arduraren banaketa kudeatzeko orduan. Eta emozioekiko harremanetan, emozio, afektua eta plazera izateko eskubidea, orden hetero-

sexualitate kanpo, krisia aukeraren eskaeran islatzen da. Adibidez, emakumea norbere gorputzaren kontrola izateko eskubideen eskaerak izan duen eragina praktika heterosexualetan zein homosexualetan.

Genero harremanetan, justizia sozialari buruz hitz egiten denean, berdintasuna bilatzen da. Berdintasuna ez gizon eta emakumeek bizimodu edota pentsaera berdina eta era berekoa izan ditzaten. Baizik eta, botere harremanetan gizonen estatuan, lanbideetan, zuzenbidean duten presentzia eta emakumeen kontra gauzatzen duten bortizkeria, hasteko, zalantzan jartzeko. Besteak beste, ekonomia mailan gizonen, sistema patriarkatua dela eta, ateratzen dituzten etekinei aurre erantzun politiko bat emateko.

Galdetu beharko genioke gure buruari, genero justizia soziala helburu duen politikak, gizonen dituzten boterea eta abantailen kontra doan edo maskulinitasun hegemonikoaren kontra. Izan ere, gizonen dituzten abantailen kontra eginez gero, orduan, maskulinitasun eredu giza eraikuntzak ez du ardurarik. Eta genero justizia soziala baino, justizia soziala bermatzeko berreirikuntza politiko-ekonomikoa beharko litzateke.

Bestetik, generoarekiko justizia soziala bermean mehatxua maskulinitasun eredu bada, gizonen izaeraren berreraikuntzaren ondoren (giza praktiken berreraikuntza) baino ez dela emango onartu beharko litzateke.

Mendebaldeko emakumeek, berdintasuna, aukera eta eskubide (ekonomikoak adibidez) berdina izateko nahi eta behar horretan, maskulinitasun hegemoniko eredu jarraitu dute. Adibidez, tradizioan gizonenak izan diren instituzioetan parte hartu dute (politikan, hezkuntza zuzendaritzan, kirolean). Baina, gizonen eremuan sartze hura ez da berdintasun baldintzetan eman. Horra hor adibidez, enpresa mailan kristalezko sabaia nozioa. Orduan, zein da gakoa?. Zein da emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta oreka lortzeko jarraitzeko bidea?. Zein da?, baldin eta, genero justizia eman dadin emakumeak gizonak beste lan egiteko gai dela erakutsi behar duenean. Zein da?, baldin eta, gai denean, emakumea izateagatik bete beharreko zaintza ardurak kristal sabai hura gainditzeko ez badio uzten. Zein da gakoa?, baldin eta aukera berdina izateko, kirolean bezala, genero banaketa ematen bada: gizonen edo emakumeen liga txapelketaren kasu.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bilatzen duen Gizonduz programak “gizonen kontzientziazioa, partaidetza eta inplikazioa sustatzea” (Otxotorena, 2009, 135 or.) du helburu. Desberdintasun biologikoetan oinarriturik emakumeak eta gizonari gizartearen erantzizko zitzazkien funtzioetatik gaur giza genero hitzaz mintzatzea heldu gara. Genero gaia aztertzerakoan badirudi automatikoki emakumeak lotzen zaion gaia dela: “berdintasuna emakumeen ardurak bakarrik dela ematen duelako; gizonak aktore soil gisa ikusten dira” (Otxotorena, 2009, 135 or.).

Connellek (2003) azaldu bezala maskulinitasun hegemonikoak emakumearen eta gizonaren arteko desberdintasunak areagotu baditu ere, “emaku-

meak eta gizonak zapaltzen ditu” (Otxotorena, 2009, 142 or.). Hala ere, emakumearen eta gizonaren arteko harremanetan menderatzaileetan, emakumea gizonaren menpe egon da.

Gizonarekiko menpekotasuna, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunek areagotu duten egoera da, Emakunde Euskal Erakundearen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. planak zabaltzen duenez.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren ardatzak, programak eta helburu estrategikoak zehazten direnean, programa bakoitzari dagozkion helburu operatiboek planaren nondik norakoa azaltzen dute. Aztertzen den generoaren gaian giza balioak eta ahalduntzeak duten eraginaz ohartuz, planaren balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea ardatzetan jarri da arreta.

Balioak aldatzea ardatzean “balioak aldatzea sustatzea, pertsonen sexuaren arabera emandako genero estereotipoak eta rola ezabatuz” (Emakunde, 2014, 70 or.) helburua zehazten da. Genero estereotipoak eta rola ezabatzeko aldatu beharreko balioak “sexu-hierarkiari eusten dioten balioak” (Emakunde, 2014, 71 or.) izanik, arlo guztietan emakumeak gutxiesten eta menderatzen dituzte, maskulinitasunari nagusitasuna eta prestigioa emanez.

Garatu behar diren balioek giza genero eredu tradizionalak saihestea eta beste barri batzuk sortzea bermatu behar dute. Balio horien artean berdintasuna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, alegia, balio giltzarria da. Berdintasuna eskubide bat izateaz gain, balio bat ere baita. Berdintasunean balio gisa bi mailatan eragin daitekeela ikusi da. Lehenengo maila “emakumeen eta gizonen behar eta egoera ezberdinei egokitutako baliabide publikoak diseinatzearekin” (Emakunde, 2014, 72 or.) lotuta dago eta bigarren mailan “berdintasuna gure subjektibotasunean kokatzea” (Emakunde, 2014, 72 or.) ezinbestekoa ikusten da. Emakumeen artean berdintasunaren balioa garatzeko, emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa bermatu behar da, eta gizonengan garatzeko “gizakien garapenaren ikuspuntutik positiboak eta aberasgarriak diren beste esperientzia batzuk garatu behar dira, zainketaren etika, besteak beste” (Emakunde, 2014, 72 or.). Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun balioa gizakien subjektibotasunean jartzeak aisialdirako, lanerako zein gozamenerako aukera berdina izatea dakar.

Era honetan, emakumeen ahalduntze pertsonalerako eta kolektiborako bideak zabaldu daitezke. Ahalduntzea prozesu bat da, bertan emakumeak “historiako, politikako eta kulturako objektu izateari uzten dio, (...); eta bere bizitzako subjektu bilakatzen da; bera da historiako, politikako eta gizarte-bizitzako protagonista” (Emakunde, 2014, 73 or.). Emakumearen ahalduntze pertsonalak emakumeak auto-estimua handia izatean jartzen du arreta. Bere menderatasunari buruzko kontzientzia hartuz eta eskubideak eta interesak ezagutuz, emakumeak erabakiak hartzeko autonomia areagotzen du. Ahalmen horrek eragina positiboa du bere auto-estimuan. “Eredu eta balio patriarkalak emakumeen auto-estimua” (Emakunde, 2014, 83 or.) kaltetu dutela onartzean ikusezinak bilakatu diren emakumeen ahalduntze pertsonala beraien auto-estimua handi-

tzetik hasten da: “emakume bakoitzak bizitzari aurre egiteko eta bizitza bizitzeko duen auto-konfiantzan, balorazioan eta indarrean” (Emakunde, 2014, 83 or.) oinarritzen den subjektibotasunaren auto-estimua handitzetik.

Bestetik, emakumearen ahalduntze kolektiboak emakumeek jardura ekonomikoa, lan-merkatuan, parte hartzean jartzen du arreta, “kulturan, politikan eta ekonomian (...) gizonen proportzio berean protagonista izatea” (Emakunde, 2014, 88 or.) lortuz. Ahalduntze kolektiboa, emakumeak ere gizarte aldatzen parte hartzeko aukera gizonaren proportzio berean izateko prozesua litzateke. Izan ere, “emakumeak, emakume izate hutsagatik, diskriminaziozko desberdintasun-egoeran daude bizitzako zenbait eremutan, bai taldean, bai gizarte-talde gisa” (Emakunde, 2014, 88 or.). Adibidez, kirolean “jarraitzen duten emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak” (Emakunde, 2014, 91 or.) emakumearen ahalduntze kolektiboaren garrantzia areagotzen dute:

“Kirolari dagokionez, Emakundek 2012an kirolean generoaren arabera eragin-txostenak egiteko prestatutako gidaren arabera, jarraitu egiten dute emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak. 2012an, Euskadiko eskola-kiroleko jokoetan, neskek %39,5 ziren, eta mutilak %60,5. 2010ean, emakumeen %20,56k baino ez zuen kirol-lizentziarik; aldiz, gizonen lizentzia kopurua handiagoa da 48 kirol-federaziotatik 44tan. Gimnasiako federazioan (%97), boleiboleko federazioan (%61), hipikako federazioan (%61) eta neguko kirolen federazioan (%53) baino ez daude emakumeen lizentzia gehiago” (Emakunde, 2014, 91 or.).

Emakumearen ahalduntze kolektiboa bermatzeko Emakunderen VI. planaren helburu operatiboen artean batek kirola aintzat hartzen du: “Kirol-baliabideak eskuratzen dituzten emakumeen kopurua eta horien gogobetetze maila hobetzea, egoera- eta behar-aniztasuna aintzat hartuta” (Emakunde, 2014, 98 or.).

Beraz, emakumearen ahalduntze prozesua emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko ardatz bihurtzen da. Ahalduntzea, boterea lortzeko estrategia da, boterea emakumearen autonomia, auto-estimua eta gizarte parte hartze maila handituz eta lortuz bermatzen da, emakumeen eta gizonen arteko harreman hierarkizatua saihesteko bidea.

Genero eraikuntza sozialak maskulino/femenino oposizioa gorputzean islatzen da. Emakumeak eta gizonak praktiken ondorioz femenino eta maskulino gorputzasunak eratzen dituzte. Horrela, praktika motorrek edota haurren hasierako zaintzen eskakizunek gorputzasun desberdinak osatzen dituzte. “Desberdintasuna/menperatze eredu hain nagusia da kulturan, instituzioetan zein gorputzean islatzen eta gorputzetik eratortzen diren praktikan, erreforma bilatzen duena eta eskubideetan oinarritzen den politika mugatzen duela” (Connell, 2003, 312 or.). Zentzu honetan, menderatzeak desberdintasunari uko egiten dio. Gakoa, desberdintasuna onartzean egongo litzateke, genero eraikuntzaz hitz egin beharrean gizabanakoen eraikuntzaz arduratuz.

Amaitzeko, idazten den tesia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko gakoa zein izan daitekeen interes handiko galdera bada ere, apaltasun osoz, Kurutziaga ikastolak gorputz hezkuntza derrigorrezko arloaren bitartez azaleratu duen genero eredu mugatu nahi da. XXI. mende honen hasieran eta ikasturte batez genero eredu suspertzailez hitz egin daitekeen ezagutu nahiak zurrumbilo eta ur jauzi handiko erreketan piraguarekin murgiltzea bezain abentura izan daitekeela baieztatzen badu ere.

1.4. Hezkidetzak eta legeria

Emakume eta gizon bakoitzak eguneroko bizitzan egiten dituen berdinketarako ahaleginak kasu, oraingo honetan, errealitate sozial eta kulturalen sexu-diskriminazioarekiko ordenamendua antolatzen duen legeria aztertuz erabaki politikoek genero berdintasunerako hartutako erabakiak interesatzen egiten zaizkigu. Genero gaia aintzat hartzen duten lege orokorrek hezkuntza lege eta dekretuetan erakusten duten adierazpena gizaratean bultzatu nahi den hezkidetzak eredu ezagutzen laguntzen baitu.

1.4.1. Sexu-diskriminazioarekiko ordenamendua antolatzen duen legeria

Zentzu honetan, Europa Batasuneko 2000ko oinarriko eskubideen eskutitzean, gizaratearen garapenerako eta giza aurrerapenerako betebeharreko funtsezko eskubideak ezarri dira. Bere bigarren tituluan 15. artikuluan pertsona guztiek lan egiteko eskubidea dutela esaten da. Eta bere hirugarren tituluan, igualitatea bermatzeko oinarriko eskubideen artean, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari aipamena egiten da: “gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eremu guztietan bermatu behar izango da, enplegu, lana eta ordainketa gaiak barne” (Euro-parlamentua, Eskutitza C364/01, 2000, abenduaren 18koa, 13 or.). Emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 legearen 38. artikuluan “emakumeei enplegua lortzen laguntzeko asmoz, arlo horretan eskumenak dituzten euskal herri-administrazioak honakoak egingo dituzte” irakur dezakegu (Legea 4/2005, otsailaren 18koa, 3244 or.). Lehenengo neurriak, baldintza batzuk kontuan hartuta (enpresaren tamaina, jardueraren sektorera), emakumeak eta gizonak kontratatzeke portzentajeak ezarriko dituztela esaten du. Era honetan, emakumearen aktibitate tasa edota enplegu tasaren igoera bermatzeko legeak, dekretuak, tratatuak eta eskutitzak idatzi dira. Emakumea mundu errealean bizitzeko aukerak areagotuz.

Emakume eta gizonen bete izan dituzten lanen giza balorazioari dagokionez, Euskal Autonomi Erkidegoan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2005eko legearen atariko tituluan berdintasuna bermatzeko irizpide orokorrak zehazten ditu. Horien artean, 3. artikuluan idazten dena ekartzen da gogora: “Euskal aginte publikoek, inola ere, sexuaren arabera rol sozial eta estereotipo batzuk desagerraraztea sustatu behar dute, emakumeen eta gizo-

nen arteko desberdintasunaren oinarri baitira eta horien arabera emakumeei etxeko eremuaren ardura eta gizonen eremu publikoaren ardura izendatzen baitzaizkie, eta hori, gainera, balorazio eta aitorten ekonomiko eta sozial oso ezberdina eginez” (Legea 4/2005, otsailaren 18koa, 3225 or.).

Lehenik, 2007ko martxoan argitaratu zen “Ley Orgánica para la igualdad efectiva de mujeres y hombres” aipatzen da. “Guztiarekin, lege honen beritasun handiena jokabide diskriminatzaileei aurre hartzean eta berdintasunaren printzipioa eraginkorra izan dadin, politika aktiboen aurreikuspenean” ikusten da (LO 3/2007, martxoaren 22koa, 12611 or.). Genero ikuspuntutik, beritasun honek politika publikoak eskatzen ditu. Besteak beste, hauek berdintasunerako hezkuntza politiketan edo kirolean gauzatuko dira. Hezkuntza politikoei dagokionez, hezkuntza sistemak gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatu dezan, baliabideak erabiltzean jartzen da arreta. Eta horretarako, hezkuntza helburuak mugatzea bezain garrantzitsua akzio zehatzak determinatzea da. Era honetan, giza estereotipoen ondorioz gizon eta emakumeen arteko bereizketa saihesteko. Baita ere, eskoletan egiten den hezkuntza sexistaren eta materialen (testu liburuak) erabilpenean jartzen da arreta. Lege honetan, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna giza eskubideei buruzko hainbat nazioarteko testuetan aintzatetsi den eskubide unibertsala dela idazten da.

Hamarkada batzuk lehenago Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Batzar Orokorrak emakumearen kontrako era guztietako diskriminazioa ekiditeko hitzarmena 1979ko abenduan onartzen du eta 1984an Espainiak berresten du. Hitzarmen osoan emakume eta gizonen arteko berdintasunaren irizpidea agerian geratzen da. Horrela, bere 10. artikuluan, konbentzioan parte hartzen duten herrialdeek hezkuntza eremuan gizonarekin eskubideen berdinketa bermatzeko hartu beharreko neurriak idazten dira. Horien artean, hezkuntza mistoa bultzatu behar dela zehazten da. Azalduz, neurri hau maskulino eta femenino rolen estereotipoak saihesteko hartu beharreko bidea dela. Neskak eta mutilak une eta gune berean, hezkuntza maila eta forma guztietan hezkuntza bera izan dezaten. Geroago, artikulua berean, emakumearen kontrako diskriminazioa ekiditeko “kirol eta gorputz hezkuntzan aktiboki parte hartzeko aukera berdina” egon daitezkeen neurriak hartu behar direla azaltzen da (NBE 34/180 Hitzarmena, 1979, abenduaren 18koa, 226 or.). Bestetik, Amsterdam hitzarmena 1999an indarrean jarri zenetik, gizon eta emakumeen arteko diskriminazioa eta emakumeen aurkako bereizketaren ezabapena Europar Batasunean ekintza politikoen helburua bilakatu da.

Euskal Autonomi Erkidegoan 2005eko emakume eta gizonen berdintasunerako legea ezarri zen (Legea 4/2005, otsailaren 18koa). Lege honen ardatzak bost oinarri orokor dira: berdintasuna tratuan; aukera berdintasuna; aniztasuna eta diferentzia begirunez zaintzea; genero ikuspegiaren integrazioa eta ekintza positiboa. Bere azken helburua, sexuaren arabera tradizioan ezarritako rolen bereizketak norberaren garapenerako eta erabakiak hartzeko ekarri dituen mugak gainditzea da. Eta bere xede nagusia emakumeen eta gizonen berdint-

tasuna bermatzea da. Horretarako, generoaren ikuspuntua politika publikoetan itsastea ezinbestekoa ikusten da. Lege honek eredu maskulinoa orokortzeko eta ezartzeko joera zuzentzeko irizpide orokorrak eta neurriak azaltzen ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan, Euskal botere publikoek bete beharreko konpetentziak bere 9. artikuluan idazten dira. Horien artean, "gizabanakoaren eta berori sartuko den taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezkoa eta egiazkoa izan daitezen, diratekeen oztupoak erauzteko eta aldeko kondizioei eragiteko neurriak hartuko dituzte" konpetentzia zehazten da (LO-3/1979, abenduaren 18koa, 288 or.).

Emakumearen Euskal Erakundea sortzen duen 1988ko legearen funtsezko xedea "Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizarte-bizitzako alor guztietan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako eta egiazko berdintasuna lortzea" da (Legea 2/1988, otsailaren 5koa, 1417 or.). Xeda hau betetzeko Euskadin emakumea diskriminatzeko era guztiak ezabatzea ikusten da eta jarraian erakundeak dituen funtzioak zerrendatzen dira. Adibidez, baldin eta sexu bien arteko berdintasuna eraginkorra oztopatzen badute, indarrean dauden legeen aldakuntzak proposatzea; alor ezberdinetan emakumearen egoera aztertzea eta neurriak hartzea horietako funtzio batzuk izanik.

Hezkuntza legeen artean, alde batetik hezkuntza kalitatea eta hezkuntzarako eskubidea artikulatzen dituzten legeak idatzi dira. Hauetan, baita ere, genero arazoa kontuan hartzen da. Beste aldetik, hezten diren neskek eta mutilak jaso behar dituzten balioz idazten dituzten legeak bereizten dira.

Hezkuntza sistema ordenatzeko eta arautzeko legen artean Ley Orgánica reguladora del Derecho a la Educación (LODE) dugu. Lege honetan, eskola publikoa, pribatua eta itundupekoen arteko oreka lortzeko artikulak idazten dira eta baita ere, gurasoek botere publikoek eskaintzen dituzten ikastetxeaz gain, beste ikastetxe moten artean aukeratzeko eskubidearen inguruan artikulak. Baina, lehenago hezkuntzaren xede nagusiak zehazten ditu. Horien artea "elkarbizitzarako irizpide demokratikoen barruan, oinarrizko eskubide eta askatasunaren errespetuan eta tolerantzia eta askatasuna erabiltzean hezte" (LO 8/1985, uztailaren 3koa, 21016 or.) idazten da. Nahiz eta genero arazori aipamen zuzena ez egin, xede honen irakurketan sexuagatik ezberdintasunak toleratzea eta errespetatzea inferitu daiteke.

Hezkuntzaren kalitateagatik arduratuta Ley Orgánica de Calidad de la Enseñanza (LOCE) argitaratu zen. Lege honetan kalitatezko hezkuntzak bete behar dituen irizpideak azaltzen dira. Bere atariko tituluaren lehenengo kapituluaren artikuluan idazten diren hezkuntza sistemaren kalitatezko irizpideen artean "sexuen arteko eskubideen berdinketa bermatzen dituzten balioak eta... transmititzeko gaitasuna" irizpidea zehazten da (LO 10/2002, abenduaren 23koa, 45192 or.). Era honetan, kalitatezko hezkuntza eta sexuagatik egon daitezkeen eskubideen urraketa esaldi berean lotzen dira.

Hezkuntzaren 1970ko Lege Orokorraren (Legea 14/1970, abuztuaren 4koa) ezarpenaren aurretik ez da eskola mistoaren asmorik ikusten. Baina, generoari dagokionez, lege honen berezitasuna neska eta mutilen curriculum parekatzean datza. Gero, hezkidetzaren abiapuntu hartzen duen hezkuntza legea 1990an argitaratu zen.

1970ko hezkuntza legearen hamarkada bi geroago, Ley Orgánica de ordenación General del Sistema Educativo argitaratu zen (LOGSE). Bere hitzurrearen bigarren paragrafoan hezkuntzaren lehenengo eta oinarrizko helburua zehazten da: "hezkuntzaren lehenengo eta oinarrizko helburua neska eta mutilei, sexu bat eta besteko gazteei beraien eta berezko nortasuna eraikitzen uzten dien heziketa eskaintzea da..." (LO 1/1990, urriaren 3koa, 28927 or.). Aurreko legeetan ez bezala, lehenengoz neska eta mutila hitzak erabiltzerakoan idazkera ez sexista gauzatzen da. Aurrerago, bere bosgarren paragrafoan diskriminazioa eta desberdintasuna aipatzen ditu. "Azken finean, heziketak, jatorria familian edo gizartean izan, tradizionalki arrastatu edo gizartearen dinamikarekin etengabe agertu, jaiotza, arraza, sexu, erlijio edo iritzizko arrazoi-gatik diskriminazio eta desberdintasunaren aurkan aurreratzea erraztu behar du" (LO 1/1990, urriaren 3koa, 28927 or.). Mota hauetako baieztapenek genero arazoa gizartean orokorrean eta, bereziki, gizarte arazoari aurre egiteko ardura duten instituzio publikoetan, gaiak duen garrantzia islatzen dute.

Bere atariko tituluaren bigarren artikuluan, ekintza hezitzaileak bete behar dituen irizpideak zerrendatzen dira. Horien artean, sexuen arteko eskubideen berdinketa eta edozein motako diskriminazioa saihestu behar direla dio.

Euskal Autonomi Erkidegoko 1992ko Lehen Hezkuntzarako Dekretuan, era berean, ikasleek garatu behar dituzten gaitasunak zerrendatzen dira. Horien artean "... sexu, gizarte maila, sinesmen, arraza edo bestelako ezaugarri indibidual edo sozialengatik bazterkeria oro errefusatuz" idazten da (Dekretua 237/1992, abuztuaren 11koa, 7798 or.). Dekretu beraren lehenengo eranskinean, arloak zehazten dira. Ingurune natural, sozial eta kulturaren ezagupena arloak, era berezian, sexuen arteko diskriminazioan eta berdinketan arreta jartzen du. Horrela, arlo honen edukien artean "sexualitatea: nortasun sexuala... Sexuen arteko berdintasuna. Rol sexistak" edo "izaera sexistako adierazpenen analisia egoera ezberdinetan (familia, ikasgela, joko eta kirolak, lana) eta komunikabideetan (telebista, publizitatea)" idazten dira (Dekretua 237/1992, abuztuaren 11koa, 7810 or.). Gorputz Hezkuntza arloaren helburu orokorren artean "jolas eta jardueretan parte hartzea, besteekin harreman orekatuak... ezaugarri sexual eta sozialen ondoriozko diskriminazioa... ekidinez kirol jardueretan" idazten da (Dekretua 237/1992, abuztuaren 11koa, 7835 or.). Gaztelania eta Euskara arloko helburu orokorretan, hezkuntzaren erabileran sexuari buruzko gogoetak egitera gonbidatzen da, era honetan, hezkuntza sexista saihestuz.

Hezkuntza Lege Orokorra eta LOGSEaren tartean mugimendu feministek, berrikuntza pedagogikoaren taldeek eta sortzen diren genero gaiarekiko baztordeek eta aldizkariak egiten dituzten ekarpenak LOGSEan egiten den hez-

kuntzaren erreforman islatzen dira. Genero eta hezkidetzaren esparruetan lan egiten duten taldeen artean 1976an sortu zen Bizkaiko Emakume Asanblada gogora ekartzen da. Erakunde feminista honen filosofia emakumeentzako bidezkoagoa eta berdina den gizartea sortzea da. Lanbroa edota Adarra bezalako taldeek gizartean eta hezkuntzan izan duten eragina aipatzea ezinezkoa egiten da. Lanbroa 1976an sortu zen Euskal Herriaren eremuan talde feminista bat da eta bere oinarriko ideologian patriarkatu erradikala zalan-tzan jartzen da. Adarra maisu eta maistras osatutako talde baten ekimenagatik 1978an sortua da eta bereziki eskola publikoaren hezkuntza irizpideen artean hezkidetzaren sustatzea bat da. Izan ere, "... irakaskuntza muin bakarra, elkar hezitzaile, kultura artekoa bultzatu eta desberdintasunak gainditu" nahi dituen taldea da (Adarra, 1978).

Hiritar guztiek beraien banako eta gaitasun sozialak garatzeko asmoarekin Hezkuntzaren 2006ko Lege Organikoa ezarri zen. Legearen irizpideen artean eskubide eta aukera berdinen garapena eta gizon eta emakumeen arteko berdinketa eraginkorra sustatzea zehazten dira. Argitasunez, genero desberdintasunak ez areagotzeko aipamena egiten den lege honetan, neskak eta mutilak hezkidetzaren irizpidetik heztea azaltzen da. Bere 2. artikuluan zehazten diren xedeen artean, lehenak "ikasleen gaitasunen eta nortasunaren garapen osoa" azaltzen du (LO 2/2006, maiatzaren 3koa, 17165 or.). Era berean, bere bigarren kapituluaren lehenengo xedean neska eta mutilei beraien garapen pertsonala eta ongizatea finkatzea ahalbidetzen duen heziketa eskaintzeari garrantzia ematen zaio.

Europar Batasunak hezkuntzari buruz duen ikuspuntutik eta Euskal Herriaren ikuspuntu zehatzetik, Euskal Autonomia Erkidegoko 2007ko Oinarriko Hezkuntzaren curriculumak ezarri zen. Bere lehenengo kapituluaren xedapen orokorretan, 8. artikuluan, oinarriko konpetentziei erreparatuta, oinarriko hezkuntzaren helburuak zehazten dira. Elkarrekin bizitzea ikastea helburuan "... ez onartzea jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritziagatik eta bestelako ezaugarri indibidual edo sozialengatik egiten diren diskriminazioak ..." idazten da (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, 26046. or.). Genero arazoa aintzat hartzen duen dekretu honek, oinarriko helburu beraren barruan sexuen arteko desberdintasun eta pertsona guztien arteko berdintasunetan arreta jartzen da. Eta "... gizonak nahiz emakumeak diskriminatzeak eragin ditzaketen estereotipoak baztertzeko" idazten da (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, 26047 or.). Azken helburu honek, genero arazoarekiko aurrera pauso bat erakusten du. Lehenago ez bezala, genero estereotipoek emakumeengan izan ditzaketen eragin ezkorrek kontuan hartzeaz gain, gizonengan izan ditzaketen aintzat hartzen dira. Beraz, helburu honen azken zatian hezkidetzaren norabidea inferi daiteke. Hain zuzen ere, espazio eta denbora berean hezten diren nesken eta mutilen hezkuntza gauzatzen den gizartean ematen diren estereotipoen kanpoko hezkidetzaren

Dekretu beraren laugarren eranskinean, Lehen Hezkuntza arloko curriculumak zehazten dira. Gorputz hezkuntza arloko curriculumaren sarreran "prozesu horretan, edonolako diskriminazioak saihestu behar dira (hau da, sexua- ren, gizarte-mailaren, arrazaren, pertsonen arteko desberdintasunen edo gaitasunen arabera), eta, horretarako, indarrean dauden gizarte-estereotipoak eta jarrera xenofoboak hautsi behar dira" idazten da (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, IV. eranskina, 89 or.). Beherago, oinarriko gaitasunei gorputz hezkuntzak egindako ekarpena atalean, hezkuntza-komunikaziorako gaitasunari gorputz hezkuntzak egiten dion ekarpena azaltzen da. Eta Komunikabideetatik, norberaren gorputz irudia eraikitzeko, gorputz hezkuntzak mezu eta estereotipoen balorazio kritikoa egiteko laguntzen duela argitzen da.

Guztiarekin, lege, hitzarmen eta dekretuek genero gaiarekiko azaltzen duten ikuspuntua agerian da.

Taula 5: Lege orokorren adierazpenak.

Lege eta hitzarmen orokorrak		
Legea	Jatorria	Adierazpenak
Emakumearen kontrako era guztietako diskriminazioa ekiditeko hitzarmena	Nazio Batuen Erakundea (1979)	Hezkuntzan gizonarekin eskubideen berdinketa bermatzeko hezkuntza mistoa bultzatu.
Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua	Euskal Autonomia Erkidegoa (1979)	Gizabanakoaren eta taldeen askatasuna eta berdintasuna bermatzeko neurriak hartu.
Emakumearen Euskal Erakundea	Euskal Autonomia Erkidegoa (1988)	Gizon eta emakumeen arteko benetako eta egiazko berdintasuna lortu.
Amsterdam Hitzarmena	Europar Batasuna (1999)	Europar Batasunean ekintza politikoen helburua gizon eta emakumeen arteko diskriminazioa eta emakumeen aurkako bereizketaren ezabapena da.
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea	Euskal Autonomia Erkidegoa (2005)	Sexuaren arabera tradizioan ezarritako rolen bereizketak norberaren garapenerako eta erabakiak hartzeko ekarri dituen mugak gainditu.
Emakume eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako Lege Organikoa	España (2007)	Jokabide diskriminatzaileei aurre egin. Giza estereotipoen ondorioz gizon eta emakumeen arteko bereizketa saihesteko neurriak hezkuntzan.

Genero gaia dela eta azaldutako lege eta hitzarmenek sexuagatik jokabide diskriminatzaileak saihestea aldarrikatzen dute, gizon eta emakumeen arteko benetako eta egiazko berdintasuna lortzea gizarte demokratikoen helburuan bilakatzea ezin bestekoa egiten dela baieztatuz. Azken finean, tradizioan ezarritako rolen bereizketak eta gizarte-estereotipoak gainditzea

benetako berdintasuna bermatu dezake. Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako giltzarria hezkuntza izanik.

Taula 6: Hezkuntza Legeak eta Dekretuak.

Hezkuntza Legeak eta Dekretuak		
Legea	Jatorria	Adierazpenak
Hezkuntzaren lege Orokorra	España (1970)	Neska eta mutilen curriculumak parekatu.
LODE	España (1985)	Elkarbizitzarako oinarrizko eskubide eta askatasuna, errespetua eta tolerantzia erabiltzen hezi.
LOGSE	España (1990)	Neska eta mutilei berezko nortasuna erakitzten uzten dien heziketa eskaini.
EAEraiko Lehen Hezkuntzako curriculumak ezartzen duen Dekretua	Euskal Autonomia Erkidegoa (1992)	Sexu, ... edo bestelako ezaugarriengatik bazterkeria errefusatu. Sexuen arteko berdintasuna. Jolas eta jardueretan harreman orekatuak sustatu. Kirol jardueretan sexual diskriminazioa saihestu.
LOCE	España (2002)	Sexuen arteko eskubideen berdinketa bermatzen dituzten balioak sustatu.
Hezkuntzaren Lege Organikoa	España (2006)	Gizon eta emakumeen arteko berdinketa. Neska eta mutilak hezkidetzara irizpidetik hezi.
EAEraiko Oinarrizko Hezkuntzaren Dekretua	Euskal Autonomia Erkidegoa (2007)	Sexuagatik diskriminazioa ez onartu. Gizonak nahiz emakumeak diskriminatzeak eragin ditzaken estereotipoak baztertu.

Hezkuntza sistemaren antolamendurako garatzen diren lege eta dekretuek curriculum desberdinetatik gizon eta emakumea diskriminatzeak eragin ditzaketen estereotipoak baztertzeko hezkuntza hezkidetzara irizpidetik antolatu behar dela ezin besteko dela agerian geratzen da. Nesken eta mutilen curriculumak parekatzeaz gain curriculumak une eta gune berean jasotzen duten hezkidetzara bultzatuz. Baina, hezkidetzara eredu bakarra dago? Eta zein da behatutako gorputz hezkuntzan sustatu den hezkidetzara eredu?. Galdera hauek erantzuteko ezin bestekoa egiten da hezkidetzara kontzeptua arakatzea.

1.4.2. Hezkidetzara

Hezkidetzara kontzeptuak giza talde bi edo gehiagoren heziketa bateratuari egiten dio aipamena. Horrela, giza maila edota etnia ezberdinek osatzen dituzten taldeen heziketari egiten da aipamena. Baina, hezkidetzara kontzeptuaren erabilera ohikoenak giza talde zehatz bitan jartzen du arreta. Hain

zuzen ere, gizonak eta emakumeak osatzen dituzten giza talde bietan. Hezkuntza bateratuak pertsona guztiak balio, portaera, arau eta itxaropen sistema berdinean hezteko esan nahi du. Azken finean, kohezteak batetik, giza generoagatik hierarkizatua dagoen hezkuntza eta bestetik, genero baten nagusitasuna beste baten gainean egotea saihestu nahi ditu.

Hezkidetzara kontzeptua hezkuntza mistoa baino aberatsagoa da. Azken hau genero biak ikasgela berdinetan egotean datza. Era honetan, neskek eta mutilek ikaskuntza berdina izatea bermatzen da. Hezkidetzara urrunago jartzeko du. Neskak eta mutilak une eta gune berean egoteaz gain, hezkuntza eta beste agente sozialen bitartez transmititzen diren genero estereotipoetan jartzeko du arreta. Eta hezkuntzaren bitartez, eremu publikoen zein pribatuen, neska eta mutilen balorazio berdina izatearen garrantzia ikusarazi nahi da, "oinarria aniztasunean, diferentzian eta diferentzia horrekiko errespetu sokoagatik banakotasunen garapena eta sexu bien gizatasunaren osaketan dago" (Timón, 2010, 22 or.). Honekin, hezkidetzara irten muga baldintza berdinetatik abiatzearekin baino haratago jo behar duela azpimarratu nahi da.

Era honetan, batetik, diskriminazio sexista errazten dituzten jarrerak saihesteko eta, bestetik, norberaren sexuaren eta nortasunaren onarpenetik abiatuz, norbere buruaren iritzi baikor eta osasuntsua bermatzeko ikastetxeko plana erakitzea ezin bestekoa egiten da. Izan ere, "generoen sistemak oinarritzen den eskolak gizakien gaitasunak murrizten ditu eta nagusitasuna eta mendetasuna sistema ezartzen du" (Tomé, 2002, 52 or.).

1.4.3. Eskola banatua, mistoa eta kohezitzailea

Sexuan oinarrituta banandutako eskolek sustatzen duten genero bereizketa gainditu nahian, eskola mistoak sortzen dira. Hezkuntzaren 1970ko Lege Orokorraren ondorioz eskola mistoak agertzen dira. Hauetan, neska eta mutilen curriculumak parekatu bada ere, hezkuntzaren ikuspuntu androzentrikoa nagusitzen da. Eskola mistoen lehenengo xedea neskek eta mutilak aukera eta baldintza berdinetan hezteko eskubidea bermatzea izan da. Baina errealitateak neskek eta mutilek nagusitzen den sistema patriarkalaren eredu erreplikatzeko dutela erakutsi du. Horrela, neskek eremu pribatuan bete beharreko rolaz gain, eremu publikoan aritzeko gaitasunak bereganatzeko aukera izan dute. Era horretan, emakumea nagusitzen den hezkuntza eredu maskulinoan baneratu da. Bestetik, eremu pribatuan aritzeko behar diren gaitasunak sustatu ez direnez, gizonen gaitasunak eredu maskulinora murriztu dira.

Ezagupenaren antolamendua aski ezaguna den curriculumean islatzen da. Giza prozesu zehatzen ondorioz, gaur, meritokrazian oinarritzen den curriculumak hitz egiten da. Ezagupena curricularra lortu den ezagutzeko ebaluazio sistema bat garatu da. Era honetan, ikasleek mugatutako curriculumarekiko meritua lortu dituzten baieztatzen da. Eta era berean, ebaluazio sistemek curriculumaren era eta bere edukiak antolatzen dituzte.

Historikoki, mutikoen eskola tradizioetatik sortu den curriculum hau men-debaldeko curriculum hegemonikoa deitzen zaio. Hasieran, goi mailako emakumeek baino ez zuten curriculum hegemonikora hurbiltzeko aukera izan. Gero, hezkuntza denentzako irekitzearekin “langile giza mailaren neska bakar batzuek curriculum hegemonikoan lortutako arrakastei esker, mailak igotzeen zituztela ikusten zuten” (Connell, 1997, 51 or.). Gaur, emakumea eta gizona curriculum horren ildotik heziak dira.

Funtsean, aurreko hezkuntza ereduak gainditzean jartzen da ahalegina. Horrela, giza garapenerako oinarritzko baldintza pertsona kontzeptua dela ikusi da. “Pertsona, ikuspuntu hezitzaile batetik, adimena eta gorputzaren arteko oreka bilatzen duen entitate osoa bezala ulertu behar da... eremu pribatu eta publikoan autonomia eta independentzia duena” (Alario, 1997, 125 or.). Eskola eredu berriak femenino eta maskulino genero soziokulturalaren hierarkizazioa gainditu behar du eta, pertsona kontzeptua bere osotasunean hartuz, zaharkitutako eskola mistoaren eredu eskola kohezitzailean bihurtu. Eskola eredu hau ageriko curriculumaz gain, curriculum ezkuak pertsona kontzeptutik garapen osoa sustatzeko izan ditzakeen eragin ezkorraz arduratzen da. Hezkidetzaren ikuspuntu honetatik abiatzen den lehenengo hezkuntza legea LOGSEa da. Bere testuaren garapenean, tradizionalki arrastatu diren diskriminazio eta desberdintasun egoeren aurka eginez hezkuntzak neska eta mutilen berezko nortasuna azalarazten lagundu behar duela azpimarratzen da.

Lege beraren idazketan, hezkuntzako zehar lerroak bereiztean, hezkidetzaren kontzeptuari aipamena egiten da. Bere xedapenen 6. artikuluan “Arlo desberdinen edukien antolamenduan eta trataeran, erreferente gisa curriculumarekiko zehar lerroak hartuko dira, horien artean, besteak beste, etapa honetarako giza eskubide eta bake hezkuntza, osasun hezkuntza, sexu berdintasunerako hezkuntza, kontsumo hezkuntza, bide-hezkuntza eta giza komunikabide hezkuntza aipatzekoak direlarik” azaltzen da (Dekretua 237/1992, abuztuaren 11koa, 7800 or.).

Zehar lerroak hezkuntza sistemak soilik alderdi akademikoan arreta jartzeko izan duen joeraren aurrean erantzun bat emateko idatzi dira. Lehen Hezkuntzako curriculumaren ezartzean duen 1992ko Dekretuari jarraipena emateko Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarritzko Curriculum Diseinua idazten da. Diseinuak zehar lerroak atalari sarrera egiterakoan, bereziki “gizartean bizi bizirik dauden gaiak ... Honela jaioa dira hezkidetzaren, osasun-hezkuntza, ingurugiroko hezkuntza, kontsumorako, garapenerako, giza eskubideak eta bakerako hezkuntza, etab.” (Eusko Jaurlaritza, 1992, 106 or.). Baina, zehar lerroak ez dira ikasgai berriak, baizik eta, orokorrean, curriculumean sartzeko premia dituzten gaiak. Zehar lerroak ikastetxeetako hezkuntza proiektuetan barneratu behar diren gaietan bilakatzen dira. Horien artean hezkidetzaren, sexu-berdintasunerako hezkuntza. Aipatutako Oinarritzko Curriculum Diseinuan zerrendatzen diren zehar lerroen artean, hezkidetzaren lehena agertzen da. Eta hezkidetzaren ulertu behar den bezala azaltzerakoan sexu desberdintasunak kontuan hartzen badira ere, inola ere, rol bereizketaren oinarritzat ulertuz eta rolen arteko hierarkizazioa sustatzeko. Hezkuntza, genero kategoriatik abiatu

beharrean, sistema patriarkalak sustatu duen ugalketa eta lanaren banaketan oinarritu beharrean, pertsona bakoitzarengandik bideratu behar dela azpimarratzen da. Hezkidetzaren kontzeptioak zer esan nahi duen azaltzerakoan, genero estereotipoak alde batera uztea, ikasleen autonomia eta identitate pertsonala sustatzea, curriculum esplizituan ez ezik, ezkutukoan dauden jarrerak ezabatzea, kutsu sexistak gainditzeko eskola-elkartze osoari parte hartu araztea, hezkidetzaren sustatzeko bideen inguruko ikerketa bultzatzea eta aniztasuna balioestea dela argitzen da.

Baina, ere berean, pertsonen artean jartzea eskatzen bada ere, Oinarritzko curriculum Diseinua honetan, etengabe, sozializazio maskulino eta femeninoak bereizten da. “Sozializazio maskulino eta femeninoen prozesuen elementu positiboak aitortu eta balioetsi” esanez (Eusko Jaurlaritza, 1992, 111. or.). Euskal Autonomia Erkidegoan 1992ko hezkuntza dekretuen bitartez eskola mistotik eskola kohezitzaileara igarotzeko inflexio puntua zehaztu zen. Hezkuntza kohezitzaile honek genero estereotipoak eta kutsu sexista ezabatzea premiazkoa ikuste du, baldin eta pertsonaren garapen osoa lortu nahi bada. Autonomiaz, bere nortasun pertsonala garatzeko oztoporik gabe. Bestetik, bi sozializazio mota bereizten ditu: gizonena eta emakumeena. Bereizketa honek aurreko hezkuntza sistemen aztarnak eta joerak erakusten ditu, zeinek bi munduen arabera, gizon eta emakumeena, hezten zen.

Neskak eta mutilak elkarrekin edo bananduta hezi behar diren galderari erantzuna emanda dagoela uste bada ere, gaur egun, eskola bananduaren aldeko ahotsak entzun daitezke. Banandutako eskolaren abantailak erakusten dituzten ikerketetan oinarrituta, eskola mistoak, bereziki neskengan, izan dezaketen eragin ezkorra ikusten dutenen ahotsa entzuteko aukera dago. Ildo honetatik, Italian eta Amerikan eginiko ikerketek emakumeen abilezi espazialarekiko errendimendua jaisten dela erakutsi dute, baldin eta bere generoarekiko duen ikuspuntu ezkorra aktibatzen bazuten (Titze, 2011, 705 or.). Genero estereotipoen teoriak zer esan handia izan dezake emaitza hauetan. Izan ere, teoria hau talde bati buruz dagoen iritzi ezkorra bezala definitzen da. Era berean, estereotipo menderatzaile dagoen eskoletan genero desberdintasunak areagotzen direla erakutsi da. Adibidez, “... emakume amerikarrek gizonen presentzian arazoak konpondu probetan urritasunak esperimendatzen dituzte” (Titze, 2011, 705 or.).

Eskola ereduaren arabera, aldagai psiko-sozialak genero desberdintasunetan izan dezakeen eragina ezagutzeko, Alemaniako Düsseldorf hirian abilezi espazialarekiko eskola misto eta ez mistoetan hezten diren 12 urteko neska eta mutilen arteko aldea ezagutzeko eginiko ikerketaren emaitzak deigarriak egiten dira. Horretarako, neska eta mutilek MRT³¹ testa erantzun behar izan zuten. Ikerketaren aurretik onartzen diren hipotesien artean, batak mutilen errendimendua eskola mota batean edo bestean, neskena baino hobea dela defendatzen du. Baina, hipotesi garrantzitsuenak eskola ez mistoetan hezten diren

³¹ MRT: Mental Rotation Test by Peters. Hiru dimentsioko irudiak erabiltzen dira eta bertikal ardatzaren inguruan errotazio mentalak eskatzen dira.

nesken emaitzak eskola mistoetan hezten diren neskenak baino hobeagoak direla defendatzen du. Hala, emaitzek aurreko bi hipotesiak berretsi zituzten. Laburrean, mutilen abilezi espazialarekiko maila neskena baino altuagoa da eta mutilen eta nesken arteko konparaketa egiterakoan, eskola mistoetara joaten diren neskekin egiten denean alde hori altuagoa egiten dela ikusi da. Iker-tzaileen esanetan "... -12 urteko mutilak eta eskola ez mistoetako neskek konparatuz gero-..., genero desberdintasuna erdira murrizten da eskola mistoetako neskekin konparatuz gero" (Titze, 2011, 709 or.). Horrela, genero estereotipoen teoriari helduz, norbere izaera gutxiesteko errazten duen testuinguruak ikasle-errendimenduan eragina duela ikusi da. Aipatzen den ikerketak arreta generoerakiko eskola eredu jarri duenez, eskola mistoen nesken errendimenduan duen eragina ezkorra azpimarratzen da.

Generoarekin batera androzentrismo kontzeptua ere agertzen da. Androzentrismoak gauza guztiak neurtzeko gizona hartzen du irizpide. "Soilik ikuspuntu maskulintatik egiten den azterlan eta ikerketa, eta gero, emaitzak gizakien (gizonen eta emakumeen) orokortasunerako baliogarri bezala erabiltzen dira. Zientifikoek, sistematikoki, erabili dute aldebakarreko ikuspegi hau eta honek Historia, Etnologia, Antropologia, Medikuntza, Psikologia eta zientziaren beste adar garrantzitsuak desitxuratu ditu" (Sau, 1981, 45 or.).

Androzentrismo hitza azaltzeko arreta etimologian jarriz gero, kontzeptuak gaitasun kementsu zehatz batzuk (ohorea, ausardia) dituen gizona aipatzen du eta gizon hura gauza guztien erdian kokatzen da, ikuspuntu zentralista bat sortuz.

1.4.4. Hezkuntza curriculum

Androzentrismoak gizakien pentsamenduan eragina izan duen neurrian, hezkuntza curriculumean ere izan duela onartzen da. Gizonaren ikuspuntutik, emakumeak eta gizonak eraikitzen duten pentsamendua eskolan isla daiteke.

Gaitasun zehatz batzuk dituen gizon kontzeptuaren ikuspegiak gizakiaren pentsamendua eraiki du. Bizitzako alor guztietan eragina izanez: familia, bizitza pribatua, lana eta hezkuntzaren antolamenduan. Hezkuntza curriculum osatzerakoan ere, androzentrismoak izan duen eragina ikus daiteke. Horregatik ikuspegi hau aztertzearen garrantzia azpimarratzen da.

Curriculum hitzak hezkuntza etapa desberdinetan bereganatu behar diren abilezi eta trebetasun multzoa hartzen du barne. Administrazio publikoek ezartzen duten curriculumean neskek eta mutilek jaso behar duten kultura zehazten da. Garai batean curriculumek kontzeptuetan baino ez zuten arreta jartzen. Gaur, egiteko erei, hausnarketari eta jarrera demokratikoei ematen zaie garrantzia. Horrela, adibidez, neskek eta mutilek naturak dituen sekretuez jabetzeaz gain, naturarekiko errespetua sustatzen da, kontsumoerakiko balioa azaleratuz.

Bestetik, agerian dagoen curriculum ofizialaren beste aldean, ezkutuko curriculum dago. Eskolako egunerokotasunean gauzatzen den curriculum da. Ikastetxearen agente guztien arteko harremanen ondorioz ematen den cur-

riculum da. Eta agente horien artean, bereziki, neska eta mutilen ikaskuntza ofizialaren ardura hartzen duen irakaslearen inkontzienteak du garrantzia curriculum ofiziala bezain garrantzitsua izanik.

Curriculumean zehazten diren arloak aukeratzeko dagokion gizarteak garatu dituen zientzietan jartzen da arreta. Nagusiki bi zientzia eremu bereizten dira: giza zientziak eta zientzia naturalak. Lehengoan barnean, psikologia, soziologia eta baita ere, literatura eta hizkuntza daude. Zientzia naturalen barnean medikuntza, matematika edo fisika daude. Hauekin batera, teknologiak duen garrantzia ikusten da. Maskulino den guztia gizatiar bezala ulertzeko androzentrismoaren ikuspegiak ikasgaien arteko hierarkian ikusten da. Egoera hau neskek eta mutilek hezkuntzan ikasgaien hautaketa egiten dutenean islatzen da.

Taula 7: EAEn batxilergoan 2010-2011 ikasturtean ikaskuntza arloko matrikulatutako ikasleria.

Ikasgaiak	neskak	mutilak
Arte plastikoak	%68,82	%31,18
Arte eszenikoak	%75	%25
Gizarte eta humanitate zientziak	%60,91	%39,09
Zientziak eta Teknologia	%44,84	%55,16

Iturria: MECD. (2012). Alumnado matriculado, por curso y modalidad. Todos los centros. Mujeres 10-11.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 10-11 ikasturtean batxilergoan 2. maila matrikulatutako neska eta mutilen aukera akademikoan arreta jarriz gero, zientziak eta teknologia mutilek gogoko duten ikaskuntza arloa dela ikusten da eta neskek baino mutil gehiagok egiten duten aukera dela. Izan ere, "emakumeek gutxiago parte hartzen dute arlo zientifiko eta teknologikoetan" (Emakunde, 2014, 89 or.). Neskek gizarte zientziak eta arteak egiten duten hautua izanik.

Datu hauek curriculumean antolatzen diren zientzietako hautuan nesken eta mutilen aukera akademikoak islatzen dituzte. Eta hautuan nesken eta mutilen arteko diferentzia, nagusiki, zientzietan eta teknologian ikusten da. Neskek giza zientzietan aukeratzeko duten neurrian, mutilek zientziak eta teknologia aukeratzeko dute.

1.4.5. Gorputz Hezkuntza arloa

Gizabanakoen hezkuntza gizarte osoan ardura den ikuspuntutik, pedagogiak ikerketa eta formulazio teorikoen bitartez zein eran eragin dezaken aztertzen du. Era honetan, prozesu politiko ekonomikoetan eta hausnarketa filosofikoetan oinarritzen diren eskola pedagogikoak eraikitzen dira. Hau da, ideologiaren arabera gizabanakoen hezkuntza bideratzeko ildoak eskola desberdinetan zabaltzen dira.

2007ko Oinarrizko Hezkuntzaren Dekretuak “araututako curriculumak ikasleek izan beharreko gaitasunei erreparatzen die” (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, 26037 or.) Horrela, ikasleek gaitasunen bitartez “norberaren errealizazioa eta garapena lortzeko herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko eta enplegua lortzeko” helburuak azaltzen dira (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, 26037 or.). Dekretuak Lehen Hezkuntza (LH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) Oinarrizko hezkuntza bezala hartzen ditu, 6 urtetik 16 urtera derrigorrezko eskolatze-aldia bezala harturik. Oinarrizko Hezkuntzaren Dekretu bakarraren bitartez etapa biak etengabeko formazioaren ikuspuntutik hartzen dira, etapa bakoitzaren zehetasunak (garapen ebolutiboari dagozkionak) barne hartzen direla. Derrigorrezkoa, oinarrizkoa eta komuna izango den hezkuntza antolatzerakoan lehenengo eta behin, bi etapatan desberdintzen da. Dekretuaren IV. eta V. eranskinetan antolatzen direnak. Lehen hezkuntza arloetan antolatzen den bitartean, DBH ikasgaietan antolatzen da.

Taula 8: Lehen Hezkuntzan eta DBH-n arlo eta ikasgaien banaketa.

Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Arloak (6-12 adin tartean)	Ikasgaiak (12-16 adin tartea)
<ul style="list-style-type: none"> Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera Arte Hezkuntza Gorputz Hezkuntza. Gaztelania eta Literatura. Euskara eta Literatura. Atzerriko Hizkuntza. Matematika 	<ul style="list-style-type: none"> Euskara eta Literatura. Gaztelania eta Literatura. Atzerriko Hizkuntza Matematika. Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia. Gorputz Hezkuntza. <p style="text-align: center;">Ikasgaiak 12-15</p> <ul style="list-style-type: none"> Naturaren Zientziak³²/ Izadiaren Zientziak. Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza. Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntza. Musika. Teknologia <p style="text-align: center;">Ikasgaiak 15-16³³</p> <ul style="list-style-type: none"> Etika eta Gizabide Hezkuntza. Biologia eta Geologia. Fisika eta Kimika. Latina. Informatika. Teknologia. Atzerriko Bigarren Hizkuntza.

Iturria: Lehendakaritza. Dekretua 175/2007, urriaren 16koa. Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko. IV. eta V. eranskinak. AHAA-BOPV, 2007ko azaroaren 13koa, 218 zbk.

³² “Hirugarren mailan, ikastetxeek bi irakaskai hauetan bana dezakete Natura Zientzien irakaskaiak: batetik, «Biologia eta Geologia», eta, bestetik, «Fisika eta Kimika»” (Dekretua 175/2007, urriaren 11koa, 26049.)

³³ Laugarren mailan hurrengo zortzi ikasgaien artetik ikasleak hiru aukeratu behar izango ditu: – Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika, Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntza, Informatika, Latina, Musika, Atzerriko Bigarren Hizkuntza, Teknologia.

Era honetan, LH-ren ezaugarri orokorra mantentzen bada, DBHn eduki akademikoak bermatzen dira, LHren ildoetatik (adibidez, ikasleek tutore bat dute erreferentzia gisa, ikasgelaren zereginak antolatu eta gidatzen duena) Batxilergora eta Heziketa profesionalera (hezkuntza espezializatura, non ikasgai bakoitzak irakasle batek antolatzen duen) hurbilagoa dagoen DBH osatuz. Zeinean, adibidez, Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza eta Etika eta Gizabide Hezkuntza ikasgaietan “gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna” era berezian lantzea eskatzen da (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, 26050 or.), genero ikasgaia etapa osoan zeharkari landu beharrean genero gaiari ezaugarri diziplinara erantsiz.

Horrela, dekretuaren lehenengo asmoa DBH ikasgaiekin eta aukeraketan zapuztuta geratzen da. Derrigorrezko hezkuntzak oinarrizkoa eta komuna ezagutzea DBHn galtzen direlako, bereziki 14 urtetik aurrera, azken zikloan.

Hezkuntzaren helburu eta edukietatik garatzen diren hezkuntza programek azalartzen dituzten arau eta balioak argitu nahian hezkuntzaren zientzia den pedagogia arlo bakoitzaren teorien baldintza ideologiko, politiko eta sozialak interpretatzen dihardu. Euskal Autonomia Erkidegoko azken hezkuntza dekretuak gorputz hezkuntza derrigorrezko arloaren eduki kulturalak zehazterakoan zabaltzen dituen lau eduki multzoetan gizaratean aisialdiak eta osasunak hartzen duten garrantzia ekartzen da. Joko-jolasak, kirolen eta orokorrean jardueren fisikoaren bitartez egiten den ikaskuntza proposamenak egunerokotasunera transferitzeko asmoa izanik.

Horrela, “hezkuntza zientziaren espezialitate autonomoa den” Lehen Hezkuntzaren pedagogiaz hitz egin daiteke (Schaub eta Zenke, 2001, 138 or.) Praxia eta teoriaren arteko joan-etorrian haur eta gazteen ikaskuntza eta sozializazioarako irizpideak jartzeaz arduratzen dena. Lehen Hezkuntzan gorputz hezkuntzak hartzen duen ildoak, “mugimen-jarrerak (jokabide motorrak) eskuratzea eta perfekzionatzea baino urrunago doa ... norberaren ongizatea lortzera bideratzen duten eta bizitza osasungarri bat sustatzen duten premiei (gizabanakoarenak eta taldearenak) erantzun nahi die, edonolako estereotipoak eta diskriminazioak alde batera utziz” (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, IV. eranskina 87 or.)

Gaur, Euskal Autonomia Erkidegoan 6-16 urte bitarteko derrigorrezko eskolaldia bi etapetan antolatzen da: Lehen Hezkuntza (6-12) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16) etapetan. Hezkuntza etapa bien funtzio nagusia “ikasleei oinarri sendoak ematea, helduen bizitzako arazoei jakintza nahiko eta jakintza hori etengabe eguneratzeko gaitasunez aurre egiteko presta daitezen” da (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, 26037 or.). Derrigorrezko bi etapen ibilbidean ezagupena, ekintza, elkarbizitza eta izaera UNESCO³⁴ definitutako lau zutabe izanik.

³⁴ UNESCO erakundearentzako egindako Delors txostena, 1996.

Gorputz Hezkuntza derrigorrezko arloa etapa bakoitzaren ildoak definitzerakoan ezaugarri komunak azaltzen dira. Bigarren hezkuntzak espezializazioaren garrantzia azpimarratzen duen bitartean Lehen Hezkuntzan aniztasuna bermatzea indartzen du.

Taula 9: Derrigorrezko Lehen eta Bigarren etapetan gorputz hezkuntza.

Gorputz hezkuntza	
Lehen Hezkuntzan	Bigarren Hezkuntzan
<p>Gorputz hezkuntzak ahalmen desberdinak eragiten ditu horien artean:</p> <ul style="list-style-type: none"> Komunikatzeko eta harremanak egiteko ahalmena Emozioak adierazteko eta kontrolatzeko ahalmena Norberaren ekintzak behar bezala bideratzeko gaitasunak <p>Jarduera fisikoaren inguruan sortzen diren pertsonen arteko harremanek errespetua, onarpena edo lankidetzaren balioak barneratzeko eragiten dute. Berdintasun-egoeretan pertsonekin harreman eraikitzaileak izan ditzaten.</p> <p>Gorputzaren portaera motorren bitartez eta jolasen bitartez hezi.</p> <p>Aniztasuna irizpidea espezializazioaren ordez.</p> <p>Metodologia-ikuspegi ludikoa.</p>	<p>Gorputz hezkuntzak ahalmen desberdinak eragiten ditu horien artean:</p> <ul style="list-style-type: none"> Komunikatzeko eta harremanak egiteko ahalmena Emozioak adierazteko eta kontrolatzeko ahalmena Norberaren ekintzak behar bezala bideratzeko gaitasunak <p>Jarduera fisikoaren inguruan sortzen diren pertsonen arteko harremanek errespetua, onarpena edo lankidetzaren balioak barneratzeko eragiten dute. Berdintasun-egoeretan pertsonekin harreman eraikitzaileak izan ditzaten.</p> <p>Jolasak eta kirolak irakasteak elkartzasuna, lankidetzaren eta bazterketarik eza bermatzen ditu.</p> <p>Jarduera fisikoa eta kirolak sozializazioa bideratzeko baliabide gisa ulertu, aisialdi denbora aintzat hartuz, espezializaziorantz jo.</p>

Iturria: Lehendakaria. Dekretua 175/2007, urriaren 16koa. Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzeko. AHAA-BOPV, 2007ko azaroaren 13koa, 218 zbk.

Derrigorrezko bi etapetan gorputz hezkuntzak jarraitu beharreko ildoak aztertzerakoan norberaren izaera eta besteekin lankidetzaren oinarritutako harreman eraikitzaileak bermatzea garrantzi handiko balioak bezala agertzen dira. Baina, Lehen Hezkuntzan aniztasuna, ikuspegi ludikoa nagusiki joko-jolasen bitartez bideratzea azpimarratzen da. Eta Bigarren Hezkuntzan, "trebetasun espezifikoa lantzean, tresna gisa, prestakuntzarako, jolaserako eta harremanerako duten baloiekin lehentasuna handiago eman behar zaio, teknika horien erabilera menderatzeari baino" (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, V. eranskina, 451. or.) irakurtzen bada ere, kirolak eta espezializazioak hartzen duten protagonismoaz jabetzen gara. Lehen Hezkuntzako ikuspegi ludikoa eta aniztasuna Bigarren Hezkuntza kirol espezializazioan bilakatzen dira.

Dekretu beraren laugarren eta bosgarren eranskinetan gorputz hezkuntza curriculumak Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzarako zehazterakoan, beraien sarreran, gorputz kulturarekiko gaitasunak garatu behar direla zehazten da eta gorputz hezkuntza jokabide motorren pedagogia bezala ulertu behar dela. Ulertuz, jarduera motorren bitartez garatzen den gorputzak gure bizitza osatzen duela. Gorputz hezkuntza ikasgaia "mugimen-jarreraren (jokabide motorren) pedagogiatzat hartzen da" (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, IV. eranskina, 87 or.). Eta, gorputz kultura osatu behar dituzten gutxieneko edukiak multzoetan bananduta zehazten dira.

Taula 10: Lehen Hezkuntzan eta DBHn gorputz hezkuntzako eduki multzoak.

Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
<ol style="list-style-type: none"> Norberaren ezagutza eta kontrola Gorputz adierazpena eta komunikazioa Jarduera fisikoa eta osasuna Mugimen kultura: aisialdia eta denbora librerako hezkuntza 	<ol style="list-style-type: none"> Jarduera fisikoa eta osasuna Gorputz adierazpena eta komunikazioa Mugimen-kultura: aisialdia eta denbora librerako hezkuntza

Iturria: Lehendakaria. Dekretua 175/2007, urriaren 16koa. Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzeko. IV. eta V. eranskinak. AHAA-BOPV, 2007ko azaroaren 13koa, 218 zbk.

Lehen Hezkuntzako lehenengo eduki multzoan "sistema motorra menderatzeari eta kontrolatzeari lotutako eskuratzeak tartean izango dira ... mugimendua egoera berrietara egokitzeko erabakiak hartzea errazten duten edukiak nabarmendu behar dira"; bigarren eduki multzoan "gorputz hezkuntzaren bitartez adierazkortasun, mugimendua eta komunikazioa sustatzeko edukiak sartu behar dira"; hirugarrenean osasun ikuspuntutik "bizitzan zehar jarduera fisikoa egiteko ohitura hartzeko edukiak ere sartu dira"; eta azken eduki multzoan jolasak eta kirol jarduerak aztertu dira "jolasak metodologia-estrategia modura erabil daitezkeen arren, beharrezkoa da horiek eduki gisa aztertzea, antropologia- eta kultura-balioa baitute ... elkartzasuna, lankidetzaren eta beste pertsonetara errespetua helburu duten jarrerak proposatzea azpimarratu behar da" (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, IV. eranskina 88 or.)

Lau eduki multzoen bitartez, ikasleek eraikitzen duten gorputza norbere gorputzaren ezagupena eta onarpenetik hasten da. Gero teknikarekiko eta batez ere arauarekiko sailagoak diren jarduera motorren bitartez gorputzaren adierazpen baliabideak eta arrakasta lortzeko ikaskideekin estrategia motorrak gauzatzeko. Zeregin honetan, neskek eta mutilek daukaten gaitasun motorra errespetatuz eta onartuz. Era horretan, "... gizartearen aurkako portaeren aurka egitea" lortzen dela (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, III. eranskina 99 or.).

Bigarren Hezkuntzan lehenengo eduki multzoan "jarduera fisikoaren ohi-turekin eta kirola egitearekin lotutako edukiak sartu dira"; bigarren eduki mul-

tzoan “hainbat teknika erabiliz, gorputzaren, emozioen, sentimenduen eta ideien bidez adierazten eta komunikatzen ikastea helburu duten edukiak sartzen dira”; eta hirugarrenean “naturaren egiten diren jolasak, kirolak eta jarduerak sartu dira ... dantza ere sartu dugu; izan ere, kultura-dimentsioa du, eta, gainera, bizitza osoan egin daitekeen jarduera fisikoa da” (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, V. eranskina 450 or.). DBHan kirolaren praktikak garrantzia hartzen duela ikusten da.

Gaur, derrigorrezko GH-aren bitartez estereotipoen kanpoko heziketa bideratzeari garrantzia ematen bazaio, LH-n joko-jolasak eta jarduera fisiko orokorrak dute pisua eta DBH-n kirolak hartze du garrantzia. Derrigorrezko 12-16 adin tartean genero-eraketa diskriminazioa eta estereotipoak saihesteko kirola tresnan bilakatuz.

Derrigorrezko hezkuntza etapak aintzat hartuz (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) 2007ko Euskal Autonomia Erkidegorakoa hezkuntza dekretuaren IV. eta V. eranskinetan idazten diren etapa bakoitzerako gorputz hezkuntzako arloaren nondik norakoak aztertuz gero, administrazioak etapa bati eta beste bati emandako kutsua ezagutu daiteke. Horrela, Lehen Hezkuntza etaparako gorputz hezkuntzak jarraitu beharreko irizpideetan aniztasun irizpideari arreta handia ematen zaio, espezializazioaren ordez proposamen praktikoa eskaintzea eskatuz. Baita ere, etapa honetan ezaugarri ludikoak duen garrantzia azpimarratzen da, era horretan, ikas-kuntza espontaneo bermatuz. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaz alde bate-tik jarduera fisikoak eta kirolak dituzten ondare soziologikoak, estetikoak eta ekonomikoak azpimarratzen dira, Lehen Hezkuntzako gorputz hezkuntzan ez bezala, jarduera fisikoak eta bereziki kirolek gizartean hartzen duten pisua azpimarratzen da. Bestetik, “zenbait trebetasunen espezializazioa bideratu daiteke” (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, V. eranskina 451 or.) baieztatzen da teknika menderatzea eskatzen ez bada ere, gorputz hezkuntzako irakasleari etapa honetan hezkuntzako esku-hartzea kultura- testuinguru aintzat hartuz egitea eskatzen zaio. Kirolaren ondare ekonomikoa eta espezializazio baldintzak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ildoak direla ikus daiteke eta honek zeregin motorretan prestakuntzaz hitz egitera eramaten du, lantegi batego langileak alde aurretik jaso duen makinan aritzeko prestakuntza bezala, saria lortzeko helburuarekin, irabazia. Durringek bere “crisis de las pedagogías corporales” liburuan azaltzen duen bezala industrializazioarekin batera jaio-tzen den gaur egun ezagutzen dugun kirola.

Ikusten denez, Lehen Hezkuntzarako gorputz hezkuntzako curriculumak jarduera motor anitzak eta ludikotasuna ditu irizpide eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako gorputz hezkuntzako curriculumak espezializazioa eta kirolaren bitartez irabaztearen garrantzia.

2. METODOLOGIA

2.1. Ikerketaren helburua eta duen interesa

Ikerketaren helburua modu honetan adierazi genezake:

Durangoko Kurutzia Ikastolako gorputz hezkuntzak proposatu dituen jarduera motor ezberdinen barne logika jakitera eman, espazioaren erabilerari, parte hartzaileen arteko elkarrekintzari, denboraren zentzuari eta objektuen erabilpenari dagozkien esanahiak, praktikak dituzten giza taldeei lotuz, nagusi den genero ikuspuntua azaleratuz.

Hezkuntza sistemaren agente ezberdinek esperientzien aniztasunaren garrantzia aipatzen dute pertsonen garapen osoa lortzeko. Aniztasunak adimen mota ezberdinak garatzen baititu. Zentzu honetan, ikerketaren helburua betetzeko lehendabiziko pausuan gorputz hezkuntzak jarduera motorren esperientzia aniztasuna betetzen duen ezagutu nahi da. Gero, esperientzia motor bakoitzak izan duen pisua aztertzen da. Horretarako iraupena aintzat hartzen da.

Lehendabiziko pausua aurrera eramateko praxiologia motorrak joko-jolasak eta kirolak gizarte ikuspuntutik aztertzeke ematen dituen tresnak hartzen dira kontuan. Hezkuntza sistemaren agenteen diskurtsoan edota curriculum ezkutuan sustatzen diren adimena eta afektibitatea arakatzeko. Ikuspuntu biologikoak arreta gorputzean jartzen duenez baztertu da:

Le Boulch-en psikoinetika “heziketa psikomotriz era batekin bat datorrena” (Le Boulch, 1995, 18 or.) gisa ulertzen da, psikomotrizitatea deituriko heziketan gizakia batasun psikosomatiko bezala ulertzen da, “heziketa psikomotorrak oinarrizko trebakuntza du berekin ... haurren posibilitateak aintzat hartuz, garapen funtzionala bermatu eta beraren afektibitatearen eta orekaren garapenean testuinguruarekin elkartrukeen bitartez lagundu” (Le Boulch, 1995, 18 or.) heziketa psikomotorren ardurak dira. Metodo psikoinetikoaren helburu funtzional zehatzen artean doiketa funtzioa eta funtzio gnosikoen garapena daude, azken finean eremu funtzionala bermatzen dutenak. Horrela, Piagetek gizakia eta ingurunearen arteko erregulazio mekanismoan bereizten dituen asimilazio eta egokiera aintzat hartuz, doiketa “ingurunearen eskaeren aurrean erantzun motorrari dagokionez egokierak

hartzan duen itxura baino ez da” (Le Boulch, 1995, 36 or.). Eta funtzio gnosikoak hautemate eremuak hartzen ditu, “organismoaren egoera afektiboaren arabera dagokion informazioa atzema-tea” (Le Boulch, 1995, 40 or.) haurrak arazo baten aurrean erakusten duen doiketa funtzioan islatzen da. Psikozenetikaren ikuspuntutik hautemate eremuen antolaketak espazial eta denborazko egituraketa eskatzen duenez, aurrean, atzean, goian, behean edota orain eta gero nozioak norberaren gorputzaren hautemate-tik lantzen dira.

Pentsamendu horretatik abiatuz, heziketaren ardatz bezala mugimendua ezartzen da, eta autore honek garatu duen metodo psikozenetikokoaren helburua motrizitatearen heziketa ondorengo ikasketa guztientzako baliogarria izatea da. Helburu hori betetzeko, psiko-motrizistak ikuspuntu biologikoa duten jarduera motorren antolamenduaz baliatzen dira, gorputzaren heziketa bi sistema desberdinak landuz lortzen dela ikusten da: “exekuzio faktoreak³⁵ deiturikoak, onura motorrean eragina duten gihar sistema eta elikadura sistemaren menpe zeudenak. Bestea nerbio-sistema zentralegatik adierazita dago, zeinek beste sistemen multzoa koordinatzen ditu eta funtzio mentalen euskarri bezala balio du” (Le Boulch, 1995, 30 or.). Horrela, ikuspuntu neurofisiologiko eta psikologikotik proposatzen diren jardueren egiturak gorputz keinuen aberastasuna du helburu. Beraz, Le Boulchek garatu zuen metodo psikozenetikoak bestearekin elkartrukeek garapen funtzionalean duten eragin onagatik beharrezkoak jotzen dira. Adibidez, ikasleari uztaia bere gerrian biraraztea, pilota bat jaurti eta hartzea edo uztaiek mugatzen duten ibilbidetik desplazatzea eskatzen zaio. Jarduera egitura berdinen aurrean, ikasleak azaleratzen duen adimena eta afektibitate bat izanik, keinu egokiena lortu arte mugimendua errepikatzearen adimena eta afektibitatea.

Gaur egungo sozializazio prozesuan eskola eremuak pisua duenez, Pierre Bourdieuk idazten duena ekartzen da gogora: “gizonezko menderatze eredu berrekoizte lana bermatuta geratu zen, orain gutxi arte, hiru instituzioei esker, Familia, Eliza eta Eskola” (Bourdieu, 2007, 107 or.). Dударik gabe, aipatutako hiru instituzioek gaur menpekotasun harremanak zein eratan eta neurrian bermatzen dute aztertzea oso interesantea litzateke. Baina ikerketak hezkuntza sistemaren agenteentzat eta praxiologia motorra berarentzat duen interesagatik, eskola instituzioan jarri da arreta. Heziketa formalaren ikuspuntu neurofisiologiko eta psikologikotik urruntzen den tesia praxiologia motorrak eskaintzen dituen ikertzeko bideak noraino diren lagungarriak baieztatzeak aukera dagoen aldetik ikerketaren helburua interesantea egiten da.

Hezkuntza kudeatzaileek ezartzen duten hezkuntza proiektuan modelo bat definitzen dute, gero ikasgeletan egiten diren ekintzen bitartez gauzatu behar dena. Ikerketa hau Eusko Jaurlaritzarentzat eta, zehazki, ikastetxearen zuzendaritza taldearentzat interesgarria da. Hezkuntza proiektuan ezartzen diren xedeek mugatzen duten genero ereduak bermatzen den jakiteko eta gorputz hezkuntzak Euskal kultura tradizionalan ongi berezitatea dauden gizonetzko edota emakumezko ereduak erreproduzitzen duen edo ez behatzeko. Era honetan, garatzen dituen ereduak gizon eta emakumearen arteko botere oreka bultzatzen duen edo ez ezagutzeko.

Eskola instituzioan gizarteratze prozesuan eragina duen beste agente garrantzitsuenetariko bat irakaslea da. Zentzu honetan, ikerketaren helburuak irakasleentzako interesa dauka. Irakasleak hezkuntza proiektuan lehenengo eta ikasgela programazioan gero, hitzez ezartzen den hezkidetzaren modeloa ekintzetan bihurtzen du. Era ezkutuan eta inkontzienteki eredu bat edo beste bat bideratzen duen ezagutzeko balioko du. Hau da, irakasleak neska eta mutilen generoari egokitutako baliok, rola eta portaerak kontuan hartu barik hezten dituen edo ez ezagutzen da.

Era berean, gizartearentzako eta bereziki gurasoentzako ikerketaren helburuak interesa du. Eskolak zeregin didaktikoen bitartez, adierazten duen pentsamendua eta eurenak bat egiten duten ezagutzeko.

Baina, kontuan hartuta, praktikak proposatzen dituen gorputz hezkuntzako irakaslea dela, ikerketaren interesa unibertsitateetako irakasleek maisu-maistren formaziorako irizpideak ezagutzean ere badatza.

Beste aldetik, ikerketaren helburuak praxiologiarentzako ere interesa du. Izan ere, ikerketa honek jakintza praxiologikoa errealitate bat ezagutzeko baliogarria dela baieztatzen baitu. Eta era honetan, akzio motorren zientziak nola errazten duen gorputz hezkuntza eta generoaren arteko lotura ezagutzeko interesa du.

2.2. Ikerketa objektuaren aukeraketa

Ikerketa etnografikoa den neurrian zorizko laginketa aztertu beharrean “aukeraketa pragmatikoa eta teorikoki informatu batean” (Goetz eta Lecompte, 1988, 34. or.) oinarritu da ikerketa. Beraz, ondo definituta eta ikerketaren helburua betetzeko baliogarria den taldea aukeratu da.

Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolan gorputz hezkuntzako irakaslea naizenez, arrazoi pertsonalak direla eta, gorputz hezkuntza arloan arreta jarri da. Gorputz hezkuntzak neska eta mutilen heziketan egiten duen ekarpena zein forman izaten den jakiteko. Beraz, baldintza pertsonal honek ikertu den fenomenoaren eremua mugatu du: hezkuntza sistema formalak. Baina, eremuak zabala izaten jarraitzen duenez, lehen hezkuntza aukeratu da. Izan ere nire irakasle lanak Lehen Hezkuntzan jartzen du arreta. Hala ere, arrazoi teknikoak (diru-laguntzarik ez egotea eta ondorioz giza baliabideak murriztea) direla

eta aukeratutako ikertzeko fenomeno mugatu beharra egon da. Hau da, ikertu nahi izan den errealitatearen talde txikiago batean arreta jartzeko beharra egon da. Galdera lehen hezkuntzako zein zikloan jarri arreta izan da.

Arrazoi pertsonala gorputz hezkuntza Lehen hezkuntzan aukeratzeko lagun-garria izan bada, ikerketaren ondorioz gorputz hezkuntzak zein hezkidetzaren ereduak sustatzen duen erantzun nahi denez, lehen hezkuntzako hirugarren zikloa interesantea izan zitekeela pentsatu da. Izan ere, adin honetako (10-12 urte) neskek eta mutilek fisikoki aldaketa garrantzitsuak izaten dituzte eta adimenaren garapena eraikitzen dituzten pentsamenduaren abstrakzioan islatzen da, lagunarekiko lokarriak estutzen dira eta gurasoenganako loturak apurtzen hasten dira, nerabetsun aurreko epea da. Beraz, fisikoki eta adimen eta afektibitateari dagokionez aldaketen prozesuaren hastapenaren zikloa da. Gorputz hezkuntzako irakasleak proposatzen dituen jarduera motorrei aurre egiteko adorea eta grina, erresistentzia eta adimena gizartearen (helduen munduan) praktikatzeko diren jardueren hastapenei erantzuteko behar beste dutenez hirugarren zikloa aukeratu da, genero-errekiko nerabetsun garaiaren berezitasunak ahaztu barik. Era honetan, ikerketarako taldea mugatzen da eta “gizakien taldeek antzeztoki eta testuinguruetan, denbora epealdietan eta mugatu eta zehaztu daitezkeen baldintzetan beraien jarduerak egiten dituzte” (Goetz eta Lecompte, 1988, 88 or.) baieztapena gogora ekarri, antzeztokia eta testuingurua zehaztuta dagoela konturatzeko gara.

Zehazki, Durangoko Kurutziaga ikastolan Lehen Hezkuntzako 3. zikloko lau ikasgelek, 2009-10 ikasturte osoan, azaroaren 25etik ekainaren 6arte, gorputz hezkuntzako saio praktikoetan burutu dituzten jarduera motor multzoa hartu da. Hirugarren zikloan dauden bi maila bakoitzean ikasgela bi daude. Horrela, gorputz hezkuntzako irakasleak, 5.A, 5.B, 6.A eta 6. B ikasgeletan proposatutako programa motorra, irakaslearen zer egin pedagogikoa eta ikasleen jokabide motorrak aztergai bihurtu dira.

Ikastetxearen aukeraketaren arrazoiei dagokionez:

- 1.- Ikastolek Euskal kulturaren bete izan duten giza funtzioak erakarrira ikastola bat aukeratu da. Euskal Herriko ikastolen sare handiaren artean bat aukeratzekoan, eskarmentu handiko bat hautatzea erabaki da, eta Durangoko Kurutziaga ikastola baldintza hau betetzen du. Ofizialki 1968ko otsailean hasten du bere hezkuntza ibilbidea, eta lau urte geroago guraso kooperatiba modura eratu da. Ezaugarri honek Kurutziaga ikastolan hezi izan direnak, gaur egun, eremu publikoan edota pribatuan Durango herriaren gizarte adierazgarri direla ziurtatzen du. Gainera, gaur egun matrikulatuta dauden ikasleen guraso asko ikastolako ikasle ohiak dira eta datu honek ikasleen jatorria bermatzen du, ikasleen ehuneko portzentaje altuak (%96,8) Durangon edo Durangaldean du jatorria.
- 2.- Ikasleria neska eta mutilen kopuru orekatuaz osatuta dago, beraz, Kurutziaga ikastolak hezkuntza mistoa eskaintzen du. Ezaugarri honek, hezkuntza eskaintzari dagokionez, genero-errekiko bereizketarik ez dela egiten esaten du eta neskek eta mutilek hezkuntza eredu bera jasotzen

du. Ikasleekin batera hezkuntza agente garrantzitsuenetariko bat dago, irakaslea. Baldintza honek ikasleek duten eredu sozialaren ezaugarriak ezagutzeko aukera ematen du.

- 3.- Kurutziaga ikastola Euskal Herriko Ikastolen elkarte sarearen barruan dago eta elkarteak ezarri dituen xede eta hezkuntza helburuak jarraitzen ditu, horietako bat, hezkuntza euskalduna bermatzea da, Euskal kultura, kultura arteketasunaren abiapuntutik garatuz. Ezaugarri horrek, Euskal kulturaren tradizioan genero-errekiko nagusitu diren balioak gaur egun curriculum ezkutuan bermatzen diren ezagutzeko aukera ematen du. Gainera, Ikastolak sozializazio prozesuaren zeregina betetzeko kontuan hartzen dituen curriculumak EAEko 2007ko curriculum eta Euskal curriculum dira. Legea betetzen du eta, lege horren barruan, Ikastola Elkarteko ereduak jarraitzen ditu.

Ikerketarako aukeratu den ikastetxea ikertu nahi den gizartearen adierazgarria da, hau da, Euskal Herriko eta Bizkaiko gizartearen adierazgarria da. Ondoren zerrendatzen diren irizpide komunak jarraitzen dira:

- 1.- Ikastetxeak hartzen dituen erabakiak eta ikuspuntuak EAEko gobernuek ezartzen dituen irizpideak jarraituz hartzen ditu.
- 2.- Irakasleak EAE-n maisu-maistren formaziorako ezartzen diren ildoak jarraituz prestatzen dira.
- 3.- Irakasleak ez dituzte saio praktikoak espazio, harremanak, denbora eta objektuen arabera planifikatzen. Beraz, ikertzen dena inkontziente sozialarekin dago lotuta, modu horretan ezkutuko curriculum aztertzeko bidea emanez.

Nahiz eta ikertu den errealitatearen ondorioz lortu diren emaitzak aztertu ez diren errealitatearen zabaldu ezin badira ere, azalduko irizpideek ikertu den taldea ez dagoela gizartearen antolamendu eta ohituretatik kanpo edo urrun baieztatzen da.

2.3. Informazioaren bilketa eta tratamendua

Ikerketa aurrera eramateko paradigma kualitatiboaren ezaugarriak aintzat hartu dira. Metodo kualitatiboak landa lanera orientatzen da, “lehen mailako informazio iturrietatik edatera” (Báez eta Pérez, 2007, 44 or.), beraz, metodologia kualitatiboak enpirikoa da, “zeren eta bere interpretazioak eraikitze behaketatik, gertaeretatik (diskurtsoak edo sinboloak...) hasten da” (Rubio eta Varas, 2004, 245 or.). Metodo honen bitartez, giza jokabidea ulertzeko eta, behaketa metodologian oinarrituz, ikusten dena deskribatu eta interpretazioak egiten dira. Paradigma kualitatiboak “giza esanahiengatik du interesa eta esanahi horiek gizabanakoen arteko elkarrekintza testuinguruan baino ezin direla aztertu ikusten du” (Cook eta Reichardt, 1986, 63 or.).

Ikuspegi kualitatiboa duen ikerketa honek behaketa parte hartzailea metodologia erabiltzen du. Metodologia honen erabilpenak, ezkutuan gertatzen dena azaleratzeko aukera ematen du. Jarduera motorrak zuzenean behatzen uzten du, arakatu nahi den gertaera sozialera era gordinean hurbiltzeko aukera emanez. “Antzetzoki naturala ikerketa etnografikoaren ezaugarria da, arrazoi eta prozesuen azterketak lekuan bertan errazten ditu, aldi berean aldagai bitxien kontrol zorrotza baztertzen du” (Goetz eta Lecompte, 1988, 35 or.), beraz, parte hartzen duten hezkuntza agenteen zeregina burutzen duten bezala ikusteko metodoa da. Zentzu horretan, gorputz hezkuntzak garatu dituen balioak azaleratzen laguntzen digu, behaketa parte hartzaile metodologiak curriculum ezkutua aztertzeko aukera ematen du.

Behaketa parte hartzailea metodologian, ikertzailea “denbora tarte baterako, talde barruan bizi da” (Rosado, 2006, 34 or.). Ikertzailea behatzen den giza praktikarekiko taldearen egunerokotasunean bizi da. Era honetan, gorputz hezkuntzako irakaslearen eta, orokorrean, hezkuntza agenteen diskurtsoetatik kanpo dagoena jasotzeko aukera dago.

Beste aldetik, ikerketa etnomotorretan metodologia hau erabiltzeko tradizioa dago. Behaketa parte hartzailea erabili duten ikerketen artean, AEBko euskal amerikanoen komunitatean egindako ikerketa (Urdangarin, 2009a) eta mendi zeharkaldi, aerobic eta futbolaren etnomotrizitatea ikerketa (Oiarbide, 2009b) aurkitzen dira. Eskarmentu horretan oinarrituz parte hartzailea metodologia erabiltzea erabaki da.

Baina, paradigma kualitatiboan oinarritzen den ikerketa hau behatutako gertaeren maila zehazteko estatistikaz baliatu da. Behatutako “gertaera sozialetik aztarna bakar bat erregistratzen da” (Rubio eta Varas, 2004, 241 or.), giza gertaera datuan bihurtuz, erregistratzerakoan datuak ordenatu eta sailkatu dira, SPSS (15.0 bertsioa) programaren bitartez ardatz bertikalean behatu den gertaera sozial bakoitza zerrendatuz eta horizontalean gertaera sozial bakoitzaren aldagaien ezaugarriak zehaztuz matrizea osatzeko. Gero, datuek elkar gurutzatzeko. Era honetan, eragiketa estatistikoaren bitartez behatutako gertaera sozialaren maila, pisua, edota indarra neurtzen da.

Era honetan, tesiaren korpua eraikitzeke, alde batetik, datuetan bihur daitezkeen gertaera sozialak behatu dira eta bestetik, ikertu den taldearen ideologia adierazten duen diskurtsoa osatu da. Aztertu den giza taldearen jokabidea erregulatzen duen ideologia azaltzeak hezkuntza agente desberdinek hartzen dituzten posizioak zehaztea eta posizio horien esan nahia azaleratzea eskatzen ditu: “osagai bakoitzak (gizarte baten barruan subjektua edo diskurtsoaren barruan adierazlea) beste osagaiekin harremanen arabera definitzen eta posizioa hartzen du” (Rubio eta Varas, 2004, 244 or.).

Ikerketa aurrera eramateko beharrezkoa egiten zaigu 2009-10 ikasturtean gorputz hezkuntzan gertatutakoaz jakitun izatea. Horrek ondoren zerrendatzen diren aspektuei buruzko datuak izatea eskatzen ditu:

- irakasleak proposatu dituen jarduera motorrak eta beraien barne logika.
- jarduera motor horiek izan duten pisua iraupenean arreta jarritz.
- ikasleen eta irakaslearen ezaugarriak.
- Irakasle eta ikasleen arteko portaerak
- Ikastetxearen testuingurua.

Aztertzen dugun errealitatea era zuzenean behatzeko beharra egon da. Baina, ikasleen eta irakaslearen ezaugarriak eta ikastolako testuingurua ezagutzeko behaketaz gain dokumentuen irakurketaz, eta elkarrizketa informalez baliatu gara.

Era honetan, behatutako gorputz hezkuntzak proposatutako jarduera motor bakoitza behatu da. Jarduera motor bakoitzaren arauak ezartzen duten barne logika eta gorputz hezkuntzako irakasleak jarduera motor bakoitza gauzatzeko ipinitako baldintzek osatzen duten kanpo logika aintzat hartuz kuantifikatu daitezkeen aldagaiak mugatu dira.

Kurutzia ikastolak eta hezkuntza agenteek gorputz hezkuntzan generoarekiko erakusten duten diskurtsoak jabetzeko aztertu diren dokumentuen artean, 2007ko EAEko derrigorrezko etaparako curriculumak, kurutzia ikastolako 2010ko hezkuntza proiektua eta hirugarren ziklorako gorputz hezkuntzako urteko planifikazioa daude. Era berean, ikasgelen banaketari eta neska eta mutilen banaketari erreferentzia egiten dioten taulak eta ikastolen elkarteko web gunea kontsultatu dira. Bestalde, elkarrizketa informalei dagokionez, aipatzeko dira gorputz hezkuntzako irakaslearekin eta ikasketa buruarekin izandakoak.

2.3.1. Parte hartze maila

Behatzen eta oharrak hartzen direnean eta gero datuen analisia eta narrazioa idazterakoan, ez dira behatutako taldeari eta gero irakurleari traizio eginez gauzaten. Ikerketa sinesgarria eta zintzoa izateko, behatu den errealitate ludiko praktikoa ezagutzeko konpromiso maila baxua hartu da, era honetan, behatzen den errealitatean ahalik eta eragin txikiena izateko. Azaldutako parte hartze maila hau, bai sarreran, bai garapenean eta bai irteeran jarraitu diren pausuak eta posizioa deskribapenarekin mugatzen dira:

Sarrerari dagokionez, ikerketa burutzeko behaketa egiteko baimena eskatu behar izan da, ikastolako zuzendariaren aurrean ikertzaile bezala aurkeztuz. Egindako aurkezpen horretan, unibertsitateko irakasle eskolako irakasle gisa aurkezten gara eta, tesia egiteko asmoarekin, gorputz hezkuntzako saio praktikoa behatzeko beharra dagoela azaltzen da. Azalduz, ez dagoela saio praktikoa parte hartzeko beharrik, baizik eta gorputz hezkuntzako praktikak behatu ahalik eta eragin txikiena izateko konpromisoarekin. Zuzendariak ikasketa buruarekin hitz egin behar duela esanez agurtzen da, ikasketa burua jarriko dela gurekin kontaktuan esanez. Horrela, handik egun batzuetara, ikasketa buruarekin tele-

fonoz hitz egiteko aukera dago. Berari, zuzendariari bezala, eskaeraren arrazoiak azaltzen dizkiogu, azpimarratuz, behaketa lana dela eta ez dagoela saio praktikoetan parte hartzeko asmorik, baizik eta behatu, gorputz hezkuntzako irakaslearen lanean ahalik eta eragin txikiena izateko. Honek, gorputz hezkuntzako irakaslearekin hitz egin duela esaten digu eta ez duela arazorik ikusten guk egin beharreko behaketa lana burutzeko. Horrela, ikasketa buruak, gorputz hezkuntzako saio praktiko bat baino minutu batzuk lehenago, gorputz hezkuntzako irakaslearekin hitz ordua jartzten digu. Behin aurkezpenak egin eta gero, ikasketa burua joaten da eta gorputz hezkuntzako irakasleari azaltzen diogu gure asmoa, tesia burutzeko egin beharreko ikerketa lana eta ikerketa aurrera eramateko saioen behaketaren beharra. Ikerketa saio praktikoetan proposaturiko jarduera motorren azterketan oinarritzen dela azaltzen diogu. Gainera, azpimarratzen da, ez dagoela saio praktikoetan ez ikasle gisa ez irakasle gisa parte hartzeko asmorik. Lehenengo saioen behaketak ikasleen interesa eta jakin mina pizten dituzenez, irakasleak eta biok gure burua aurkeztea erabakitzen dugu. Horrela azaltzen die irakasleak egoera:

“Hau Yolanda da eta gorputz hezkuntzako irakaslea da, ikasturte honetan bere lanerako lan bat egin behar duenez gurekin egongo da, egiten ditugun jarduerak behatzen. Baina berak ez ditu saioak irakatsiko praktiketan egoten diren beste batzuk bezala”.

Gure buruaren aurkezpenak eta gure asmoaren azalpenak ikasleen eta gure arteko distantzia fisikoa laburtzeko aukera ematen digute. Aurkezpenak eta eman beharreko azalpenak egin ondoren, eta ikerketa burutzeko behaketa lana egiteko baimena jaso ondoren, praktiketako irakasle bezala hasten dugu gure bidea.

Ikerlearen posizioari dagokionez, behatu diren saio praktiko guztietan praktiketako irakaslearen posizioa izan da, baina berezitasun batekin, irakaslearengandik eta ikaslearengandik distantzia mantenduz. Horrek, esan bezala, behatzen dugun giza gertaeran eragin txikiena izateko aukera ematen du. Horrela, gutxitan izan bada ere, ikasleren bat zer idazten dugun galdezka hurbildu zaigunean azalpenik gabeko erantzun motzak eman diogu. Eta era berean, irakaslearengana ez gara hurbildu behaketa parte hartzaileak eskatzen dituen egoeretan baino: programazioa jasotzeko, bere azalpenak entzuteko, zalantzaren bat galdetzeko. Guztiarekin, hartutako posizioak mugatzen dituen pausuak deskribatzen dira:

- Behin denok saio praktikoak burutu behar den espaziora heltzean, irakasleak ematen dituen azalpenak ikasleekin batera entzuten ditugu, jarraian esertzeko eta entzundakoa idazteko.

Prozesu hau errepikatzen da jarduera motor batetik bestera pasatzerakoan eta baita ere, irakasleak jarduera motor bat eteten duenean ikasleei aurretik emandako azalpena gogoratzeko edo azalpen berri bat emateko.

- Deskribatutako prozesu honetan, ikasleen eta gure arteko distantzia fisikoa laburra eta luzea hartu dugu: distantzia laburra irakasleak ikasleei azaltzen diena entzuteko (metro bat gehienez) eta distantzia luzea entzundakoa idazteko eta ikasleen portaerak eta jokabideak jasotzeko (bost eta hamar metro artean).
- Distantzia mantentzen duen praktikako irakasle bat bezala gaudenez, bi egoeretan baino ez dugu jardueran parte hartzen eta bietan gela berean eta jarduera berdinetan izan da.
- Irakaslearekin harremanean, inoiz praktika motor baten araei buruz, saioari buruz edo planifikazioari buruz zalantzaren bat izanez gero, saioa bukatu ondoren galdetu diogu; eta baita ere, baina gutxiagotan, saioa hasi aurretik, irakasleak heltzen diren bitartean. Beste aldetik, irakaslearen konfiantza gureganatzeko eta irakasleari konfiantza emateko asmoarekin, materialarekin laguntzeko jarrera ona erakusten da, material biltegira saiorako behar den materiala ekartzen edota erosten.
- Irakasleekin elkarrizketa informalak saioa hasi aurretik eta amaitu ondoren burutu ditugu.

Behaketak amaitu ostean, sartu bezala, unibertsitateko irakasle eskolako praktiketako irakasle bezala irten gara, behatutako informazio guztia biltzeko izan dugun aukeragatik eskerrak emanez.

2.3.2. Informazio bilketa

Ikerketa burutzeko, erabili den behaketa parte hartzaile metodologiak landa lana eskatzen du. Landa lanean koadernoak izan da erabili den tresna nagusia. Saio praktiko bakoitzean gertaturikoaz eguneroko bat idatziz. Eguneroko hori izan da gero analisia egiteko erabili den oinarritzko elementua.

Gogoratu behar da, behaketa parte hartzaile metodologia erabiltzerakoan hartu dugun distantzia. Baldintza horrek, behatutakoa jarraian landa lanaren koadernoan idazteko aukera ematen digu. Beraz, behaketa lana era honetan egitean behatutakoaren gertaera eta datuak argazki kamerak jaso izango balitu bezala dirudite. Gero, saioa bukatu ondoren, etxean, egunerokoan idatzitakoa osatzen da. Eguneroko horretan jaso diren oharrak idazteko irizpide hauetan oinarritu gara:

- Data, asteko eguna eta ordua idazten dira; baita ikasgela eta erabiltzen den espazioa ere.

- Irakasleak proposatzen dituen jarduera motorraren izena eta arauak idazten dira, nahiz eta jarduera errepikatua izan.
- Joko-jolasak praktikatzeko antolamenduari buruzko oharra idazten dira.
- Saio praktikoko bakoitza egiten hasten diren ordua.
- Jarduera motor bakoitza egiten hasten diren ordua.
- Jarduera motor bakoitza bukatzen dutenean ordua jasotzen da.
- Saio praktikoko bakoitza amaitzen den ordua.
- Ikasleek praktikatzeko bitartean arreta berezia jartzen da giza portaeretan: nor noren ondoan dago, neskak norekin daude, mutilak norekin daude. Eta baita ere portaera motorretan: nori egiten dio pasea, nor harrapatzen du.
- Gertaera bereziak edota deigarriak idazten dira: ikasleen arteko haserreak eta laguntzak.
- Irakasleari buruzko oharra: azalpenak emateko hartzen duen ikasleko posizioa, laguntzen duen bakoitzean nori laguntzen dio, gertaeren aurrean ematen duen erantzuna, jarduera motor bakoitza burutzeko ikasleei agintzen dien antolamendua.
- Saioaren amaieran gertaerak: agurrak, ikasleen galderak, irakaslearen azalpenak.
- Irakaslearekin izaten diren elkarrizketa informalek ondorioz jasotzen diren datuak ere idazten ditugu.

2.3.3. Datuen tratamendua

Ikerketa burutzeko aukeratutako korpua eraiki egin da, joan da bere bila, zer gertatzen den galderari erantzuteko. Era honetan, korpusaren interesa, alde bategatik, esperientzia motetan datza, eta bestetik, esperientzia motor bakoitzak izan duen pisuan. Pisua baloratzeko, iraupenean jarri da arreta. Horrela, lehendabizi, zein jarduera motorra nagusitu den (esperientzien aniztasuna) galderari erantzuten bada, jarduera motor ezberdin bakoitzak zenbat iraun duen galderari erantzuten da (esperientzien pisua). Emaitzen interpretaziorako iraupena indizeak behatu den errealitateaz jabetzeko erabili den parametroa izanik.

Landa lana koadernoan osatutako egunerokoan oinarrituz, behatu den jarduera motor bakoitzarekin bi fitxategi desberdinak osatu dira: word fitxategia eta 15.0 SPSS fitxategia.

Word fitxategian³⁶, jarduera bakoitza burutzeko baldintzak eta arauak azaltzen dira. Arau horietan oinarrituta, barne logika zehazteko aukera zabaltzen da eta azkenik, kanpo logikari buruzko gertaerak eta oharra idatzi dira.

Taula 11: fitxategia osatzen duten fitxa baten adibidea.

Saio zenbakia	Jarduera zenbakia	Data	Ikasgela	Iraupena
1	1	09/11/25	6B	3'
Jardueraren izena: KORRIKA				
Arauak				
Hasierako egoera Ikasgela osoak hartzen du parte. Futbito zelaira heldu bezain pronto ilaran korrika hasten dira.				
Jardueraren garapena Helburua eritmoa mantenduz eta indarrak neurtuz futbito zelaiari birak emanez korrika egitea da. Horretarako, ikasle bakoitzak, futbito zelaiari, bost buelta eman behar ditu, bata bestearen atzean doazelarik.				
Jardueraren bukaera Ikasle bakoitzak zelaiari bost buelta eman ondoren amaitzen da.				
Barne logikaren azterketa				
Harremana: SOZIOMOTORRA: Kooperazioa		Espazioa: ZIURGABETASUN EZA		
Egitura soziala: KOOPERAZIOA		Espazio mota: ZEHARKATU BEHARREKO ESPAZIOA		
Komunikazio sare mota: ESKLUSIBOA EGONKORRA		Denbora: MEMORIA GABEA		
EREMUA: JOLASA:		Objektua: EZ		
soziomotorra, ziurgabetasun eza, memoria gabea eta objektu barik.				
Kanpo logikaren azterketa				
Ikasgela osoa korrika hasi da, ilaran, bata bestearen atzean. Handik gutxira, talde bi sortu dira, bat mistoa da eta bestea neskez osatutako taldea da. Horrela antolatuta, eritmoa eutsiz jarraitzen dute, baina ez denbora luzerako nekea agertu ahala talde bi hauek luzatzen hasten dira bikote ez mistoak sortuz.				

Fitxak³⁷ jarduten hasteko baldintzak ezarri ondoren, jarduerak nola jarraitzen duen azaltzen du, deskribapen teknikoaren ondoren azaltzen den jardueraren barne logika zehazten da eta amaitzeko ikasleek adierazitako jokabide motorrak eta irakasleak eta ikasleek emandako erantzunak jasotzen dira. Era honetan, datuari adierazpen kualitatiboa eransten zaio.

Jarduera bakoitzaren baldintzak eta arauak hiru ataletan banandu dira: hasierako egoera, jardueraren garapena eta jardueraren bukaera. Hasierako egoera

atalean, jarduera motorra burutzeko baldintzak azaltzen dira. Kurutziaga ikastolak jarduera motorrak burutzeko dituen espazio guztien artetik jarduera motorra non gauzatu da zehatzen da. Baita ere, nola antolatzen diren ikasleak, banaka, taldeka, zenbat talde eta azkenik material behar den eta zein. Jardueraren garapena atalean, lehenengo eta behin jardueraren helburua zehazten da eta gero, helburu hori betetzeko arauak azaltzen dira. Azken atalean, jardueraren bukaeran, jarduera amaitutzat emateko baldintza azaltzen da. Adibidez, korrika jardueran, zelaiari bost bira eman ondoren korrika jarduera bukatzen da eta zelai errea jokoan, talde bietako kide guztiak erreta gertatzen direnean.

Word fitxategiaren hasierako hiru ataletan osatutako informazioarekin jarduera motor bakoitzaren barne logika zehazten da. Atal honetan, espazioa, harremanak eta komunikazio erak, denbora eta objektuen zentzua eta erabilerak, eta eremu motorra azaltzen dira.

Errealitate ludikoa osatzen duten lau parametro horietako bakoitzean bereak dituen ezaugarriak aztertuta dira. Horrela, parte hartzaileek jarduten direnean besteekin mantentzen duten harremanari dagokionez, elkarrekintza motorra gauzatzen den edo ez aztertzen da. Dagokion jarduera motorrean elkarrekintza motorra ematen bada, zelai errean bezala jokalariek Kontrako taldeko jokalariek baloiarekin erretzen dituzten bakoitzean elkarrekintza motorra ematen dela, soziomotorra deritzogu, eta ez bada ematen, ikaslea koltxonetaren aurrean itzulipurdia egiterakoan bezala, psikomotorra da. Baina kontuan hartu behar da egoera soziomotorrean ematen diren elkarrekintza motorrak kooperazioan, oposizioan edo kooperazio-oposizioan ematen direla. Soka saltoa dugu egoera kooperatiboaren adibidea, ikasleen artean ematen diren elkarrekintza motorrak besteari laguntzeko ematen dira, sokari ematen dionak saltoka dabilenaren erritmoa jarraitzen duenean. Beste aldetik, zelai errean aldiz, taldekideen artean kooperazio elkarrekintza motorrak ematen dira, kapitainak taldekide bati baloia pasatzen dionean, baina aurkako taldearekin oposiziozkoak dira, baloia jaurtiketa aurkako taldeko bat erretzeko egiten denean.

Espazioarekiko harremanari dagokionez, espazioa bi motatan bereizten dugu: ingurune fisikoarekiko ziurgabetasuna dagoenean, piraguan egiten den erreka baten jaitsiera adibidez, eta ingurune fisikoarekiko ziurgabetasunik ez dagoenean, adibidez praktika motorrak patioan edo gimnasioan egiten direnean. Lehenak ingurune fisikoa etengabe irakurtzea eskatzen du eta bigarrenak ez.

Materialaren erabilpenari dagokionez, arreta jarduera ezberdin bakoitza egiteko objektua erabili den zehaztu da: itzulipurdi bat egiteko objektuen beharra ez dago baina koltxonetak erabili dira eta zelai errean objektua behar da eta baloi erabili da.

Denboraren zentzuari dagokionez, gertaerak memorian gordetzen diren edo ez, memoriadun eta memoria gabeko jarduera den zehatu da.

Behatutako jarduera motorren barne logikaren harremanak, espazioa, denbora eta objektua ezaugarriek eremu motorrak erakusten dituzte: "jokoa, jolasa-jokoa eta jolasa hiru errealitateak dira" (Etxebeste, 2012, 49 or.).

Kanpo logikari dagokionez, batez ere, irakasleak edota ikasleek izan duten erantzunean eta hartutako erabakietan jarri da arreta. Adibidez, korrika jarduera motorrean, irakasleak ikasleei ilaran, bata besteari atzetik korrika egitea eskatzen die. Baina ikasleen erantzuna, talde txikietan aritzea izan da. Ikasleek, neskak eta mutilak, irakasleak eskatutako antolamenduri buruzko eskakizunari ematen dioten erantzuna, generoarekiko aztergai delakoan, kanpo logikaren aztertu den ezaugarri bat izan da.

Kanpo logikaren zabalera ohartu behar da. Hori dela eta, behatu den gorputz hezkuntzan generoarekiko kanpo logikaren ezaugarriak zehaztu dira: nola taldekatzen dira ikasleak, nor antolatzen ditu, taldeak mistoak diren, generoarekiko haserrean eta laguntzen norabidea, irakasleak eta ikasleak duten memoriaren trataera (emaitzei erantzuna), irakasleak ikasleek jarduera motorra burutzen duten bitartean mezuren bat ematen dien, nori eta zein motatakoa da mezua (kontsigna didaktikoa) eta praktika lekua osatutako egunerokotik zehaztutako kanpo logikaren ezaugarriak dira.

SPSS programa estatistikoaren bitartez, behatutako barne logikak eta kanpo logikak adierazten dituzten datu kuantitatiboan azterketa egiteko tresna bilakatu da. Eraiki den SPSS fitxategiari esker, aldagai nominalen³⁸ arteko lotura egiteko aukera dagoenez, lehenengo eta behin jarduera motor bakoitzaren barne logika osatzen duten aldagaien azterketa datuen analisi kuantitatiboan oinarritu da eta horretarako programa estatistikoaz baliatu gara, ezaugarri bakoitzaren agerreraren iraupena neurtuz. Era honetan, barne logikako ezaugarri bakoitzaren aniztasunaz gain, iraupenarekiko ehunekoak ezagutzeko. Barne logikaren ezaugarriak aztertzeko metodo kuantitatibo honek portzentajetan bihurtzen duen errealitatea interpretatzeko aukera ematen du eta ondorioz, behatutako gorputz hezkuntzak proposatu dituen jarduera motorrek bultzatu dituzten balioak eta zeintzuk izan diren ezagutzen laguntzen du.

Barne logika berari aktoreek eman dioten erantzuna eta testuinguruaren arteko alderatze lana ikerketa bideratzeko, kontingentzia taulak³⁹ eta chi estatistikoko koadratua⁴⁰ erabili dira.

³⁸ Aldagai kategorikoa nominala: aldagai hau ez da zenbakizkoa baizik eta kualitatiboa, beraz, zenbakizko balioa izan dadin etiketatu egiten da. Etiketatutako aldagai nominal bakoitzari zenbaki bat ematea da. Adibidez, kanpo logikaren irakasleak eta ikasleak izan duten memoriaren trataeran: inork ez=1; irakasleak emaitza gogoratu=2; ikasleak emaitza gogoratu=3; irakasleak irakasleari emaitza gogoratu=4...

³⁹ Aldagai kategorikoekin (kualitatiboekin) lan egiten denean datuak sarrera bikoitza duten tauletan antolatzen dira, hau da, kontingentzia tauletan zeinetan sarrera bakoitzak aldagai kategoriko bat adierazten duen.

⁴⁰ Pearson chi estatistikoko koadratua (χ^2) bi aldagai kategorikoen arteko erlazio maila ezagutzeko estatistikoko bat da, aztertzen diren aldagaien arteko independentzia hipotesiarekin bateragarria bada $\chi^2 = > 0,05$ izango da.

Taula 12: SPSS fitxategia osatzeko aldagaiak, etiketak eta balioak.

ALDAGAIK	ETIKETAK ETA BALOREAK
BARNE LOGIKA	
Kooperazioa	Bai 1 Ez 2 Besteak 3
Oposizioa	Bai 1 Ez 2 Besteak 3
Kooperazio-oposizioa	Bai 1 Ez 2 Besteak 3
Egitura soziala	Bakarka 1 Kooperazioa 2 Denok denon kontra 3 Banako duelu simetrikoa 4 Banako duelu asimetrikoa 5 Bat denon kontra 6 Talde duelu simetrikoa 7 Talde duelu asimetrikoa 8 Egoera paradoxikoak 9 Besteak 10
Komunikazioa sare mota	Esklusiboa 1 Anbibalentea 2
Egonkortasuna	Bai 1 Ez 2
Espazioa	Ziurgabetasun eza 1 Ziurgabetasuna 2 Besteak 3
Espazio mota	Bizidun espazioa 1 Espazio materiala 2 Zeharkatu beharreko espazioa 3 Bereziki erritmiko espazioa 4
Denbora	Memoria gabea 1 Puntuazioa 2 Denbora 3 Puntuazioa eta denbora 4 Saikapena 5
Objektua	Bai 1 Ez 2
Eremu motorra	Jokoa 1 Jolasa-jokoa 2 Jolasa 3
KANPO LOGIKA	
Taldekatzea	Bat 1 Bi 2 Talde koloreak 3 Bi talde koloreak 4 Ikasgela osoa 5 Bi talde 6 Taldea 7 Besteak 8
Nork antolatu	Irakasleak 1 Ikasleak 2 Besteak 3

Taldeak	Mistoak 1 Ez mistoak 2 Banaka 3 Besteak 4
Haserreak	Ez 1 Neskak mutilari 2 Neskak neskari 3 Mutilak neskari 4 Mutilak mutilari 5 Besteak 6
Animoak	Ez 1 Neskak mutilari 2 Neskak neskari 3 Mutilak neskari 4 Mutilak mutilari 5 Besteak 6
Irakasleak (jarduera praktikatzan duten bitartean, ez lehenago edo ostean)	Begiratu 1 Materiala antolatu 2 Parte hartu 3 Kontsigna eman 4
Kontsigna mota	Ez 1 Jarrerarekikoa 2 Teknikarekikoa 3 Estrategiarekikoa 4 Arauekikoa 5 Besteak 6
Kontsigna nori	Neskari 1 Mutilari 2 Ikasgela osoari 3 Inori 4
Programan	Bai 1 Ez 2
Memoria trataera	Inork ezer 1 Irakasleak emaitza gogoratu 2 Ikasleak emaitza gogoratu 3 Ikasleak irakasleari emaitza gogoratu 4 Ez dute jarduera amaitu 5 Besteak 6
Praktika lekua	Futbito zelaia 1 Hareatza zelaia 2 Frontoia 3 Saskibaloia zelaia 4 Gimnasioa 5 Belodromoa 6 Trinketea 7 Besteak 8
Errepikatuta	Bai 1 Ez 2

Taulan jarduera motor bakoitzeko barne logikaren eta kanpo logikaren aldagaiak eta aldagai bakoitzaren etiketak mugatzen dira. Horrela, behaketari esker idatzitako egunerokoan aldagai bakoitzak erakutsi duen errealitatea zehaztu daiteke. Egunerokoan bildu diren kanpo zein barne logikarekiko “errealitatearen matematizazioa erregistratzeko era (eta aldi berean, gertaera

sozialen ordezkora) berdintasunezko (gertaera guztiak forma berdinean ordenatzen dira: enuntziatua eta zenbaki bat esleituz) eta uniboko (gertaera bakoitza denotatiboki, hau da, esan nahi bakar baterekin) bat da” (Rubio eta Varas, 2004, 241 or.).

“Aldagai kategorikoekin lan egiten denean datuak sarrera bikoitza dituzten tauletan antolatzen dira” (SPSS, 2009, 62 or.). Taula hauetan, sarrera bakoitzak aldagai bat adierazten du. Barne eta kanpo logikaren aldagaien arteko lotura aztertzeke, bi dimentsioko diren kontingentzia taulak erabili dira. Taula hauetan, iraupena eta portzentajetan bi aldagaien arteko harremana azaltzen da.

3. DATUEN AZTERKETA

3.1. Ikerketa burutu den testu-ingurunea

Kurutzia ikastola kokatuta dagoen herritik abiatuz beraren sorrera azaltzen da, gero ikastolak eta gorputz hezkuntza arloak eta irakasleak genero-errekiko hartzen duten ikuspuntua zehazteko.

3.1.1. Durango

Euskal Autonomi Erkidegoaren ipar mendebaldean Bizkaiko lurralde historikoa dugu. Bizkaiko lurraldea zazpi eskualdez osatuta dago, horietako bat Durangaldea da, lurraldearen ekialdean kokatzen dena. Durangaldea osatzen duten udalerriak Abadiño, Zornotza, Atxondo, Berriz, Durango Eloorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria eta Zaldibar dira. Durango, 119 metroko altuerara Ibaizabal ibaiaren ezkerreko zabalgunean kokatzen da. Herriak iparraldetik Iurreta du mugatzat, hegoaldean Izurtza eta Mañaria, ekialdean Abadiño eta mendebaldean Dima, Iurreta eta Zornotza. Zenbait errekatxok eta nagusiki Mañaria ibaiak Durango zeharkatzen duen Ibaizabal errekararen ur etorria handitu egiten dute. Durango herriaren hegoaldean, geruza ia bertikalak dituen antiklinal, estu eta puskatu txiki batek mendikatea osatzen du: ekialdean mendebaldean Udala, Anboto eta Alluitz mendiak aurkitzen ditugu. Udalerri barruan aipatzekoak dira Mugarra eta Neberondo mendiak.

Durango eta inguruan sortu zen industria ugarien eraginez 1940. urtetik etengabeko hazkuntza demografikoa ezagutu izan da, halaber, 80. hamarkadan krisi ekonomikoaren ondorioz joera honek geldialdia izan zuen. Biztanleriaren gorakadaren arrazoi nagusia XX. mendearen erditik nekazar munduko eta itsas herrietako immigrazioan aurkitu behar da, 2009ko datuen arabera Durangok 28.299 biztanle ditu, hauetatik 13.953 gizonenak dira eta 14.634 emakumeenak (Eustat, 2011a). Gizonenak eta emakumeenak jaiotzen artean, 1998. urtetik 2010 urte arte aztertutako datu estatistikoek aldea dagoela adierazten dute. Adibidez 1998. urtean jaiotzak -gizonenak 102 izan ziren eta emakumeenak 120; 2001. urtean gizonenak 129 eta emakumeenak 118; 2006. urtean 167/149; eta 2010. urtean 136/146 (Eustat, 2012c).

Durango Ibaizabal ibaiaren goi eta erdi harana betetzen duen eskualde burua izanik zerbitzu arloa asko garatuta du, batez ere, merkataritza, zerbitzu publiko, garraio, banku eta aseguruiei dagokionez. Baina, bere kokapen estrategikoagatik ere, industria garrantzitsu bat du, batez ere fundizio eta tresneriaren arloan. Industria izan da Durango jarduera ekonomikoaren hazkundearen

arrazoi indartsua. 2010. urtean, 16 urte edo gehiagoko biztanle landunak, zerbitzu sektorean, %62,76 izan da eta industriari %30,95koa (Eustat, 2010).

Derrigorrezko Hezkuntza eskaintzari dagokionez, Durangon zazpi ikastetxe daude, ondorengo taulan ikusten den bezala non ikastetxearen izenez gain, hizkuntza eredu, eskaintzen diren hezkuntza etapak eta administrazioarekiko harremana azaltzen den.

Taula 13: Durangon Haur Hezkuntza (HH), Lehen Hezkuntza (LH), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) edota Batxilergoa eskaintzen duten ikastetxeek.

			administratiboa
Landako Herri Ikastetxea	B, D	HH, LH	PUBLIKOA
CEP Zabalarra LHI	D	HH,LH	PUBLIKOA
Frai Juan de Zumarraga	B,D	DBH	PUBLIKOA
Nevers Ikastetxea	A, B	HH, LH ,DBH	KONTZERTATUTA
San Jose Jesuitak ikastetxea	B, D	HH,LH,DBH, (Batxilergoa)	KONTZERTATUTA
San Antonio -Santa Rita ikastetxea	B, D	HH,LH,DBH	KONTZERTATUTA
Kurutziaga Ikastola	D	HH,LH,DBH	KONTZERTATUTA
HH = Haur Hezkuntza // LH = Lehen Hezkuntza // DBH = Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Iturria: Durango. (2009). Ezagutu Durango: datu orokorrak.			

Iturria: Durango. (2009). Ezagutu Durango: datu orokorrak.

Taulan irakurtzen diren datu orokor hauek Durangon Derrigorrezko Hezkuntza eskaintzen den zazpi ikastetxeetatik seik D eredu eskaintzen dute, heziketa euskaraz jasotzen den eredu. Beste aldetik, zazpi ikastetxeetatik hiru ikastetxe publikoak dira. Kurutziaga ikastolari dagokionez eskola kontzertatua da eta Haur Hezkuntza eta Derrigorrezko Lehen Hezkuntza eta Bigarren hezkuntza eskaintzen ditu, euskaraz.

3.1.2. Kurutziaga ikastola, sorreratik gaur egun arte

Euskal herrian eta beraz, Euskal Autonomia Erkidegoan gaur ezagutzen den ikastola marka indartsu egoteaz gain ibilbidea ez dela bukatu ikusten da. Izan ere, ikastolen mugimenduak aurrera jarraitzen du. Beraien zeregin pedagogikoa eta herriei euskal kulturaren euskaraz murgiltzeko eta hazteko ardura ahalik eta hobereen gauzatzeko ikastolen antolamendu berria proposatzen da. Euskaraz hazteko asmoarekin XIX. mendean zabaldu ziren eskoletatik hasi eta Ikastola 2020 izendatutako estrategia arte jauzia luzea izan da. Ikastolen mugimenduak esku artean duen estrategia hobeto ulertzeko ibilbidearen nondik norakoak laburbilduz azaltzeak gaur egungo ikastola fenomeno ulergarriagoa egiten du eta, aldi berean,

behatutako gorputz hezkuntza proposatu den Bizkaiko Durangoko Kurutziaga ikastola nondik datorren eta norantz doan ezagutzeko aukera da.

Horrela, gaur ezagutzen den ikastola fenomenoaren aztarnak XIX. mendean aurki daitezke Bilbon edo Donostian zabaldu ziren euskaraz eskoletan. Azkuek 1896an Bilbon "lehenengo eskola euskaraz" (Iza, 2011, 20 or.) sortzen du eta Donostian 1936 arte zabalik egon zen ikastetxea euskaraz zabaldu zen. Han eta hemen Euskal Herrian euskara eta euskaraz haztea helburua duten ikastetxeak zabaltzen dira.

Baina, gaur ikastola izeneko fenomeno 60ko hamarkadan hasten da. Guda ondoren alde batetik, euskaraz bizi zuen egoera latza aldatzeko eta bestetik, garai hartako eskola publiko eta pribatuak eskaintzen zuten pedagogiari beste aukera emateko guraso eta maisu/maistren lanak eta ekintzak (mendi taldeak, dantza eta musika taldeak, euskara irakasteko taldeak) erabakigarriak izan ziren. Egoera honetan, Hego Euskal herrian herri desberdinetan zabaltzen diren ikastolen arteko koordinaziorako 60ko hamarkadaren erdian ikastolen batzordea sortzen da, "ikastolen lehenengo elkarte" (Iza, 2011, 59 or.). Batzordearen zereginen artean irakasleak bildu, esperientzien arteko trukea edo udalekuak antolatzea zerrendatzen ziren.

Hala eta guztiz ere, ikastolak legez kanpokoak izaten jarraitzen dute eta hain zuzen ere, ilegalizazioa sortu berri den ikastolen batzordean kontra jarrita zeuden iritzien arazoia izan zen. Ikastolak bizi irauteko babes ofiziala izateko beharra ikusten zutenek⁴¹ nagusiki ikastola zegoen herriko eliza edota orden erlijiosoaren eskutik "1969ko azaroaren 9an Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batza sortzen da" (Iza, 2011, 64 or.). Elkartearen oinarrian ikastolen legalizazioa eta finantziatorako bideak nagusitzen dira.

Urte bete geroago, 1970ko Hezkuntzaren Lege Orokorrak "Hego Euskal Herriko ikastoletan aldaketa sakona ekarri zuen" (Iza, 2011, 75 or.). Legearen ondorioz hezkuntza sistema finantzatzeko aukerak zabaltzen dira. Ikastolek diru iturriak bermatzeko, beraz, baldintza batzuk bete behar izaten zituzten: ikasle bakoitzeko gutxieneko metro karratua, irakasleen titulazioa, edota Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxea kalifikazioa izatea horietako baldintza batzuk ziren. Bide honetatik legez kanpokoak izaten jarraitzen zuten ikastolek finantziazioa lortzeaz gain legalizazioa lortzeko aukera izan zuten. Eta ondorioz, Bizkaiko, Nafarroako eta Arabako Ikastolen Elkarteak sortzen dira. Bizkaiko Ikastolen Elkarte zehazki, 1975an sortzen da eta hiru urte geroago kooperatiba eran osatzen da.

Geroago, diktadura ondoren 1980an Eusko Jaurlaritzaren lehenengo osaketarekin ikastolen zabalkuntza areagotzen da eta 1975-76 ikasturtean 33.851 ikasleetatik 1981-82 ikasturtean 65.935 ikasle kopurura igarotzen da.

Osatu zen Eusko Jaurlaritza berriak zituen zereginen artean eskola sarea osatu eta antolatzea zeuden eta Eusko Jaurlaritzaren asmoa eskola publiko sare bakarra osatzea zen. Hori dela eta 1982an "Hezkuntza sailak EIKE⁴² izen-

⁴¹ Gipuzkoan zeuden 78 ikastoletatik 53 ikastolek elizaren babespean jarraitu zuten.

⁴² Euskal Ikastolen Erakundea.

datutako legearen proiektua onartu zuen” (Iza, 2011, 130 or.) eta EIKE institutua osatzen da. Institutuaren bitartez diktadura ondoren transferitutako eskola publikoarekin sare bakarra osatu nahi da, hau da, ikastolak eta eskola publikoekin sare bakar bat osatu nahi da. EIKE proiektuaren arabera lehenengo pausua ikastolek beraien titularitatea administrazioari ematea zen. Baldintza honek proiektuaren alde eta kontra zeudenen arteko banaketa ekarri zuen “titularitatea galtzeko posibilitatea ikastolek EIKE proiektua guztiz ez babestearen oinarritzko arrazoiatariko bat izan zen” (Iza, 2011, 138 or.) eta Garagorrik (2011) adierazi bezala “herri partaidetza, bertako erabaki mailak, hurbiltasun hori galdu egingo zen ikastolan” (Iza, 2011, 138 or.).

Egoera honetan, ikastolen elkarrekin ikastolak sare publikoan ez galtzeko zeregin pedagogikoa gauzatzeko nola egin behar zutenen inguruan hausnarketa sakona egin zuten: zuzendarien izendapena, antolamenduaren organigrama, ikasketa buruen funtzioak, gobernu eta funtzionamenduaren arteko desberdintasuna hausnarketaren gaiak izan ziren. Eta ikastola bakoitzaren barne antolaketaz gain 1987an Euskal Herriko Ikastolen konfederazioa (EHIK) sortzen da. Urte berean, “Eusko Jaurlaritzaren eta ikastolen mugimenduen lehenengo hitzarmen publikoa” (Iza, 2011, 171 or.) dator, zeinek ikastolen diru eta juridiko beharrak asetzen ditu. Horrela, hitzarmenaren ondorioz sare publikora igaro ziren ikastolek izan ezik, “hezkuntza sistema propio bat zen ikastolek nahi zutena, euskal eskola bat beraz” (Iza, 2011, 190 or.).

Hego eta ipar Euskal Herriko ikastolen lehenengo Batzarrean EHIK-k Euskal Eskola txostena ikastolei aurkeztu zien gehiengo osoz onetsiarekin, Gutun Programatikokoaren bitartez Euskal Eskola proiektuaren ekarpen garrantzitsuenetarikoa bat zehaztuz: elkar banatutako titulartasuna kontzeptua.

Kontzeptu honek Euskal Eskola Publiko Berria bultzatu nahi zuen eta Etxezarretak (2011) azaldu bezala “ikastetxearen titulartasunaren parte bat administrazioak zuela defendatzen zen, eta beste parte bat ikastolen nortasun juridikoa zeukan entitateak. Beraz, bertako bazkideek eta administrazioak osatuko zuten titulartasun hori. Hau da, gurasoek eta administrazioak” (Iza, 2011, 193 or.).

Gobernu eta agente politikoekin elkar banatutako titulartasun inguruan izandako eztabaidek ez zuten fruiturik eman. Bestetik Espainiako Gobernuak hezkuntza sistema eraberritzeko asmoarekin 1990an LOGSE⁴³ legea ateratzen du. Hezkuntza lege berriak beste aldaketa nagusien artean derrigorrezko eskolatze epea urte bi gehiago zabaltzea (14 urtetik 16 urtera) eta material didaktikoaren elaborazioa ikastetxeen eskuetan geratzea izan ziren.

Baina, gaur ikastolak daukaten nortasun juridikoa eta antolamendua hobeto ulertzeko erabakigarria izan zen Euskal Eskola Publikoaren (EEP) legea ekarri behar da gogora. Horrela, 1990ko LOGSE argitaratu ondoren Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hezkuntza sarea antolatzeke legea argitaratzen

da, funtzio publikoan indarra eta garrantzia jartzen zuen legea izan zen. Ondorioz, EAE-ren ikastetxeen sarea eskola publikoaz eta pribatuaz osatzeko bidea zabaldu zen. Ikastolek, beraz, Euskal Eskola Publikoaren legearen oinarriari jarraituz, ikastetxe publikoan bihurtu eta eskola publikoaren sarean kokatu edo ikastetxe pribatu bezala jarraitu erabaki beharra izan zuten.

Elkar banatutako titulartasunetik beste muturrean zegoen egoera honetan, ikastolek sare publikora igarotzearekin beraien nortasuna eta autonomia galtzeko arriskuaren aurrean ikastetxe pribatuak bezala jarraitzea erabaki zuten. 1980ko Ikastolen Titulartasun Ofiziala bermatzen zuen araudia baliogabetuta “ikastetxe publikoak egongo ziren, administrazioa titularra izaki, eta ikastetxe kontzertatuak, finantzazio mota bakarrarekin” (Iza, 2011, 238 or.).

Euskal Eskola Publikoaren legearen ondoren sare publikora pasatu ziren ikastolak nahiz eta eskola publikoak izan ikastolen lurralde bakoitzaren elkartetan parte hartzen jarraitu zuten. Gauzak horrela, antolamendu berriari ekin zioten eta “ikastolen elkarrekin arlo pedagogikoaz arduratuko ziren, arlo enpresaria bi antolakuntzen eskuetan geratzen zen bitartean: inizatiba sozialeko ikastolak⁴⁴ Partaideren⁴⁵ ardura pean, eta sare publikoan sartutako ikastolak Ikasbatuaz⁴⁶ ardura pean” (Iza, 2011, 266 or.).

Ikastolen mugimenduaren inguruan 1993ko erabaki politikoek sortu zuten krisiaren gainera, ikastolen kolektiboak euskal hezkuntza proiektuarekin jarraitu zuen eta 1996an Pedagogi Plan Nazionala Aurkezten da. Nagusiki Planak “ikastolen hezkuntza proiektua indartu nahi du” (Iza, 2011, 272 or.) eta sei puntutan laburbiltzen da: izaera, helburuak, curriculum propioa, antolaketa eta ebaluazioa.

Pedagogi planaren izarra curriculum propioa izan zen. Eta 2000an “Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa eta Sortzen⁴⁷-Ikasbatuaz... Euskal Curriculumaren jorratze bidean, halaber, bi eragileak elkarrekin aritu ziren” (Iza, 2011, 278 or.).

Bi urte geroago Ikastolen konfederazioa “erakunde nazionala izatera pasatu baitzen Ekonomia-Intereseko Europar Elkarte bihurtzerakoan” (Iza, 2011, 283 or.). Aldaketa honek Seaska Elkarteak⁴⁸ beste ikastolen elkarrekin zeukaten nortasun juridiko berdina izatea ekarri zuen. Beraz, Konfederazio nazionalaz hitz egiten da.

Dagoeneko Ikastola marka ezarrita zegoen eta eredu publiko eta erlijiosoetatik “... ezberdina ez soilik titulartasunaren kontzeptuari dagokionez; ez bakarrik eskola antolamenduari dagokionez; ez bakarrik gauzak bizitzeko eragatik; ezberdina baita curriculumean eta ondorengo zereginetan ere” (Iza, 2011, 289 or.).

⁴⁴ Ikastola kontzertatuak.

⁴⁵ Partaidetza sozialeko Ikastolen Kooperatiba, 1995an sortua eta 49 ikastola hartzen zituena.

⁴⁶ EAEko sare publikora pasatu ziren ikastolak hartzen ditu.

⁴⁷ Sortzen taldeak sare publikora igaro ziren Nafarroako ikastolak hartzen ditu.

⁴⁸ Seaskak ipar Euskal Herriko ikastolak hartzen ditu.

Euskal Herriko Konfederazioa eratuta zegoen eta Udalbiltza⁴⁹ eta Sortzen-Ikasbatuaz taldeekin batera Pedagogi Plan Nazionalaren ildotik Euskal Curriculum garatzen hasteko sasoia heltzen da. Eta EAeko Hezkuntza Sailaren finantziarioarekin *Euskal Curriculum: Kultural ibilbidea. Adituen ekarpena* liburua aurkezten da. Gero Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum liburuan zehazten dena.

Beraz, 2007an EAeko Hezkuntza Sailak bi curriculum proiektuak zituen, “biek Hezkuntza Sailetik finantzatuta: Hezkuntza sailak, Ikastolen Konfederazioak, Kristau Eskolak eta Sortzen-Ikasbatuaz taldeak zuzendutakoa, eta eskola publikoaren beste sektoreak egindakoa” (Iza, 2011, 309 or.). Eusko Jaularitzak 2007an onartzen duen curriculum berriak aurreko bi proiektuen zatiak hartzen ditu eta baita ere LOE⁵⁰aren atal asko. Geroari begira, ikastolen mugimenduaren sustapenerako antolakuntza berria onartzen da eta IKASTOLA 2020 proiektuan ikastolen antolakuntza berriak Europar Kooperatiba Elkartearen (EKE) pean ikastola bakoitza kooperatibaren bazkidea zuzenean bihurtzen da. Horrela, “Euskal Herriko Ikastolen Elkarte EKE enpresa nagusia da” (IkastolenElkartea, 2009, 28. or.) eta “hainbat enpresa laguntzaile izango dira” (IkastolenElkartea, 2009, 26 or.).

“Ikastolen VI. Batzarrak... epe luzerako Ikastola 2020 deituriko estrategia onetsi zuen. ... XXI. mendearen bigarren hamarkadan zehar ikastola mugimenduaren ibilbide-karta izan nahi du. Estrategi horren kudeaketa ... aldagai politikoaren baitan egongo da” (Iza, 2011, 342 or.).

3.1.3. Kurutziaga ikastolaren sorrera eta hezkuntzarekiko ardatz nagusiak

Seme-alabak euskaraz eskolaratzea eta euskaldun hazi eta heztearen nahiarekin 1914an lehen ikastola sortu zen, eskola libre eta autonomo gisa. Urte batzuk geroago, 1932an lehen ikastola-elkartea ireki zen, hezkuntza herritarra, euskalduna eta kristaua izatea ziren elkartearen asmoak Orduetik hona, 1939ko gerra zibila tartean, aipagarria da 1987an Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa sortu zela. Bi hamarkada geroago, EAE, Nafarroa eta Iparraldeko ikastolek Euskal Herriko Plan Estrategiko komuna gauzatzeko indarrak eman duena. Gaur egun, ikastolen mugimendua euskal kulturaren aztarnak dauden España eta Frantziako lurraldetara zabaltzen da: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Behe Nafarroa, Zuberoa eta Nafarroa.

Bizkaian 70eko hamarkadaren bigarren zatian ikastolen mugimendua sendotzen eta hazten joan zen, Bizkaiko ikastolen elkarte sortuz. Kurutziaga ikastola, Durangon kokatzen da eta Bizkaiko ikastolekin batera, ikastolen mugimenduari atxikita dago, ezaugarriak hezkuntza euskalduna eta hezkuntza-komunitate autonomoa izanik. Ikastolen mugimenduari atxikita dagoen edozein ikastolak

euskaltasuna du hezkuntzaren ardatza eta euskara ardatz duen eleaniztasuna sustatzen du. Euskal kultura du kultura artekotasunaren abiapuntua, izaera kooperatiboa eta elkarlana oinarria izanik. Kurutziaga ikastola gizarte ekimenak sortutako gizarte kooperatiba da, kudeaketa autonomoa duena eta jarduera nagusiak pertsonak bere osotasunean prestatzea eta euskal kultura transmititzea dituen. Kurutziaga ikastolatik hezkuntza eskaintza Durangora eta inguru hurbilenera bideratzen da, gizartearen eskakizunei arreta berezia emanez.

3.1.4. Kurutziaga ikastolan ematen den generoarekiko curriculum tratamendua

Gaur egun gizon eta emakumeen eskubideak neurri berdinean bermatu behar direla arautua dago. Hezkuntza sisteman asko izan dira berme hau era batera edo bestera aipatu dituzten txostenak euren atal ezberdinetan. Durangoko Kurutziaga ikastolak bereak egiten ditu Euskal Curriculumean definitzen diren konpetentziak eta ondorioz, gizon eta emakumeen berdintasuna bermatzeko hartu duen lehenengo irizpidea aukera berdina eskaintzea da. Helburu hau betetzeko lehen pausua hezkuntza eskaintza mistoa izatea da. Irizpide honetatik abiatuz, idazten du Hezkuntza Proiektua, bertan generoaren arazoari aurre egiteko hartzen duen konpromisoa azalduz: “Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun iraunkorra sustatzeko konpromisoa dugu, hezkuntza ez sexistaren aldeko hautua eginez eta curriculum guztietan zein arlo ez curricularrean genero ikuspegia txertatuz” (Kurutziaga Ikastola, 2010, 3 or.). Proiektu berean eskola inklusiboari garrantzia berezia ematen dio. Gai hau garatzeko zabaltzen duen atalean, genero portaeren aurrean ezberdintasunei errespetua eta konpetentzi aniztasunari erantzuten dion hezkuntza eraikitzea inklusibitatea bermatzeko bideak direla azpimarratzen da.

Kurutziaga ikastolak hezkidetzarekiko hartutako erabakiek neska eta mutilengan izan duen eragina aztertzeko legedian arreta jartzea beharrezkoa ikusten da. Horrela, hasi Nazio Batuen Erakundearen Batzar Orokorrek emakumearen kontrako era guztietako diskriminazioa ekiditeko onartzen duen hitzarmenetik, LOGSEa, Ikastolen Elkarteko Euskal Curriculum eta Kurutziaga ikastolako hezkuntza proiektura heldu neskak eta mutilak une eta gune berean hezkuntza maila eta forma guztietan hezkuntza bera izan dezaten eta neurri hau maskulino eta femenino rolen estereotipoak saihesteko hartu beharreko bidea dela onartua dago, azken finean, praxia motorretik egiten den ikerketa honetan bereziki gorputz hezkuntzan neskak eta mutilak aktiboki parte hartzerakoan aukera berdina izan dituztela baieztatzen da zeren eta neskak eta mutilak hezkuntza programa bera jaso dute.

Guztiarekin, aztertu den gorputz hezkuntza egoera mistoan eman da eta honek harreman motorrei dagokionez ere, sustatu diren balioak bai neskek eta mutilek bereganatu dituztela esan nahi du.

⁴⁹ Udalbiltza Euskal Herriko udal eta udal hautetsien biltzarra da. 1999ko irailaren 18an sortu zen, Bilboko Euskalduna jauregian.

110 ⁵⁰ Ley Orgánica de Educación.

3.1.5. Gorputz hezkuntzako irakaslea

Gorputz hezkuntzako irakaslea, gizonzkoa eta Kurutziaga ikastolako ikasle ohia da. Durangoko Fray Juan de Zumarraga institutuan batxilergoa bukatu ondoren Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolan ikasi zuen gorputz hezkuntzako espezialitatea lehenengo, gero Haur Hezkuntzako ikasketak burutuz.

Ibilbide profesionalari dagokionez, bi urtez Durangaldeko ikastetxe ezberdinetan lan egin du, horietako bat kurutziaga ikastola izanik. Behaketa lan hau burutu den ikasturtean Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko gorputz hezkuntzako irakaslea izan da.

3.2. Behatu den gorputz hezkuntza

Gorputz hezkuntzako irakasleak 09-10 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 3. ziklorako eginiko jarduera motorren proposamenean joko-jolas eta kirolek hartu duten lekua aztertzea da hurrengo pausua. Era honetan, neskek eta mutilek burutu dituzten jarduera motorren barne logika aztertzeke lehen urratsak ezartzen dira. Gorputz hezkuntzako irakasleak eduki motor kulturak planifikatzerakoan inkontzienteki sustatu duen genero eredu planifikazioan agertzen delarik.

3.2.1. Gorputz hezkuntzaren planifikazioa Kurutziaga ikastolan

Aztertu den gorputz hezkuntza egin diren jarduera motorrak lehenengo planifikazioa bat egon delako izan da. Kurutziaga ikastolan gorputz hezkuntzako irakasleak 3. ziklorako planifikazioan bi multzo bereiztu ditu: kirolen hastapena eta oinarrizko gaitasunak multzoak. Paperean bi multzoen antolamendua ondorengoak izan da:

Kirolen hastapena multzoan planifikatutako saioek ariketa gimnastikoak, boleibola, beisbola, frisbeea, sokak, atletismo, futbola, eskubaloia, frontoia (zesta punta, esku pilota), floorball eta saskibaloia kirolak hartu dituzte. Baita ere, Malabareak jarduera motorra nahiz eta kirola ez izan. Paperean hasierako planifikaziotik kanpo trinketean pilota kirolak, belodromoan txirrindularitza, ultimate eta errugbia kirolak ere landu dira. Multzo honen antolaketan saioen hasieran joko-jolas tradizionalak hartzen dute lekua.

Oinarrizko gaitasunak multzoan garatu nahi izan direnak gorputz eskema, lateralitatea, tonua, oreka, erlaxazioa, arnasketa, espazioaren hautematea, denboraren hautematea, espazio-denboraren hautematea, koordinazioa dinamiko orokorra, begi eskuko koordinazio fina eta zabala, begi oineko koordinazioa, lekualdaketak, jauziak, birak, jaurtiketak, harrerak, garraioak eta gidatzeak, erreakzio abiadura eta boteak izanik. Multzo honen antolaketan saioen hasieran eta amaieran joko-jolas tradizionalak hartzen dute lekua.

Planifikaziotik praktikara jauzian, irakasleak saioak antolatzeko kirolen hastapena unitate didaktikoak proposatu ditu. Oinarrizko gaitasunak multzo unitate didaktikoak planifikazioan, hau da, paperean geratuz.

3.2.1.1. Kirolen hastapenaren izaera behatutako gorputz hezkuntza

Gogoratu behar da behatutako gorputz hezkuntzak kirol bat aurkezten duen bakoitzean, hastapenaren ikuspuntutik egiten dela. Neskek eta mutilek kirolarekin duten lehenengo kontaktuetan irakasleak gutxieneko arauak azaltzen dizkie. "Kontsigna, aholku eta iradokizunengatik baldintzatutako egokitutako ariketak edo prestatzeko egoera motor didaktikoak" (Parlebas, 2001, 174 or.) osaturiko multzoa da, hau da, kirol aurre ariketak dira. Behatutako gorputz hezkuntzako irakasleak neskei eta mutilei kirolak egitea eskatu die. Kirola era gordinean praktikatu eta dagokion kirolean prestatzeko ariketak eginez. Adibidez, errugbia kirolaren kasuan errugbira jokatzear gain, neskek eta mutilek errugbi bikoteka paseak jarduera motorrak pasea atzerantz barneratzeko prestatutzako ariketak egin dituzte edo errugbia lapurretan jolasean neskek eta mutilek plakaketa barneratzeko burutu dute.

Taula 14: 2009-10 ikasturteko gorputz hezkuntza behatu diren kirolak.

Jardueraren izena	Iraupena (t')	%Iraupena
Errugbia	693	%16
Beisbola	578	%12,7
Ariketa gimnastikoak	466	%10,4
Ultimate	334	%7,3
Trinketea	353	%6,5
Belodromoa	241	%5,2
Boleibola	207	%4,4
Eskubaloia	202	%4,3
Zesta punta	98	%2,1
Futbito	53	%1,2
Eskupilota	26	%0,5
Saskibaloia	25	%0,4
Guztira	3276	%71

t' = iraupena minutuetan; % = iraupena portzentajearen

Kirol hastapena multzoan paperean planifikatu diren kiroleatik gorputz hezkuntza saioetan errugbia nagusitu da % 16arekin, gero beisbola %12,7arekin, jarraian ariketa gimnastikoak %10,4arekin, ultimate %7,3arekin, trinketean pilota kirola %6,5arekin eta belodromoan txirrindularitza %5,2arekin. Boleibola, eskubaloia, zesta punta eta futbito %5era ere ez dira heldu, eta eskupilota eta saskibaloia %1era ere ez.

Nagusitu den errugbia kirola ohiko irakaslea gidatu beharrean, errugbiko jokalariei batek hartu du irakaslearen rola eta errugbiko saioak zuzendu ditu.

Ariketa gimnastikoetan pinoa, itzulipurdiak eta alboko gurpilak proposatu dira.

3.2.1.2. Euskal Autonomia Erkidegoan kirolen eskaintza eta generoa

Behatutako gorputz hezkuntzak proposaturiko kirolak EAE-n⁵¹ ere proposatzen direla ikusten da. Gizarteak proposatzen ditu eta hezkuntzan gorputz hezkuntzaren bitartez aintzat hartzen dira.

Taula 15: Euskal kirol federazioen lizentzia kopurua generoaren arabera (%).

Jardueraren izena	Emakumeak %	Gizonak %
Beisbola eta softbol	%50,91	%49,09
Boleibola	%70,31	%29,69
Errugbia	%8,18	%91,82
Eskubaloia	%34,93	%65,07
Futbol	%10,96	%89,04
Gimnastika	%95,78	%4,22
Saskibaloia	%39,58	%60,42
Trinketea, zesta punta (euskal pilota)	%5,62	%94,38
Txirrindularitza	%3,5	%96,5
Ultimate		

Iturria: EJV. (2013). Kirolarien lizentzia federatuen kopurua. Datuak sexuka 2012

Generoaren ikuspuntutik aztertuz gero, emakumeek eta gizonak duten parte hartze maila aztertzerakoan emakumeek eta gizonak praktikatzen dutela ikusten da. Baina, kirolaren arabera aldeak nabarmentzen dira. Horrela, emakumearen parte hartze maila beisbolean (%50,91), boleibolean (%70,31) eta gimnastikan (%95,78) gizonena baino handiagoa dela ikusten da. Bestetik, gorputz hezkuntzan proposatu den ultimate kirola ez da EAE-n aukeratzen den kirola. Belodromoan txirrindularitza kirolean (%5,62) emakumeen parte hartze maila oso baxua dela ikusten da, errugbian bezala, %8,18koa.

3.2.1.3. Oinarrizko gaitasun motorren zentzua

Behatutako gorputz hezkuntzaren planifikazioan (paperean) kirolen hastapenaz gain, heziketa psikomotorren oinarria duen pentsamendutik abiatuz saioak antolatu dira. Pentsamendu honetan mugimendua heziketa motorren ardatzean bihurtzen da. Exekuzioa eta nerbio-sistemaren arteko koordinazioa garatzea bila-

tzen da. Oreka ariketak edo gorputz atalak bereiztu eta kontrolatzea zeregin motorren helburuetan bilakatzen dira, eta ondorioz heziketarenak. Baina, oinarrizko gaitasunak multzoan paperean antolatutako saioak praktikan hutsean geratu dira.

3.2.1.4. Planifikazioan joko-jolasak eta kirola ez diren jardueren pisua

Kirolen hastapenaren multzoan zein oinarrizko gaitasunen multzoan paperean antolatu diren saioetan joko-jolas tradizionalak proposatu dira. Eta baita ere, kirola ez diren beste jarduera motorrak. Gorputz hezkuntzako saio praktikoen ondorengoak izanik.

Taula 16: behatutako gorputz hezkuntzan proposatu diren joko-jolasak eta kirola ez direnak.

jardueraren izena	Iraupena (t')	%Iraupena
Korrika ⁵²	312	%6,8
Katea jolasa	196	%4,3
malabarismoa	184	%4
pilota ehiztaria	98	%2,1
bide hezkuntza	82	%1,8
luzaketak	72	%1,6
soka saltoan taldeka	67	%1,5
zelai erreka	52	%1,2
harrapaketa	43	%0,9
pilota eserita taldeka	39	%0,8
hiru gehiegi	37	%0,8
komekokosa	35	%0,7
eskubeltza	24	%0,5
palak eta erraketak banaka	21	%0,4
lau erpin	19	%0,4
zapira	14	%0,3
Hiru lerroan	12	%0,2
baloia kapitainari	9	%0,2
zaldiak eta zaldunak	9	%0,2
lasterketak	9	%0,2
buztana jolasa	6	%0,1
Guztira	1340	%29

t' = iraupena minutuetan; %=iraupena portzentajea

⁵² Korrika jarduera hasierako planifikaziotik kanpo egon den jarduera izan da. Baina, behatutako saio praktikoen guztietan egin den jarduera izan da. Honen arrazoia Durango herrian antolatutako lasterketa lehiaketetan kurutziazako ikastolako parte hartu zuten neskek eta mutilek erritmoa eta lasterketa intentsitatea neurtzen eta kontrolatzen ikastea izan da.

Taulan ikusten den bezala, joko-jolas tradizionalak ere proposatu dira: zapira jokia, harrapaketak, katea jolasa, zelai errea edo lau erpin adibide batzuk dira. Baina, baita ere, neskek eta mutilek malabarismo zirko jokia eta bide hezkuntzarekin loturiko ekintzak burutu dituzte. Kirola ez diren jarduera motorren artetik korrika jarduera gehien nagusitu dena izan da %6,8arekin, joko-jolas tradizionalen artetik nagusitu dena katea jolasak izan dira %4,3arekin eta zirku jokoak diren malabarekin jarduerak %4aren pisua erakutsi dute.

Balio sistema politiko eta ideologikoaren arabera Parlebasek sailkatutako praktika motor multzo bakoitzak pisu handiago edo txikiagoa hartzen du. Horrela, adibidez, errugbia bezalako kirol batek gorputz hezkuntzako saioetan hartzen duen lekua ez da emaitza zientifikoen ondorioa, baizik eta dagokion gizartean dituen balio sistemen ondorioa da. Era honetan, adibidez, joko-jolas paradoxikoek bultzatzen duten autonomia edo kirolek azpimarratzen duten emaitzen garrantzia gizarte batean babesten diren praktika motorren arabera garrantzia izango dute.

Gorputz hezkuntzan gauzatzen diren jarduera motorrak garaiaren arabera, korrante ezberdinak jarraitzen dituzte. Parlebasek lau multzotan banandu dituenak:

Taula 17: Egoera motorren multzoa.

KIROLA:	JOKO-JOLAS	ARIKETA	ERA ASKEAN
futbola, boxeoa	TRADIZIONALAK:	DIDAKTIKOAK:	EDOTA NATURAN
(Txapelketa eta instituzionalizazioa)	marroa, zelai errea (Txapelketa)	egokitutako ariketak edo prestatzeko ariketak (Egoera didaktikoak)	EGINIKO JARDUERAK: txangoak, mendi irteerak (Txapelketa eta instituzionalizazioa ez)

Iturria: Parlebas, P. (2001). *Léxico de praxiología motriz*. 174 or. Barcelona: Paidotribo.

- Txapelketa eta instituzionalizazioa nagusitzen diren egoera motorrak: kirolak.
- Kodifikatuta baina ez instituzionalizatuak dauden praktika motorrak: joko-jolas tradizionalak eta naturan eginiko jokoak.
- Kontsigna, aholku eta iradokizunengatik baldintzatutako egokitutako ariketak edo prestatzeko egoera motor didaktikoak: yoga, gorputz adierazpena, erlaxazioa, luzaketak eta korrika beroketan edo kirol hastapenean aurre ariketak.

- Lehiakor eta instituzionalizatuak ez diren egoera motorrak: naturan txangoak, piraguismoa, eskia, erreketan igeri” (Parlebas, 2001, 174 or.).

Egoera motorren lau multzo hauek behatutako gorputz hezkuntzan zein neurrian agertu diren aztertzeak planifikazioan gizartearen eragina deskubritu daiteke.

Taula 18: Behatutako gorputz hezkuntzan gizartearen eragina.

Behatutako gorputz hezkuntzan jarduera motak		
	t'	%
Kirol instituzionalizatuak	3272	%71
Joko-jolasak eta kirola ez diren beste jarduerak	1344	%29
Guztira	4616	%100

Parlebasek proposaturiko lau multzoetan arreta jarritz gero, behatutako gorputz hezkuntzak praktika motor instituzionalizatuak, hau da, “era pibilegiatuan gizarte instantziek garatutakoa kirolei” (Parlebas, 2001, 114 or.) garrantzia handiena eman diela ikusten da, %71a. Joko-jolas tradizionalak eta ea kirolei (kirola ez beste jarduerari) eskaini dien iraupena %29koa izanik. Gizartean bezala gorputz hezkuntzan Kirolaren alde egin da. Behatutako gorputz hezkuntzak txapelketa eta instituzionalizazioa nagusitzen diren egoera motorrei eman die pisu handiagoa. Neskek eta mutilek kirolatan jokatzeko gain, dagokion kirolean trebeagoak izan daitezkeen prestatzeko ariketak eginik.

Gorputz hezkuntzako irakasleak kirola hastapena multzoaren planifikaziotik saio praktikotara jauzia nola bideratu duen ezagutzeko saioaren antolamendua arakatu beharra dago. Era honetan, saio praktikoen egiturak islatzen duen generoarekiko ikuspuntua zehazteko.

3.2.2. Saioa eta generoa

Gorputz hezkuntzako saioa hiru ataletan dago egituratuta. Lehenengo atalean, lasterketa landu da. Bigarren atalean, gorputz hezkuntzako irakasleak joko-jolasak proposatu ditu. Eta azken atalean, ikasleak saio praktikotara bideratu ditu. Hirugarren atal honetan bi une bereizten dira: lehenengoan irakasleak praktikotara bideratu dituen kirolarekin prestatzeko ariketak proposatu ditu eta bigarren unean dagokion kirola gutxienezko arau ofizialak kontuan hartuz, praktikatu da.

Taula 19: Burutu den jarduera mota bakoitzaren deskribapena.

Jarduera mota	deskribapena ⁵³
korrika	Korrika jarduera lasterketa lehiaketetara begira neskek eta mutilek erritmoa eta lasterketa intentsitatea neurtzen eta kontrolatzen ikasteko saio guztien hasieran ikasleak bata bestearen atzean ilaran zelaiari bost bira ematean datza. Eta prestatzeko ariketatzat hartzen dena ere.
joko-jolas tradizionalak	Kodifikatuta baina ez instituzionalizatuak dauden praktika motorrak eta txapelketa ezaugarria ez da beti betetzen ⁵⁴
prestatzeko ariketak	Kontsigna, aholku eta iradokizunengatik baldintzatutako ariketak dira. Kirola praktikatzan hasi aurretik, ikasleek egin dituzten ariketak dira: gorputz jarrera, objektua menperatzeko ariketa teknikoak edota besteekiko kokapen egokiena barneratzeko.
kirola	Txapelketa eta instituzionalizazioa nagusitzen diren egoera motorrak.

Gorputz hezkuntzako irakasleak Durangon antolatzen diren lasterketetan parte hartzen duten Kurutziaga ikastolako ikasleek indarrak ez dituztela neurtzen ikusten duenean, jarduera hau proposatzearen erabakia hartzen du. Korrika jarduera bakoitza bere erritmora zelaiari bost bira korrika ematean datza. Korrika jarduera motorraren bitartez gorputz hezkuntzako irakasleak neskei eta mutilei esfortzua neurtzen irakatsi nahi izan die. Bestetik, korrika jarduera goi mailako kirol entrenamendu saioetan beroketarako jarduera izateaz gain, fondoko kirolari egiten dio erreferentzia.

Joko-jolasak tradizioan aski ezagunak eta praktikatuak diren jarduera motor hauen ludikotasuna aintzat hartuz, saio praktikoa bakoitzean burutuko den kirolaren aurretik proposatu dira. Joko-jolasak kodifikatuak bai baina instituzionalizatuak ez daudenak dira.

Azken atalean proposatu diren prestatzeko ariketak praktikatu den kirola aintzat hartuz antolatu dira. Praktikatuak den kirolarekiko gorputz keinua

⁵³ Parlebasek azaltzen duen *jarduera motorren multzoa* (Parlebas, 2001, 174 or.) sailkapenean oinarrituta emandako deskribapenak dira.

⁵⁴ *Zelai erre*a jokoa talde batek bestearen kontra egiten du eta helburua irabaztea da, txapelketa dago. Baina *soka-saltoan talde*ka denok denekin aritzen dira eta kooperaziozko elkarrekintza dago, ez da txapelketarik egoten.

edota estrategi taktikoa barneratzeko ariketa didaktikoak dira. Gero, txapelketa eta instituzionalizatuak ezaugarriak dituen kirola praktikatzeko ikasleek ikaskuntza motor bat izan dezaten.

Taulan azaltzen den jarduera mota bakoitzaren pisua desberdina izan dela ohartuz.

Taula 20: Behatutako gorputz hezkuntzan jarduera mota bakoitzaren pisua.

	Min.	t (%)
korrika	307	%6,7
joko-jolas tradizionala	836	%18,1
prestatzeko ariketa	2333	%50,5
kirola	1048	%22,7
besteak	92	%2,0
Guztira	4616	%100

min.: iraupen osoaren minutuak
t: iraupen osoaren portzentajea

Aztertu den gorputz hezkuntzan proposatu diren jarduera moten pisuan aldeak daudela baieztatzen da. Horrela prestatzeko ariketek pisu handiena eta oso garrantzitsua izan dute, % 50,5koa. Kirolek ere garrantzi handia izan dute, %22,7koa. Gero, joko-jolas tradizionalak daude, %18,1arekin eta azkenik, eta oso pisu gutxirekin korrika jarduera motorra, %6,7arekin.


Agerian geratzen da kirolarekiko pentsamenduak hartzen duen toki oso handia. Izan ere, prestatzeko ariketak, praktikatuak den kirolean trebetasun maila bat izateko proposatzen dira. Helburua kirola izanik. Eta helburua betetzeko hartu den denbora, denbora osoaren %73,2koa izan da. Behatutako proposamenean joko-jolasak kirolek oso distantzia luzera geratzen dira.

Azterketarekin jarraituz, saio praktikoen atal bakoitzak izan duen iraupena miatuz gorputz hezkuntzako irakasleak saioen antolaketan islatu duen genero kutsua ezagutzen da. Aurretik baieztatutako kirolarekiko pentsamendutik gorputz hezkuntzak sustatu duen generoa deskubrituz.

Saioaren iraupena, ofizialki, 60 minutukoa da, baina ikasleek, gelatik aldagelara eta aldagelatik saioa praktikatuak den gunera heltzeko bost bat minutu behar izaten dituzte eta beste hamar inguru dutxatzeko eta euren gelara joateko. Beraz, saioa 45 minututan burutu behar da.

Saioaren atal bakoitzak iraupen desberdina du. Horrela, lehenengo atalak hiru eta bost minutu artean irauten du, bigarrenak hamar eta hamabost minutu artean, eta hirugarrenak, luzeena, hogeita eta hogeita hamar minutu artean irauten du.

Batezbesteko aritmetikoa egin ondoren lehenengo atalak 4 minutu (%9,63), bigarrenak 12,5 minutu (%30,12) eta hirugarrenak 25 minutu (%60,65) irauten dutela ikusten da.



Irudia 2: Saio praktiko bakoitzean atal bakoitzaren pisuaren batezbesteko aritmetikoa eta burutu diren jardura motak. Lehenengo atalak %9,63ko pisua (4 min.) izan du eta korrika jardura gauzatu da; bigarrenak %30,12ko (12,5 min.) pisua eta joko-jolas tradizionalak burutu dira; eta hirugarrenak %60,65eko (25 min.) pisua izan du eta kirolak eta prestatzeko ariketak burutu dira.

Saio praktiko bakoitzean atalen iraupena desberdina izan dela ikusten da. Gorputz hezkuntzako irakasleak saioaren hirugarren atalean praktikatzaren kirolei, bai kirola bera edo kirolarekin lotuta dauden prestatzeko ariketak egin, garrantzi gehiago eman diela ikusten da %60,65arekin (25 min.). Azterketarekin jarraituz, saioan joko-jolasak praktikatzeko hartzen den iraupena nabarmen gutxiagotzen da, bigarren atal honek %30,12ko (12,5 min.) pisua erakusten du eta lehenengo atalean korrika egiteko iraupenari askoz ere pisu gutxiago ematen zaio, %9,63 (4 min.). Saioaren lehenengo atalean burutzen den korrika jarduerak lasterketa txapelketan trebeagoak izateko helburua duenez, kirolarekiko prestatzeko ariketat hartzen da. Era honetan saioa egituratzerakoan kirolari eman zaion garrantzia oso altua dela ikusten da: %70,28 (29 min.).

Beraz, gorputz hezkuntzako irakasleak, proposatu dituen saio praktikoe-tan, leku adierazgarria utzi die kirolei, hau da, Euskal Herriko gizarte moder-noan eta gaur egungo gizartean goraiatzaren jardura motorrei eman die garrantzia, gizonen kirola.

3.2.3. Generoa eta talde hautaketa

Beste aldetik, gorputz hezkuntzako irakasleak, zikloaren lehenengo mailan, ikasleak taldekatzen ditu, talde bakoitzari kolore bat dagokiolarik. Guz-tira ikasgela bakoitzean lau talde egonkorak eta ikasle kopuruan orekatuak daude antolatuta: gorriak, laranja, urdinak eta horiak. Praktikatu behar den jardura motorra taldeetan praktikatu behar bada, ikasleek badakite zein da

dagokien taldea eta arin antolatzen dira. Beste aldetik, lau talde egonkorak bitan antolatu behar direnean, ikasleek zozketaz, alde aurretik erabakitako prozedura erabiltzen dute. Egoera hori talde duelua ematen den kirolek eskatzen dute, proposatu diren kirol gehienak talde dueluak izan dira.

Ikasgela da ikastolako antolamendu nagusia, mailakatzeko irizpidea adina eta generoa dira eta hirugarren zikloko maila bakoitzean bi ikasgela daude: 5.A, 5. B, 6.A eta 6. B.

Taula 21: Kurutziaga ikastolako hirugarren zikloko neska eta mutilen portzentajea.

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa	
Neskak	%47
Mutilak	%53

Grafikoaren datuek azaltzen digute Durangoko Kurutziaga Ikastolako ikasgeletan neska eta mutilen banaketa orekatua lortu nahi duela. Horrela, hirugarren zikloko lau ikasgeletan nesken eta mutilen portzentajeetan sei puntuko aldea baino ez dago. Neskek %47a osatuz eta mutilek %53a.

Gorputz hezkuntzako irakaslearen eginkizunetako bat jarduerak egiteko ikasleak antolatzea da. Irakasleak ikasturte hasieran ikasleak talde mistoetan antolatu ditu, aipatu den bezala talde misto bakoitzari kolore bat dagokiolarik.

Taula 22: Behatutako gorputz hezkuntzan maila bakoitzeko generoarekiko taldeen antolaketa.

Ikasgelak	5.A		5.B		6.A		6.B	
	mutilak	neskak	mutilak	neskak	mutilak	neskak	mutilak	neskak
Gorriak	2	5	2	4	4	3	3	3
Laranja	3	3	3	3	4	2	4	3
Berdeak	3	3	2	4	3	3	3	3
Urdinak	3	3	2	4	3	4	3	3
	11	14	9	15	14	12	13	12
Guztira	25		24		26		25	

Gorputz hezkuntzako irakaslea ikasgela bakoitzaren neska eta mutilen banaketak baldintzatuta, kolore talde bakoitzeko nesken eta mutilen kopurua orekatua izan dadin saiatu da. Horrela, irakasleak talde misto orekatuari eman dio garrantzia bi helburu bete nahian: batetik, ikastolako duen hezkidetzaren helburua bete irakaskuntza-ikaskuntza prozesua egoera mistoan antolatuz eta bestetik, taldeko kirolak eta joko-jolasek exijitzen duten taldeko antolamendu-erantzuna eman.

Taldeko jarduera motorrak egiteak ikasleak taldekatzea eskatzen du, adibidez, talde batek bestearen kontra egiten duenean. Horrela, saskibaloia bezalako kirolak praktikatzeko taldeak jadanik eginda daude, talde bakoitzean sei edo zazpi jokalariekin jokatzen dutelako. Era berean, beisbola bezalako kirolean, lau talde bitan bihurtzen dituzte errez eta arin. Edonola ere, garrantzitsua da esatea generoarekiko oreka lortzen dela.

Ikasgelak eta ikasleak era honetan banatuta egoteak dakarren lehenengo ondorioa, neskek eta mutilak jarduera motor berdina praktikatzeko dituztela da. Saioaren planifikazioan azaltzen den bezala, bai neskek eta bai mutilek saioaren atal bakoitzean burutzen diren jarduera motorrak egiten dituzte une eta gune berean eta ondorioz, neskek eta mutilek azaleratzen diren giza eredu berdina jaso dituzte.

3.2.4. Irakasleak generoarekiko duen diskurtsoa

Irakasleak izan duen generoarekiko ikuspuntua azaltzerakoan Kurutziaga ikastolako lehen hezkuntzako hirugarren zikloko gorputz hezkuntzako irakaslearekin elkarrizketa formala eta malguan oinarrituz zera behatu daiteke: hartu dituen erabakiak bai planifikazioan eta bai saioaren egiturari, aldezturik finkatutako neskentzako eta mutilentzako giza eredu zehatzak bultzatzeko ez dituela hartu. Hala eta guztiz, irudizko kolektiboa⁵⁵ agerian geratzen da, joko-jolasak berotzeko erabiltzen dituela esaten duenean, edo saioaren iraupena laburra denez, egunero joko-jolas berri bat azaltzen ibiliz gero, saioaren atal nagusian praktikatu beharreko ariketa eta kirolak garatzeko saioa labur geratzen dela esaterakoan. Generoarekiko hartzen dituen estrategiari dagokionez, argi eta garbi esaten du ikasleak taldekatze orduan izan ezik, ez duela generoa kontuan hartu, baina neskek eta mutilek nahastaten dituela dagokion joko-jolasa edo kirola praktikatzeko. Beraz, gorputz hezkuntzako irakaslea generoari buruzko diskurtsoan, neskek eta mutilek gaur egun bereganatzen duten giza ereduak kontuan hartu barik jardun da. Guk, ikerle gisa, ikerketaren garrantzia ikusten dugu, ikertzeak curriculum ezkutuan azalera-tzen diren giza ereduak definitzerakoan.

4. GORPUTZ HEZKUNTZAN HEZKIDETZA ILDOAK

Kirol, joko eta jolasen arauak definitzen dituzten denboraren nozioa, objektuaren beharra, akzio lekua eta besteekin harremanak ezaugarriak kirol joko eta jolas “bakoitzean garatzen diren jokabide motorren oinarritzko motetan daude” (Parlebas, 2001, 302 or.), parte hartzaileengan adimen eta afektibitate motorrak sustatuz. Behatutako gorputz hezkuntzan proposatu diren jarduera motorren barne logikaren azterketa egiterakoan neskek eta mutilek garatu duten adimen eta afektibitate motorrak ezagutzen dira.

Barne logikaren lau parametroek parte hartzaileengan kode portaera bat ezartze dute: gertaerek duten garrantzia, norekin laguna izan, zereginetan tresnen beharrak duen pisua edota zeregin motorrak burutzeko espazioan eta besteengan arreata jartzeak duen garrantzia parte hartzaileek barneratzen dituzten ezaugarriak (portaerak) dira. Baina, jarduera motorren unibertsoak ezartzen duen arau sistema (barne logika) ez da hutsetik sortzen, izan ere, giza talde batek erakusten dituen “giza harreman motak, familiaren irudia eta gizon eta emakumeen rola, naturaren osagaiekin harremanak...” (Parlebas, 2001, 228 or.) ezaugarri soziokulturalak praktika motorretan adierazten dira. Era honetan, “gorputz teknikak eta jokabide motorrak giza taldeetatik osatuak dira (Parlebas, 2001, 231 or.)”, gizarteak aukeratzen dituen praktika motorrek erakusten duten errealitate ludiko motorra azterketa besteak beste, barne logikaren parametro bakoitzean islatzen diren gizarte ezaugarriak ezagutzeko bidean bihurtzen da: denboraren joan-etorrian gertaerak duen pisuak, tresnen garrantziak, espazioa eta besteak sortzen duten ziurgabetasunaren garrantziak desberdinak izango dira giza taldearen arabera eta era berean, gizarte gaiarekiko (kontsumoa, kutsadura, bakea, bortizkeria eta generoarekiko) aukera bat islatzen dute.

Horrela, denboraren, objektuen erabilera, espazioarekin eta besteekin harremanen giza zentzua azaldu eta aztertzean behatutako gorputz hezkuntzak sustatutako hezkidetza ereduak ezagutu da.

Barne logikaren lau ezaugarrien azterketan lehenengo eta behin gizarteak erakusten dituen denbora nozioak azaldu eta aztertu dira. Denbora nozioak islatzen dituzten genero ezaugarriak zehaztu. Gero, gorputz hezkuntzak zein neurrian islatu dituen aztertzeak eta era honetan behatutako gorputz hezkuntzak jarraitu dituen denborarekiko ildoak zehazteko eta aztertutako jarduera motorren denbora parametroak islatu duen hezkidetza eredu mugatzeko.

⁵⁵ “Gizarte eta gizatalde bakoitzaren munduaren irudia eraikitze prozesua sinesmen, balio, arauak eta portaeren markoa osatzen duen” sinboloen multzoa da (Celorio eta Lopez de Muniain, 2007, 208.), gizabanako zehatzen patroia osatuz.

4.1. Denboraren eraikuntza eta izaera

Eliasek “sobre el tiempo” (1989) liburuan denbora nozioa ulertzeko saiakera kontuan hartuz, hurrengo lerroetan gizarte modernoetan erabiltzen diren denbora nozioen erak aztertzen dira. Zentzu honetan, autoreak denbora nozioa ulertzeko egiten duen ekarpena interesgarria egiten da zeren eta gizakia naturan dagoen ikuspuntutik denbora aztertzeke ekarpena da eta ondorioz mundu naturala eta soziala lotuta egotearen garrantzia azaltzen du, zaharkitutako teoriak denbora nozioa azaltzeke ekarri duten nahasmena saihestuz. Eliasek adierazten duen bezala gizakiak naturan dauden erreferentziak harturik (itsasgora, itsasbehera, eguzki-sarrera, eguzki-irteera, ilargi-sarrera, ilargi-irteera, urtaroak) denbora soziala eraiki du, gakoa “giza jarduera etengabeko zikloa era berean giza-ekintza ez den naturaren etengabeko zikloarekin koordinazioan dago” (Elias, 1989, 62 or.). Natura mugimendua denbora soziala eraikitzeke irizpideak izanik, giza-ekintza noiz hasi edo bukatu, edo zenbat denbora galderari erantzuten ikasten du.

4.1.1. Denboraren eraikuntza soziala

Gizakiak ez du denbora kontzeptua asmatu, baizik eta haurtzarotik denbora eta denboraren giza instituzio kontzeptuak ikasten ditu. Haurrak, denborari dagokionez, helduaren posizioa lortzeko bere jokabidea denboraren giza instituziora doitzen ikasten du. Denbora soziala kontzeptuak gizakiak bere portaera, zereginak eta munduarekin harremanak antolatzeke irizpideei dagokie, hau da, gizakia denboran orientatzeko sinboloetan (adibidez erlojuak) oinarritzen da, horrela, noiz eta zenbat denbora galderari erantzuteke gai izaten da. Era berean, denbora sozialak lehena, geroa edota itzarotea bezalako kontzeptuak hizkuntza desberdinetan egotea ekarri du.

Denbora sozialak zein denboran gauden jakin arazten digu, zein urtean, hilean, egunean eta orduan. Egutegiak eta erlojuak denboraren unea zehazten dute eta gizakiaren zeregina ezagupen horren arabera antolatzen da, hau da, gizon eta emakumearen bizitzan zereginak antolatzeke zein ordu den jakiteke banako auto-diziplina ereduak zabaldu da, horrela, “egutegiko egunak eta hileak gertakarien sekuentzia errepika ezinaren eredu errepikagarria osatzen dute” (Elias, 1989, 16 or.).

Denbora ikusi eta ukitu ezina den kontzeptu bat da. Denboraren ezaugarri horiek denbora eraikuntzarako erabiltzen diren erreferentziak aztertzeke eraman dute. Hautemate ezin den denbora nagusiki bi ikuspegitik izan da aztertzea: denbora sorkuntza naturalean oinarritutako gertaera objektiboa bezala ikusten duten ikuspegia eta bestetik, denbora gizakiaren berezko esperientzia bezala definitzen duen ikuspegia. Lehenengo ikuspegiak denbora gertaera objektibo bezala ikusten du eta bigarrenak subjektiboa. Hala eta guztiz ere, bata eta besteak denbora fenomeno naturala bezala ikusten dute, baina, berari buruz hitz egiterakoan nahasmena sortzen da. Nahasmen hura mundua ulertzeko unean mundu fisikoa (naturala) eta sozialaren arteko banaketa egiterakoan ematen da.

Era honetan, ikuspegi subjektiboak gizabanako bakoitzak jaio eta hil arte denbora, beste objektuak bezala, berez duen objektu bat (ezaugarri bat) dela uste du. Gizakiak bizi esperientzian dagoen denbora beti era berdinean egon balitz bezala ulertzen du eta, are gehiago, beste gizaki batek denborarekiko esperientziak ez izatea ezin du ulertu zeren eta era naturalean bereganatzen den nozio dela uste du. Ikuspegi honek ez du denbora alde aurretik mende-mendez gertaeren etengabeko transformazioaren ondorio bezala ulertzen. “Pertsonak besterik gabe, automatikoki, beste ezagupen izan barik eta denboraren forman gertaerak lotzen dituzte” la onartzen da (Elias, 1989, 49 or.). Ikuspuntu subjektibotik esperientzia kontzeptuak gizabanako baten esperientzia hartzen du erreferentzia gisa eta ez “garapenean dagoen gizakiaren mende-mendez garatzen joaten diren esperientziak eta tresna intelektuallak” (Elias, 1989, 49 or.). Gizabanako batek berezko duen forma bakarreko denboran jartzen du arreta, hau da, naturan oinarrituta baina naturatik urrun dagoen aldaezin eta erabilera bakarreko denbora nozioa zabaltzen du. Beraz, ikuspegi subjektiboak era naturalean gizakiok gertaerak bata bestearen atzean lotzeke dugun gaitasuna goraiatzen du. Bata bestearen atzean ematen diren gertaerak hautemateko gaitasuna berezkoa dela onartzen da eta ondorioz aurreko mendeetako esperientziak ez dutela gizakien ikaskuntza prozesuan eraginik onartzen da. Teoria honek, denbora kontzeptuaren eraikuntzan gizarte batek alde aurretik duen jakintasun pean ez dagoela baieztatzen du.

Baina, ikuspegi objektiboak, bereziki, naturan oinarrituta eraikitzen den denbora nozioan jartzen du arreta. Honetan, naturak ezarritako gertaeren ordena, iraupena, eta erritmoa aintzat hartzen dira eta ordena, iraupena eta erritmo ezaugarrietan oinarrituta gizakiok denboraren ikurrak eraiki ditugu. Adibidez, erlojuaren konfigurazioak “denbora baten joan-etorrian unean sinboloetan bilakatzen dira” (Elias, 1989, 134 or.). Baina baita ere egutegia, “gizabanako baten adina definitzeke zailtasuna agerikoa da giza talde baten ezagupen-ondareak egutegi bat barne hartzen ez duenean” (Elias, 1989, 15 or.). Ikuspegi honek denboraren nozioaren sorrera naturan izanik, gero naturatik urruntzen da eta denboran orientatzeko mende-mendez eraikitako jakintasunak sortu dituen gailuetan (erlojua, egutegia) jartzen du arreta. Horrela, mundu fisikoa eta soziala lotzeke abagunea gutxituz, denbora soziala eraikitzen da.

Mundu naturala eta soziala elkartuta dauden ikuspegitik munduan bere osotasunean dauden objektuen ezaugarriak desberdinak dira. Horrela, itsasoak eta errekek; loreak eta mendiak; animaliak eta gizakia desagertu badaitzke ere, denborak (espazioak bezala) aipatutako objektuek ez duten iraunkortasun amaigabe ezaugarria du: denbora beti egon da eta egongo da. Iraunkortasun amaigabe ezaugarria duen denbora nozioa eraikitzeke gizakiak garaiko munduan dauden objektuekiko denbora soziala eraikitzen du.

Gaur, ezagutzen dugun gizarte modernoan, ilargiaren mugimenduan oinarrituta hilabetea antolatu zen, eguzkia eta ilargiaren mugimenduek gaua eta eguna mugatu zuten eta gaua eta egunean orientatzeko erlojua eraiki zen.

Denboraren ikur hauek (egutegia, erlojua) denbora sozialaren ikurretan bihurtu dira, hau da, gizakiok denboran orientatzeko sinboloak dira: noiz atsedena hartu, noiz hasi jarduera bat, noiz bukatu, amaiera gabeko jarduerak, noiz toki batera heldu, noiz arte egon, etab. gizakiok erantzuten ikasten ditugun galderak dira. Egunean eta gauean posizio zehatzak ezartzen dituen erloju ikurra, egutegia bezala, naturaren ikur fisikoetan oinarrituta eraiki dira.

Guztiarekin, denbora nozioa ulertzeko mundu fisikoa eta sozialaren arteko loturaren ikuspuntu objektiboak gaur denbora sozialaz hitz egitera eramaten du. Hau da, naturan oinarrituta eta etengabeko transformazio eta jakintasunaren berreraikuntzan antolatutako denbora sozialaz. Horrela, “denbora gizakiek posizioak, eraldaketen erritmoa eta abarrak ezartzeko egiten duten saiaikeraren adierazpena da” (Elias, 1989, 45 or.).

4.1.2. Denbora lineala eta ziklikoa

Azaldu den bezala, gizakiok gure bizitza eraikitako denbora sozialaren arabera antolatzen dugu baina horrek ez du esan nahi gizarte edota herrialde guztiek denbora nozioa eraikitzeke erabiltzen dituzten ikurrak berdinak direla. Leek (1950) ondo azaltzen du Trobriand irletako⁵⁶ denboraren eraikuntza, lehenago Malinowskik egin zuen beraien hizkuntzaren azterketan oinarrituta. Lee⁵⁷ autoreak hizkuntzaren hitzetan jarri du arreta eta lehenengo eta behin hitzek esperientzien ondorioz emozioek adierazten dutela baieztatzen du. Adibide bezala ave edo kainga hitzak aztertzen ditu. Trobriand irletako biztanleek hitz bi hauek pertsonaren sexuaren edota odol harremanaren arabera ez dute erabiltzen baizik eta beste pertsonekin gauzatzen dituzten jokabide, portaera edota zereginen arabera bata edo bestea erabiliko dute. Horrela Kainga hitzak lo, jan, jolastu edota etxeko lanak egiten diren pertsonen artean erabiltzen dute eta ave tentsio eta estres handiko jokabidek ematen diren artean. Bi hitz hauek, beraz, ez dituzte forma edo funtzioak definitzen baizik eta besteekin harremanetan jartzerakoan egin beharreko zereginen ondorioz emozioak adierazten dituzte. Era berean, Lee autoreak aztertutako hizkuntzan adjektiboak ez daudela baieztatu du eta ondorioz objektu bat (janari bat edo lanbide bat) adierazteko hitzak beraien esanahian ezaugarriak itsatsita dutela ikusi du eta objektu baten ezaugarriren bat aldatzen bada beste hitz bat erabiltzen dutela. Adibide bezala tuberkulu hitza jartzten du. Tuberkulu hitza esatearekin batera fruta eta handia ezaugarriak adierazten dituzte, baina bi ezaugarri horietako bat galduz gero, nahiz eta forma berarekin jarraitu, irletako biztanleek beste hitz bat eraiki dute.

Lee autorearen ikerketa adierazgarria egiten da aztertutako hizkuntza esperientzien emozioetan oinarrituta eraikitzen dutela baieztatzerakoan eta beste

⁵⁶ Trobriand irletako uhartedia Ginea Berria irlaren itsasaldearen ekialdean kokatzen da, ofizialki Kiriwina irlak deitzen dira.

⁵⁷ Lee, D. (1950). Lineal and nonlinear codifications of reality. [Artikulu]. *Psychosomatic Medicine*, 12(2), 89-97.

tik, aztertutako hizkuntzan izan egoera aintzat hartzen ez dela ikusterakoan, objektu bat dituen ezaugarriren bat galtzerakoan beste izan bat da (beste hitz bat). Horrek Trobriand irletako hizkuntzan “linealtasunaren gabezia jabetzeko” (Lee, 1950, 90 or.) bidea zabaltzen du. Beraz, ez dago hitzen arteko denbora loturarik, gertaeren sekuentziek ez dituzte beraien bizitza antolatzen eta kausa ondorio printzipioa ez da errealitatea ulertzeko jarraitzen duten printzipioa. Une bakoitza bakarra da eta zereginak eta gertaerak isolatuta egongo balira bezala ematen dira, inolako helburu finko barik.

Gizarte modernoetan gizakien nortasuna eraikitzerakoan denbora linealak duen indarra gertaerei ematen dizkiegun esanahia eta garrantzian ikusten da, gertakarien ondorioz poza edo frustrazioa bizi egiten baititugu. Izan bakoitzak hurrengoaren kausa izanik.

Horrela, beste gizaki batek denborarekiko nozioa ez izatea baieztapena errenka geratzen da, izan ere, gizarte guztiek nozio bat eraikitzen du. Trobriandeko biztanlerian denbora nozioaren eraikuntzan linealtasunaren gabezia uneko bizipenak dituzte garrantzia eta guk eraikitzen dugun denbora nozioan emaitzak du garrantzia. Gizarte meritokratikoaren⁵⁸ ezaugarria dena.

Denbora fenomeno naturala bezala ikusten duen ikuspegiak naturak ezarritako gertaeren ordena, iraupena, eta erritmoa aintzat hartzen ditu eta ordena, iraupena eta erritmo ezaugarrietan oinarrituta gizakiok denboraren ikurrak eraiki ditugu, denbora soziala sortuz. Ordena, iraupena eta erritmoa lehenaldia, oraina eta geroa bereizteko nozioak dira, linealtasun gabeko denboran aintzat hartzen ez direnak. Bestetik, ziklikoki errepikatzen diren gertaerak ere erakusten du mundu naturalak.

Mundu naturalak orden irizpidea hainbat gertaera naturaletan erakusten du, adibidez, eguzkiaren eta ilargiaren sarrera eta irteerak gaua eta eguna mugatzen dute, ez dago eguna gaua barik eta gaua eguna barik, etengabeko zikloa agerian geratzen da: gaua-eguna-gaua-eguna-gaua-... Amaitu ezin diren gertaera natural hauek etengabe ematen dira, bata bestearen ondoren inoiz aldi berean. Gaua ziklikoki errepikatzen da eta eguna ere bai, errepikapen bakoitzaren artean gertatutakoa ez da aintzat hartzen. Hasieran kausa ondorio printzipioan oinarritzen diren gertaerak bezala ulertu badira ere, laster konturatzen gara ziklikoki errepikatzen diren gertaerak direla gertaera bakoitzaren emaitzak ez du garrantzia. Garrantzia errepikapena da, hau da, beste ziklo bat hastea.

Era berean, gaua eta eguna bezala, urtaroak urtero errepikatzen diren gertaera naturalak dira eta orden irizpidea agerian geratzen da, adibidez, eurite

⁵⁸ Meritokraziak “ideologikoki balioen multzo bat adierazten du, zeinek gizabanakoen lekua gizartean bakoitzaren merituen ondorioa dela defendatzen du. Pertsonen jarduera talentu, abilezi eta esfortzuen multzoaren” (Barbosa, 2003, 22 or.) ondorioz gizabanakoa gizarte mailetan banatzen da. Sistema meritokratiko batean lorpenak eta posizioak ez dira herentziaz lortzen baizik lana eta esfortzuen ondorioz eskatzen diren emaitzak lortuz.

eta lehorre aroek etengabeko zikloa agerian uzten dute, lehenengo aro bat eta gero bestea, ez dira biak aldi berean ematen.

Bestetik, gizakiaren naturan ere etengabeko zikloa erakusten duten gertaerek ikus daitezke, zehazki emakumearen fisiologiak hileroko errepikatzen den gertaera erakusten duenean, hilekoa.

Azaldutako hiru adibide hauen denbora ziklikoan gertaerak ez dira aldi berean ematen, baizik eta bata bestearen ostean eta gertaerak ziklikoki errepikatzen dira, gertaera baten zikloa bukatzerakoan besteara hasten da, etengabe.

Ondorioz eta ikuspuntu objektiboa aintzat hartuz, naturan gertaeren denborak antolamendu sozialean zabaldu duen denbora soziala naturan dagoen errealitate sortu (antolatu) dela baieztatu daiteke. Horrela, gizarte moderno desberdinen bizitzaren antolamenduan naturan ematen den etengabeko eta ziklikoa den denbora islatzen denaren ideia ulergarriagoa egiten da. Eta, ziklikoa den denbora giza praktika desberdinetan islatzea ere. Horietako bat praktika fisikoak izanik.

Adibidez, harrapatzera jolasean etengabe oso gertaera garrantzitsua ematen da, rol aldaketa. Gertaera hau harrapatzaileak harrapakina harrapatzen duenean ematen da, baina emaitzak rol aldaketa baino ez dakar, eta aldaketa bakoitza bestearen hasiera baino ez da, etengabe ematen dena, linealtasunaren gabezia agerian dago. Parte hartzaileak denbora ziklikoan harrapatuak daude.

Baina, era berean, gertaeren emaitzak neurtzen diren praktika fisikoak aurki ditzakegu, adibidez kirola⁵⁹. Gizarte meritokratikoan emaitzen garrantzia erakusten duenak.

Kirolak neurketa du ezaugarri nagusienetariko bat, “kirolaren sorrera neurketa sartzearekin korrelatiboa da” (Brohm, 1982, 35 or.). Industrializazioarekin sortu zen errealitate kulturala den kirolak proba guztiak neurtzen ditu (atletismoko lasterketak, jauziak eta jaurtiketak edo errugbi, futbol eta boleibol talde kirolean puntu kopurua), metroa edo kronometroa erabiliz emaitza ezagutu eta zehazten da. Era beran, emaitza erregistratzen den neurrian, emaitza iraunkorra da kirolaren eta bereziki goi mailako kirolaren osagai nagusia den errekorra ezartzen da. “Errekorra gizarte kapitalista baten ... sinbolo ideologikoa da, onura eta ekoizpena orientatua” (Brohm, 1982, 139 or.). Kirolariak etengabe meritua erakutsi behar dute eta zeregin honek entrenamendu saio gogorak jasatea eskatzen du, lana eta esfortzuen ondorioz emaitza onak erakutsi behar dute. Kirola eta lanaren arteko egituren antzekotasunean dago “lanaren eta serioitasunaren isla desitxuratua izatearen arrazoia” (Brohm, 1982, 66 or.). Baieztape hau indartzen dituzten bi ildo bereiztu daitezke.

Alde batetik, kirolaren arauak eta kirolaren inguruko agenteak (entrenatzaileak, teknikoeak, klub eta kirol federazioen zuzendariak, estatuak) emaitza

lortzea jartzen dute zeregin garrantzitsua, “talde lanaren eta diziplina eskakizunak” (Brohm, 1982, 66 or.) kirolean zein fabriketan irabaztea lortu (puntuak, errekorak) eta irabaziak izan (kapitala handitu) portaeretan bilakatuz. Horrela, lanaren onura irizpidea kirol praktikek hartzen dituzte.

Bestetik, bigarren ildo batek jokalaria eta ikusleen arteko polaritatean jartzen du arreta. Kirola ikuskizunak ikusleen interesak hartzen ditu kontuan eta, era honetan, “jokatzearen plazera jendetzarentzako atseginak diren jokaldiak egitearen menpe geratzen da” (Dunning, 1992, 254 or.). Kirolaren eta bereziki, goi mailako kirolaren ardura arrakasta (errekorra izan) bilatzea da, arrakasta ikuskizuna bihurtuz (lasterketa abiadurak, talde kirolean jokaldi arrakastuak...) egoera honek kirolari ezaugarri ludikoa kentzen dio eta lan produktiboan bezala, serioitasuna ezartzen dio. Azken finean, “goi mailako kirolariak ezin dira independenteak izan eta soilik dibertimenduagatik jokatu, baizik eta, besteari begira zuzenduta eta serioa den kirol parte hartze batera behartuta daude” (Dunning, 1992, 265 or.). Jokalaria eta ikusleen arteko polaritatearen ikuspuntuak kirolaren kontrolatzaile (teknikoa, entrenatzaile, zuzendari, Estatuak) eta kontsumitzaileak (ikusleak) eskatzen dutena hartzen du kontuan. Kirolariak serioitasunez (diziplinaz zirkuitu edota serietan antolatutako entrenamenduetatik hasita) eta kirolaren arauak baimentzen dutenen artean, kontrolatzaile eta ikusleen eskakizunei erantzuten diete. Trukean irabazi materialak edota ospea (soldata, prestigio soziala) lortuz.

Guztiarekin, industrializazioarekin batera eraiki den kirol modernoak ekoizpen lanaren denbora nozioa islatzen duela baieztatzen da, hau da, kirolak denbora lineala islatzen du: “kirol ikuskizun guztia potentzialki kirol profesionala da zeinean txapelak esfortzua prezio baten bitartez ebaluatzen da” (Brohm, 1982, 171 or.), kirolaria langilean bihurtzen da.

4.1.2.1. Eguneroko erritmoaren denbora lineala eta oporraldietako denbora ziklikoa

Naturan oinarrituta eraiki den giza denboran bereziki bi denbora mota bereizten dira. Alde batetik, eguneroko erritmoa ezartzen duen denbora eredu bat dago, erlojuaren tik-tak soinuak zer egin, noiz egin eta zenbat iraungo duen mugatzen duen denbora da. Bestetik, nahiz eta denbora soziala izaten jarraitu, giza denbora modernotik askatzen gaituen denbora bereizten da: prezio, ardura eta estresetik askatzen gaituen denbora da, hau oporraldietako denbora da.

Steinek (2012) argitaratutako “time off: the social experience of time on vacation” artikuluan eguneroko errutina giza kontrola bermatzeko denbora bat bereizten du, lan serioaren denbora eta kontrol honetatik askatzeko beste denbora bat, oporretako denbora: “oporren denbora aztertzeak denboraren giza eremuarekin kontrastea argitzen lagundu dezake” (Stein, 2012, 336 or.). Autorea oporretako denboraren ezaugarriak aztertzen ditu, gero denboraren giza esperientzia ikertzeko.

⁵⁹ Txapelketa eran kodifikatuak eta instituzionalizatuak dauden egoera motorren multzoa bezala definitzen den kirola kontzeptutik abiatuz ematen dira ondorengo azalpenak.

Urtaroak, egutegiak eta erlojuak une bakoitzean egin beharrekoa zehazten dute eta eguneroko bizitzaren erritmo bat ezartzen dute. Erritmoa apurtzeko aukera oporraldiek ematen dute. Oporrak denborarekin apurtzeko unea bezala ikusten dira: lan orduetan kafea hartzeko atsedean unea, asteburuak eta udako oporrak giza ordena antolatzeke beste denbora bat da. Honetan, giza-kiok gauzatzen ditugun portaerak eta jarraitzen ditugun arauak denbora beste erara bizitzeko beta ematen dute, erlojuak tiraderan gordetzeko unea da. Oporren denboran esperientzien jatorria ez da lineala izaten baizik eta ziklikoa, oporretan, Trobriand irletako hizkuntzan bezala, gertaerak bata bestearikiko isolatuak egongo balira bezala bizitzen dira, une bakoitza bakarra da eta arreta gertaerak errepikatzean jartzen da, errepikatzearen plazera oporretako denboraren ikurrean bihurtuz: mediterraneoko hondartzak udaro jendez gainezka egotearen arrazoi bat egotea baino ez da, egunero eta oporraldiak amaitu arte portaera eta zeregin berdinak errepikatzen dira, beraien arteko lotura arrazional bat bilatu barik.

Era honetan, gizarte modernoetako giza denbora erritmoak eguneroko bizitzaren zeregina eta oporretakoaren arteko pendulua margotzen du. Egutegian zehazten diren egun jakin batzuen arteko tartekak lanerako eta atsedenerako unek bereizten dira. Hau da, denbora lineala eta ziklikoaren arteko penduluaren mugimendua egutegiak definitzen du.

Ehiztariaren erotika liburuan Zulaikak (1990) denboraren nozio ezari aipamen egiten dio: “hamar bat ordu inguru mendian ez jan eta ez deskantsatu, eta inolako goserik edo nekerik ez” (Zulaika, 1990, 127 or.). Ehiztariak helburu baten bila doa baina helburua (harrapakina akabatu), kirol txapelketan ez bezala, bilatu eta sortu behar da. Ehiztaria mendira basurdearen bila doa, zeinuak irakurriz basurdea nondik nora dabilen asmatu behar da eta behin ehiztariak basurdea ikusten duenean harrapatuko du. Ehizan ari dena desiraren helburua harrapakina akabatzea da baina, ezerk ez du helburua beteko dela baieztatzen. Ehiztariarentzako helburuaren bilaketa eta asmaketa ariketak gozamen iturriak dira. Desira handiko helburuaren bila aritzeak ehiztaria denbora nozioa galtzeraino eramaten du. Denbora gabeko ehiztariaren zereginak (bilatu, asmatu) ehiztaria harrapakina (basurdea, usoa, erbia) akabatzeko unea iristen denean azken trantzera eramaten du. Ehiztariak arnasestuka denbora faltan duela sentitzen du adibidez basurdea pasora irteten denean, “helburua eskuratzearan bai ala ezko trantzean behin betiko amaiera puntu horretan sentitzen du ehiztariak larridura eta emozioa..., denborarik ezaren estutasuna amaitu da” (Zulaika, 1990, 131 or.).

Ehizak denboraren nozio sozialaz ihes egiteko aukera ematen du, alde batetik, Zulaikak aztertzen duen basurdearen ehizan ikusten den bezala, ehiztaria helburua lortuko duen jakin barik aritzen da, zeregin horretan denbora badoa askotan helburua (basurde) harrapatu barik eta bestetik, harrapatzeko unea iristen bada, une hura denbora gabekoa da. Lanerako denboran ez bezala, ehizan aritzea da garrantzitsuena, oporretan bezala.

4.1.3. Emakumeek eta gizonen egiten duten denboraren erabilera

Emakumeek eta gizonen egiten dituzten jarduerak aztertzerakoan jardueren denboraren nozio ziklikoa edo lineal erakusten duten ezagutu nahi da. Lehenengo, generoaren ikuspuntutik giza ordenak egiten duen denboraren banaketa zehazteko eta gero, behatutako gorputz hezkuntzak ezarritako giza ordenari jarraitzen dion edo ez ezagutzeko.

4.1.3.1. Ekoizpen-lana, ugalketa-lana eta aisialdia generoaren ikuspegitik

Emakunde institutuak argitaratutako Euskadiko berdintasunerako V. planean idazten diren helburuen artean horietariko bat emakumeak eta gizonak lan produktibo eta ugalketa-lanean era orekatuan parte hartzea da, emakume eta gizonen artean denbora erabileren banaketa berrira heltzen errazteko. Horretarako bi ildo bereizten dira: “amatasun eta aitatasun baimenak parekatzea... eta emakumei aukera ematea aisialdirako denbora gehiago izateko...” (Emakunde, 2010b, 45 or.).

Emakumeek eta gizonen egiten duten denboraren erabilera aztertu duen Emakunde erakundeak ugalketa-lana, ekoizpen-lana eta aisialdirako denbora bereizten ditu.

Ugalketa-lanak gizartean neurtu ez diren jarduerak hartzen ditu. Ugalketa-lana gaur aintzat hartzen bada ere, emakumeak eta gizonak duten denboraren erabilera aztertzerakoan etxeko lanak, ugalketak, familiaren egunerokotasuna eta kideen behar fisikoak eta psikologikoak asetzeko jarduerak lanaren ikuskeraz zabalean multzo batean kokatzen dira, hau da, ugalketa-lan multzoan.

Ekoizpen-lana ordaindutako jarduerak hartzen ditu. Ekoizpen-lanaren ezaugarri nagusienetariko bat eta, aldi berean baldintza, egindako lanagatik diru-sarrerak bat izatea da. Emakumeek eta gizonen egiten duten denboraren erabilera aztertzerakoan lan-merkatuak eskatzen dituen eskulan kualifikatua eta prestaketa lanaren ikuskeraz zabalean multzo batean kokatzen dira, hau da, ekoizpen-lana multzoan.

Gizarte modernoan bizi moduari buruz informatzen duen ezaugarri bat lan denbora (ekoizpen eta ugalketa lana) eta aisialdiaren arteko harremana da. Aisialdia “loari eta lanari ematen ez diegun denbora libre bezala definitzen da” (CRONOS, 1996, 17 or.). Denbora libre jarduera erlaxatuekin betetzen dugu eta norberak aukeratzen dituen zereginak egiteko denbora da. Bestetik, denbora librean gauzatzen diren zereginak ez dituzte diru-sarrerarik. Gaur, gizarte modernoan, denbora libre hau erakunde eta agentzia desberdinek antolatzen dute eta aisialdi denbora esaten zaio: oporretako bidaiak edota asteburuetakoa denbora librean ikuskizunak eta entretenimendu jarduerak adibide batzuk dira.

Euskadiko 2010ko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak txostenean euskal gizartean emakumeak eta gizonak zer egoeratan dauden azaltzen da. Txostenean azaltzen diren datuek emakume eta gizonen arteko roletan, egoeretan, baldintzetan eta beharretan aldea zein den erakusten dute. Horrela, txostenaren guztien erantzukizunean oinarritutako gizarte-antolamendua bosgarren atalean emakumeek eta gizonak egiten duten denboraren erabilerearen datuak azaltzen dira. Datu horiek interesanteak egiten dira emakumeek eta gizonak ekoizpen-lana, ugalketa-lana eta aisialdiari ematen dieten denbora islatzen dutelako.

Ugalketa-lanari emakumeek eta gizonak ematen dieten denbora azaltzeko txostenean zaintza ardua betetzeko eskatutako baimenak aztertzen dira. “2008. urtean, 2.554 baimen ziren Euskadin seme-alabak zaintzeko, eta haietako %95 emakumeek bete zituzten” (Emakunde, 2010b, 145 or.). Bestetik, urte berean, ahaideak zaintzeko baimena eskatutako baimenen %85a emakumezkoek eskatu zuten.

Ugalketa-lanetan aintzat hartzen diren beste jarduerak etxeko lanak dira: janaria prestatu, garbiketa, arropak prestatu eta konponketak, eta kudeaketa egiten diren lanen adibideak dira. Etxeko lanetan batez besteko denboraren azterketan “emakumeek etxeko lanetan batez beste ematen duten denbora soziala gizonena baino bi ordu baino gehiagokoa da egunean” (Emakunde, 2010b, 151 or.).

Aisialdiko jardueretan gizonak emakumeek baino denbora gehiago ematen dute, batez beste egunean ordu bete gehiago. Ekoizpen-jardueretan emakumeek batez beste 17 minutu gutxiago ematen dute.

Generoaren arabera denboraren erabilera dauden desberdintasunak aztertu dituen Ramosek (1990), nagusiki, gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna azaltzeko unean elkartruke desberdinen sistemari jarri du arreta: elkartruke sistemaren osagarritasunean eta elkarrekikotasunean. Lehenak pertsonen artean ematen diren elkartrukeak osagarriak direla aitortzen du. Horrela, gizaki baten eskubideak beste baten betebeharrak dira eta alderantziz. Elkarrekikotasunak gizaki guztiek eskubide eta betebeharren titularrak bezala hartzen ditu, “kontra-prestazioek simetria printzipioan betetzen dutenean elkarrekikotasuna dago” (Ramos, 1990, 11 or.).

Guztiarekin eta beti Emakunde erakundeak argitaratutako txostenean oinarrituta, datuek azken 15 urteetan generoaren ikuspuntutik denboraren erabilera soziala aldatu egin dela erakusten dute. “Emakumeek lehen baino denbora gutxiago ematen dute ugalketarekin lotutako jardueretan eta aisialdiko jardueretan: hurrenez hurren 42 minutu eta 22 minutu gutxiago” (Emakunde, 2010b, 158 or.). Baina ekoizpen lanetan, batez besteko denbora soziala⁶⁰ aintzat hartuz, 45 minutu gehiago ematen dute.

⁶⁰ Batez besteko denbora soziala jarduerari egiten dutenak zein egiten ez dutenak kontuan hartzen dituen indizea da.

Denboraren erabilera emakumeengan izan den aldaketa gizonengan ere ikusten da. “Gaur egun, gizonak duela 15 urte baino 23 minutu gehiago ematen dute egunean ugalketarekin lotutako jardueretan, 40 minutu gutxiago aisialdi jardueretan eta ordubetetik gora gutxiago ekoizpen lanetan” (Emakunde, 2010b, 158 or.).

Aisialdi jardueretan emakumeek eta gizonak lehen baino denbora gutxiago ematen dute eta emakumeak gizonak baino denbora gutxiago ematen jarraitzen du. Emakumeak lehen baino denbora gehiago ematen du ekoizpen lanetan eta denbora hau ugalketa lanari kendu dion denbora dela inferitu daiteke. Gizonak ekoizpen jardueretan betetzen duen ordu betetik gora gutxiago horrek beraien ugalketa eta aisialdi jardueretan bananduta dagoela erakusten du, emakumeek betetzen ez duten ugalketa lana denboraren zati bat betetz eta emakumeen ekoizpen lanerako lekua utziz.

Bestetik, generoen arteko aldea jardueretan emandako denbora murriztu egin da eta emakumeek eta gizonak egiten duten denboraren erabilera orekatu egin da. Adibidez, ekoizpen lanetan “generoen arteko aldea egunean bi ordu eta 11 minutu izatetik 17 minutu izatera igaro da” (Emakunde, 2010b, 159 or.). Baina, ugalketa-lanetan aldea gutxitu bada ere, ez da hain nabaria izan: hiru ordu eta erdi izatetik orain bi ordu eta erdi izatera igaro da. Aisialdiko jardueretan generoen arteko aldea ordu bat eta 9 minutu izatetik 51 minutura izatera igaro da.

Ugalketa-lana, ekoizpen lana eta aisialdian emakumeek eta gizonak ematen duten denboraren oreka dagoela ikusten bada ere, emakumeek ugalketa lanetan gizonak baino denbora gehiago ematen dute. Adibidez, Emakunde erakundearen Euskadiko berdintasunerako V. planean datuek erakusten duten bezala, seme-alabak zaintzeko baimen eskaeraren %95a emakumeek egin zuten.

Emakunde erakundeak eginiko denbora erabilerearen azterketan datuek alde batetik, gizakien bizitzaren antolamenduan egiten den denboraren erabilera hiru jarduerari multzoak bereizten dituzte, hau da, ekoizpen-lana, ugalketa-lana eta aisialdia. Bestetik, hiru jarduerari multzo horietan emakume eta gizonen arteko kontra-prestazioek simetria printzipioan emateko joera erakusten badute ere, osagarritasunaz ere hitz egin daiteke, bereziki ugalketa lanetan eta multzo honen barruan zaintza lanetan.

4.1.3.2. Ekoizpen-lanak, ugalketa-lanak eta aisialdiak islatzen duten denboraren zentzua

Emakunde erakundeak generoaren ikuspuntutik eginiko denboraren erabilerearen azterketak ekoizpen lanetan emakume eta gizonen arteko aldea asko murriztu dela erakusten du (generoen arteko aldea egunean bi ordu eta 11 minutu izatetik 17 minutu izatera igaro da). Gaur egun, gizarte tradizionalan ez bezala, errealitateak emakumeak ekoizpen lanetan egin duen murgilketa erakusten du. Baina, zein denbora nozioa islatzen du tradizioan gizonak bete duten ekoizpen lana eta gizarte modernoan emakumeak ere betetzen duena?.

Posizioak (sariak) lortzeko merituetan oinarritzen den gizartea, meritokratiakoa deritzogu, ekoizpen-lana meritokrazian oinarritzen den gizarte baten isla da. Meritokraziak aberastasuna, giza maila, arraza edo sexuan oinarritu beharrean, lehiatzen dutenen merituei esker lortzen den posizioa ahalbidetzen du. Beraz, helburuak lortzeko lehiaketan parte hartu behar da. Honek oso lehiakorrek diren gizarteak sortzen ditu zeinetan banako esfortzua sariak banatzeko irizpidean bihurtzen da. Ekoizpen-lanetan onura ekonomikoa sarian bihurtzen da. Lantegietan edo enpresetan dihardutenen helburua soldata irabaztea da eta soldata hobeagoa izateko merituek erakutsi behar dira. Ehizan ez bezala, ekoizpen-lanean emaitzak (soldata, diru sarrera edo enpresan mailaz igo) du garrantzia. Saria gizonak etxera eramanez izan duen soldata da. Emaitza lortzeko gertaerak memorian gordetzen dira eta gertaera bat bestearen kausa da. Ekoizpen-lanetan denboraren nozioa lineala da.

Emakunde erakundeak generoaren ikuspuntutik eginiko denboraren erabilera azterketak ugalketa lanetan emakume eta gizonen arteko alde murriztu bada ere, ez da hain nabaria izan eta aldeak (hiru ordu eta erdi izatetik orain bi ordu eta erdi izatera igaro da) gaur gizonak orain 15 urte baino denbora gehiago ugalketa lanetan ematen duela erakusten badu ardura nagusia emakumeak izaten jarraitzen du. Baina, zein denbora nozioa islatzen du tradizioan emakumeak bete duen ugalketa lana eta gaur ere betetzen duena?

Ugalketa-lana ugalketa, familiaren egunerokotasuna eta beraien behar fisikoak eta psikologikoak, eta etxeko lanak zereginenez osatuta dago. Zeregin hauen ezaugarri nagusia egitea da, ez dago egin ondoren saririk eta betebeharrak betetzeak du garrantzia, gertaera bakoitza isolatua egongo balitz bezala kausa-ondorio printzipioak ez du pisurik ez bada bestearen zaintzak sortzen duen plazerez gozatzea. Ugalketa-lanaren zereginak egitea, errepikatzea dira, mendian gora mendian behera aritzen den ehiztaria bezala dira, emakumea ere aritu da. Ugalketa-lanak denboraren nozio ziklikoa erakusten du.

Emakunde erakundeak generoaren ikuspuntutik eginiko denboraren erabilera azterketak aisialdian emakume eta gizonen arteko alde asko murriztu dela erakusten du (ordu bat eta 9 minutu izatetik 51 minutura izatera igaro da). Gaur egun, gizarte tradizioan ez bezala, errealitateak emakumeak bere denbora libre izateko eta kudeatzeko eskubidea aintzat hartzen dela erakusten du. Baina, zein denbora nozioa islatzen dute tradizioan gizonen erabili izan duten aisialdiak eta aisialdian egiten diren jarduerak? eta gizarte modernoan emakumea disfrutatzen hasi den aisialdiak?

Aisialdiak oporretako denbora adierazten du, Steinek (2012) argitzen duen bezala, aisialdiak egunerokotasuneko erritmoa apurtzeko aukera ematen digu: laneko atsedeen ordutik hasita, asteburuetak, zubien eta batez ere udako oporretara arte norberaren merituek erakusteko zereginetatik ihes egiteko aukera dago. Ikasturtea amaitzean, neskek eta mutilak familiarekin edota lagunekin hondartzan edota errekaren ertzean denbora pasan egoteko aukera

dute. Trobiand irletako hizkuntzan bezala, oporraldietako gertaerak isolatuta egongo balira bezala ulertzen dira, ez dago kausa-ondorio printzipiorik oporraldietako denbora nozioan, egunero jarduerak errepikatzen dira inolako saririk eskuratzeko asmoarekin, jarduerak egiten dira, egiteak eta errepikatzeko sor arazten duen plazeragatik. Aisialdiak denbora ziklikoa erakusten du.

Gizarte modernoetan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan Emakunde erakundeak eginiko emakume eta gizonen denboraren erabilera azterketan argi eta garbi denboraren hiru betebeharrak bereizten dira baina denbora nozio bi: denbora lineala eta ziklikoa. Lehena, esan bezala, kausa-ondorio printzipioan oinarritzen den denbora da eta denbora tarte desberdinetan ematen diren gertaerak edo egiten diren jarduerak memorian gordetzen dira, denbora honetan egiten diren jardueren ondorioz jasotzen den saria (soldata prestigio soziala) ekitearen arrazoa da. Bigarrenean gertaerak ez dira memorian gordetzen egitearen arrazoa ekiteak ematen duen plazera izanik.

4.1.4. Euskal Autonomia Erkidegoan denboraren erabilera

Eustatek argitaratzen dituen denboraren erabilera datuek aztertzerakoan lehenengo eta behin, bereizten dituen jardura motak Emakunde Erakundeak generoaren ikuspegitik egiten duen denboraren erabilera aztertzerakoan aintzat hartzen dituen hiru jardura esparruak ikusten direla baieztatzen da.

Taula 23: Gizarte antolamenduan jardura esparruak.

Ekoizpen-lana	Ugalketa-lana	Aisialdia
Lana ordainduta Prestakuntza	Etxeko lanak Familiarekiko ardura	Aisialdi pasiboa ⁶¹ Aisialdi aktiboa eta kirolak ⁶² Gizarte-harremanak

Lana ordainduta eta prestakuntza jarduerak ekoizpen-lana esparruan bereizi dira. Hauetan helburua sari bat eskuratzeko da, lana ordainduaren kasuan soldata eta prestakuntza jardueran merituek lortu (adibidez, prestakuntza akademikoan lortzen den titulua). Etxeko lanak eta familiarekiko ardura etxea eta etxekoen zaintzak hartzen dira eta hauetan ez dago sari objektiboa, adibidez, soldata. Aisialdi pasiboa, aktiboa eta gizarte-harremanak jarduerak aisialdia esparruan kokatu dira. Hauetan helburua eguneroko erritmotik ihes egiteko aukera izatea da.

Ekoizpen-lana, ugalketa-lana eta aisialdia jardura esparruetan Eustatek proposatzen dituen jardueretan "batez besteko gizarte-denbora: >=16ko biz-

⁶¹ Aisialdi pasiboan gauzatzen diren jardueretan pertsonen mezuak eta estimuluak jasotzen dituzte eta jarrera atsegingarri batean arreta mantentzen dute.

⁶² Aisialdi aktiboan gauzatzen diren jardueretan pertsonen parte hartzen dute eta parte hartzeak atsegingarri sententzia eragiten du.

tanleriak jarduera bati batez beste eskaintzen dion denbora”(Eustat, 2009) ordu eta minutuetan aztertzerakoan EAE-n biztanleriak egiten duen denboraren erabilera ezagutzen da. Horrela:

- Ekoizpen lanetan (lana ordainduta eta prestakuntza) astero 10 ordu eta 24 minutu ematen ditu.
- Ugalketa-lanetan (etxeko lanak eta familiarekiko ardura) astero 10 ordu eta 41 minutu ematen ditu.
- Aisialdian (pasiboa, aktiboa eta gizarte harremanak) astero 20 ordu eta 31 minutu ematen ditu.

Familia erakundeak duen garrantzia aintzat hartuz gero, gorago azaldu den errealitatea ulargarria egiten da. Izan ere, etxeko babes ekonomikoa (ekoizpen-lana) eta ongi izate (ugalketa-lana) ardurak biztanleriak egiten dituen jarduera guztien iraupenaren erdia zeregin horietan ematen ditu, 21 ordu eta 05 minutu, aisialdiari ematen dion baino 34 minutu gehiago.

Bestetik, XIX. mendeko industrializazio prozesuaren eraginez gaur egun arte aisialdia eta ordaindutako lanaren arteko tartea handitu egin da, “egun, aste, urte eta bizitzako lanaldia XIX. mendearen amaieran iraultza industrialak puntu gorena lortu zuenetik laburtu egin da”(Gershuny, 2011, 208 or.). Baina, badirudi industrializazio ondorengo jarduera ekonomikoa aldatu egin dela eta lehen ondasun materialak zuen garrantzia ezagupen eta informazioan islatzen da. Saldu eta kudeatzen den ezagupenaren ekonomian gizaki kapitalaren abileziak eta gaitasunak saltzen dira eta industrializazioak ekarri zuen lantegi eta ondasun diruaren kudeaketa merkatu askearen ekonomian lurrak, tresneriak edota diru fondoak ezagupenari utzi diote lekua. Ekoizpen-lanak erakusten duen joerak denboraren erabileran eragina izan duela ere baieztatzen da eta “lanak ohorearen ikurra gisa aisialdia ordezkatzeko du”(Gershuny, 2011, 208 or.). Aisialdia izateko aukerak giza maila erakusten bazuen ere, gaur lan orduak eragiten duen diru sarrerak ematen duen giza posizioa baloratzen da.

Baina, aztertzen ditugun EAEko datuetan arreta jarriz gero aisialdiak duen garrantzia ikusten da, izan ere bete behar guztien ondoren (ekoizpen zein ugalketa jarduerak) EAEko biztanleriak astero 20 ordu eta 31 minutu ematen ditu aisialdi jardueretan.

Euskal Autonomi Erkidegoan Eustatek eginiko denbora erabilerearen azterketak erakusten duen giza ordenan lana eta atsedeneren arteko oreka nabaritzen da. Bestetik, denbora lineala eta ziklikoaren arteko distantzia ikusten da. Atsedene egunetan eta oporraldian egiten diren jarduerak erakusten duten denbora ziklikoa alde batetik eta, bestetik, lanaldiak erakusten duen denbora lineala gogoratuz, EAE-n biztanleriak egiten duen denboraren erabilera denbora ziklikoa nagusitzen da: ekoizpen lanetan 10 ordu eta 24 minutu eta ugalketa-lana eta aisialdian 31 ordu eta 12 minutu.

4.1.5. Behatutako gorputz hezkuntzaren denbora ezaugarriak

Lehen Hezkuntzan derrigorrezko arloa den gorputz hezkuntzako saio praktikoa egutegi baten arabera antolatzen dira. Ikasturteko hilabetetan, astetan eta egunetan gauzatzen diren saioek erakusten duten ordutegia, maiztasuna eta iraupena miatzea denboraren zentzua aztertzeke garaian lagungarria bihurtzen da. Saioetan burutzen diren jarduera motorren denbora nozioarekin batera aztertzean, behatutako gorputz hezkuntzaren denboraren zentzu nagusia zehazterako orduan ondorioak esanguratsuagoak bihurtzen baitira.

4.1.5.1. Ikasturtean gorputz hezkuntza

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzen duen 175/2007 Dekretuan gizakiok eraiki dugun denbora soziala islatzen da, bereziki, egutegia eta ordutegia antolatzeko irizpideak ematen direnean.

Dekretuaren 4. artikuluan antolamendu-printzipioak garatzen dira eta, besteen artean, derrigorrezko eskolaldiak hamar urte hartzen dituela azaltzen da, 6 urtetik 16 urte arte. Bereziki, Lehen Hezkuntza etapak 6 urte hartu behar dituela ezartzen da eta bi urteko zikloetan egituratuta egon behar dela zehazten da. Bere 11. artikuluan 6 eta 12 urte bitartean ikasturte bakoitzean banatu behar diren jakintza arloak zehazten dira, horietariko bat gorputz hezkuntza izanik eta, bide batez, jakintza-arlo bakoitzak dekretuaren I. eranskinean zehazten diren gutxienezko ordu kopuruak bete behar dituela gogoratzen da, “hezkuntza-etapa arloetan banatzeak eta ordutegia arlo horietara moldatzeak arlo horiek lantzeko behar den denbora mugatzea dakar” (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, I. eranskina 4 or.).

Bestetik, ikasturte bakoitzean egutegia antolatzeko irizpideak 14. artikuluan zehazten dira. Horrela, ikastetxe bakoitzak bere egutegia zehazterakoan, gutxienez 175 ikastegun izan behar dituela hartu behar du kontuan eta ikastegun horiek inoiz ez direla irailak 1 baino lehenago eta ekainak 30 baino beranduago hasi edo amaituko. Geroago, egutegian oinarrituta eguneko ordutegia antolatzeko, Lehen Hezkuntzan ikasturte bakoitzean 875 orduko ordutegia bete behar dela zehazten da eta eskola-egunak goizeko eta arratsaldeko saioetan antolatu behar direla. Behatutako gorputz hezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko Bizkaiko ikastetxe batean gauzatu denez, neskek eta mutilek azalduetako Dekretuak ezartzen duen egutegia eta ordutegia jarraitu dute.

Hezkuntza legeriak ezartzen duen egutegia eta ordutegian oinarrituta Kurutzia Ikastolako ere jakintza arloen egutegia eta ordutegia antolatu ditu. Behatutako gorputz hezkuntzaren ordutegia ere zehaztuz.

4.1.5.2. Ordutegia

Behatutako gorputz hezkuntzan eskola-egunetan saioak banatzeko ordutegi zehatza ezartzen da. Ordutegian zeregin didaktikoak izan behar duen

iraupena definitzen delarik. Horrela, gorputz hezkuntzako saio bakoitza asteko zein egunean, noiz hasi eta noiz amaitu ezagutzen da. Aste bakoitzean maila bakoitzeko saioak antolatuz.

Taula 24: Behatutako gorputz hezkuntzaren ordutegia.

	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala
9:00-10:00	5.A				
10:00-11:00		5.B		6.A	
Jolas ordua					
11:30-12:30				6.B	5.B
Jantokia					
14:30-15:30	6.A		6.B		
15:30-16:30			5.A		

Taulan hirugarren zikloko 5. eta 6. maila bakoitzean dauden bi ikasgelen asteko ordutegia azaltzen da. Ikasgela bakoitzak astero gorputz hezkuntzako bi saio izanez.

Saio praktikoak astelehenetik ostiralera goizez eta arratsaldean antolatuta badira ere, 5.B ikasgelak asteko saio biak goizean ditu, saio bakoitzetik bestera bi eguneko tarte izanik. 5.A ikastaldeak saio bat goizean eta bigarrena arratsaldean izan ditu, bien artean egun bateko tarte izanik; 5.B ikastaldeak saio biak goizean ditu, bien artean bi eguneko tarte izanik; 6A ikastaldeak bigarren saioa goizean eta lehena arratsaldean ditu, bien artean bi eguneko tarte izanik ere; eta 6.B ikastaldeak lehenengo saioa arratsaldean du eta bigarrena goizean, bien artean egun tarterik ez dagoela.

Saioak antolatu diren goizeko ordutegia 9:00etatik 12:30etara zabaltzen da eta jolas ordurako 30 minutu zehatzen dira, 11:00etatik 11:30etara. Arratsaldeko ordutegia 14:30etatik 16:30etara zabaltzen da. Bien artean bazkaltzeko denbora 12:30etatik 14:30etara mugatuz.

4.1.5.3. Saioaren iraupena

Behatutako gorputz hezkuntzako saio bakoitzak 60 minutu iraun izan du. Baina, arrazoi higienikoak kontuan hartuz, 60 minutu horietariko 15 minutu arropak aldatzeko eta dutxatzeko denbora izan da. Denbora hau ez da behatu izan. Beraz, saio bakoitzean 45 bat minutuetan burutu izan diren jarduerak behatu dira.

Behatutako saio praktiko bakoitzean gauzatu diren jarduerak motorren iraupena aldakorra izan da. Horrela, korrika izeneko jarduerak motorrean ikasgela osoak hartzen du parte. Dagokion zelaira (futbol, saskibaloia edo hareatza zelaira) heldu bezain pronto ilaran korrika hasten dira. Helburua erritmoa mantenduz eta indarrak neurtuz dagokion zelaiari birak emanaz korrika egitea da. Horretarako, ikasle bakoitzak, dagokion zelaiaren bost buelta eman behar ditu, bata besteari atzetik doazelarik. Jarduera ikasle bakoitzak zelaiari bost buelta eman ondoren amaitzen da. Korrika jardueraren iraupena 3, 4 edo 5 minutukoa izan da. Jarduera honen iraupen aldakorra zelaiaren neurriak eta ikasleek korrika egiteko abiadurak baldintzatzen dute.

Bestetik, iraupen luzea izan duten jarduerak kirol partiduak burutzerakoan izan da. Adibidez, jokatu dituzten errugbia partiduak jarduerak motorren artean batek 39 minutu iraun zuen Hala ere, iraupen ertaina izan duten jarduerak motorrak ugarriak izan dira: soka saltoan taldeak jarduerak motorrak 12 minutu iraun zuen.

Nola edo hala, hezkuntza sistemak ezartzen dituen derrigorrezko arloetan irakaskuntza prozesua saioetan antolatzen da. Arlo bakoitzeko saioek iraupen zehatza dute, eta irakasleak saio osoaren iraupena aintzat hartuz antolatzen ditu jarduerak. Saioaren iraupenagatik baldintzatuta, irakasleak ikasleek egin behar dituzten jarduerak iraupen bat ematen diete. Horrela, adibidez, errugbi partiduak jokatzekoan gorputz hezkuntzako irakasleak partidu bakoitzaren iraupena murriztu beharra du, neska eta mutil guztiak parte har dezaten.

Behatutako gorputz hezkuntzako saioen hasiera neskek eta mutilak futbito zelaiaren edo gimnasioan sartzen direnean hasten da, une horretan eta irakasleak ezer esan barik neskek eta mutilak lehenengo jarduerak egiten hasten dira, hau da, korrika jarduerak motorrak. Korrika jarduerak bukatzen duten neurrian irakasleak inguratzen dute, hark emango dituen azalpenen zain. Burutu behar den zeregin motorrak ulertzen denean neskek eta mutilak egiten hasten dira eta irakasleak saio bakoitzerako prestatutako jarduerak motorren iraupena administratzen du. Irakasleak azaldu duen azken jarduerak motorrak gauzatzen hasi eta dutxarako tarte izan behar dutela kontuan hartuz jarduerak eta saioak bukatutzat ematen du. Une honetan eta irakasleak azken oharra esateko ez duen bitartean, neskek eta mutilak materiala batu ondoren, aldageletara abiatzen dira.

4.1.6. Denbora sozialaren ikurrak kurutzia ikastolan

Lantegi batean bezala ikastetxeetan neskek eta mutilek egutegi estu eta ordutegi zehatza jarraitzen ikasten dute, zeregin bakoitza noiz hasi eta noiz amaitzen den ikasten dute eta, era honetan, banako auto-diziplina eredu eraikitzen dute. Ikasturte bakoitzean hile bakoitzaren asteko astebarruko egunetan, erlojuaren bitartez ordu bakoitzean betebeharreko zereginak zehaztuta daude eta neskek eta mutilek naturak ezarritako ordena, iraupena eta erritmoa aintzat hartzen ikasten dute.

Denbora pasiboan ematen diren estimulu fisiologikoen zereginak ez bezala (logura izanez gero, lo egitea, adibidez) ortuetan ekoiztu behar den elikagaia izateko noiz galdera erantzuten ikasi behar da, janaria ekoiztearen denbora aktiboan emanik. Eta Herrialde primitiboagoetan “apaizak denbora aktiboa ezarpenean lehenetariko espezialistak izan ziren” (Elias, 1989, 64 or.), ekoizpen lanen ardura zutenak.

Gaurko gizarte modernoetan denbora aktiboa guztiz hedatuta dago eta ikastetxeetan antolatzen diren zereginak administrazioak antolatzen ditu.

Neskak eta mutilak ikasturte bakoitzeko azken ikastegun arte lan esfortzua- ren ondorioz egindako lorpenez ohartzen dira. Ikasturteko egutegiak eta ordu- tegiak atsedena hartzeko denbora mugatzen badute ere (jolas ordua, astebu- ruak, jai egunak), bereziki udako oporraldiak ematen die denbora pasiboaz jabetzeko aukera.

Beraz, kausa-ondorio printzipioan oinarritzen den ikastetxeetako denbora- ren antolamenduak denboraren linealtasuna erakusten du. Ikasleek egunez egun eta orduz ordu eskuratzen dituzten ezagupenen eta esperientzien ondo- rioroz sari bat lortzen dute, hurrengo ikasmilara igaro. Errealitate honek, azken finean sistema meritokratikoaren isla da.

Neskak eta mutilak ordutegi mugatu batean jokabide motorren bitartez heziketan jardun dira, ikasturtearen zehar eta amaieran kalifikazio objekti- boen bitartez saria edo porrota eskuratu arte.

Baina, bestetik, egutegiak eta erlojuak ezartzen duten eguneroko erritmoa apurtzeko oporraldiak ematen duen aukerak denbora beste erara bizitzeko beta ematen du, linealtasun gabeziaren denbora ziklikoarena.

4.1.7. Memoriadun eta memoria gabeko jarduera motorrak

Tanto-kopuru handiena lortzeko egiten diren marka elkarrekintzek irabaz- lea eta galtzailea izendatzen dituztenean jarduera motorren kodegatik aurre- ikusiak puntu zenbaketak garailea izendatzen duelako da. “Aukera guztien garapenari zein irabazle eta galtzaileen balizko izendapenari dagokionez, esplizituki jokoaren kodegatik aurreikusiak, joko kirol bateko taldeek edo jokalariek lortzen dituzten garaipenak edo puntuak asmatzeen sarea” den tanto-kopuru sistemaren giltzarria marka euskarria izanik. Marka euskarria “puntu kopuruaren esleipen eta asmatzeen atribuzio multzoa” bezala definitzen denak garailea ezagutzeko lau kategoriak⁶³ desberdintzen ditu.

⁶³ Marka euskarrian kategoriak: berdinketa saihesteko muga puntuazioa; denbora mugatu batean garatzen diren jokoak; puntuazioa eta denbora mugatuaren konbinaketa; beharrezko amaiera ez duten joko-jolasak.

⁶⁴ Behatutako gorputz hezkuntzan errugbia partiduak jarduera motorrean talde bietako bi entsegu nork egiten dituen lehena hartzen da kontuan.

Horrela, errugbi partiduak jarduera motorrean⁶⁴, denbora zehatz batean, talde bietatik bi entsegu lortzen lehena denak irabazten du. Beraren arauak zehaztutako helburu kodifikatua betetzeko gauzatzen diren marka elkarre- kintzek kausa-ondorio printzipioan oinarritzen den denbora nozioa erakusten dute. Gertaera motorrak (adibidez entsegu bat) memorian gordetzen dira.

Era berean, pilota eserita taldeka jarduera motorrean, ikasgela, lau kolo- reen taldetan oinarrituta, parte hartzaile kopuru berdina duten bi taldetan banatzen da. Irakasleak aukeratzen du zein taldeak izango duen baloi bat. Baloiaren duen taldea harrapatzaileen taldean bihurtzen da eta beste taldea joka- lari libreen taldean. Helburua jokalaria libreak erretzea da. Horretarako baloia duen taldeak aurkari bat erretzeko, baloia jaurti behar da jokalaria bat jotzeko asmoz. Jaurtiketan, baloiak ukitzen duen lehenengo objektua jokalaria bat bada, hau erretzat hartzen dugu eta eseri egin behar da. Kontuan hartuz, baloia, jokalaria jo ostean, lurrera jausi behar dela erretzat ulertzeko. Baina jaurtitzen dugun baloia ez bada lurrera jausten eta jokalaria hartzen badu, honek, era berean, aurkariaren taldeko edozein erre dezake. Baloi taldekideen artean paseak eginez mugitzen da, eta jokalaria baloiengandik urruntzen dira erreta ez izateko. Erre eta erreta ez izateko zeregin honetan, jokalariek baloia berreskuratu dezakete, baita erreta eserita daudenean ere. Baina ezin da inoiz eskutik baloia kendu. Baloia lortzeko aukera honek, lehen harrapatzaile- na zena orain harrapakinean bihurtzeko aukera ematen du eta rol aldaketa hau etengabe eman daiteke. Eserita erreta daudenean baloia berreskuratzen badute zutuntzen dira eta aurkari bat erre dezakete, beraz, erreta zegoena erre ahal zaitu. Egoera honek ematen dio jarduerari ezaugarri ez egonkorra eta aldi berean erritmo bizia. Gertaerak bata bestearen atzean arin ematen dira eta aurreko lorpena une batetik bestera porrotean bihurtzen da. Jarduera talde bereko jokalaria guztiak eserita daudenean amaitzen da.

Pilota eserita taldeka jarduera motorrean jokalaria bat erretzeko egiten den jaurtiketa eta, erreta, eserita dagoenari egiten den pasea, marka elkarrekintza antagoniko eta kooperaziozko adibideak dira. Elkarrekintza marka hauek jokalarien estatus soziomotorrean⁶⁵ aldaketa dakarte. Talde bietako nork irabazi talde bateko kideek eserita estatusa dutenean ezagutzen da. Hemen ere, gertaerak memorian gordetzen dira eta kausa-ondorio irizpidean oinarritzen den denbora nozio lineala islatzen da.

Bestetik, beharrezko amaiera ez duten jarduera motorrean rol aldaketak ematen badira ere, ez dira memorian gordetzen. Barne arauak ez dute amaiera zehazten, gertaerak etengabe errepikatzen dira, gertaera motor bakoitza isolatua egongo balitz ematen da eta ziklikoki errepikatzen da, denboraren nozio ziklikoa islatzen duten jarduera motorrak dira. Adibidez, behatutako gorputz hezkuntzan harrapaketa jolasean ikasgela osoak hartzen du parte...

⁶⁵ Estatus soziomotor: “kontratu ludikoaren arauak jokalaria bati agintzen dioten betebeharrak, esku- bide eta debekuen multzoa da” (Parlebas, 2001, 208.)

zelaiaren erdi batean daude. Harrapatzaile bat dago..., eta beste guztiak jokalaririk dira. Helburua jokalaririk harrapatzea da. Horretarako, harrapatzailea eta jokalaririk futbito zelaitik sakabanatzen dira. Harrapatzailea, korrika, jokalaririk libreen atzetik doa. Harrapatzeko, jokalaririk libreen bat eskuekin ukitu behar du. Horrela gertatzen denean rol aldaketa ematen da. Irakasleak minutu batzuen ondoren jarduera bukatutzat ematen du. Harrapaketa jolasean, parte hartzaileek etengabe rol aldaketak gauzatzen dituzte. Harrapakina harrapatzailean bihurtuz eta harrapatzailea harrapakinan. Gertaera motorrak ez dira memorian gordetzen. Harrapatzera jolasean, harrapakina harrapatzerakoan arrakastak ez dira memorian gordetzen. Harrapatzearen akzio motorra ez da puntuagarria. Jarduera motorren arauak definitzen duten barne logikak ezartzen dituen gertaerak ez dute garaierik edo galtzaierik mugatzen. Akzio motorrak etengabe errepikatzen dira. Harrapatzera jolasean, errepikapena estatus soziomotorraren aldaketan islatzen da.

Hala ere, marka elkarrekintzak beharrezkoak ez diren jarduera motorretan ere garailea ezagutu daitekeela konturatu behar gara. Gimnasia erritmikoa banakak erakusten duen bezala, neska bakoitzak alde aurretik programatutako eredu motorra mahaikideen aurrean gauzatzen du. Lortzen duen puntuazioaren arabera sailkapenean⁶⁶ leku bat lortuz. Sailkapenean gorago dagoena irabazten duela. Abilezien mailan oinarritzen den sailkapen sistema ere irabazlea ezagutzeko bidea da eta memoriadun jarduera da. Izan ere, emaitza hobereak irabazlea definitzen du, denbora linealaren kausa-ondorio irizpidea jarraitzen da.

Guztiarekin, jarduera motorrek ezartzen duten denborarekiko harremanean, bi egoera motorrak bereizten dira. Alde batetik, lorpenak eta emaitzak memorian gordetzen diren egoera motorrak bereizten dira. Bestetik, memorian gordetzen ez diren egoeretan ez da tanteoa definitzen baizik eta, arrakastak eta porrotak estatus soziomotorraren aldaketan izan badaitezke ere, ez dira memorian gordetzen. Horrela, denborarekiko memoriadun eta memoria gabeko jarduera motorrak bereizten dira.

4.1.7.1. Memoriadun eta memoria gabeko jarduerak sustatzen duten afektibitatea

Jarduera motorren garapenean marka euskarriaren kategoriaren arabera gertaera motorrak memorian gordetzen dira edo isolatuak egongo balira bezala kausa-ondorio irizpidea jarraitu barik agertzen dira. Parte hartzaileen sortzen diren bizipenak guztiz desberdinak izan daitezkeelarik.

⁶⁶ Parte hartzaileak irizpide homogeen baten arabera sailkatzen direnean, adibidez, "erabilitako denbora, lotutako distantzia, lortutako puntuen zenbakia" (Lagardera eta Lavega, 2003, 170.).

Horrela, harrapatzaileak arrakastak ematen dion pozaz disfrutatuko du eta harrapakina porrotaz jabetuko da. Baina, harrapatzera jolasean gauzatzen diren gertaera motorrek, dituzten eragin afektiboak kanpo, azkeneko emaitza definitzeko eta garailea izendatzeko memorian ez dira gordetzen. Parte hartzaileak, denbora bat konpartitzen dute, "besteekin jolastearen plazerean" heziko dira (Lagardera eta Lavega, 2003, 171 or.). Une bakoitza isolatua agertzen da eta uneko plazeraz geroari begiratu barik disfrutatzen ikasten da.

Baina, errugbian gertaera motorrak marka euskarrian esleitzen dira. Jokalariak lortzen duten puntu bakoitza memorian gordetzen dute, garailea nor den ezagutu arte. Errugbian, denbora mugatu batean, marka euskarrian esleitutako puntuen multzoak garailea izendatzen du. Irabazteak bestea baino hobea zarela erakusteko aukera ematen du. Eta, aldi berean, ospe soziala areagotzen du. Lana eta esfortzuaren ondoren lortutako ospe auto-estimuan duen eraginak eta ospearen pozaz disfrutatzeak garaileari boterea ematen diote. Garailea dagoen tokian galtzailea dagoenez, jokalariek galtzen ikasten dute. Oraingo porrotak geroko arrakastan bihurtzeko bideak aztertzen eta eraikitzen ahaleginduko direla. Jokalariak "aurkariak irabazteko plazerean" (Lagardera eta Lavega, 2003, 171 or.) heziko dira. Une bakoitza bestearen kausa da eta geroari begira jarduteaz disfrutatzen ikasten da.


Jarduera motorren barne logikak denborarekiko ezartzen dituen ezaugarriak konpartitzearen edo lehiatzearen portaerak sustatzean neskak eta mutilak lorpenak eta porrotak erlatibizatzea ikasten dute baldin eta jarduera motorrean parte hartzearen arazoia eta helburua konpartitzea bada. Besteekin jolastearen plazera bilatzeak, porrotak eta arrakastak desdramatizatzen laguntzen du. Baina, helburua irabaztea denean, neskak eta mutilak, arrakastak ematen duen ospean eta porrotak ematen duen etsipenean eta dramatizazioan hezten dira.

4.1.8. Gorputz hezkuntzako saioen denbora izaera

Parlebasek (2001) egindako paxiologia motorraren lexikoa aintzat hartuz, jakin badakigu jarduera motorrek ezartzen duten denborarekiko harremanean, bi egoera motorrak bereizten direla. Alde batetik, lorpenak eta emaitzak memorian gordetzen diren egoera motorrak bereizten dira. Bestetik, memorian gordetzen ez direnak. Horrela, denborarekiko memoriadun eta memoria gabeko jarduera motorrak bereizten dira.

Denborarekiko memoriadun jarduera motorretan gertaerak memorian gordetzen dira eta kausa-ondorio printzipioa jarraitzen dute, denbora linealaz hitz egin daiteke. Baina memoria gabeko jarduera motorretan, gertaerak behin eta berriro ematen dira eta ez dira memorian gordetzen, denbora ziklikoaz hitz egin daiteke.

Behatutako gorputz hezkuntzak sustatu duen denbora nozioa ezagutu nahi da. Emaitzen neurketekin txapelketa indartu den gertaerei garrantzia emanez edo lotura gabeko gertaerak eta memorian gordetzen ez direnek pisua izan duten. Beti iraupena aintzat hartuz.



Irudia 3: Behatutako gorputz hezkuntzan denbora nozioen erabileraren iraupena. Memoria gabeko jardueren iraupena %69koa (3188 min.) eta memoriadun jardueren iraupena %31koa (1428 min.) izan da.

Behatutako gorputz hezkuntzan jarduera motorren barne logikaren denborarekiko datuek grafikoetan adierazten dutena aintzat hartuz, agerian geratzen da memoria gabeko jardueren nagusitasuna. Lehenengo eta behin, jarduera motor guztien iraupen luzeena memoria gabeko jarduerak izan dute %69arekin (3188 min.), memoriadun jardueren pisua %31akoa izanik (1428 min.).

Datuen azterketak alde batetik, denbora zikloaren nagusitasuna erakusten du eta bestetik, denbora ziklikoa eta linealaren arteko aldea handia dela ere bai: hurrenez hurren %69a eta %31a.

Guztiarekin, behatutako gorputz hezkuntzak neskak eta mutilak nagusiki memoria gabeko jarduera motorrek sustatzen duten denboraren erabilera ziklikoan hazi ditu eta neurri txikiago batean denboraren erabilera linealean. Baina, gorputz hezkuntzak kulturaren ezarritako dagoen denboraren erabilera berbera islatu du?, zein neurrian?. Azken finean, galdera hauen erantzunek gorputz hezkuntzak sustatu dituen denbora nozioarekiko balioak eta gizartearen dauden arteko uztarketa ahalbidetzen dituzte.

4.1.9. Gorputz Hezkuntzak islatu duen denbora zentzua gizartearen

Behatutako gorputz hezkuntzan gauzatu diren jarduera motorren barne logikaren azterketan denboraren erabilerari dagokionez, nagusitu den denbora ziklikoa izan da. Neskak eta mutilak gertaerak memorian ez gordetzeak eragiten duen errepikapenean hazi dira, errepikatzearen plazera sustatu da.

Hala eta guztiz ere, gorputz hezkuntzak sustatu duen denbora lineala aintzat hartu behar da erakusten duen pisuagatik, neurri txikiago batean izan bada ere, kulturaren islatzen den denbora lineala bera sustatu duelako.

Era berean, generoaren ikuspegitik aztertutako kulturaren azken 15 urteetan emakume eta gizonen arteko aldea gogoratuz, ekoizpen lanetan eta aisialdian distantzia murriztu egin dela baieztatzen genuen baina ugalketa-lanetan murrizketa urria izan dela ere bai. Zentzu honetan, behatutako gorputz hezkuntzak tradizioan emakumeak bete izan dituen jardueren denborarekiko nozio ziklikoa sustatu du eta ondorioz, neskak eta mutilak mende mende emakumeek bereganatu duten errepikatzearen plazerean hazi dira. Baieztapen hau adierazgarria egiten da zeren eta Emakunde erakundeak generoaren ikuspegitik eginiko denboraren erabileraren azterketa txostenean (Emakunde, 2010b) azken 15 urteetan ugalketa-lanetan egon den generoaren arteko aldearen murrizketa urriaren aurrean behatutako gorputz hezkuntzak erakutsi duen denboraren erabileran aisialdiaz gain ugalketa lanak erakusten duen denbora ziklikoa sustatu du eta soilik neskek zuzenduta zegoen hezkuntza gaur mutilek ere jaso dute. Eskola ezarritako dagoen giza ordena bermatzeaz gain gizartearen eraldatzeko tresna dela gogoratu behar da.

Laburbilduz, eskolaren denbora egutegiak eta ordutegiak antolatzean gizarte modernoaren irizpidea jarraitu da, zeregin bakoitza kausa-ondorio printzipioan oinarritzen den denbora maskulinoa izanik. Baina, irakasleak proposaturiko jardueren denborarekiko barne logikak tradizioan eta gaur egun emakumeak egotzi izan zaion denbora ziklikoa islatu du. Lehen Hezkuntzan neskak denbora ziklikoan jarduterakoan emakumezkoen denbora balioak sustatuz, mutilek ere emakumezkoen denbora ziklikoan haziz eta gizonezkoen denbora balioak bigarren mailan utziz. Kurutzia Ikastolako antolatutako denbora zentzua maskulinoa izan bada, behatutako gorputz hezkuntzako denborak lehen hezkuntzan generoaren arteko desorekan emakumearen alde egiten du, sexuen arteko banaketa saihestuz.

4.2. Objektuen erabilera eta izaera

Behatutako gorputz hezkuntzak jarduerak gauzatzeko objektuen erabilerari eman dion garrantzia aztertzeko, lehenengo eta behin objektuak erabili diren edo ez ezagutu behar izan da. Jarraian, objektuak erabili diren neurrian zein ezaugarri bete dituzten zehaztu nahi izan da. Ibilbide horretan, objektuak, tresnak gizartearen duten lekua azaltzeko kontsumo kultural kontzeptuaz baliatu gara. Gizarte aurreratuan itsatsita dagoen kontsumorako joeraren sorrera azaltzean gaur behatutako gorputz hezkuntzan egiten den objektuen erabilera hobeto ulertzen baita. Era berean, kontsumo kultural emakumeak eta gizonek jarraitzen dituzten ildoen berezitasunak argitzeko abiapuntuan bihurtzen da.

4.2.1. Kontsumo gizartea

Gaur ezagutzen dugun kontsumo gizartearen sorrera iraultza industrialean kokatzen da. Industrializazioaren aurretik artisau-industriaz hitz egin behar da, eta produktuak sortzeko animalia, gizaki, haizea edo uraren indarrak erabiltzen ziren, ondorioz, kontsumorako ondasun gutxi zeuden. Gizakiak lur azpiko fosilak aurkitzen dituenean Europan industrializazioa hasten da, “azken bi mendeetako industrializazioa -bere formak eta erritmo arinean gauzatu den erara- lur azpiko fosil energia erreserba handiak aurkitu eta aprobeatzeko gizakiaren gaitasunari esker posiblea izan da” (Sempere, 2009, 28 or.).

Industrializazioa herrialde aurreratu bakoitzean erritmo eta era desberdinean eman bazen ere, gaur zalantzarik ere ez dago petrolioak kontsumo energetikoaren hazkundean eta material berrien sorreran izan duen eragina. Horrela, petrolotik eratorritakoek besteen artean, “plastikoak, zuntz sintetikoak eta lubrifikatzaileak” (Nadal, 2003, 248 or.) egiteko aukera eman dute. Oinarritzko kimika ez organikoak eta organikoak gaur normaltasun osoarekin erabiltzen ditugun hainbat objektuen materialak fabrikatzeko aukera eman dute. “Guztira, oinarritzko kimikak 1939tik 1975ra hedapen handia izan zuena” (Nadal, 2003, 307 or.) ongarri gaitatik hasi eta kautxu ekoizpen eta plastiko polimeroetara bigarren industrializazio prozesuan kontsumorako industria ezarri zen. Gaur kontsumitzen ditugun objektuak (arropa, sukaldeko tresnak, jostailuak, kirol materiala ...), neurri handi batean, berrikuntza teknologikoen eskutik eginiko ekarpenei esker daude.

Kontsumoa definitzerakoan zein ekonomiaz ari garen zehaztu behar da. Horrela, ekonomia naturalean, kontsumoa merkantzia edo salgai dagoena zirkulazioan jartzen da eta kontsumoa ekonomiaren printzipioa da. Baina ekonomia kapitalistan, kontsumoa menpeko aldagai bat da. Sistema ekonomiko kapitalistan printzipioa eta baldintza ekoizpena da. Kapitala zabaltzea eta handitzea helburuak dituen ekonomia kapitalistan ekoizpenaren zabalkuntza bermatzen da, gizakiari gero eta objektu gehiago eskainiz. Sistema ekonomiko kapitalista batean “ekoizpenerako baliabideak merkantzian bihurtzen dira” (Sempere, 2009, 90 or.) eta eskaera onura ekonomikoa lortzeko bideak denez, enpresariak eskaintza eta eskaeraren arteko egokitzapena lortzen saiatzen dira, ondasun eta zerbitzuen eskaintza talde kapitalista boteretsuen kontrolpean egon arte.

Sistema kapitalistaren itzalpean eraiki den kirolaren kultura, Kirol eremua ekonomiaren sektore garrantzitsu batean bihurtzen da eta kontsumorako objektuan. Gaur kirol jardueraren indarra “kirola-komunikabideak-publizitate trianguluar harremanetik sortzen da” (Barbero, 1993, 32 or.), ikuskizuna bermatuta dago, eta ikuskizunaren arrakastak kirolarien arrakasta dakar. Heroiak beraz, edozein produktuaren publizitatea egiteko aktoreetan bihurtzen dira: yogurt “light”, lasterketa egiteko zapatilak, bidaiak. Beraz, kirol espazioa jarduera industrialia eta komertzialaren espazioan bihurtu da, kirola bera kon-

tsumo objektu gisatik kirola munduaren inguruko objektuetara, kirol gorputza femeninoa eta maskulinoa esplotatuz.

“Kirola... garraiatzaile boteretsuenetariko batean bihurtu da, kirol ospea jendetzarentzako erosketa eta kontsumora zirikada sakona delako” (Brohm, 1982, 177 or.). Kirola publizitatea egiteko bitartekari bihurtu da, are gehiago kirolak duen ospea kontuan hartuz. Horrela, kirola bera publizitateaz gain, kirolaren maila guztiak produktuak eta firmak publizitatea egiteko erabiltzen dira. Egunkariak sailkapen informazioa edota kirolarien emaitzak emanaz kirola iragarkia jartzen dute eta, era berean, publizitate horrek egunkariaren salmentak bermatzen ditu. “Estadioak, pistak edo kirol txapelketen helmugak panel eta inskripzio komertzialen presentzia” (Brohm, 1982, 178 or.) ugartzen da; kirol taldeak firma baten izenean eraikitzen dira; kirolariak kontsumorako produktuen iragarkia ematen dute. Azken finean, kirola kontsumo kulturaren gurgilean murgilduta dago eta kirolaren ospea onaz baliatuz kirol zaletasuna indartzen da produktuak kiroltasunarekiko sailkatzerakoan: janzkera, ile mozketa estiloa, ibiltzeko era, kotxea. Guztiek “txapelak eta merkantziaren arteko kate esanguratsua” (Brohm, 1982, 180 or.) ezartzen dute. Kirolak ere sistema kapitalistaren irizpideak jarraitzen ditu.

Baina, ekonomia kapitalistak kontsumoa bultzatzerakoan masa kontsumo gizartea bermatu du. Masa kontsumo gizarte bi baldintzagatik posiblea izan da. Alde batetik, eta azaldu den bezala, ekonomia kapitalistak kapitala handitzeko ekoizpenaren zabalkuntzagatik eta bestetik, pertsonen denbora libre gehiago, soldata altuagoak eta ondorioz ondasunak lortzeko gaitasun gehiago izateagatik. Produktibitatea hobetzerakoan, hau da, ekoizpen jardueretan esfortzua eta denbora aurrezterakoan bataz besteko lan orduak eta produktuen prezioak murrizten dira eta diru-sarrerak igo. Alde batetik, egoera honek, denbora libre gehiago izatea dakar, beraz, produktuengana hurbiltzeko denbora gehiago. Bestetik, ondasunen prezioak murrizterakoan objektuengana hurbiltzeko aukera gehiago ere bermatzen da. Guzti honi gehitu behar zaio lan ordu merke merkaturatu, globalizazioari esker gauzatu dena eta oinarrian oso soldata baxuen truke ordu kopuru asko lan egiten dituzten langileak bermatu dituen, ondasunen prezioaren murrizketak areagotuz eta ondorioz kontsumorako aukerak zabalduz, hau da, kontsumismorako bideak zabalduz.

Zerbitzuak, ondasunak, objektuak erosteko kulturarako baldintzak ezarrita daude. Gizarte kontsumista eraikita dago non kontsumismo hitzak indarra hartzen du. Kontsumismo hitzaren ezaugarri nagusia “gizakia erabilgarritasuna eta plazera bilatzeko makinara murriztea da” (Sempere, 2009, 183 or.), gehiengoaren eskura erosotasuna eta oparotasuna eskaintzen duelakoan espazio sozial batean gizabanakoak banako erabilgarritasuna bilatzea da. Kontsumitzaileak teknikak eskaintzen dizkion objektu guztiez jabetu behar duela bizi du, askotan objektuak (makina batek, adibidez) eskaintzen duen zerbitzuaz ahaztuz eta arreta guztia objektua izatean jarriz. Kontsumismoaren kultura modan jartzen denaz jabetu eta adi egotea helburuak dira, objektuak

etengabe aldatzea, "itxura hobeagoa eta espezializatuagoa den zerbaite berria asmatu" (Marinas, 2012, 22 or.). Zentzu honetan, kontsumitzeak ekoizpenaren kapitalismoari erantzun beharrean, sortzen den kontsumismoaren kulturak kontsumoaren kapitalismoari erantzuten dio. Kontsumoa bera plazera iturrian bihurtu arte. Helburua jabetzea baino, jabetzeak sortarazten duen plazeraz gozatzea da: arropa armairuan erabiltzen ez ditugun jantziak edo trastelekuan gordetako tresnak (adibidez, zulatzaile edo lixatzeko makinak) kontsumismoaren isla dira. Merkatuen apeuek behar dugulakoan erostera bultzatzen gaituzte eta objektuaren iraupenaren arabera erosi eta gorde eta erosi eta bota egiten da (zentro komertzialetan bilgarri edo jatorri berria izateagatik erosten ditugun janariak hozkailuan iraungi arte eta probatu barik bota arte gordetzen direnean), oinarrian gizarte kontsumistatan objektuen zikloa erosi-erabili-bota da eta askotan bigarren pausua desagertzen da. Kontsumitzaileak jabetzearen plazera bizi nahi du, modek ezarritako ereduaren artetik aukera bat egiten du, aukeratu duen objektuak duen esan nahiagatik, estatusa erakusteko eta esan bezala, banako plazera bilatuz.

Bizi mailaren igoera, objektuen aniztasuna, objektuei kultura edota helburu hedonistak gaur bizi dugun gizarte moderno eta aurreratuen ezaugarriak izateaz gain, bereziki kontsumo gizartearen definitzen dute. Ezaugarri guztien artetik iraungipena gaur egungo gizarte kontsumoaren ezaugarri nagusia da. Erosi-erabili-bota zikloan murgildutako kontsumoa da, objektuen iraungipenean murgilduta dagoena.

Gizarte moderno eta aurreratuen sistema ekonomiko kapitalistan beritasunak objektuak modan jartzen ditu: kotxe marka eredu berria, ordenagailuarentzako sistema eraile berria, arrautzaz eginiko flan berria, iragarkietan irakur eta ikusi daitezkeen adibideak dira. Bizi dugun kontsumo gizartearen objektuen iraungitze-data oso epe laburrerako da. Kontsumo kultura "gehiago edo gutxiago kotizatzen diren bere markekin eta objektu-sortekin zeinu balioen ekoizpen prozesu handia baino ez da" (Lipovetsky, 1998, 194 or.).

Banako plazera kontsumitzearen arrazoian bihurtzen da, plazeraren iturria objektuak izatean norbanako aukerak bermatzea da, aukerak izatean norbanako autonomia areagotzen baita, autonomiak taldea baino gizabanakoa indartuz.

4.2.2. Giza mailaren eta banakotasun plazeraren teoriak

Kontsumitzerakoan aukeratzen ditugun objektuek Lipovetskyk (1998) azaltzen duen bezala, norbere buruaren kultura estetikoaren askatasuna bermatzen dute. Objektuek nor garen esaten dute, beraien bitartez erakusten dugun irudia behatzeko aukera egonik Era berean, kontsumitzen dugun objektua bere erabileragatik baino ematen diogun esan nahiagatik erosten dugu, adibidez, "kultura materialak gizabanakoa Estatu Batuar hiritarra taldearekin lotzen du" (Urdangarin, 2009b, 396 or.). Baina baita ere, giza maila, estatusa eta ospea

adierazteko bidea da. Bestetik, arestian esan bezala, objektuen jabetzak sortzen duen plazera kontsumitzearen beste arrazoia da.

Etnia, giza maila edota plazera kontsumo gizartearen aztertzerakoan atxikitzen zaizkion kontsumitzearen arrazoiak dira. Eta objektuak izatearen plazera aintzat hartzen bada ere bi teoria zabaldu dira. Etengabe estiloan edota teknikan berriztatzen diren objektuak jarraian lortu ditzaketen ez ditzaketen arteko lehiaren teoria, zeinean moda jarraitzeko gaitasunak gizabanakoen botere ekonomikoaren erakusleia da eta objektu berria (gaztea) altxor preziatuenean bihurtzen da. Bestetik, banakotasunaren plazeraren teoria, norberaren beharrak asetzeko erosten ditugula baieztatzen duen teoria. Banakotasun nartzisistak aurrera egiten du norberaren plazera indarra hartzen duenean, giza maila altuen kontsumo ohituretan ez bezala masa kontsumoan objektuen esan nahiak balioa galtzen du eta irudiak kontsumitzen dira. Objektuen arteko kalitatea eta prezioaren arteko oreka baloratuz irudi eta mezuaren bitartez markak gizatasuna, feminitatea, adina, indarra, fintasuna kontsumitzen ditugu: "bakoitza norbere buruaren bizitzaren jabea bilakatzea" (Lipovetsky, 1998, 200 or.) laguntzen duen kontsumoa da, banakotasun plazeraren kontsumoa. Askotan, teoria bien mugak non dauden bereiztea saila egiten den arte.

Sistema kapitalisten helburua kapitala handitu eta zabaltzea denez, enpresek marken publizitatea egiten dituzte, marketing estrategiarekin modaren adierazpen nagusienaz baliatuz: ereduak. Ereduak ekonomikoki jarraitu ahal diren neurrian giza maila eta ospea adierazten da. Baina txanponaren beste aldean, gauzen eta objektuen heterogeneotasunak autonomiaren banakotasunaren baieztapena bideratu du, gizabanakoak bere aukerak egiten ditu eta horien artean ez kontsumitzea bat izan daiteke.

Era honetan kultura komunitarioz hitz egin beharrean banakotasun kulturaz hitz egin behar da. Gizarte kontsumistak bermatu duen kulturaren autonomia pribatua eta banakotasuna nagusitu dira.

4.2.3. Garapen teknologikoa marken ezarpenean moda nozioa aintzat hartuz

Industrializazioaren garapenean teknologiak ekarri zuen onura ekonomikoa modaren industrian ere txertatu da. Objektuen teknologiaz hitz egin daiteke, "kultura materialen historia, azken finean, tresnak eta teknikak, asmakizunak, gauzak egiteko era desberdinak eta beraien hedapenarena da" (Pounds, 1992, 380 or.). Kirol ikuskizunetan kirolak praktikatzeko tresneriaren teknologia erakusteko aukera dago, "adibidez, gero eta gehiago, kirol txapelketa baten arrakasta edo porrota bizikleta koadroa, motor baten potentzia, gorpil baten pneumatikoa, itsasontzi baten bela edo atleta baten bitamina-konplexua fabrikatzen den diseinu eta formularen arrakasta edo porrota balio berekoak dira" (Barbero, 1993, 34 or.).

Barojak teknika nozioaren inguruan eginiko adierazpenak ekartzen dira gogora. Teknika "oraindik eta lehengo gizakiaren bizitzaren oinarrian osatzen duten lanetan erabiltzen diren metodo, sistema, tresna, makina eta substantzien azterketa da" (Caro Baroja, 1976, 18 or.). Tresnen ezaugarrien multzoa (materiala, forma edota kolorea) estilo bat definituz. Estiloa egiteko eta izateko era adierazgarria izanik.

Gaur egun objektu eta tresnen teknika oso teknologia puntakoa da eta eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun objektuetan txertatu da, gizarte aurreratuaren ongizate balioaren aitzakiarekin, objektu teknologikoen denborari denbora gehituko balio bezala saltzen direnak: labana elektrikoak hasi eta lisatu behar ez diren zuntz artifizialekin eginiko jantzirik igaro arte, teknologikoen objektuen aniztasuna areagotu du, gustuen banakotasunaren moda ezarri. Eta praktika fisiko eta kirolaren era berdinean gertatu da: marruskadura gutxi baina jantziak, estilo handiko surf olak edo futboleko atezaintzako baloia labaindu ez egiteko eskularruak adibide batzuk dira. "kirolaren teknologoak kirol bikaintasuna helburuarekin material hobea eta seguruagoa lortzeko asmarena, sormena eta ezagupen teknikoak erabili dituzte" (OMPI).

Kirolaren ezaugarri nagusia den errekorrak izatea kirolariaren helburuan bilakatu da. Kirol agente guztien lana aurreko errekorra gainditzea da. Horretarako, kirolak "entrenamendua txapelketarekin estu lotuta egoteaz gain... teknika modernoak, praktikak, zientifikoak (dietetika, erlaxazioa, medikuntza, biokimika, etab.) hartu ditu" (Brohm, 1982, 35 or.). Gorputza puntuan jartzeko metodoak etengabe berriztatzen dira, askotan legalitatearen kanpo (dopina). Kirol txapelketa (pisu jaurtiketa, igeriketa, alturako jauzia, saskibaloian saskira jaurtiketa) entrenamenduaren egokitasuna erakusteko erakuslehoan bihurtzen da.

Horrela, emaitzak hobetzeko helburuarekin kirolak material eta kirol tresnak hobetzeko industria bat eraikitzea ekarri du: beirazko zuntzarekin eginiko pertika-jauzia egiteko pertika malguta, eta errugbi, futbol, padel edo tenisa egiteko zapatila eta baloi bereziak kirol bakoitzean gorputz teknika berriak ekarri dituzte. Kirol materialen espezializazio bat dago, teknologia berrien laguntzarekin kirolaria materialen espezializazioak bermatzen duen errekorrak gainditzeko aukeraz baliatzen da. Beraz, kirola gorputz tekniken espezializazioaz gain materialen espezializazioaz baliatzen da.

Teknika eta estiloa ekoizpen industrialak erabiltzen dituen bi ezaugarrietan bihurtzen dira, kontsumitzaileari oinarriko produktuaren aldaketa txikiekin eskaintza eginez: era desberdinetako boligrafoak, kolore desberdinetako betaurrekoak, kirolari ospetsuenak sinatutako baloiak, zapatila aerodinamikoak. Objektu hauen erabilera ez da aldatu baizik eta diseinua, materialak, formak, koloreak. Eta moda prozesu guzti honen lekukoa izateaz gain, esparru guztietara zabalduta da, kirol esparrura ere bai.

4.2.3.1. Moda nozioa

Moda hitzaren esan nahian aztertzerakoan arreta bere ezaugarri nagusian jarri behar da: aldakortasun arina. Hau da, modak objektuen, ondasunen eta tresnen aldaketa arina eta etengabeko akzioak eskatzen ditu.

Moda ez da agertzen ez garai guztietan ez zibilizazio guztietan, "moda sistema bat dago berritasunegatik gustua etengabeko era erregularra den printzipioa izatera heldzen denean" (Lipovetsky, 1998, 30 or.). Modaren prozesua ulertzeko Lipovetsky pentsalariak janzkeraren modan jartzen du arreta, modaren historiari idatzitakoa ugaria dela argudiatuz eta ondoren garai desberdinetako janzkeraren zehetasunak ondo bilduta daudela azalduz. Gaur, ezagutzen dugun moda sistemaren sorrera azaltzeko autoreak Erdi Aroan eman zen hazkunde ekonomikoan dagoela azaltzen du: botere monarkikoaren zatiketa edota feudalismoa; nekazaritza-iraultza eta teknikoak; hartu-eman komertzialak indartzea eta feriak moda ezartzeko bermeak izan ziren. Kontuan hartuz historiaren garaia, besteak beste zabaldu zen izurriak pertsona guztiek aldaketen abantailaz ez baliatzea ekarri ba zuen ere, askok aldaketa eta hazkundearen gurgpilean sartzeko aukera izan zuten. Egoera horretan, modaren berritasunaren sistema zabaltzen da eta klase boteretsuak botere eta baliabide gutxiago klasera irudiak, janzkerak eta ereduak adierazten dizkio, jarraitu beharreko eredu goitik behera markatzen da, aberastu den burgesiaren aristokratik imitatua eta,aldi berean, beherako klase mailatik bereizteko moda (eredua, estiloa) aldatuz. Modaren aldakortasun ezaugarriaren abiapuntua da, arina ez bada ere.

Moda prozesuan inflexio puntua izan den beste une bat XIX. mendea da. Arestian esan den bezala, iraultza industrialak objektu eta tresnen oparotasuna bermatu zuen eta janzkeraren modan ere eragina islatzen da. Lipovetsky pentsalariak adierazita mendemugaren moda da. Mendemuga moda bi industria motari esker garatzen da. Alde batetik, goi-mailako jostintza, luxuzko eta neurri egindako sorkuntzen industria eta bestetik, masa ekoizpen merkea eta seriean egiten den jantzigintza industrialak, goi-mailako jostintza imitatzen duena. Erdi aroan bezala moda goitik behera zabaltzen da, baina lehen ez bezala, orain moda demokratikoak hitz egin daiteke, goi-mailako jostintza etxeek sortzen dituzten ereduak eta estiloak jantzigintza industrialari esker prezio egokituagoekin mundu zabalera hedatzen dira, garai batean giza maila pribilegiatura mugatuta zegoen jantziaren moda demokratizatu egiten da, moda eskubide demokratikoan bihurtzen da eta pertsonen nahia moda jarraitzea da, modaren kanpo ez geratzea, "modaren nahia" (Lipovetsky, 1998, 86 or.) bermatzen da. Urte eta urtaroko bakoitzerako goi-mailako jostintza etxeek estilo berriak sortzen dituzte, aurreko urtarorako eskaintzen duen eredu zaharkitua geratzen da eta berri bat eskaintzen da. Jantziak, arropa zahartu baino lehen zaharkitua geratzen dira, horrela modaren ezaugarri nagusia sustatzen da: aldakortasun arina. Ereduak etengabe aldatzen dira eta pertsonen berria denaz jabetu nahiari jarraitzen diote. "Berria zaharraren gainetik dagoela uste duten

kontsumitzaileek” (Lipovetsky, 1998, 180 or.) etengabe objektu berriak, eredu berriak eskatzen dituzte eta markak lege honen arabera ekoizten dute.

Moda modernoarekin, gizabanako bakoitzak modaren kodigoak jarraitzeko aukera du, bere nahiak asetzeko aukera izateak banakotasun printzipioaren ezaugarria islatzen du. Modaren prozesuan gaurko moda modernora iritsi arte, gai heroikoak eta berezko maitasunetik plazera, ongizatea, beritasuna, materialen erraztasunak, bizimodu askeagoa zoriontsuagoa eta errazagora igaro da. Era horretan, “moda modernoaren erdian banakotasun morala berria dago zeinek askatasuna, plazera eta zoriontasuna goraiatzatzen ditu” (Lipovetsky, 1998, 98 or.).

50eko eta 60ko hamarkadetatik aurrera produktuen salmenta areagotzeko publizitateak kale egiten duela ikusi zenean, markak indarra hartzen dute, marketing estrategia berriari arreta produktuan barik markan jartzen da. Markak merkatuan jartzeak etekin ekonomikoak ematen dituela ikusten da, estrategia saldu nahi den produktuari etekin ateratzeko marka saltzea da. Janzkeraren modari dagokionez, ildo berdinak jarraitzen dira. Goi-mailako jostuntza etxeek beraien firmak mundu zabalera saltzen hasten dira, nolabait beraien produktuak saltzeko lizentziak saltzen dira eta beraien produktuen gainean firmaren (etxearen) izen dago: Dior, Chanel edo Saint-Laurent markak beraien produktuak saltzeko lizentziak merkatuan jarri zuten, beraiek janzkerak eta beste hainbat produktuak saltzeko (betaurrekoak, boligrafoak, parfumeak, lentzeria...). Markak produktuen gainetik kokatzen hasten dira.

Kirolean modak izan duen eragina ere agerian dago. Kirol modaren joerak eta merkatuak handitzen jarraitzen dute, “gaurkotasuneko ere, Majek⁶⁷ K-Way-ekin⁶⁸ batera diseinatu duen haize-babesteko bilduma: bost jantzi erosoak, teknikoak eta estanpatu basatiena eta femeninoari uko ez diona egiten, lehoi-barra” (Odrioloz, 2014). Era berean, H&M⁶⁹ bere *sports* bilduma sortu du, entrenatzen duena modara eta liraina egon dadin sortutakoa. Adibide hauen bitartez, moda esparru guztietara zabaltzen den errealitate bat dela ikusten da, osasuntsu bizi eslogana modan ere lekua izanik.

4.2.3.2. Markak definitzen gaituztelakoan

Objektu bat erosteko asmoarekin denda batera hurbiltzen garenean arreta markan jartzen da, funtzio bera duten objektu ezberdin asko aurki ditzakegu dendaren apaletan. Gaur, marka bakoitzak funtzio bera duen objektu desberdinak fabrikatzen ditu, beste marketatik bereizteko ahalegina da. 80. hamarkadatik aurrera enpresariak garatu zuten ideien isla da: “enpresa arrakasta-

⁶⁷ Maje Judith Milgrom sortutako frantziar marka da.

⁶⁸ K-Way 1965ean sortutako Estatu Batuar marka da eta gerritik poltsa batean jaka kapisaiaren sortzailea.

⁶⁹ H&M Suediar marka da, 1947an Hennes izenekin zabalduko emakumearentzako denda zena gaur H&M taldean bilakatu da eta mundu osoan emakume eta gizonentzako saltzen du.

tsuek batez ere markak ekoiztu behar zituztela eta ez produktua” (Klein, 2001, 31 or.)

Marken strategiaren bitartez, produktuari balioa gehitu nahi zaio. Markek produktuaren kalitateaz hitz egiten digute eta prezio-kalitatea harremana gure poltsikora doitzen bada marka bateko edo besteko objektua erosiko dugu, askotan marka berari leialtasunarekin jarraituz.

Produktuen ekoizpen kapitalistaren ikuspuntutik produktuen arteko lehiak produktuak fabrikatzeaz gain bereizteko beharra ikusten da eta marken ekoizpenak produktuen lehiakortasuna bermatzen duela ikusten da. Une batetik bestera, marken gorpilera igo ziren enpresek fabrikatzen zuten produktuak bereiztea bermatzerakoan bere etekin ekonomikoak nola handitzen ziren ikusi zuten, marka kontsumitzaile eta produktuaren arteko lokailuan bihurtzen da.

Gauzak horrela, enpresaren industria ez da garrantzitsuena baizik eta produktuen komertzializazioa. Publizitatearen bitartez markak komertzializatzen hasten dira, ahalezko kontsumitzaileari markak saltzen duena ezagutarazten zaio. Enpresek fabrikatzen dituzten produktuak markara mugatzeko kontsumitzaileen emozioetan eragina izan dezan arduratu hartzen dute. Publizitatearen bitartez markaren izaera saltzen da. Nike, adidas, slow food, Body shop, Chanel, coca-cola, pepsi edo Calvin Klein ez dira produktuen izenak baizik eta markak eta, adibidez, kirola egiteko asmoa dugunean erosten ditugun zapatilak duen logoak eragina du, egiten dugun aukeran eragina du. Adibidez, Nikek pertsonen kirolarekin eta gorputza zaintzarekin duen harreman emozionalean arreta jartzen du, kirolean onena izatea edota gorputz hoberena izatea gaiak lantzen dituen kirolarekin harreman horretan esperientziak zentzu gehiago izatea du helburu .

Enpresen leloan produktua bigarren mailan geratzen da eta benetako produktua marka da, enpresak produktuen enpresaren arduratu beharrean markak islatu behar dituen balioez arduratzen dira eta askotan, ekonomia globalizazioaren ildotik, produktuaren enpresaren saltokitik urrun gaituzten da. Industrializazioan energia sortzeko bide berriak (petrolio eta bere deribatuak) beste abantailen artean garraioa hobetu dute, bai barruko garraioa zein herrialdeen artekoa. Honek saltokitik urrun egiten diren produktuak lehen baino merkeago garraiatzeko aukera eman du eta nahiz eta kostu ekologikoa handia izan, etekin ekonomikoak handiagoak dira. Gaur, kontsumo kulturalaren arrakasta izango duten produktuak ez dira kontsumorako aurkezten direnak baizik eta kontzeptu bezala aurkezten direnak eta fabrikazioa azpi-kontratu merkeen bitartez bermatuta dago. Enpresariak saltzen duen markak “bizitzeko eredu bat, jarrera bat, balioen multzo bat” (Klein, 2001, 51 or.) islatzen ditu eta ez produktua. Reebok edo nikek ez dituzte soilik zapatilak saltzen, baizik eta kirolaren magia indartu eta pertsonen osasuna zaintzen dutela saltzen dute.

Estatu Batuetan hasi zen fenomeno hura, gaur mundu osoan zabaldu da eta markak bereziki herrialde aurreratuetan aurkitu du lekua. Giza estratu eta

esparru guztietan sartu da eta European sentitzen bada Estatu Batuarren kulturaren markak, logoak bere lekua hartu dute. Hasi ikuskizun kulturaletatik (antzerkia, zinema, musika kontzertuak) eta hezkuntza sistemara heldu markek leku bat bilatzen jakin egin dute. Ikasleen geroa teknologia berrietara sarbidea izateko arrazonomendurekin Estatu Batuetan markek publizitatea eta hezkuntzaren arteko mugak ezabatu dituzte, adibidez, enpresa pribatuek ordenagailuentzako diru laguntzarekin beraien logoak eskoletan sartu dituztenean. Edo, Channel Onek K-III komunikabideen jabeak bere irratien bitartez ikastetxei "hezkuntza programa arrunten hamabi minuturo ikasgelak egunero bi minutuz anuntzioetara zabaltzea eskatu zien" (Klein, 2001, 121 or.). Hezkuntzan marken kultura ezartzeko ezin aukera hobeagoa.

Guztiarekin, kapitala handitzearen helburua duten gizarteetan modaren ibilbideak marken sorreran izan duen eragina eskolan nola tratatzen den azterketarekin hezkuntza sistemak gaiarekiko hartzen duen jarrera ezagutzen da. Erabaki politiko ekonomikoek kontsumo kultura eskola eremuan izan behar duen tratamenduari buruz zer azaltzen duten aztertzeke unea da.

4.2.4. Kontsumoa hezkuntza curriculumean

Hezkuntza sistemak ordenatzeko hezkuntza dekretuan arreta jartzerakoan hezkuntza instituzioak kontsumoarekiko hartzen duen jarrera aztertu nahi da. Gero, eguneroko hezkuntza praktika gauzatzekoan ikastetxeak bere ikastetxe proiektuaren bitartez erakusten duen jarrera arakatzeko, hau da, lehenengo Kurutziaga Ikastolak erakusten duen jarrera eta bigarren, gorputz hezkuntzan bideratzen duen kontsumoarekiko joera ezagutzeko.

175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko aztertuz gero ikuspuntu ekologiko batetik ingurugiroaren zaintzan jartzen da arreta. Hiru artikuluetan kontsumo gaia aipatzen ez bada ere, gizarte kontsumoak naturan izan duen eraginaz ohartzeko aipamenak dira:

Ikasleak prestatzea pertsona helduen bizitzari ekiteko; ... eta izadiaren zaintzarekiko eta garapen iraunkorrekiko konpromisoa duten pertsonak izateko (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, 42 or.).

Izadiak eta natura-baliabideez arduraz gozaten ikastea, gizadi osoaren eta egungo nahiz geroko belaunaldien ondarea diren aldetik (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, 43 or.).

Ingurune naturala balioestea eta hura arduraz gozatzea. Izadiaren funtzionamenduen oinarrizko mekanismoak aztertzea, giza jarduerak izadian duten eragina ulertzea, eta hura babesten, zaintzen eta hobetzen laguntzea... (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, 44 or.).

Dekretu beraren III. eranskinean ikasleek derrigorrezko hezkuntzaren amaieran lortu behar dituzten oinarrizko gaitasunak idazten dira. Guztien

artetik zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasunak kontsumo gaia zuzenean aipatzen du eta ingurumena eta bere zaintzak duen garrantzia azaltzen da:

Ingurune fisikoarekiko harremani erreparatzen die gaitasun honek, eta, berariaz, ingurune fisikoaren natura-alderdiei eta giza-kien ekintzaren ondoriozko alderdiei... Azken finean, gaitasun honek askotariko trebetasunak izatea eskatzen du, egokitasunez, autonomiaz eta ekimenez jarduteko bizitzako eta jakintzako askotariko eremutan (osasuna, ekoizpen-jarduera, kontsumoa, zientzia, teknologia-prozesuak, etab.), eta mundua interpretatzeko (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, III. eranskina 12 or.).

Gaitasun honen bidez, galderak edo arazoak identifika daitezke... giza jarduerak ingurumenean, osasunean eta pertsonen bizi-kalitatean eragiten dituzten aldaketekiko (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, III. eranskina 13 or.).

Eta IV eranskinean Lehen Hezkuntzarako Gorputz Hezkuntza curriculumak idazten da. Gorputz Hezkuntzak oinarrizko gaitasun bakoitzari egiten dion ekarpena azaltzen den atalean arreta berezia jartzen da objektuen erabilerak kontsumoarekin duen loturan, baita ere eduki multzoen atalean, birziklatzea aipatzerakoan:

Bestalde, gorputz-hezkuntzak objektuak erabiltzen dituen heinean, kontsumo-gizartearen sartzen ari dela jakin behar du. Beraz, objektuak ez erabiltzea edo birziklatzea eta aurrezteak ikasleek eskuratu beharreko balioen parte izan behar dute (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, IV. eranskina 90 or.).

Eta edukia multzoak atalean, jarduera fisikoa eta osasuna 3. eduki multzoan:

Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak sortzean eta egitean, behin erabiltzeko materialak berrerabiltzea (Dekretua 175/2007, urriaren 16koa, IV. eranskina 95 or.).

Aztertu den Hezkuntza Dekretuan ingurumenean arreta berezia jartzen da, pertsonen inguru naturalarekin hartu behar dugun konpromisoan gizakiak ingurumenean egiten dituen akzioak aztertu eta bere ondorioak ekiditeko pentsamendua eraikitzearen garrantzia dago. Gaur eta gero, gizakiaren ondarea den natura baloratzea, zaintzea eta disfrutatzea eskatzen da. Horretarako, lehenengo oinarrizko gaitasunean kontsumoarekiko autonomiaz eta ekimenez jarduteko abileziak ikasleen eskura jarri behar direla azaltzen da eta gero, gorputz hezkuntzan, kontsumoaren aurrean har daitezkeen erabakiak islatzen dira. Horrela, gorputz hezkuntzan objektuak erabiltzen direnez kontsumo gaiarekiko erakutsi nahi den jarrera pentsatu behar dela esaten da. Objektuak ez erabili eta, kirol tradizionala, modernoa zein joko-jolas tradizionaletan erabiltzen den objektua birziklatuarekin ordezkatu, edo merkatuetan saltzen diren

objektuak erabili. Bigarren aukera honen barruan, ikastetxeek erosten dituzten objektuak erabil daitezke edo ikasleei dagokion objektua etxetik ekartzea eskatu ahal zaie. Ikastetxeek erosi eta gorputz hezkuntzako irakasleak kudeatzen dituen objektuak, era berean, ikasleen gustuen eta beharren arabera erosi daitezke edo guztiz estandarizatuak erosi daitezke. Eta ikasleei objektua etxetik ekartzea eskatzen bazaio, era berean, estandarizatu edo ikastetxeak bakoitzak nahi duen marka, kolore, teknologia edo forma duen tresna ekartzeko baimena zabaldu dezake.

Guztiarekin, gorputz hezkuntzatik egiten den objektuen erabileraren araberako balantzaren alde baterantz edo besterantz egin daiteke, ondorioz ikastetxeetako neskak eta mutilak, marken kontzientzia hartu edo ingurumenaren garrantziaren kontzientzian hazi daitezke. Zein izan da, beraz, behatutako gorputz hezkuntzak kontsumoarekiko erakutsi duen jarrera?. Kurutziaga ikastolak gorputz hezkuntza derrigorrezko arloaren bitartez, marken eta logoen kultura bermatu du?, banakotasunaren kontsumoari lekua utzi dio? edo kultura komunitarioari pisua eman dio?.

4.2.5. Kirolean eta praktika fisikoetan objektuak

Jardueretan esku utzik edo lanabesarekin burutzean gorputz teknika bat eraikitzen da. Egiten den aukerak gorputza erabiltzeko teknikak eraikitzen ditu. Maldan gora ibiltzerakoan makila edo makila barik aritzeak “mugimendu oinarrien aukeraketa sozialak” definitzen ditu (Mauss, 1991, 346 or.).


Era honetan, praktikak diren jardueren motorren arauak objektuen erabilerari ezarri edo ez, objektuen menpe eraikitzen den gorputz teknika edo gorputzarekiko teknika desberdintzen dira. Horrela, pilotak, bateak, xabalina edota baloiak eta piragua aski ezagunak diren adibidez, esku pilota, beisbola, xabalina jaurtiketa, talde kirolak (saskibaloia, boleibola, futbola) eta piragismoa praktikatzeko derrigorrezko tresnak dira. Guztiak industrializazioaren ondoren material berrien (plastikoa edo karbono zuntzak) sorrerak bermatu dituen objektuak dira eta teknologiaren aurrerakuntzaren ondorioz praktikak aldatu dira. Atzean geratzen dira lehenengo Tour itzulian txirindulariek dabilzaten bizikletak, horien ordez, karbonozko edo titaniozko bizikleta koadroak egiten dira. Era honetan, teknojokoak hitz egiten da, “gure garaiko material sofistikatuak baliatzen direnak” (Parlebas, 2001, 140 or) eta “inguruaren aldaketa artifizialak eta dagozkion tresnak ingurutik hartzen diren” (Parlebas, 2001, 170 or.) ekajokotik urrun geratzen direnak. Azken hauek arestian praktikak direnak dira eta gauzatzeko naturatik harriak edo makilak eta etxetik olak, sokak edo teilak erabiltzen zituzten. Horietako askok gaur kirol praktiketan bihurtu diren neurrian teknojokoen multzora igaro dira: “bolo joko tradizionala bowling sofistikatuaren aldatu duen eboluzioak uni- bertso ludomotorren prozesu teknologikoaren adibide adierazgarri bat da” (Parlebas, 2001, 140 or.).

Gizartean eboluzioak objektu eta tresnei ematen dion zentzua behatutako gorputz hezkuntzak islatu duen jakiteko objektuen beharra egon den zehaztu behar da, gero material estandarizatu edo espezializatu den galderari erantzuteko. Era honetan, neskek eta mutilek kontsumo kulturalan murgiltzeko ateak zabalik izan dituzten ezagutzen da.

4.2.6. Erabili diren objektuak eta beraien ezaugarriak

Behaketa burutu izan den neurrian, gorputz hezkuntzako irakasleak objektuen beharra dituzten jarduerak proposatu dituela ikusi da. Objektu hauek jardueren motorren barne logikak eskatzen dituenak dira eta jarduerarekin lotuta daudenean espezifikotzat jotzen dira. Horrela, zelai errera boleiboleko baloiarekin jokatuz gero, objektua espezifikoa bezala ulertzen da. Era berean, zelai errera jokatzeke erabiltzen den objektua baloia arin bat bada, objektua ez espezifikotzat hartzen da. Izan ere, zelai errean baloia bat behar da baina edozeinek balio du. Aldiz, boleibolean boleiboleko baloiak behar dira eta hauek espezifikoa hartzen dira, jarduerarekin lotuta daude. Guztiarekin, proposatzen den jardueren motor bakoitzaren barne logikak materialaren bat eskatzen duenean espezifikoa den edo ez den erantzun nahi den galdera. Horrela, galdera erantzuteko aztertu diren aldagaiak ondorengoak dira:

- Jarduera motorra praktikatzeko objektu espezifikoa behar denean. Kirol modernoaren baldintza da, kirol bakoitza objektu espezifikoa baliatu behar da. Boleibolean neurri eta pisu zehatzak izan behar dituen baloi espezifikoa baliatu behar da. Saskibaloian edo errugbian bezala. Baina baita ere, pertika jauzian.
- Jarduera motorra praktikatzeko objektu espezifikorik behar ez denean. Zelai errean edo baloi eserita jardueretan edozein neurri eta formako baloiak erabil daitezke.
- Jarduera motorra praktikatzeko nahiz eta objektu espezifikoa beharra egon, ikastetxean bertan egiten denean. Adibidez malabareak praktikatzeko pilotak.
- Jarduera motor bera praktikatzeko espezifikoa den objektua, eta espezifikoa ez den objektua erabiltzen direnean. Adibidez, ikasleak trinketean aritu direnean teniseko, pilota bigunak eta erabilera anitzekoak erabili dituzte eta esku pilotan aritzeko pilota espezifikoa.
- Jarduera motorra praktikatzeko objektua behar ez denean eta erabiltzen ez denean. Adibidez, harrapatza jolasean.



Irudia 4: Jardueretan objektuen espezifikotasunak izan duen pisua. Objektu espezifikoen erabileraren pisua %54,8koa izan da (2528 min.); objektu ez espezifikoen erabileraren pisua %16,2koa (747 min.); ikastetxean eraiki den objektuen erabileraren pisua %3,7koa (171 min.); jarduera berean objektu espezifikoa eta ez espezifikoren erabileraren pisua %5ekoa (230 min.). Objektuekin aritzearen pisua %79,7koa izanik (3677 min.) eta objektu barik aritzearen pisua %20,3koa (939 min.).

Espezifikoa= jarduerak objektu espezifikoren beharra du

Ez espezifikoa= jarduerak objektu espezifikoren beharrik ez du

Eginda ez espezifikoa= jarduerak nahiz eta objektu espezifikoa behar, eskolan eraiki da.

Espezifikoa/ez espezifikoa= jarduerak behar izan dituzten objektuak eta behar ez dituzten batzuk erabili dira

Objekturik ez= jarduerak ez du objektuen beharrik eta ez da objekturik erabili.

Behatutako gorputz hezkuntzak proposatutako jarduera motorretan iraupenaren %79,7an (3677 min.) objektua erabili behar izan da eta % 20,3an ez (939 min.). Objektua erabili behar izan denean %54,8an (2528 min.) objektua espezifikoa izan da eta %16,2an (747 min.) ez da espezifikoa izan. Eraiki den materiala iraupenaren %3,7an erabili da (172 min.) eta jarduera motor berean objektu espezifikoa eta ez espezifikoa erabili denean iraupenaren %5a (230 min.) izan da. Gorputz hezkuntzak objektu espezifikoen erabilerari eman dio garrantzia.

Neskek eta mutilak objektuaren beharrean hazi dira eta nagusiki objektu espezifikoren beharrean. Esku hutsik soilik gorputzarekin aritzea bigarren mailan geratu da.

158 Ondorengo irudietan objektuen ezaugarriak zehazten dira.



Irudia 5: Berrizko belodromoan ikasleak bizikletak hartzen.

Belodromoan bizikleta beharrezkoa egiten da eta beste hainbat egoeretan erabiltzen bada ere, adibidez, hirietako bidegorrietatik edo mendi bizikletan, belodromoan aritzeko espezifikoa dira, pinoi eta balaztarik gabeko bizikleta bereziak dira eta txirrindularitza txapelketak egiteko espezifikoa diren bizikletak dira. Neskek eta mutilak belodromoan burutu diren belodromoko jarduerak bertan dauden bizikletekin gauzatu dituzte.



Irudia 6: Behatutako gorputz hezkuntzan boleibolean erabilitako baloiak.

Era berean, irudian ikusten diren baloiak kirol batean aritzeko dira, ez dira futboleko edo tenisean erabiltzen boleibolean baizik, baloi hauek boleibolean aritzeko objektu espezifikoa dira. Eta gorputz hezkuntzan erabili dira.



Irudia 7: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako pilotak.

Orain, irudian ikusten diren pilotak pilota ehiztaria zein palak eta erraketak bikoteka jarduera motorrak egiteko erabili dira. Objektu hauek ez dira espezifikoak eta pilota behar den edozein jardueran erabil daitezke, hauek ere neskek eta mutilek erabili dituzten pilotak dira.



Irudia 8: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako eskupilotak.

Baina, irudian ikusten direnak pilotak badira ere, esku pilotan aritzeko espezifikoak dira, neskek eta mutilek erabili dituztenak.



Frontoian aritzeko egurrezko palak eta plastikozko erreketak

Kautxuzko saskibaloiko baloiak

Nylonezko sokak

Eskupilotan aritzeko narruzko pilotak

Irudia 9: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako material desberdinez eginiko objektuak.

Behatutako gorputz hezkuntzan erabili diren objektuak industrializazioarekin batera eta ondorioz eman zen aurrerapen teknologikoari esker sortutako materialez eraikita daude. Nylonezko sokak, plastikoz eraikitako baloiak, pilotak eta erraketak edo goma-azalarekin egindakoak, kautxuzko azalera eta latexezko kamera duten baloiak adibide batzuk izan dira. Material naturalez eraikitako objektuak egurrezko palak eta narruzko pilotak izan dira.

Ondoren, behatutako gorputz hezkuntzan proposatu diren jardueretan erabili diren objektuek hartzen duten zentzuaren azterketak esanguratsua izan dadin kulturak generoaren ikuspuntua aintzat hartuz, objektuei ematen dieten esan nahia arakutzen da.

4.2.7. Gorputz hezkuntza eta kontsumoa

Kurutziaga ikastolaren hezkuntza proiektuan arreta jarritz gero, ikastolak ingurumenarekin lotuta dauden arazoez jabetzea azpimarratzen du: “Gure ikasleek ingurumenaren arazoak ezagutu eta horietaz jabetu daitezene nahi dugu” (Kurutziaga Ikastola, 2010, 3 or.). Ikastolak ekologikoki iraunkorra den hezkuntza praktika bermatu nahi du, ikasleei “... modu arduratsuan, gizarte justuago eta ekologikoki iraunkorrago baten alde egiten lagunduko dien hezkuntza praktika proposatzen dugu Kurutziaga ikastolan. Hori hezkuntza komunitate osoaren lana dela deritzogu” (Kurutziaga Ikastola, 2010, 3 or.). Geroago, curriculum ardatzak atalean oinarritako hezkuntzarako hezkuntza xedeak zehazten dira, eta hemen ere, sarreran aurreratutakoa garatzen da. Horrela, “ikasleak prestatu...; gizartearen partaide eraginkorrek eta ingurugiroarekin zain garapen iraunkorarekin konprometitutako herritarrak izateko, alegia” (Kurutziaga Ikastola, 2010, 8 or.) xedeak zehazten da.

Ikastolaren hezkuntza proiektuaren curriculum oinarriak atalean ikastolak sustatu nahi duen pertsona eta gizarte ereduaz mintzatzerakoan neska eta mutilei eskaintzen dien hezkuntza ibilbidean gizakiaren hiru gaitasun ardatzak aintzat hartuz gauzatu behar dela baieztatzen du: “hezkuntza jardunbidearen helburua giza konpetentzien garapen mailarik handiena lortzea dela uste dugu, bere izaera hirukoitz eta bereizi ezinean: norbanako subjektu gisa, gizarteko kide gisa edo partaide gisa eta naturako partaide gisa” (Kurutziaga Ikastola, 2010, 5 or.). Geroago, curriculumaren ardatzak atalean, bizitza osorako hezkuntza xedeak zehazterakoan hiru konpetentzia hauek garatzen dira eta subjektu gisa “... ikasle bakoitza subjektu autonomoa dela eta, besteekin batera, bere biografia eraiki behar duela uste dugu” (Kurutziaga Ikastola, 2010, 7 or.) zehazten da; gizarteko kide gisa “... ikasle bakoitza kultura aniztasuneko esparru batean bizi den euskalduna dela uste dugu” (Kurutziaga Ikastola, 2010, 7 or.) baieztatzen da; eta naturako partaide gisa “... ikasle bakoitza, kosmosean eta lurrean bizi den giza espezieko izakia dela uste dugu” (Kurutziaga Ikastola, 2010, 7 or.) azaltzen da.

Kurutziaga ikastolak ikuspuntu ekologikotik inguru naturalarekiko ardura sustatzea gaur bizi dugun gizarte kontsumoan aintzat hartu beharreko gaitzat hartzen du, ikaslearen autonomia bermatuz ingurumenarekiko ardura garatzeari balioa ematen dio, hau da, banako izaeratik ingurugiroarekiko erabaki pertsonalak hartzerakoan autonomian jartzen da arreta, erabakitzen duen banako subjektua gizarte batean bizi dela ahaztu barik. Zentzu honetan, kontsumismoak, oparotasunaren gizarteak eta objektuaz jabetzea sortzen duen plazeraren gizarteak bermatu duen banakotasun pribatutik urrun geratu nahi du.

Gorputz hezkuntzako irakasleak proposatzen dituen jarduera motorren barne logikak objektuen erabilera ezartzen duenean irakasleak ezin du erabaki objektu barik egitea, baldin eta aukeratutako jarduera motorren barne logikak objektua erabili beharra dagoela zehazten badu. Irakaslearen erabakian objektua ez erabiltzea izango balitzateke, beste jarduera motor bateri buruz aritu ginatke.

Adibidez, zesta punta denak⁷⁰ jarduera motorrean ikasgela osoak hartzen du parte. Frontoiaren aurreko hormaren aurrean kokatzen dira, larruzko pilota baterekin eta bakoitza eskuan lotuta xistera banarekin. Helburua pilota xisteran sartu eta aurreko hormaren kontra eramatea da. Bete behar honetan, pilotari lurra birritan jo ostean xisterarekin hartuz gero edo pilotak aurreko horman lurretik metro batera dagoen txapan edo txaparen azpian joz gero akatsa da eta sakea aurretik ondo egin duen azkenak egiten du. Jarduera irakasleak minutu batzuen ondoren zeregina bukatutzat ematen duenean amaitzen da.

Zesta punta jardueraren arauak objektuak erabiltzea eskatzen du: pilota eta xistera. Objektu bietako bat eta biak kentzen baditugu zein izango litzateke jarduera, neskek eta mutilek zeren arabera hartu beharko litzateke erabaki motorrak?

Era berean, korrika jarduera motorrean, ikasgela osoak hartzen du parte... zelaira heldu bezain pronto ilaran, bata bestearen atzetik, korrika hasten dira. Helburua erritmoa mantenduz eta indarrak neurtuz futbito zelaiari birak eman ez korrika egitea da. Horretarako, ikasle bakoitzak... zelaiari, bost buelta eman behar ditu, bata bestearen atzean doazelarik. Jarduera ikasle bakoitzak zelaiari bost buelta eman ondoren amaitzen da. Korrika jardueraren arauak ez dute objektuaren erabilera eskatzen. Baina, irakasleak ikasleak korrika doazen bitartean baloi bat botatzea eskatuko baliekete neskek eta mutilek korrika ekiteaz gain baloia desplazatu beharko lukete, burutzen dituzten akzio motorrak korrika eta baloia aldi berean botatzea lirateke. Beste jardueraz arituko ginatke.


Hala eta guztiz ere, irakasleak objektuekiko hartzen dituen erabakiek egiten den azterketaren emaitzetan eragina izan dezaketela ohartu behar gara. Esate baterako, korrika jarduera motorra saio praktikoa bakoitzaren hasieran ikasleek betetzen duten jarduera da. Baina, errugbia lantzeko saio praktikoe-

tan ikasleek errugbia praktikatzeko gerrikoa eta zintak erabili behar dituztenez, hasieratik ipintzen dituzte, beti, irakaslearen aginduz eta baimenaz. Gerrikoa eta zintak ez dira korrika egiteko behar diren objektuak, baina ikasleek korrika jarduera burutzen duten bitartean gerritik zintzilikatuta eramaten dituzte. Adibide honetan, gerrikoa eta zintarekin edo gerrikoa eta zinta barik jarduteak ez du jardueraren mamia aldatzen, baina jarduera motorra objektuarekin burutu dela zehaztu behar da. Bi aukeren artean: objektua bai/objektua ez, irakasleak objektuarekin aukeratu du.

4.2.7.1. Objektuen erabileran iraupena

Zentzu honetan, lehenengo eta behin, irakasleak proposatutako jarduera motorren barne logikak ezartzen dituen arauetan eta irakasleak objektuekiko hartu dituen erabakietan oinarrituz behatutako gorputz hezkuntzan objektuak erabili diren edo ez ezagutu nahi da. Objektuen erabileraren iraupenak ematen dizkigun datuen arabera bi aukeren artean zein nagusitu den ezagutu nahi da.

Behatutako gorputz hezkuntzan burutu diren jarduera motor guztietan objektuen erabileraren iraupena ezagutu nahi da.



Irudia 10: Behatutako gorputz hezkuntzan objektuen erabilera.

Grafikoak adierazten duen bezala, behatutako gorputz hezkuntzan, objektuen erabilerari dagokionez, objektuen beharra duten jarduerak nagusitu dira, %79,7arekin (3677 min.). Neskek eta mutilek, akzio motorrak burutzerakoan objektuen garrantziaren balioan hazi dira. Bakarka, besteekin edota espazioarekin harremanetan, esku utzik aritzearen garrantzia jarduera guztien iraupenaren %20,3ean (939 min.) soilik ikusi da, hala ere, bakarka, besteekin edota espazioarekin harremanean bitarteko bakarria gorputza bera izan daitekeela ere ikusi dute.

Behatutako gorputz hezkuntzan irakasleak proposaturiko saio praktikoean jarduera motorrak gauzatzeko neskek eta mutilek objektuak erabili behar izan dute nagusiki. Burututako jarduera motor guztiak aintzat hartuz, objektuen erabilerak pisu handiak izan du. Neskek eta mutilek, beraz, objektuaren garrantziaren balioan hazi dira.

Gorputz hezkuntzako saio praktikoen behaketaren ondorioz, objektuak erabili direla baieztatu da eta erabiltzeak garrantzia izan du. Baina, nolako izan da ikasleek objektuekiko izan duten harremana?, eta, nor da gorputz hezkuntzan erabili diren objektuen jabea?.

Gorputz hezkuntza gauzatzeko erabili diren espazioen artetik bat gimnasioa da. Gimnasioan bi gela txiki daude eta bietan gorputz hezkuntza praktikatzeko materiala gordetzen da. Irakasleak, burutu behar den saio praktikoa- ren arabera erabili behar diren objektuak ateratzen ditu, berak erabakitzen du zeintzuk eta zenbat eta saioaren hasieran materiala praktika burutu behar den espazioan dago. Batzuetan ikasleren batek lagundu izan dio, baina gehienez irakaslea izan da materialaren arduradun nagusia.

Gimnasioko bi geletan gordeta dagoen gorputz hezkuntzako materiala ikas- tetxeak erositakoa da. Beraz, lehenik, ikasleak ez dira gorputz hezkuntzara etxe- tik materiala erosteko arduratu behar eta bigarren, ikasleek ez dute beraiek nahi duten materiala aukeratzeko (kirolari ospetsu batek sinatutako saskibaloia edo fut- bol baloia, teknologia puntako bizikleta edo merkaturatua atera den azken mate- rial arinenarekin eginiko erraketa). Ikasleek ez dute marka komertzialak era- kusteko eta, ondorioz, ez dute bere burua nabarmentzeko aukerarik.

Bestetik, ikastolak erosten duen gorputz hezkuntzako materiala aztertze- ra- koan, nagusiki, espezializazio ikusten da. Beraz, behatutako gorputz hezkun- tzako materialari dagokionez espezializazioa egon dela esan daiteke, hau da, kirol modalitate bakoitzerako material espezifikoa dago. Baina, espezializazioak ez du oparotasuna esan nahi, zeren eta ikastolak kirol bakoitzari dagokion mate- riala erosterakoan material estandarra erosi du. Adibidez, saskibaloia, boleibola edota errugbia praktikatzeko merkatuak gorputz hezkuntza praktikatzeko fabri- katzen dituen baloiaz hornitu da, marken arteko aldea nabarmentzen ez dela.

Behatutako gorputz hezkuntzak kirolean bezala materialen espezializazio bat erakutsi du. Eta bestetik material hori komunitarioa izan da, neskak eta mutilak markei esker besteengandik nabarmentzeko aukera izan barik.

4.2.8. Objektuen generoa kontsumo kulturalan

Ondasunak eskuratzeak zorientasunera eramaten gaituela pentsamendua gizakien bizitzan erdigunean jartzean materialismo kultura definitzen da. Gene- roaren ikuspuntutik materialismoaren kultura eta kontsumoa aztertzerakoan emakumeek eta gizonen jarraitzen dituzten ereduak desberdinak direla baieztatu da. “Emakumeak modako janzkeran gizonak baino askoz gehiago hartzen du parte” (Segal eta Podoshen, 2012, 190 or.), emakumeak norbera adierazteko erosten eta lortzen dituen objektuak islatu nahi duen itxuraren erabilerari ematen dio garrantzia. Baina gizonak irauten duten objektuetan jartzen du arreta, pro- duktuaren erabilerari garrantzia ematen dio, independentzia eta ekimena adie- razten dituzten objektuez jabetzea bilatzen du, adibidez, kotxea. Kontsumitzaie- leen konfiantza indizea ezagutzeko 2013ko martxoko *centro de investigaciones sociológicas* web orrian ikerketaren emaitzen aurrerapenean irakur daitekeen

lehenengo galdera “azken sei hilabetean, zuk edo zure familiako inork ondoren agertzen diren ondasunen bat lortu du?” (CIS, 2013, 1 or.) da. Etxerako altzairu edo ordenagailuen erosketan gizon eta emakumeen arteko aldea ez da nabaria, baina kotxea edo motoaren erosketan gizon eta emakumearen arteko aldea 2,6koa⁷¹ da: gizonak 4,9 indizea erakusten du eta emakumeak 2,3.

Emakumea bere izaera eta ezaugarri emozionalak adierazteko erosten ditu objektuak (jantziak, osagarriak, oinetakoak). Gizonak ezaugarri instrumentala duen objektuekiko joera erakusten du, askatasuna eta akzioa sustatzen duen objektua erosi eta lortu nahi du. “Amerikar gizonak materialismoan emakumeak baino gorago kokatzen dira” (Segal eta Podoshen, 2012, 192 or.). Horrela, auto- reek gizonak materialismoan eta kontsumoan emakumeak baino gorago koka- tzen dira; emakumeak erosketan konpulsiboan gorago daude; eta markari leial- tasunari dagokionez, desberdintasun nagusiak ez daudela ikusi dute.

Kirol praktika askok tresnen erabilera eskatzen dute. Xabalina, pertika, taldeko kirolean baloia, erraketak tenisean edo irristailu skatean objektuen erabilera akzioa egiteko bitartekari bihurtu dira, hau da, erabilera instrumentala adibi- deak dira. Gaur, aurreko une historiko guztietan baino emakume kopuru handi- enak praktikatzeko kirola edota kirolaria da. Baina, “kirol gehienez eraikitza- ziala menperatze maskulino eta menpekotasun femeninoaren historia luze eta errukigabe batean oinarritzen da” (Hargreaves, 1993, 109 or.), zeinean “kirola gizonen eremu naturala dela” (Hargreaves, 1993, 122 or.) sinestaraztera eram- an du. Arestian azaldu bezala, kirolean kirol materialen teknifikazioak eta espezia- lizazioak emaitza onak eta errekorak lortzeko aukerak erraztu dituzte, baina batez ere gizona izan da tresnen espezializazioan hasia izan dena.

Bestetik, kirol materialen espezializazioak emakumeen parte hartze maila erraztu duela esan daiteke. Dunningek (2003) azaltzen duen bezala kirol materialen espezializazioa garapen zientifiko eta teknologikoari esker eman da eta gizon eta emakumeen arteko botere desorekek “garapen zientifiko eta teknologiko maila baxuak direnean gizarteetan altuak izateko joera dute, eta alderantziz” (Dunning, 2003, 265 or.). Horrela, malguagoa eta pisu gutxiago duen pertikak indar eskakizun txikiagoak ditu, igeriketa probetarako urarekin igurtzimendu gutxiago duen bainu jantziak⁷² diseinatuz gero, gizonak erre- korak ezartzeko aukera gehiago du, baina, emakumeak ere bai.

⁷¹ Lansaria soldatan neurtzen denean “erosteko ahalmenean, emakumeen eta gizonen arteko aldea izugarria da” (Emakunde, 2010b, 71.). Izan ere, errenta sexuaren arabera aztertuz gero, gizonen errenta EAE-n 25.258 eurokoa da eta emakumeena 14.534koa (Eustat, 2013a). Beraz, kontsumitzen diren objektuak soldataren menpe egongo dira. Hala ere, objektuen pre- zio berdina edo antzerakoaren aurrean, adibidez, laban bat edo gorputz kremaren artean, emakumeek eta gizonen egiten dituzten aukerak desberdinak dira.

⁷² Foxsports web gunean eskegita dagoen *Tecnologías en trajes de baño* izeneko bideoan entzun daiteke bezala, goi mailako txapelketarako (Londreseko 2012ko JJ.OOetan) igerilarien bainu jantzien materialen abantaila teknologikoak azaltzen dira. Horrela, “konpresio elastikoak gor- putza zuzen joan dadin eta era honetan, uretan hobeto irristatzeko” (Foxsports, 2012), edo ura uxatzeko materialarekin eginikoa bezalako baieztapenak eta azalpenak entzun daitezke.

Euskal Autonomia Erkidegoan eskaintzen diren kirol guztietan emakumeek eta gizonak erakusten duten kirol parte hartze mailak kirolean zeinek izaten duen objektu erabilgarri eta espezializatuekin kontaktu gehiago esaten dute. Gogoratu, parte hartzeak aukera bat egiten dela azaltzen duela.

Taula 25: EAE-n 2012an emakume eta gizonen kirol parte hartze maila.

	emakumeak	gizonak
Kirolak EAE-n	%19,82	%80,18

Iturria: EAE-n kirolarien lizentzia federatuen kopurua. Datuak sexuka (EJGV, 2013)

Era honetan, EAE-n 2012an kirolarien lizentzia federatuen kopurua txostenean (EJGV, 2013) zerrendatzen diren kirolak⁷³ tresnaz baliatzen direla ikusten da, azterketa generoaren ikuspuntutik eginez gero, gizonen parte hartze maila handiagoa dela baieztatzen da (%80,18). Beraz, gaur, emakumeak gizonak bezala kirolean parte hartzen badu ere, ez du era berdinean egiten. Parte hartze mailari dagokionez, emakumeen objektuen erabilgarritasunaren ezaugarriaz bustitzeko joera saihesten dela. Objektu instrumentalen kontsumorako joera erakusten duten gizonen kirolen tresna instrumentalak eta espezializatuak gogoko dituztela inferitu daiteke.

Kontsumoa bera plazera iturrian bihurtzen denean, helburua jabetzea baino jabetzeak sortarazten duen plazeraz gozatzea da. Eta gizonak eta emakumeak plazera lortzeko objektu desberdinetan jartzen dute arreta. Gizonak askatasunaren, akzioaren eta kontrolaren plazeraz gozatzea bilatzeko joera erakusten dute. Potentzia handiko kotxeak kontrolatu edo motoan bidetik askatasunaz joan adibide batzuk dira. Emakumeak norbera adieraztearen plazeraz gozatzea bilatzeko joera erakusten dute.

4.2.9. Gorputz hezkuntzan objektuen erabilera eta zentzua gizartean

Objektuekin ezartzen den harreman era kontsumo kulturak ezarri du. Merkatuek zabaltzen dituzten objektu heterogeneo anitzak aukeratzeko bermeak era berean, norbanako autonomia pribatua bermatu du. Indibidualismoaren printzipioa areagotuz. Garrantzitsua eskubidean bihurtu arte bakoitza norbere

⁷³ EAE-n kirol federatuen eskaintza kirolarien lizentzia federatuen kopurua txostenetik lortua. Txostenean zerrendatzen diren kirolak ondorengoak izanik. Denetan objektu espezifikoez baliatu behar da eta ezaugarri instrumentala betetzen dute: aire-kirolak, areto futbola, arku-jaurtiketa, arrantza eta castinga, arrauna, atletismoa, automobilismoa, badminton, beisbola eta softbola, bela, boleibola, boloak, borroka eta sanboa, boxeoa, ehiza, errugbia, esgrima, eskubaloia, euskal pilota, futbola, gimnastika, grolfa, halterofilia, herri-kirolak, hockeya, igeriketa, irristaketa, judoa eta gisakoak, karatea, kirol egokitua, mahai-tenisa, mendizaletasuna, motoziklismoa, negu-kirolak, petanka, piraguismoa, saskibaloia, squash, surfa, taekwondo, tenisa, tirol olinpiarra, triathloia eta kirol konbinatuak, txirrindularitza, ur-azpiko jarduerak, xakea, zaldiketa.

buruaren jabea izatea da. Modaren industriak teknologiaz baliatuz azken gailu teknologikoena izateko beharra areagotu du, izateak lortzen duen banako plazerarekiko adizioa sustatu arte.

Modaren marken kontsumoa praktika fisiko eta kirol esparruan guztiz hedatuta dagoela ikusten da. Kirol tresnen teknologiak espezializazioa areagotzen du, ezaugarri instrumentala duen kirol tresna errekorak gainditzeko objektuan bilakatu da. Gizonen gogokoena duen ezaugarria, emakumeak norbere izaera adierazteko objektuarekiko joera duen bitartean.

Baina, kontsumo kulturalen marken modaren industria emakume eta gizonenaren gaitasuna heldu da. Markak bizitzeko eredu bat finkatzen du, eta emakumeak eta gizonak ereduaren aukera egiten dute.

Nola edo hala, banako aukera pribatua agerian eta aldi berean difuminatuta kontsumo kultura dago. Gai soziala bihurtu dena. Zentzu honetan, hezkuntza sistemak kontsumo kultura mamuaren aurrean erabakiak hartu ditu. Nagusiki, autonomiaz ekiteko garrantzia ematen dio, baldin eta ingurune fisikoarekiko harremanean arduratsu jokatzen bada. Gorputz hezkuntza arloak objektuak erabiltzen dituen neurrian, objektuekiko beste harreman mota ezar daitekeela erakusteko arloan bihurtuz.

Behatutako gorputz hezkuntzan arreta jarritz gero, banako autonomia pribatua saihestu da. Ikasleei materiala etxetik (erosteko) aukera ezeztatzerakoan, neskek eta mutilek ez dute modan jarri den azken gailua (bizikletak, baloiak, erraketa arinak, goi mailako txirrindularientzako fabrikatzen diren kasko aerodinamikoak...) erosteko aukerarik, ez dute banako aukera egiten, baizik eta ikastolak gorputz hezkuntzako arduradunen bitartez material komunitario eskaintzen du, kirolarekiko espezializatu eta estandarra.

Bestetik, eta Kurutzia Ikastolan neskei eta mutilei hezkuntza programa bera une eta gune berean eskaintzen zaiela gogoratu, behatutako gorputz hezkuntzak sustatu duen objektuekiko kultura komunitarioaren balioan neskak eta mutilek hazi dira. Behatutako gorputz hezkuntzak neska eta mutilek objektuen erabileran gizarte kontsumistak bermatu duen banakotasun pribatua eta autonomia sustatu beharrean, kontziente edo inkontzienteko, familia taldearen kultura komunitarioa sustatu du. Baina, objektuen erabilgarritasun irizpidean arreta jarritz, gizonen objektuen aukerarekiko ezaugarria sustatu da. Gorputz hezkuntzan gauzatu behar diren zeregin motorrak burutzeko objektuen beharra dagoen neurrian arloa objektuaz hornitu da eta gainera, akzioari lotutako objektu espezifikoez baliatzen da eta neskei eta mutilei materiala komunitarioa eskaini die.

Laburbilduz, gizartean kontsumo kulturak sustatzen dituen autonomia pribatua eta banako aukerak bai emakumeak norbera adierazteko joeran eta gizonen erabilgarritasun objektuekiko joeran jarraitzen dituzten ildoak dira. Behatutako gorputz hezkuntzak gizartearen bai emakume eta gizonen ildoaren aurka objektuekiko kolektibitatearen propietatea eta ardura sustatu ditu, objektuen behar izaiteari eman dio garrantzia. Objektuen erabilgarritasunarekiko gorputz tekniken

eraikuntzaren garrantziak gizonetzkoen aukerak islatuz. Lehen Hezkuntzan gorputz hezkuntzaren bitartez neskak eta mutilak gizonen akzioa ezaugarriari lotutako objektu espezifikoen garrantzian eta familia taldean bezala, objektuekiko arduraren hazi dira. Behatutako gorputz hezkuntzak Lehen Hezkuntzan generoaren arteko desoreka saihestu nahian gizonen aldera egin du.

4.3. Ingurune fisikoaren izaera

Nola edo hala, gizabanako bakoitzak leku bat betetzen du. “Lekua definitzen dutenak praktika sozio-espazialak dira” (McDowell, 2000, 15 or.) eta espazioetan ematen diren elkarrekintzen arabera leku mota desberdinez hitz egiten da: espazio naturalak, eraiki artifizialez antolatutako hiriak eta herriak, eraiki artifizialen barneko azpi espazioak, hau da, egongelak, logelak, balkoiak zein sarrierak. Espazio mota guztiak lekuen aniztasuna dakar eta aniztasun horretan gorputza “gizabanakoa dagoen espazioa da” (McDowell, 2000, 59 or.). Espazio mota bakoitzarekin harremanak gizabanako nortasuna eraikiz.

Izan ere, gizarte bateko kultura ezagutzeko bide bat espazioetan ematen diren portaeren azterketatik dator. Hain zuzen ere, “gizakiari dagokion kulturaren garapen espezializatuaren ondorioz gizakiak egiten duen espazioaren erabilereko behaketak, elkar harremanak eta teoriak adierazteko” (Hall, 1973, 15 or.) bezala definitzen den proxemia noziotik. Horrela, pertsonen arteko harremanetan gizarte batek baimentzen dituen distantzia fisikoak kultura bakoitzak baimentzen dituen giza portaeren arabera erabiliko dira. Adibidez, harrapatzailea harrapakina hartzen duenean distantzia, boxeoa ukabila emateko behar den distantzia edota maitasunarekin lotutako akzioak Hall⁷⁴ antropologoak sailkatu zuen distantzia estuan ematen dira. Distantzia hau luzatzen doan neurrian distantzia pertsonala, soziala eta publikoa berezitzen. Distantzia fisiko hauek agertzeko espazioen ezaugarriak zer esan handia izanik. Horrela, ezaugarri finkoak dituen espazioak “gizabanako eta taldeko jardueren oinarritzko antolakuntza eretariko bat osatzen du” (Hall, 1973, 164 or.). Hirietako eraikuntzak espazio honen adibide adierazgarriak dira, baina baita ere eraikuntza barneko antolakuntza espaziala: sukaldea, logela, jangela, komuna, liburutegietako ikasteko edo irakurtzeko espazioak... Espazio hauek kultura bakoitzaren arabera antolatuta daude. Adibidez, “gaur egun, lo gelak ordu gutxi egoteko eraikiak daude” (Cevedio, 2003, 78 or.). Bestetik, ezaugarri erdi finkoak dituen espazioak “eragin sakona izan dezake portaeran” (Hall, 1973, 174 or.), adibidez, egongelako altzariek egituratzen diren arabera portaera batzuk agertzen eragina izan dezakete: jesarlekuak aurrez aurre jaritzeak, adibidez, gizakien arteko elkarrekin zentzuzko baxuago dela ikusi da. Eta azkenik, ezaugarri informala duen espazioak “besteekin topo egitean gordetzen diren distantziak hartzen ditu” (Hall, 1973, 175 or.).

⁷⁴ Edward T. Hall antropologoak eginiko behaketa eta ikerketen ondorioz distantzia estua, pertsonala, soziala eta publikoa bereiztu zituen eta distantzia mota bakoitzean portaera eta emozioak desberdintzen direla ikusi zuen.

Guztiarekin, gizakiak eraikitako espazioen ezaugarri finkoa, erdi finkoa eta informala arabera pertsonen arteko harremanetan distantziak baimenduko dira. Espazio hauek pribatuak edo publikoak izan giza portaerak desberdintzen.

Baina, proxemiak espazioetan pertsonen arteko elkarrekintzen formak eta beraiek betetzen dituzten funtzioak kulturaren arabera aztertzea interesantea egiten bada ere, bereziki, espazioen azterketa ziurgabetasunaren ikuspuntutik azterketa egin da. Ziurgabetasuna “egoera motorraren hainbat osagaiei lotutako ustekabe maila” (Parlebas, 2001, 248 or.) bezala definitzen dela gogoratu. Espazioarekiko ziurgabetasunak, beraz, espazioaren ezaugarriak direla eta inguru fisikoak bidaltzen dituen zeinuen deskodifikazioa mugatzen du.

Eraikitako espazio artifizialez gain, espazio naturalak bereizten dira. Gizakiak ukitu ez dituen espazioak dira eta era gordinean aurkitzen ditugu. Itsoak, mendiak, errekek, lakuak, haitzulo naturalak, basoak eta landak espazio naturalak dira.

4.3.1. Espazio mota desberdinen ezaugarriak

Gizakiak espazioetan izan duen eraginaren arabera nagusiki bi espazio mota bereiz ditzakegu. Alde batetik, gizakiak eraikitako espazioak eta bestetik, espazio naturalak.

Eraikitzen diren espazioak lehenengo proiektu bat egon delako sortzen dira, proiektu horretan eraiki den espazioaren erabilera zehaztuta dago eta horrek ematen dio eraikuntzari ezaugarri politikoa eta etikoa. Era horretan, gizakiek betebeharreko funtzioak espazio mota desberdinetan gauzatzen dituzte: gobernu funtzioak betetzeko eraikuntza publikoak, bideak hiri eta herrien arteko komunikaziorako, bizilagunen arteko harremanak bermatzeko aisialdi lekuak (tabernak, kaleak, plazak, kiroldegia), ekoizten diren produktuak saltzeko dendak edota plazak, funtzio estetikoekin gimnasioak eta familia osatzeko etxe partikularrak espazio horien adibideak dira. Guztiak aintzat hartuz, espazio publiko eta pribatuaren arteko banaketa ikusten da zeinetan espazioa betetzen dutenengan portaera arauak ezartzeaz gain, espazio horien ziurgabetasun mailaren arabera jokabide desberdinak izaten dira.

Espazio pribatuaren adibide adierazgarriena etxea da. Eraikitako etxe artifiziala, Euskal tradizioan baserriaren “barruko eremua elikagaien produkzioa eta banatzeari, garbitzeari eta atsedean hartzeari begira antolatuta zegoen... Etxaldean tresnak, animaliak eta basoak zeuden” (Etniker, 2011, 84 or.). “Etxea hitzak euskaraz zuen esanahi bikoitza, izan ere, etxea nahiz familia esan gura du... familia eta etxea kontzeptuek etxeok euskal terminoa biltzen dute” (Etniker, 2011, 79 or.). Etxeko etxea eraiki bat baino gizakiaren “barne eta buru-munduari, mundu afektiboari, lotutako elementua da” (Etniker, 2011, 82 or.). Tradizioan senar-emazte, hauen aita eta ama eta beraien seme alabez osatutako familia “Euskal gizarte tradizionala behatuz gero, oso profil argiak, zehatzak eta konstanteak dituen instituzioa” (Caro Baroja, 1971, 207 or.) izanik.

Giza ordenari jarraituz espazio hauek portaerak gauzatzeko guneak dira: lan orduen osteko atsedena hartzeko lo gela, osasun eta higiegi ohiturak gauzatzeko komuna, entretenitzeko eta etxeekiko harremanak finkatzeko egongela edota ugaltzeko logela etxe barneko mikro espazioak dira. Baita, eremu publikoetan baimentzen ez diren distantzia estuak agertzeko lekua da etxea. Etxea gizataldearentzat (familiarentzat) babes tokian bihurtu da eta, aldi berean, norbera izateko espazioa da.

Bestetik, gizakiak eraiki dituen plaza, kaleak eta lantegi espazio publikoak arrisku, estutasuna, jazarpena eta erasoen lekuak badira baimendutako distantziak gainditu direlako da eta ez espazio berak dituen ziurgabetasunarekiko ezaugarriengatik.

Baina, naturan eginiko praktikek etxetik urruntzea eskatzen dute, “nekazaritza eta abeltzaintzatik haratago, artzaintzari edo arrantzari lotutako bizimoduan...” (Etniker, 2011, 85 or.) basoa zein itsasoa espazio naturalen ziurgabetasunarekiko ezaugarrien pean gizabanakoaren jokabideak azaleratzen dira.

Etxetik hirira eta gero naturara ziurgabetasun maila desberdinak agertzen dira. Etxea zero mailaren lekua izanik, naturak maila altuena erakutsiko luke. Kanpoko ahalezko erasoetatik babesteko atea zarratzen dugunean, babestuta sentitzen gara eta egoera kontrolpean dugu, baina, espazio naturaletan ez dago aterik.

4.3.2. Espazioarekiko ziurgabetasun kontzeptua

Ziurtasuna gizakiok bilatzen dugun egoera da, lana izango dugula, lagunak, zorientasuna, bidean ez galtzeko ziurtasuna nahiago dugu. Ziurtasunak egoera egonkortzen du, ez dago ustekaberako lekurik, lasaitasuna eta erosotasuna gizarte modernoetan asko baloratzen diren balioak izanik.

Bestetik, eguneroko bizimodutik ateratzeko eta errutinarekin apurtzeko gizakiari zirrara sortzen dizkion jardueren bila ere joaten gara. Frontoietan egiten diren apustuak, mendi irteerak oinez, eskiekin zein motorrean, puenting edota mendi maldaren behera itzulipurdika joateak ziurgabetasun eza egoera zapuzten dute. Baita basotik eta menditik basurdearen bila dabilen ehiztaria, ardiak zaindu eta bilatzen dituen artzaina, itsasoan olatuetan irristatzeko sartzen den surflaria ere ziurgabetasun espazioetan murgiltzen dira.

Gutziz kontrakoak diren bi egoerak inguru fisikoarekiko ziurgabetasun kontzeptua definitzen dute. Hain zuzen ere, gizakiok jardueretan parte hartzerakoan ardatz nagusian bihurtzen den nozioa. Eta Parlebasek “gizakiak ingurunean egiten dituen kodifikazio maila eta aldaketa bere praktika motorretan aritzeko, eta bereziki naturan praktikatzeko diren jarduera motorrak egiteko” (Parlebas, 2001, 155 or.) bezala definitu zuena. Ingurune fisikoarekiko ziurgabetasunak “mundu materialaren osagai objektiboekiko ingurunearen estimuluak zeinen ezaugarriak diren aurreikustea askotan zaila da (lurraren gogortasuna eta inklinazioa, haizearen indarra eta norabidea, elurraren kali-

tatea, oztopo eta korranteak, tresnen eta ingurunearen propietateak...)” (Parlebas, 2001, 248 or.) irakurtzea eskatzen du.

Espazio artifizialean jarduerak burutzeko (bulegoan lana egin, parkean ibilalditxoak, etxean janaria prestatu...) ez dago ingurune fisikoan dauden zeinuak deskodifikatu beharrik, beraz gizakiok ez dugu espazio horiek irakurri eta portaerak etengabe egokitu beharra. Etxean edo kalean ziurgabetasun maila berdina ez bada ere, espazio artifizialekin harremanean ziurgabetasun maila baxua da eta etxean zeroa. Etxean espazioarekiko zeinuak etengabe irakurtzeko beharrik ez dago, eremuak egonkor mantentzen baitira. Espazio artifizialean kontrola eta babesa ezaugarriak dira, “natur basati batez inguratua, etxeak eguraldiaz eta animalien erasoaz babesten du” (Etxebeste, 2012, 22 or.). Horrela, espazioekin harremanean dagoen kodifikazio mailaren arabera Parlebasek definitutako espazio etxekotuak eta basatiaz hitz egiten da. Eta bi espazio moten arteko ziurgabetasun mailaren *continuum*-a dago.

Eskalaren etxekotze muturrean “gizakiagatik sakonki egokitutako eta landutako testuinguruan garatzen diren jarduerak batzen dira” (Parlebas, 2001, 155 or.). Adibidez, kirolak praktikatzeko espazioa “uniformea, mugiezina eta artifiziala egiteko joera dago” (Parlebas, 2001, 155 or.), estadioak, belodromoak edota pisinak adibide batzuk dira, zeinetan inguru egonkorra eta konbentzionala izaten da. Eskalaren beste muturrean, espazio basatia legoke zeinean jarduerak “gutxi aldatu den naturan garatzen dira” (Parlebas, 2001, 156 or.), mendi zeharkaldiak edo kanoan abenturazko jaitziera inguru basatian egiten diren jarduera motor batzuk dira. Emozio berriak bizitzeko gaur gizakiak naturako legeei aurre egiten die. Abenturako kirolean (trekking, rafting, hegaz egitea, sakan artetik doan erreken jaitziera...) gainditu beharreko oztopoei aurre egiten da. “Sakanean ur-emia gainditu beharreko oztopo handiena da” (Palau, 1994, 13 or.). Raftingean ur biziak kontrolatu nahian ontzian daudenak “aurkezten joaten diren oztopoak saihesteko adi egon behar dira” (Palau, 1994, 66 or.), ur-zurrumbiloak eta ur-lasterrek parte hartzaileak ontzitik ez botatzeko. Espazio naturalen arriskua agerikoa da, arriskua “probabilitate eta ziurgabetasun nozioetatik banandu ezin den kontzeptua da” (Giddens, 2000, 6 or.). Naturan ematen diren prozesu guztiak ezin dira kontrolatu; aldagai guztiak menperatzea ezinezkoa da. Praktika horien ezaugarriak zerbait galtzeko konpromisoa eta egoera gutziz kontrola ezina izatea dira

Etxekotu eta basati kontzeptuen arteko *continuum*-a azaltzeko. Urmael artifizialean ondo mugatutako korridoretan egiten diren lasterketek, gutziz etxekotu espazioaren egoera azaltzen dute. Artifizialki mugatutako espazio honetatik datorren ustekabe eza eta ziurgabetasun eza osoa da. “Informazio dimentsioa ea gutziz ezeztatuta geratzen da eta deskodifikazio semiotorra⁷⁵ alde batera utzi daiteke” (Parlebas, 2001, 158 or.).

⁷⁵ Deskodifikazio semiotorra: “aurretiko esperientzietan ikasitako kodeen laguntzarekin testuinguruaren edota besteen portaeraren interpretazio prozesua, parte hartzailearen akzio motorra egiten duen bitartean adierazten dena” (Parlebas, 2001, 146.).

Baina, erreka naturalean ibilbidea atekin eta kordelekin mugatzen bada ere, naturaren zeinuetara egokitu beharra dago eta ziurgabetasun maila areagotzen da, ur bizietan egiten den esaloma guztiz basatia den espazioaz hitz egin beharrean partzialki egokitutako espazioaz hitz egin behar da. Eta ibilbidea mugatzen dituzte kordelak eta atek kenduz gero abenturako jaisiera jarduera motorra azaltzen da, guztiz basatia den espazioan praktikatzeko dena.

Eraikitako ur lasaien urmaelak, eraiki publikoak, etxea, bideak, plazak etxekotuaren adibideak dira eta aldeztu aurretik programatutako zereginak gauzatu ditzakegu. Adibidez, eraikitako ur lasaien urmaeletan piraguistaren arreta guztia entrenamenduetan aurre programatutako eredu motorrean dago eta ez jarduera burutuko duen espazioan. Babespean parte hartzaileak erabakiak hartzen ditu. Gizakiok, lanagatik (liburutegia, plazan edo etxean haurren zaintzan) edo aisialdian (teniseko pista edo diskoteka) aurki ditzakegun egoerak dira, baina baita ere, praktika motor guztietan: eskola kirolean futbola edo judoa espazio artifizialean gauzatzen dira, gorputz hezkuntzan gimnasioan edo erabilera anitzeko zelaian hainbat jarduera burutzen dira (soka saltoa, eskubaloia zein harrapatzea jolasa) edo goi mailako kirolean futbol txapelketak futbol zelai ofizialean ematen dira, espazio guzti hauek parte hartzaileari, pertsona, langilea, kirolaria zein ikaslea izan, espazioarekiko babesean aurretik erabakitako erantzunak emateko aukera ematen diote.

Espazio basatia gizonak egokitu eta aldatu ez duen espazioa da, arrisku eta ustekabez beteriko espazioa da. "Parte hartzaileak gorputzarekin hartu behar dio aurre Ekiten duen pertsonaren jokabide motorrek hipotesi, apustu eta probabilitatearekin ziurgabetasunaren prozesu estrategikoari erantzuten dute" (Parlebas, 2001, 159 Ibid.). Baldintza honek akzioa inguruaren aldaketetara egokitze lana eskatzen du. Espazio basatian (naturan), babes ezan eta kontrol ezan, parte hartzaileak ingurunea irakurri ondoren ahalezko aukerak baloratu eta naturari aurre egiteko erantzunak eman behar ditu, hau da, naturari aurre hartu. Basurdea ehizatzen duen ehiztariak edo mendian artzainak arreta espazioan dute, espazioak bidaltzen dituen zeinuak irakurtzeko eta erantzuna erabakitzeko: gaitasun semiotorraz baliatu behar gara. Adibidez, naturari aurre hartzeak sor arazten dituen zirrarak bultzatuta, erreka baten jaisiera egiten duen piraguistak uraren zurrunbiloak, korronteak, ur-lasterrak, ur jauziak irakurtzen ditu, eta ur jauziaren gaintetik, eskumatik edo ezkeraldetik jaisteko erabakia hartu du. Arin hartu beharreko erabakiak dira arrakasta izan nahi bada.

4.3.2.1. Espazioa egonkorra izateak garatzen dituen adimena eta afektibitatea

Espazioaren ziurgabetasun ezak ez du gizabanakoa erabakiak hartzeri behartzen, bere akzioa aurre programatu dezake, honek erantzun egokiena lortzeko aukera ematen du eta, jarduera motorren eremuan, estereotipo motorren onura maila handia lortzeko aukera. Jarduerak egonkorak diren espazioetan praktikatzeko dira eta parte hartzailea behin espazioaren ezaugarriak ezagutu ondoren informazio propiozeptiboan⁷⁶ oinarritzen da, eredu

motorra lortu arte. Plazan jesarlekuek edota zabua non dauden baino ez da jakin behar bertan burutuko diren akzioak gauzatzeko, era berean pilota jokoa frontoiaren forma, tamaina, hormen kokapena, marren kokapena eza-gutu ondoren jokalaria espazioa ez den beste guztian jar dezake arreta. Adibide bi hauetan, plazan dagoen pertsona edo frontoian dagoen jokalaria hartuko dituen erabakiak ez daude espazioaren menpe eta, ondorioz, espazioarekiko aldeztu aurretik ikasitako eredu errepikatu dezakete.

Egokitutako espazioan parte hartzaileak "bere akzioak aurre programatu ditzake, estereotipo motorrak zehazki prestatuz" (Parlebas, 2001, 158 or).

4.3.2.2. Diziplinazko gorputzen eraikuntza

Espazioekiko ziurgabetasun ezak akzioak aurre programatu eta estereotipo motorrak eraikitzei aukera ematen baditu ere, besteen kontrola izateko ekiten diren mekanismo eta prozesuetan Foucault pentsalaria gizabanakoa espazioan banatzearen garrantziaz mintzatzen da, hain zuzen ere, espazioekin harremanetan diziplinaren bermeak duen garrantziaz mintzatzen da. Foucault pentsalaria (2009) "vigilar y castigar" liburuan diziplinaz hitz egiten duenean gorputz indarrak gehitu eta gutxituaren arteko orekak gorputzaren boterea eta energia nola baldintzatzen dituen azaltzen du. Horrela, "diziplinak gorputz indarrak (erabileraren ekonomiaren ikuspuntutik) gehitzen ditu eta indar berbera horiek gutxitzen ditu (obedientziaren ikuspuntu politikotik)" (Foucault, 2009, 142 or.) baieztatzen duenean gizakiok mugetatik irteteko bideak ez bilatzeko joeraren arazoak azaltzen dira. Horretarako, gorputzak izan ahal duen indarra, teknika eta boterea mekanismo eta prozesu desberdinen bitartez izan dezakeen energia gutxitzea lortzen da. Lantegiak, ikastetxeak, komentuak edo kartzelak gorputz indarrak eta energia kontrolatzeko ezin leku hobeagoak dira. Foucault filosofoak kartzelen diziplinarekiko azterketa egiten duenean gorputz indarren kudeaketa prozesuak ikastetxeetan ere ematen direla ikusten du. Zentzu honetan, eraikitzen den espazio artifiziala den ikastetxean gizabanakoak, hau da, ikasleak segurtasun irizpideen barnean dagoela sentitzen du baina aldi berean, kartzela edo lantegietan bezala, "gizabanakoa noiz eta nola aurkitu jakitean datza" (Foucault, 2009, 147 or.), besteren jokabidea aztertzeko aukera ematen duten espazioak dira, baina baita ere, gizabanakoen arteko harreman arriskutsuak ez emateko lekuak. Eraikitako espazio artifizialak bizi lagunei segurtasuna eskaintzen badiote ere, diziplinazko instituzioak dira, instituzio bakoitzak bereizten dituen leku funtzionalek zeregin berezia betetzeko helburua dute. Horrela, ikastetxeetako gelak irakasleek edukiak emateko eta ikasleek hartzeko lekuak dira, jolas tokiak ikasleak atsedena hartzeko lekuak dira, atsedena eta jolasa irakasleek zaintzen dituzten bitartean, jolas tokiak ikasle bakoitza non dagoen jakiteko lekuak dira, non eta norekin eta zer egiten.

⁷⁶ Propiozeptzioak gorputzak mugimendua eta giltzaduren posizioak antzemateko duen gaitasunari egiten dio erreferentzia. Ikusmena eta entzumenaren estimuluek gain, gihar, giltzadura, azala eta vestibular estimulu sensorialez baitatzen da.

Ikastetxea eraikuntza artifiziala irakasle eta ikasleentzako azpi espazio egonkorrez osatuta dago, Hall autoreak bereizten dituen espazioen ezaugarri finkoei erreparatuz gero, bizi lagunei babesa eta kontrola dutela sentiarazten dieten espazioak direla konturatzen gara, baina baita ere, bestea kontrolatzeko guneak. Zelatu eta kontrolatu; babesa eta egoera kontrolpean izan txanponaren bi aldeak dira zeinetan diziplinazko gorputzak eraikitzen dira. Espazioarekiko diziplinazko gorputzen indarrak handitzen dira, gorputzak bere izaera adierazteko espazioak direlakoan, gorputza den gizabanakoak askatasun osoa duela uste du, baina, espazioaren antolakuntzak, espazioetan banatzeko erak zereginak mugatzen dituzte eta zelatatzen gaituztela erakusten dute. Honek, berrikuntzarako, ausartak izateko, irudimena garatzeko edota egoera berriei moldatzeko gaitasunak urratzen ditu. Honek energia gutxitzen du.

Era honetan, ziurgabetasun eza duten espazioetan praktikatzeko duen edozein gizakia, neska edo mutila izan, informazio propiozeptiboan oinarrituta eredu lortu arte erantzuna ematean heziko da, espazioarekiko irudimena garatzeko ziurgabetasun ezaren adimenean heziko da. Parte hartzaileak keinua behin eta berriro errepikatzen du, egiten duen akzioak ematen dion informazio propiozeptiboan oinarrituta egingo du hurrengo errepikapena. Ziurgabetasun ezak ematen dion babespean ausardia garatzeko aukera gabeko afektibitatean.

4.3.2.3. Espazioarekiko ziurgabetasunak garatzen dituen adimena eta afektibitatea

Inguru fisikoarekiko ziurgabetasunak gizabanakoa erabakiak hartzera behartzen du. Surfariak inguruaren gorabehera aurrea hartu behar die. Arriskua neurtu, erabakiak hartu eta bere akzioak etengabe birdoitu behar ditu. Gizakiak ingurutik datorrean ziurgabetasuna prozesatu behar du, hipotesiak garatzen ditu, aukerak aztertzen ditu, eta azkenik erabaki egokiena hartzen du. “parte hartzaileak bere erabakiak bideratzen dituzten hipotesiak garatzen ditu, hau da, intuitiboki egoeraren osagai bereizleei probabilitate tarte subjektiboa egotzen die” (Parlebas, 2001, 249 or.). Ziurgabetasunarekin espazio bat arriskutsua eta kontrol gabeko espazioa da, eskiatzen elurraren baldintzak, piraguarekin erreka jaitsieran korronteen indarra eta ur zurrunbiloak parte hartzaileak aztertu behar ditu eta erabaki bat eman.

Espazio naturalean gauzatzen diren jarduera motorrek parte hartzaileengan gatazka handia sor arazten dute, hipotesiak eraikiz eta probabilitateak aukeratuz eta egoerari aurre egiteko erabaki motorrak hartzea eskatzen dute.

Beraz, ziurgabetasunarekin espazioetan praktikatzeko duen edozein ikaslea, neska edo mutila izan, ingurutik datorren informazioaren aurrean ahalezko aukerak ezagutzeko, arriskua neurtzeko, eta guzti horrekin, erabaki motorrak hartzeko heziko da. Kontrolatzen ez duen eta arriskutsua den espazioari aurre egiteko heziko da, hau da, ziurgabetasunaren adimenean heziko da. “Espazio basatian aurre akzioa eta erabakia fenomenoek hil edo biziko garrantzia dute” (Parlebas,

2001, 159 or.) eta “estrategia eraginkorra aukeratzeko gaitasunak eta baita ere, inprobisazio motorrak oso garatuta dagoen menperatze teknikoak eskatzen dute, eta aldi berean estereotipotik oso desberdina” (Parlebas, 2001, 159 or.).

Oso garrantzitsua da ulertzea ziurgabetasun espazioetan parte hartzaileak arriskua neurtu, erabakiak hartu eta bere akzioak etengabe birdoitu behar dituela eta egin behar hauek naturaren elementuekin zuzenean kontaktuan aritzeko aukera ematen dutela. “Testuinguru naturalarekin abenturaren ideia lotzen da... Jokabide motorrek naturarekin harreman fantasiosan hartzen dute parte” (Parlebas, 2001, 159 or.). Arriskua eta abentura motorren balio sinbolikoa, espazioarekin sortzen den harreman fantasiatsuan gauzatzen da. Parte hartzailea zirrarazko estimuluen bila dabil. Piraguan erreka jaisten duen piraguitak, arriskua neurtuko du ur jauziei aurre egiterakoan, zein den uraren indarra kontrolatzeko bide egokiena asmatu behar du, erantzun motor egokiena aukeratu duen pentsatzen dago. Baina, ur jauzia gainditu arte ez du jakingo eta honek sorrarazten dizkion zirrarak dira erreka jaistearren arrazoi nagusi bat.

Era berean, gorputz hezkuntzako irakasleak mendira txangoa antolatzen duenean, ikasleen zirrarara nabaria da, aldapa gogorregi izango da?, zubiren bat igaro beharra dago? edo zubirik ezan, erreka bat gurutzatu beharko da?, ikasleei burutzen zaizkien galderak dira eta egoeran murgilduta egon arte ezin izango dituenak erantzun.

Beraz, ziurgabetasunarekin espazioetan praktikatzeko duen edozein ikaslea, neska edo mutila izan, arrisku baldintza pean aritzean, erronkari aurre egitean eta honek sortzen dituen zirrarazko estimuletan (beldurra, poz handia) heziko da, hau da, ziurgabetasunaren afektibitatean heziko da.

4.3.3. Kurutzia ikastolako kirol instalazioak

Behatutako gorputz hezkuntzako saio praktikoa gauzatzeko Kurutzia ikastolan dauden estalpeko eta estali gabeko kirol instalazioez baliatu izan da. Instalazio hauek, gorputz hezkuntza praktika motorra gauzatzeko espazioak izateaz gain, alde batetik, instalazioek kirol zehatzak praktikatzeko eraiki badira ere, beste hainbat joko-jolasak gauzatu dira. Eta bestetik, jolas orduan erabiltzen diren espazioak dira ere.

Taula 26: Kurutzia ikastolako kirol instalazioak.

Instalazioak	Kopurua	Espazioak	Azalera
ESTALPEKO KIROL INSTALAZIOAK	3	Gimnasioa Frontoia Saskibaloiko zelaia	1800m ²
ESTALI GABEKO KIROL INSTALAZIOAK	2	Futbito zelaia Hareatza zelaia	2000m ²

Iturria: Kurutzia ikastolak emandako datuak.

Jarduera motorrak praktikatzeko dagoen azalera guztitik 1800m² estalpeko instalazioei dagokie, hau da, gimnasioa, frontoia eta saskibaloia zelaiari. Frontoia eta saskibaloiko zelaiak bata bestearen ondoan daude. Frontoiarenean zabalera amaitzen denean saskibaloiko zelaiak hasten da eta estalpeko instalazioak bezala hartzen badira ere, alde bi zabalik dute. Bestetik, 2000m² estali gabeko instalazioei dagokie, hau da, futbito zelaiak eta hareatza zelaiari. Eta futbito zelaiaren inguruan harmailak daude

Kurutziaga ikastola den eraikinean dauden kirol instalazioak solairu desberdinetan bananduta daude. Horrela, gimnasioa, frontoia, saskibaloiko zelaiak, futbito zelaiak eta hareatza zelaiak beheko solairuan daude, Kontuan hartuz Kurutziaga ikastola azalera irregularra den solairuan eraikita dagoela espazio hauek bata bestetik altura desberdinetan daude: frontoia eta saskibaloiko zelaiak azalera gorenenean daude eta futbito zelaiak eta hareatza zelaiak erdiko maila batean kokatuta daude, eta azaleraren bi maila hauen arteko oinezkoentzako bidea dago. Gimnasioa beheko solairuaren maila baxuago batean kokatuta dago. Maila honetatik eskailera batzuen bitartez behera sora baxatzen da non aldagelak kokatuta daude.

Lehen Hezkuntzako neskek eta mutilak behin dagokien ikasgelako ikasgaia bukatzen denean, lehenengo eta behin aldageletara doaz eta arropak aldatu ostean gimnasia edo eskaileretatik futbito zelaira igotzen dira.

Beraz, behatutako gorputz hezkuntzako saio praktikoari hasiera emateko ikasleak gimnasioan edo futbito zelaietan elkartzen dira. Bertan irakaslea zain dago. Futbito zelaietan elkartzen direnean neskek eta mutilak burutu behar dituzten jarduerak arabera frontoia, saskibaloiko zelaira edo hareatza zelaira joan dira.

Adibidez, zesta punta kirolaren inguruan gorputz hezkuntzako irakasleak proposaturiko jarduerak egiten hasi baino lehen, neskek eta mutilak zesta banarekin irakaslea inguratzen harmailan eserita egon dira. Irakasleak zesta eskuan nola lotu behar den azaltzen duen bitartean, neskek eta mutilak adi zesta eskuan lotzen dute. Ondoren, frontoia joan dira.

Kurutziaga ikastolan dauden kirol instalazioez kanpo, Berrizeko belodromo⁷⁷ eta Abadiño trinketea⁷⁸ erabili dira.

4.3.4. Gorputz hezkuntzan erabili diren espazioen ezaugarriak

Jarduera motorrak gauzatzeko behatutako gorputz hezkuntzarako espazio berezi batzuek baliatu da. Batzuk zerratuta daude, beste batzuk guztiz irekiak dira eta beste batzuk erdi zerratuak daude (frontoia eta saskibaloiko zelaiak). Horren arabera, eguraldiaren eragina handiagoa edo txikiagoa izan daiteke. Bestetik, espazio bakoitzak lurrian edo hormetan kolokatutako objektuak eta

marratzutako lerroak dituzte eta horien arabera espazio bakoitzean zein jarduerak motorrak praktikatzeko eraiki den ezagutzen da. Hala ere, espazio guztietan eraiki ziren funtzioak betetzeaz gain, beste zereginak gauzatzeko erabili dira. Horrela, saskibaloiko zelaiak harrapatzera jolasteko erabiliak dira, baina baita ere, futbito zelaiak eta hareatza zelaietan futbolera jokatzeaz gain beisbolera jaurtiketak entrenatu dira.



Irudia 11: Behatutako gorputz hezkuntzan saskibaloiko zelaiak.

Irudietan ikusten den espazioa kurutziaga ikastolako zelaiak saskibaloia jokatzeko da. Ikusten denez, guztiz estalita ez dagoen espazioa da. Alde batetik, goitik sabaiaren bitartez estalita dago, bestetik, haur hezkuntzaren eraikuntzari itsatsita, frontoia ondoan egoterakoan alde bi estalita daude eta beste bi agerian geratzen dira. Espazio honek saskibaloiko saskiak ditu, beraz saskibaloia jokatzeko prestatuta dago. Espazioaren luzeran jokatzeko saskiak ipini dira eta baita ere, zeharka jokatzeko beste bi saskibaloiko zelaiak antolatu dira, bakoitzak bere bi saskiekin. Hala ere, irakasleak saskibaloia jokatzeaz gain beste jarduerak batzuk espazio honetan burutzeko proposatu ditu: pilota ehiztaria, itzulipurdiak, pitcherra jaurtiketak, harrapatzera, korrika, soka saltoak, fresbee ultimate eta saskibaloia espazio honetan burutu diren jarduerak dira (fitxategian⁷⁹). Arrazoi desberdinegatik (eguraldia, gimnasioa okupatuta egotea) saskibaloia ez den beste jarduerak motor asko praktikatuta dira saskibaloia zelaietan.



Irudia 12: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako gimnasioa.

⁷⁷ Berriz EAEko Bizkaia lurraldean dago, Durangotik 6 bat kilometrotara.

176 ⁷⁸ Abadiño EAEko Bizkaia lurraldean dago, Durangotik 3 bat kilometrotara.

⁷⁹ Fitxategian pilota ehiztaria 2., itzulipurdiak 70., pitcherra jaurtiketak 80., harrapatzera 24., korrika 1., soka saltoak 231., fresbee ultimate 239. eta saskibaloia 3. jarduerak dira.

Irudiek Kurutziaga ikastolako gimnasioa erakusten dute. Espazio hau guztiz itxita dago eta bertan hainbat kirol praktikatzeko lurreen murrak eta objektu erdi finkoak kokatu dira. Irudian ikusten den saskiak saskibaloira jokatzeko aukera dagoela esaten digu, baina baita ere, lurreen margotutako murrak. Marrek ere eskubaloira, futbitora eta boleibolera jokatzeko espazioa dela esaten dute, hauetan jokatzeko material txokotik material mugikorra (futbito edo eskubaloi ateak, boleiboleko sarea) atera behar da. Bestetik, beste edozein jarduera motorra egiteko lekua izan da. Bertan praktikatu diren jarduerak korrika, kadeneta bikoteka, pilota eserita taldeka, zelai errea, itzuli-purdiak, luzaketak, komekokosa, pinoa, alboko gurrupila, harrapaketa estatuak, zapira hesiekin, izurria, azterketa ariketa gimnastikoak, boleiboleko hainbat jarduerak, boleibola partidua, bidaiak, hiru gehiegi, lau erpin eta hiru lerroan izan dira (fitxategian⁸⁰).



Irudia 13: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako futbito zelaia.

Irudietan Kurutziaga ikastolako futbito zelaia deituriko espazioa ikus daiteke. Espazio hau guztiz irekia dago eta futbitora gain eskubaloira jokatzeko zelaia da. Argazkietan ikusten den bezala futbito ateak daude eta zelaiaren kanpoaldetik harmailak daude. Behatutako gorputz hezkuntzan espazio hau asko erabili da eta bertan korrika, kadeneta bikoteka, eskubeltza, beisbola, harrapaketak, hiru gehiegi, luzaketak, zelai errea, pilota ehiztaria, zapira, buztana jolasa, lasterketak, zaldiak eta zaldunak, errugbiko jarduerak, ultimate, malabarismoak pilotekin, pitcher jaurtiketak, eskubaloia jarduerak, lau erpin, hiru lerroan egin diren jarduerak dira (fitxategian⁸¹).

⁸⁰ Fitxategian korrika 1., kadeneta bikoteka 6., pilota eserita taldeka 12., zelai errea 8., itzuli-purdiak 70., luzaketak 63., komekokosa 5., pinoa 94., alboko gurrupila 122., harrapaketa estatuak 119., zapira hesiekin 141., izurria 139., azterketa ariketa gimnastikoak 202., boleiboleko hainbat jarduerak 428., boleibola partidua 518., bidaiak 452., hiru gehiegi 25., lau erpin 515. eta hiru lerroa 516. jarduerak dira.

⁸¹ Fitxategian korrika 1., kadeneta bikoteka 443., eskubeltza 11., beisbola 17., harrapaketak 16., hiru gehiegi 25., luzaketak 37., zelai errea 13., pilota ehiztaria 2., zapira 126., buztana jolasa 124., lasterketak 129., zaldiak eta zaldunak 136., errugbiko jarduerak 145., ultimate 239., malabarismoak pilotekin 308., pitcher jaurtiketak 80., eskubaloia jarduerak 361., lau erpin 515., hiru lerroa 516. jarduerak dira.



Irudia 14: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako hareatza zelaia.

Hareatza zelaia goian irudietan ikusten den espazioa da. Futbol atez gain jokalarientzako etxetxea dago. Espazio hau gutxien erabili den espazioa da eta bertan futbola⁸² eta bateatzen jarduerak⁸³ praktikatu dira.



Irudia 15: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako frontoia.

Irudian ikusten den Kurutziaga ikastolako frontoia saskibaloizelaia ondoan dago, goitik instalatuta aurreko eta ezkerreko hormak ditu. Frontoian praktikatu diren pilota jokoen loturiko jarduerak praktikatu dira: eskupilota jarduerak, palak eta erraketak jarduerak eta zesta punta jarduerak. Eta baita ere, harrapaketa, hiru gehiegi eta malabarismo jarduerak era praktikatu dira (fitxategian⁸⁴).

⁸² Fitxategian 536. jarduera

⁸³ Fitxategian 401. jarduera

⁸⁴ Fitxategian eskupilota 20., palak eta erraketak 26., zesta punta 337., harrapaketa 24., hiru gehiegi 25. eta malabarismo 308. jarduerak dira.



Irudia 16: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako Abadiño trinketea.

Irudietan ikusten den trinketea Bizkaiko Abadiño herrian dago. Ikasleek irakaslearekin batera trinkete jarduerak⁸⁵ praktikatzeko ikastolaren aurrean kontratatutako autobusa hartzen dute eta saioa bukatzerakoan, berriro autobusez ikastolara itzultzen dira. Bertan, ikasleak heltzen direnean, monitore irakaslea dago eta honek trinketearen espazioaren ezaugarriak azaldu ondoren, espazioarekiko arauak azaltzen ditu.



Irudia 17: Behatutako gorputz hezkuntzan erabilitako Berrizko belodromoa.

Irudiek Berrizko belodromoa erakusten dute. Belodromoan bizikletarekin jarduerak⁸⁶ egiteko Bizkaiko Berriz herrira joan dira, trinketera bezala autobusez eta han irakasle monitorea zain egon da. Hasierako berritasunaren eta aldapak eta kurba zeintzuk eta non dauden ezagutu ondoren, ikasleak beraien indarrak eta abileziak probatzen hasten dira, handik gutxira bizikleta gainean mugimendu automatizatuak egiten dituzte eta aldapa eta kurba bakoitzera egokitzapen txiki baterekin hasierako beldurrak eta zirrara laster desagertzen dira. Espazioaren egonkortasuna dela eta, ikasleek beraien buruarengan arin hartzen dute konfiantza, pistaren inklinazio handiena edota kurba zabala beti dago leku berean.

⁸⁵ Fitxategian 468. jarduera

180 ⁸⁶ Fitxategian 549. jarduera

4.3.5. Gorputz hezkuntzak sustatu duen espazioarekiko harremana

Durangoko Kurutzia Ikastolak dituen espazioen ezaugarriak erreparatuz, denak gizakiak mugatutako eta egokitutako espazioak direla baieztatzen dugu.

Adibidez, behatutako gorputz hezkuntzan belodromoa⁸⁷ jarduerak motorean ikasle bakoitzak belodromoaren erdi gunean dauden bizikleta bana hartzen du eta pistara sartzen da, belodromo zelaiari birak emateko. Helburua, bizikletaz belodromo pistara birak ematea da. Horretarako, ikasle bakoitza bere bizikletarekin, lehenengo marra urdinetik hasiko da birak ematen eta apurka, igotzen joango da. Txirrindulariek pistara, birak ematerakoan, igotzen duten neurria, pedalei arinago eman behar izango diete. Eta aurrean txirrindulari baterekin topo eginez gero, beti eskumatik aurreratu behar da. Jarduera, saio praktikoa bukatzerakoan amaitzen da.

Belodromoa jardueran, neskek eta mutilek bizpahiru bira eman ondoren behin eta berriro errepikatuko duten ereduak ezagutzen dute: pistaren inklinazio handienak, kurba eta beraien inklinazioa, pistaren ibilbide lasaienak, pistaren goi edo behe aldetik ibiltzearen aldeak ezagutzen dituzte. Hasierako urduritasunen ostean, neskek eta mutilek alde aurretik ezagutzen dituzten kurba, inklinazio eta ibilbidera egokitzen dira, bizikletaren pedalei oreka ez galtzeko indarrez edo lasaitasunez ematea baino ez dute, hanken mugimendu ziklikoa behin eta berriro errepikatuz, ez dago ustekaberako lekurik, parte hartzaileek ez dituzte inguru fisikoarekiko zeinuak irakurri behar.

Behatutako gorputz hezkuntzako saioan frontoian praktikatzen den zesta punta banaka 1. jardueran ikasgela osoak hartzen du parte. Frontoian sakanatuta daude, bakoitza bere xisterarekin eskuan lotuta eta pilotarekin. Helburua pilota xistera sartzea da. Horretarako ikasle bakoitzak xistera ez duen eskuarekin pilota gorantz jaurtitzen du eta pilota beheantze egiten duenean xisterarekin hartu behar du. Garrantzitsua da, behin pilota xistera barruan egoten denean, besoarekin pilotaren norabidea jarraitzea, besoak atzerantz eramanez. Irakasleak minutu batzuen ondoren jarduerak bukatutzat ematen du (fitxategia⁸⁸). Neskek eta mutilek pilota zestara sartzeko keinua behin eta berriro errepikatu dute frontoian berak eman dion babespean.

Belodromoan txirrindularitza eta frontoian zesta punta jarduerak egitekoan inguru fisikoarekiko ez daude ustekaberik, atletismoan bezala, "atleta entrenamenduetan askotan errepikatu duen mugimendu automatizatuak gartzera mugatzen da" (Parlebas, 2001, 249 or.), "egonkorra bihurtu den egoeraren osagai objektiboen bateratzeak ezustekoa ezabatu eta oso estereotipo motor onuragarriak eraikitzea sustatzen ditu" (Parlebas, 2001, 249 or.).

⁸⁷ Belodromoko saio praktikoa burutzeko Berrizko (Bizkaia) belodromora joaten dira eta bertako irakasle batek bideratzen ditu praktikak. Ohiko irakasleak belodromoko irakasleak laguntzen dio.

⁸⁸ Fitxategian zesta punta banaka 1 jarduerak 32. fitxan azaltzen da.

Zehatz-mehatz, saskibaloiko zelaia, frontoia, futbito eta eskubaloiko zelaiak, hareatzako zelaia futbol atekin eta gimnasioa izan dira. Guztiek, dagokien kirola praktikatzeko zonalde desberdinak mugatuta dituzte. Hori-eta espazio batzuk, estalita daude: frontoia eta saskibaloiko zelaiak goitik sabaiaren bitartez estalita daude, bestetik, guztiz itxita dagoen espazio bakarra gimnasioa da, beste guztiak, futbito, eskubaloia eta hareatza zelaiak ez daude ez estalita ez itxita. Gimnasioari dagokionez, saskibaloia, eskubaloia eta boleibola praktikatzeko egokituta dago. Aipatutako hauetan praktikatzen duten neskak eta mutilak, behin espazioa ezagutu ondoren, babespean eta kontrolpean, jarduera motorrean jartzen dute arreta guztia, ez dago inguruaren aldaketetara egokitzeko beharrik. Ikusten den bezala, jarduera motorren osotasuna espazio etxekotuan praktikatu da.

Ikastolatik kanpo praktikatu diren beste jarduera motorren artetik belodromoan eta trinketean jarduerak izan dira. Belodromoan bizikletan ibiltzeko Bizkaiko Berriz herrira joan izan dira eta trinketean praktikatzeko Abadiñora, hau ere, Bizkaia lurraldean. Berrizera edo Abadiñora joateko behar den beste denbora lehenago ikasleak autobusean sartzen dira eta behin distantzia burutu ondoren bai belodromoan edo trinketean sartzen dira non irakasle-monitorea dago ikasleen zain. Espazio hauek ere etxekotuak dira.

Taula 27: Behatutako gorputz hezkuntzan kirol instalazioak: pribatuak eta publikoak.

Espazio artifizialak	
privatuak	publikoak
Gimnasioa Frontoia Saskibaloiko zelaia Futbito zelaia Hareatza zelaia	Trinketea Belodromoa

Neskak eta mutilak gero urteetan egongo diren ikastetxean hastean espazio pribatua den etxetik kalera espazio publikora doaz. Gurasoekin etxearen berotasunetik irten eta guztiz arrotza, hotza eta ez ezaguna den erakinean geratzen dira. Baina, haurren nortasunean eragina handia izango duen erakinean artifizialaren barruan lehenengo egunetako edota asteko egokitzapen prozesuaren zapora mingotsa gozoago den egoerara aldatzen doa. Ikastetxea bigarren etxea bezala sentitu arte.

Behatutako gorputz hezkuntzan neskak eta mutilak dagoeneko atzean utzi dute hasierako egokitzapen prozesua, eta ikastetxearen gelak eta kirol instalazioak etxea pribatuaren ezaugarriak hartu ditu. Baina, hala ere, ikastetxetik trinketera eta belodromora joateko beharrik neska eta mutilengan berritasunaren aurrean emozio eta zirrara areagotzen ditu. Etxetik espazio publikora baitoaz.

Trinkete eta belodromo espazio publikoetan pribatuetan bezala, eraikin artifizialak diren neurrian behin lehenengo egunaren nobedadearen ondoren, ikasleek espazioa kontrolatzeko eta, babes egoeran, eredu motorra errepikatzeke aukera dute.

Behatutako gorputz hezkuntzan erabili diren espazioak aintzat hartuz, espazioarekiko aniztasuna ez dela eman baieztatzen da. Espazioarekiko ziurgabetasun eza proposatu diren jarduera motorren %100ean eman da, gizaki-agatik guztiz egokituta dagoen espazio mota nagusitu da. Futbito zelaia, hareatza zelaia, frontoia, saskibaloia zelaia, gimnasioa, belodromoa eta trinketea gorputz hezkuntza praktika burutu den espazioak izan dira.

Errugbi partiduak, kadeneta bikoteka edota palak eta erraketak banaka edo bikoteka jarduera motorrek espazioarekiko ziurgabetasun eza dagoen adibideak dira. Neskak eta mutilak, espazio mota honek ematen duen babesean heziak izan dira. Zeregin motorrak gauzatzerakoan, neskek eta mutilek ez dute arreta espazioan jarri behar izan. Espazio mota honek ez die deskodifikazio motorren gaitasuna erabiltzea eskatu. Eta alde aurretik entrenatutako programa motorra behin eta berriro errepikatzeke beta izan dute.

Foucaultek definitutako diziplina espazioak dira eta ondorioz, mota honetako espazioetan jarduera motorrak egiterakoan, inguru fisikoarekiko ziurgabetasun ezak menperatze tekniko eta estereotipo motorrak bermatzen ditu. Behatutako gorputz hezkuntzan inguru fisikoarekiko ausartak izateko, irudimena garatzeko edo berrikuntzarako lekua ez da egon.

Ziurgabetasun eza duten espazioetan praktikatzen duen ikaslea, informazio propiozeptiboan oinarrituta keinua errepikatzean eta babespean eredu lortu arte erantzuna ematen hezi da. Behatutako gorputz hezkuntza eredu mistoan emanenez, aldi berean neskak eta mutilak ziurgabetasun ezaren adimenean eta afektibitatean hezi dira.

4.3.6. Emakume eta gizonen funtzioak espazio publikoan eta pribatuan

Ikuspuntu etnologiko batetik Caro Barojak estudios vascos IV: de la vida rural vasca liburuan egiten duen bizi modu tradizionalaren azterketan, ezkondu eta hil arte atalean "gizon ezkonduak bizitza sozial apur bat egiten badu, emakumeak, berriz, atzera egiten du, zehazki behar dena baino ez da irteten, harremanak zaintzea eskatzen zaio eta erlijio betebeharrak betetzea" (Caro Baroja, 1974, 255 or.) baieztatzen du. Aztertutako etxea eta baserriaren inguruko nekazaritza edo etxeko lanen deskribapenean emakume eta gizonen espazioak zereginen arabera bananduta daudela azaltzen du. Gizona etxetik eta baserrietik urruntzen den gizakia da eta besteekin, etxekoak ez direnekin harremanak (ekonomikoak, sozialak) ezartzen ditu. Berriz, emakumeak zaintza arduraren betebeharra du eta aski ezaguna eta babestokia den etxekoan arteko harreman onak bermatzen dihardu. Izan ere, "tradizioz, gizonak kan-

poko lanak egin izan ditu, hau da, nekazaritza, abeltzaintza, artisautza eta bestelakoak. Etxe barrua emakumearen lekua da” (Etniker, 2011, 84 or.). Eta emakumeak gizonen lanak hartzen bazituen ere, “nekazaritza eta abeltzaintzatik haratago, artzaintzari edo arrantzari lotutako bizimoduan, kasurako, senarrak kanpoan denbora luzea egiteak berez gizonaenak ziren beharrak emazteak egin behar izatea zekarren” lako zen (Etniker, 2011, 85 or.).

Etxea den eremu pribatua eta kalea den eremu publikoan giza praktika desberdinak dira. Era honetan, gorputzetik abiatzen den espazio erabileraren azterketa generoaren ikuspuntutik egiterakoan tradizioan espazio bakoitza nori eransten zaio eta esparru bakoitzean zereginak bereiziak daudela deskribatzen dira. Beraz, gorputza aurkitzen den lekuak pertsonen subjektibotasunean eragina duenez, gizabanako bakoitzaren gorputzasuna eraikitzen da. Leku bakoitzaren mugen barruan edota kanpoan kokatzen den gorputzean ematen diren harremanen ondorioz gizabanako bakoitza kognitiboki eta emozionalki eraikitzen da. “Etxearen mundu pribatua eta ordaindutako lanaren mundu publikoaren arteko espazioaren zatiketak ... gizarte industrialetan erabakigarria izan da” (McDowell, 2000, 145 or.), XVIII. mendean etxea ekoizpen eta ugalketa funtzioak betetzeko lekua zen, izan ere, “Europar industria aurreko gizarteetan, iraultza industrialaren aurretik ekoizpenaren zati nagusia artisaua eta etxekoa zen” (Sabaté, Rodríguez, eta Díaz, 1995, 62 or.). Industrializazioaren ondorengo gizarteetan espazio bi horien ezaugarriek gizabanako nortasuna ugalketa eta ekoizpen lanak betetzeko eraikitzen dute.

Del Vallek egindako zeharkako ikerketa kualitatiboan aztertutako produkzio, emozioak eta botere egituren arteko elkar harremanean ikusten dituen aldaketan artean pertsona helduek “beraien seme eta bereziki alabengana hezkuntza eta lanean⁸⁹ berdintasunarekiko luzatzen dituzten proiektzioen bitartez” (Del Valle eta lag., 2002, 222 or.) azaltzen den aldaketa emakumea ekoizpen eremuan murgilduta egotean ikusten da. Tradizioan egotzi izan zaizkion ugalketa lanak guztiz baztertu egin izan ez badiu ere, emakumea ekoizpen lanak betetzeko (lantegietan, aginte politikoan zein enpresari gisa) etxeko arduraren betetzeko denbora faltan aurkitu da. Giza krisialdi honetan, hartu diren erabaki politiko ekonomikoak, adibidez, pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko egoitzak eta haur eskolak eraikinetan islatzen dira, ugalketa lanak plazaratuz.

Ekoizpenean arduraren duen sistema kapitalistak kapitala handitzea du helburu, eta sistema bermatzeko espazio publikoak (lantegiak, bankuak...) gizonen erabili duten espazioak dira, garrantzia dutenak. Ekoizpen eza adierazten duen etxebizitzan tradizioan emakumei egotzi zaizkien zereginak indarra galtzen duten bitartean. Ikusten denez, etxebizitzan eta hirien eraikuntzan “arkitektura eta gizartearekin espazioen osaketa eta goi-egiturak transmititzen dizkigun balioen arteko erlazio zuzena dago” (Cevedio, 2003, 91 or.). Espazio publikoa ekoizpen eta ordaindutako lanaren espazioa izanik, “elkartruke sozialak eta botere politi-

koaren espazioa; gizonen erabiliko espazioa da” (Sabaté eta lag., 1995, 61 or.). Eta, familia kiden arteko harremanak ezartzen eta sendotzen diren espazio pribatua ugalketa lanaren espazioa da, tradizioan emakumei egotzi izan zaiona.

Edonola ere, gaur, mendebaldeko gizarteetan, etxea familiaren espazioa da eta kalea familia kide bakoitza kanpokoekin elkartrukeak gauzatzeko espazioa da. Etxeko pribatutasuna indartzeko kanpoko atea ikurra bihurtuz.

4.3.6.1. Lan betekizunak generoan

Atetik beste alde guztia publikoa da eta tradizioan emakume eta gizonen era desberdinean eta funtzio desberdinak betetzeko erabili badute ere, gaur emakumea funtzio publikoak betetzen ditu eta gizonak funtzio pribatuak. Adibidez, ugalketa lanetan haurren hasierako zaintza arduraren betetzeko amatasun eta aitatasun eskaeren azterketak gizonen espazio pribatuaren erabileran egin duen murgilketa ikus daiteke. Horrela, “Euskal Autonomia Erkidegoko landunak, uztartzearen inguruko beste alderdi batzuei lotuta dauden kalteei jarraiki (amatasuna, aitatasuna eta eszedentzia) ezaugarri sozio demografikoen arabera” (Eustat, 2012b) txostenean familia tradizionalen eta buru bakarreko familian amatasun/aitatasun eskaeraren batez bestekoa 2012. urtean 3,7koa izan zen eta familia tradizionalen aitatasun eskaera 2,9koa. Gizon eta emakumearen arteko aldea nabaria bada ere, datuak gizonen ugalketa lanaren zaintza arduraren erakusten duten joera baikorra islatzen da. Era berean, familia-arrazoiengatik eszedentzia/murrizketaren gizonen eskaeran batez bestekoa 3,3koa zen eta emakumeena 3,6koa.

Beraz, gizonen zaintza ardurarekiko datuek argi adierazten dute ugalketa lana emakumeaz gain gizonen hartzen hasi direla. Emakume eta gizonen arteko amatasun eta aitatasun eskaeretan aldea handia bada ere, eszedentzia/murrizketa eskaeretan, nahiz eta emakumeen batez bestekoa eskaera handiagoa izan, aldea oso urria da. Guztiarekin, datu hauetatik gizonen emakumei tradizioan egotzi izan zaion espazio pribatua ugalketa lanak betetzeko erabiltzen dutela inferitu daiteke.

4.3.7. Espazioarekiko ziurgabetasuna generoan

Guztiarekin, konturatu behar gara espazio publikoak edo pribatuak izan, biak gizakiak eraikitako espazioak direla. Espazio artifizialekin harremanean gizonen eta emakumeen ez dira inguru fisikoarekiko ziurgabetasunak azeleztatzen dituen adimenean eta afektibitatean hazten. Izan ere espazio pribatuan eta publikoan besteekin (etxekoekin, kanpokoekin) harremanak ezartzeko lekuak diren neurrian, inguru sozialarekiko ziurgabetasunaz baino ezin daiteke hitz egin. Beraz, etxeak eta kaleak eta plazak islatzen duten espazioarekiko kodifikazio mailak ez du ustekaberako leku handirik uzten eta emakumea eta gizona inguru fisikoarekiko ziurgabetasun ezak sustatzen dituen portaeretan garatzen dira.

Horrela, espazio naturalek islatzen duten kodifikazio maila altua gogoratu, emakumeak eta gizonak inguru fisikoarekiko ziurgabetasunak sustatzen dituen adimen eta afektibitatea bereganatzeko aukerak zeintzuk izan daitezkeen eta generoaren ikuspuntutik aztertzea beharrezkoa egiten da.

Taula 28: EAE-n naturan egiten diren kirolekin parte hartze maila generoaren ikuspuntutik.

Kirola	Emakumeak	Gizonak
Ur-azpiko jarduerak	%11,33	%88,66
Ehiza	%0,42	%99,58
Aire kirolak	%3,83	%96,17
Mendia	%0,49	%99,51
Piraguismoa	%18,49	%81,51
Arrantza	%3,80	%96,2
Bela	%16,82	%83,18
Surf	%12,51	%87,49

Iturria: EJ-GV. (2013). Kirolarien lizentzia federatuen kopurua. Datuak sexuka 2012.

Kirolarien federatuen lizentzia zenbakian arreta jarriz gero, gizonen espazio naturaletan burutzen diren jardueretan parte hartze maila altua erakusten dutela eta emakumeek oso parte maila baxua erakusten dutela ikusten da. Beraz, emakumeek inguru fisikoarekiko (errekak, mendiak, basoak, itsasoak) ziurgabetasunak parte hartzaileei eskatzen dion zeinuen deskodifikazio lana eta ustekabeek sortzen duten zirrara neurri txikian aukeratzeko dute. Gizonen ordea, neurri handi batean aukeratzeko dituzte.

4.3.8. Gorputz hezkuntzak islatu duen espazioarekin harremana gizarlean

Unibertsoaren zabaltasunean lur planetan arreta jartzen dugunean, espazio naturalak eta gizakiak eraikitako espazioak bereizten dira. Lehenak babes eza, kontrol eza, eta zeinuen deskodifikazio lana esan nahi du eta bigarrenak babes eza, kontrola eta ereduaren errepikapena. Lehenak irudimena, ausardia eta arintasun abileziak garatzeko aukera ematen du, bigarrenak Foucaultek⁹⁰ azaldu bezala, berrikuntzarako energia gutxitzen du eta ez du irudimenerako lekurik, bai ordea, errepikapenerako eta estereotipo motorrak eraikitzeko.

⁹⁰ Diziplinazko gorputzen teoria ekartzen da gogora: "diziplinazko gorputz indarrak (erabileraren ekonomia-aren ikuspuntutik) gehitzen ditu eta indar berbera horiek gutxitzen ditu (obediencia-aren ikuspuntu politikotik)" (Foucault, 2009, 142 or.)

Bestetik, eraikitako espazio artifizialekin industrializazioaren ondorioz bereizten diren espazio publikoan eta pribatuan funtzio zehatzak betetzeko banatzen dira. Horrela, kaleak, plazak, parkeak, bideak edota eraiki publikoak tradizioan etxekoaren interesak kanpokoaren aurrean defendatzeko rola betetzeko gizonak bete izan dituen espazioak dira. Eta, etxea tradizioan etxekoaren arteko harremanak zaintza rola betetzeko emakumeak bete izan duen espazioa da. Gizonari ekoizpen lanetan ardura izatea egotzi zaio eta emakumeari ugalketa lanetan, bi funtzio hauen arabera bakoitzak espazio bat bete izan du, gizonak kalea eta emakumeak etxea.

Emakume eta gizonen arteko desberdintasunetan oreka bermatzeko nahian feminismoen eta hartu diren erabaki politikoen eraginez, gizakiok espazio guztiak betetzeko eskubidea dugula ohartu gara eta honetan gaur egungo gizarte moderno eta aurrerakoietan gizona emakumearen esparruko funtzioak betetzen hasia da eta ondorioz emakumeari egotzi izan zaion espazioa betetzen du. Baina, emakumeak ere lan esparruan murgiltzerakoan gizonari egotzi izan zaizkion funtzioak eta espazioak betetzen ditu.

Gizonek naturan gauzatzen diren kirolekin parte hartze maila altua espazio naturalak betetzeko joera erakusten du, espazio naturala gizonen eremuan bilakatuz.

Behatutako gorputz hezkuntza gizakiak eraikitako espazioen hormen artean gauzatu da. Familia taldea etxea den espazio pribatuan hazten den bezala, irakasle, ikasle eta ikastetxearen hezkuntza agenteak egunero ordu kopuru handietan familia bat osatzen dute eta familia tradizionalen erara, ikastetxea bigarren etxean bihurtzen da. Beraz, ikasleak, babesean eta kontrolaren ezaugarrian hazten dira, espazioarekiko ziurgabetasun eza. Behatutako gorputz hezkuntzak erabili dituen espazioen ezaugarrietan arreta jarriz gero, gorputz hezkuntzako ikasleak espazioarekiko ziurgabetasun ezak sustatzen dituen adimenean eta afektibitatean hazi direla baieztatzen da.

Laburbilduz, gizarlean espazio naturaletatik eraikitako espazioetara giza antolamenduan emakumeak gizonak ez bezala espazio naturalak saihesten ditu. Eraikitako espazio pribatu eta publikoaren genero banaketa egonik. Emakumeari espazio pribatua egotziz eta gizonari publikoa. Behatutako gorputz hezkuntzan neska eta mutilen heziketa gauzatzeko artifizialki eraikitako espazio pribatuaz baliatu den neurrian, babesean espazioarekiko zeregin motorrak gauzatzeko eta errepikatzeak aukera eman da. Lehen Hezkuntzan neskek eta mutilak tradizioan emakumeari egotzi izan zaion espazioen ziurgabetasun eza hazi dira. Gizarlean generoarekiko agertzen den banaketa espaziala saihestuz. Mutilen ere emakumearen espazio ezaugarrietan hazi dira, Lehen Hezkuntzan gorputz hezkuntzaren bitartez genero desorekan emakumearen alde eginez.

4.4. Giza harremanen izaera

Pertsonen arteko harremanetan komunikazioa erak eta distantzia fisikoak kultura batek baimentzen eta debekatzen duenaren arabera gizabanako nor-tasuna eraikitzen dute.

Horrela, pertsonekin harremanetan distantzia fisiko “estua, pertsonala, soziala eta publikoa” izan (Hall, 1973, 180 or.) eragin afektiboa desberdina da. Adibidez, errugbian plakatzean edo boleibolean harrera egitean“ une horretan pertsona bakoitzak parte hartzen duten besteekiko bizitzaren duen sentimendu edo sentsazioa” desberdina da (Hall, 1973, 181 or.). Errugbia distantzia estuan eman daitekeen kontaktu fisikoaz baliatzen da, boleibolak saihesten du. Zentzu honetan, praktika motorretan “gizakiari dagokion kulturaren garapen espezializatuaren ondorioz gizakiak egiten duen espazioaren erabilerarekiko behaketak, elkar harremanak eta teoriak” (Hall, 1973, 15 or.) generoaren ikuspuntutik azterketa egiteko bidea zabaltzen dute.

Era berean, pertsonen arteko harremanetan ardatza den komunikazioan norberak hartzen duen garrantzia besteekiko erantzukizunarekin ordezkaturik kultura indibidualista eta kolektibistaen arteko joan-etorrian kokatzen gara. Praktika motorretan bakarka eta besteekin edota besteen kontra harreman eren generoaren ikuspuntutik azterketa gorputz hezkuntzan bultzatu den hezkidetza ereduaz ezagutzeko hartu den bidea izanik.

4.4.1. Giza harremanen izaera gizarte indibidualista eta kolektibistetan

Giza harremanei dagokionez gizartearen kultura eta giza portaeraren arteko loturak egiterakoan “indibidualismoa - kolektibismoa eta berdinaletasuna - hierarkia nazioak eta kulturak bereizteko dimentsio garrantzitsuenetarikoa bi dira” (Basabe eta Ros, 2005, 190 or.). Besteekiko harremanak ezartzeko erak zein balioei ematen dieten pisua zehaztean giza portaerak eta jarrerak ulergarriagoak egiten direlako.

Horrela, kultura eta giza portaeraren arteko loturak aztertzen dituzten Basabe eta Ros autoreek lau balio kultural teorien⁹¹ arteko konbergentzia ikerketaren ondorioz gizarte indibidualistek banako plazera eta pertsonalizazioa, autonomia pribatua edota axolagabetasun politikoa, ideologikoa azaleratzen dituzten balioak direla azaldu dute. Gizarte indibidualistetan nartzisismoak bere lekua hartzen du. Guztiz asozialak ez diren gizarte indibidua-

⁹¹ Hofstede, Schwartz, Trompenaars eta Inglehart autore bakoitzak gizartearen balio kulturalaren teoria bat garatzen dute. Hofstedek botere tartea dimentsioarekin gizarteetan boterea nola banatzen da aztertzen du; Schwartzek gizarte kolektibisten berdintasunean edo hierarkian jartzen du arreta; Trompenaarsek konpromiso eta erabilgarritasun dimentsioetan jartzen du arreta, familiari leialtasuna edo ardura pertsonalak aintzat hartuz; eta Inglehartek materialismoa eta materialismo ondokoan eta bestetik, modernizazioan eta modernizazio ondokoan arreta jartzen du.

lista nartzisistetan, norbanakoaren izaera adierazteko talde txikiarekiko solidartatea bilatu eta eskaintzen dira: alargunen asoziazioak, alkoholiko semeen gurasoak. Gizarte indibidualista nartzisistatik garrantzia norberaren plazera bilatzean dago. “Windsurf, skate, ala delta, gizarte postmodernoan irristatzearen garaia da, sare publikoak oinarri solidoa, ainguratze emozional egonkorra ez dituen denbora zehazki adierazten duen kirol irudia” (Lipovetsky, 1986, 12 or.) hauek gai soziopolitikoekiko “irristatzen den axolagabekeria erlaxatua” (Lipovetsky, 1986, 13 or.) erakutsiz.

Nartzisismoaren lekukoa den gizarte postmodernoan geroan fedea eta konfiantza izatea, eta aurrerapenean sinestea helburuak norberaren berehalako errealizazioa eta lasaitasunagatik aldatu dira. Helburu hauek betetzeko “informazioak, kirolak eta bidaiak, formazioa eta harremanak, musika eta mediku zaintzak” (Lipovetsky, 1986, 10 or.) kontsumitzen dira. Kontsumoa gizarte postmodernoen ezaugarria eta baldintza izanik, aukerak egiteko posibilitateak zabaltzen dira eta ondorioz “neurritasun eginiko kultura martxan jartzen da” (Lipovetsky, 1986, 11.), gizarte pertsonalizatua eraikitzen da non “txapelketa, lorpen pertsonalak eta barruko bereizgarrietan indarra jartzea ezaugarriak dira” (Basabe eta Ros, 2005, 191 or.). Perfekzioa eta nagusitasun kulturalak azaleratzen dituzten kulturek, “maisutza indartzen duten kulturek norbere buruan konfiantza, eta asmo handiak, arrakasta, lehia edo arriskua bezalako balioak” (Lipovetsky, 2005, 192 or.) osagaitzat hartzen dituzte.

Norbanako plazerearen balioa gizarte indibidualisten ezaugarria izanik, azken hamarkadetan pertsona bakarreko familia motaren igoera ulergarriagoa bihurtu daiteke. Bakarrik bizi direnen indizea igo da⁹², 30 urtetik gora dutenen multzoak 2006an ea %48koa zen, “bakarrik bizi direnen ezkongabetasuna gehiengoan egoera zibila izatera” heldu da (Eustat, 2006, 2 or.). Eta guraso eta seme-alabez osaturiko familia tradizionalaren indizea baxatu da⁹³, 1986tik 2006ra ehunekoetan 22 bat puntu jaitsi da. Gertaera demografiko hauen arrazoiak anitzak dira, baina arrazoi ekonomikoek pisu handi dute. Jaiotza etxetik emantzipatzeko familia berri bat osatzeko arrazoi ekonomikoak garrantzia badu ere, emantzipazioa pertsona bakarreko familia osatuz atzeratu baino ez da egiten. Gaur, norberaren berehalako errealizazioa besteekiko betekizunen zentzuaren gainetik dagoela inferitu daiteke.

Bestetik, gizarte kolektibismoaren ezaugarri nagusiak taldearekiko betekizunen zentzua eta lana dira. Brasilgo Bahia lurraldean lakuan bakarka eta itsasoan taldean arrantzan egiten duten gizonek lehia eta taldearekiko erakusten duten joerari buruz eginiko ikerketan “lehiakortasuna banako gizarteetan

⁹² Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) ezkongabe bakarrik bizi direnen indizea “2006an ea %48koa da eta 1986an %40 baino apur bat gehiago ziren” (Eustat, 2006, 2.). Bereziki, 30 urtetik aurrera dutenekin osatutako multzoa izanik.

⁹³ EAE-n “1986n familia guztien %63 izatetik, 1996an %51era eta 2006an ea %41ra izatera pasatu da” (Eustat, 2006, 6.)

kolektibistetan baino garrantzitsuagoa dela” (Leibbrandt, Gneezy, eta List, 2013, 9.306 or.) ikusi da.

Horrela, lakuan bakarka arrantzaten duten gizonek lehiatzeko eman duten baiezko erantzuna itsasoan taldean arrantzaten dutenek baino altuagoa izan da, “bakarka lan egiten duten arrantzaleak lana taldean egiten duten arrantzaleak baino %65 gehiago lehiatzen egon ziren” (Leibbrandt eta lag., 2013, 9306.). Bahia lurraldean eginiko azterketan elikagaia lortzeko bakarka aritzeak arrantzaleen artean lehia pizten du baino itsasgizonak elikagaia lortzeko beraien artean lan kooperatiboan oinarritzen dira. Jarrera lehiakorrek eta norberaren izaeraren eraikuntzan oinarritzen den arrakasta gizarte indibidualistetan arruntak diren ezaugarriak dira. Besteekin kooperatzea eta besteen ongizateaz arduratzea “berdintasunezko konpromisoa indartzen duten kulturak” (Basabe eta Ros, 2005, 192 or.) dira.

Era honetan, pertsonen arteko harremanetan bideratzen den komunikazioa norbanako lorpenetan edo taldearekiko betekizunen zentzuan ematen bada desberdina izango da.

Balio kultural teoriari egindako ekarpena, bereziki gizarte indibidualistak eta kolektibistak gainditzeko kapital soziala kontzeptua zabaltzen dela ikusten da. Giza zientziak garatutako kontzeptu arrakastatsua den kapital sozialean egon daitezkeen ikuspegietatik bi dira argi bereizten direnak. Batak onurak lortzeko estrategiei ematen die garrantzia, norbanakoaren onurak lortzeko estrategia arrazionalak kontzienteki erabiltzen dira, ikuspegi “indibidualistagoa, lehiakorra eta instrumentala da” (Zubero, 2007, 249 or.). Beste ikuspegiak kapital soziala edozein komunitatearen baliabidea bezala ikusten du, hau da, komunitateen berezko ezaugarria litzateke eta komunitarioagoa eta kooperatiboagoa da.

4.4.1.1. Kapital soziala eta harremanak

Baina, bi ikuspegiak lotuz kapital soziala kontzeptua zabaltzen da. Norberaren interesak bermatzen dituen guztiz banan-banako den gizarte indibidualista eta talde lana eta kohesioa goraiatzen dituen gizarte kolektibista. “Senide eta lagunaren sare sozialak, pertsonenganako eta erakundeenganako konfiantza, gizarte parte hartzea eta lankidetzak, informazioa eta komunikazioa, kohesioa eta inklusio soziala, eta zorientasuna eta osasuna” (Zubero, 2007, 251 or.) kapital soziala kontzeptuak arreta jartzen dituen dimentsioak aintzat hartzen dituen gizarteak zabalduz.

Kapital soziala kontzeptuak “harreman sozialen balioa eta kooperazioaren eta talde edo ekonomiko emaitzen lorpeneko konfiantza azpimarratzen du” (Pérez, 2007, 2 or.). Gizabanako eta taldeen arteko lehentasunezko tratua onduz onurak konfiantzazko jarreraren eta lankidetzak jokabidean gauzatzen dira. “Kapital soziala harremanei eta gizarte parte hartzeari lotutako dimentsio multzoa den” (Eustat, 2013b) neurrian, gizabanako isolatuen aurrean giza sareak indarra hartzea eta sustatzea ezinbestekoa egiten da, gizabanakoak

lankidetzarako eta konfiantza izateko duen joera gai egiteko. Lipovetskyk gizarte postmodernoetan azaltzen duen nartzisismoak “... zirkuitu eta sare integratuak: mikrotaldearen solidaritatea, parte hartzea... ardua berdina konpartitzen duten gizakiekin konfiantzan sentitzearen nahia” (Lipovetsky, 1986, 13 or.) adierazten duenean kultura hedonistan besteekin parte hartzeari garrantzia ematen dio norberaren izaera adierazteko ez bada ere. Familia eta antolakuntza anitzak adierazpenerako bitartekoetan bihurtzen dira, norbanakoaren ongizate, zorientasuna eta osasuna bermatzen baitute.

Era honetan, nartzisismo postmodernoaren kapital soziala nozioz ari gara, zeinek soilik indibidualismoari edo kolektibismoari garrantzia eman beharrean biak aintzat hartzen ditu. Horrela, prozesu pertsonalizatua aurrera doan neurrian sare sozialean izaera adierazteko bideak bermatzen dira. Norbanako izaeraren eraikuntzaren prozesuan eta taldeekiko betekizunetan komunikazioa ardatzean bihurtuz.

Kirolak kapital sozialak hartzen dituen bi ikuspegi aintzat hartzen ditu. Alde batetik, banako onuran arreta jartzen duen ikuspegiak atletismoko proba ugariak islatzen dute: diskoa ahalik eta urrunen jaurtitzeko edo abiadurazko lasterketa ahalik eta arinen egiteko entrenamendu saioetan eraikitzen diren gorputz teknikek etekin motorra bilatzen dute emaitza onena lortzeko, adibidez goi mailako kirolean errekorra, hau da onura.

Baina, baita ere taldeko kirolak emaitza hobetzeko (onura) gorputz teknika berriak eraikitzea bilatzen du. “Kirolak onura printzipioagatik zuzenduta guztiz eraginkorrek eta espezifikoak diren teknikak moztzen, aldentzen, mugatzen ditu” (Brohm, 1982, 32 or.). Adibidez, errugbian lasterketa teknika kirolariak baloia eskuan daroala edo plakatze teknika adibide batzuk dira.

Gizarte industrializatuetan oso espezializatua den teknika eta makina zeregin guztien ardatz nagusiak diren neurrian, gorputza makinatzen hartzen da. Eta “kirola gizarte industrial baten ohiko jardura fisikoa da zeinen oinarriak lanaren antolaketa zientifikoa eta gizakiaren aurrerapen linealean sinesmen pragmatikoa dira” (Brohm, 1982, 33 or.). Onura gorputza makinak hartzen duen kirolaren printzipioa da, boxeoan aurkaria irabazteko edo atletismoko distantziak denbora laburrenean egiteko teknikak entrenatzen dira, baita ere saskibaloian baloia saskira sartzeko. Adibide hauek kapital soziala kontzeptuaren indibidualista eta lehiakorragoa den ikuspegia islatzen dute, baina baita ere saskibaloian kasuan, eta azken finean, errugbi, futbol edota bolei talde kirolean onura lortzeko talde estrategia eraikitzean. Norbere izaera taldean erakusteko aukerak kapital sozialaren ikuspegi komunitarioa erakutsiz.

Kultura indibidualistetan eta taldearekiko betekizun zentzua eta lanari garrantzia ematen dieten kultura kolektibistetan kirol nortasunaren eraikuntza aztertzen duten Lau, Cheung eta Ransdell ikertzaileek⁹⁴ kirolean parte hartzeko

⁹⁴ Patrick W.C. Lau, Mike W.L. Cheung eta Linda Ransdell, Hong Kong Baptist Unibertsitatea, Singapurreko National Unibertsitatea eta Estatu Batuetako Boise State Unibertsitatekoa.

arrazoietan jarri dute arreta. Eta, Estatu Batuetan eta Txinan desberdinak direla ikusi dute. Horrela, “haur eta gazte txinatarrentzako kidesun soziala eta osasuna kirolean edo ariketa fisikoan sartzen saiatzeko arrazoi nagusiak ziren” (Lau, Cheing, eta Ransdell, 2008, 77 or.). Eta Estatu Batuetako ikerketako parte hartzaileek⁹⁵ kirolean parte hartzeko erakutsi zituzten arrazoi nagusienetarikoa bi “txapelketa eta abilezien hobekuntza” (Lau eta lag., 2008, 77. or.) izan ziren.

Portaera kolektibista erakusten duten Txinako gazteen kirolean parte hartzeko arrazoiak Brasilgo Bahia lurraldeko itsasgizonek erakusten duten kideen arteko kooperazioa eta talde lana dira nagusi. Txinatar kulturak norbanakoaren helburuak taldearen helburuetan bihurtu ez ezik, zereginaren funtsa ez da ulertzen.

Baina, Brasilgo Bahia lurraldean lakuan arrantzatzen dutenen arteko lehia Estatu Batuetako gazteen kirolean parte hartzeko arrazoiari bihurtzen da. Lehiakorra izateko abilezien garapenak duen garrantziaz jabetuz, kirol praktika gazteen eguneroko zereginetan bihurtzen da, irabazteak banako plazera eragotzen duen bitartean.

Guztiarekin, aztertutako kapital soziala kontzeptua gogora ekarriz, Lipovestky azaltzen duen kultura nartzisista postmodernoaren indibidualismoari jarraituz norbanakoaren helburuetan arreta guztia jar ez dezagun bereziki talde kirolek garrantzia hartzen dute, zeinetan prozesu pertsonalizatua aurrera doan neurrian sare sozialetan izaera adierazteko bideak bermatu daitezke. Talde kirolen bitartez, kultura indibidualistari uko egin barik zeregin kolektiboak lantzen dira. Eta era berean, gizarte kolektibistan kidesun sozialari uko egin barik, eraginkorrak eta espezifikak diren teknikei esker banakako onura bermatzen duten banakako kirolak ere praktikatzeko dira.

4.4.2. Giza praktikan komunikazioa

Gizarte indibidualista eta kolektibotan pertsonen arteko harremanetan nahi eta nahi ez komunikazio bat bideratzen da. Pertsona batek besteari edo beste ahozko ikurren eta keinuen bitartez adierazi nahi duena agerian uzten die eta, alde berean, adierazi nahi duen informazioarekin zer ikusirik ez duten keinu, gorputz-jarrera, begirada eta akzioak erabiltzen ditu. Beraz, besteekin komunikazioan eman nahi den informazioaz gain, etengabe informatzen da eta “honek komunikazio prozesuan oinarritzeko asimetria erakusten du, zeinengan gizabanakoak komunikatzen duen ildo baten ezagutza du eta lekukoek ildo honen eta beste baten ezagutza dute” (Goffman, 2001, 19 or.).

Nola edo hala, gizarte indibidualista edo gizarte kolektibista izan pertsonen arteko harremanetan gako komunikazioan dago, komunikazioaren helburuak garrantzia hartzen du zeren eta besteek gutaz jakin dezaten informazioa ematen dugu eta aldi berean, komunikazioaren helburuarekin zer ikusirik ez duen informazioa ere ematen dugu. Goffmanek (2001, 42 or) aktoretzat hartzen duen

gizabanako bakoitzak besteen (ikusleen) aurrean norbere burua aurkezterakoan aztertzen duen komunikazioaren prozesuan besteak ere aktoreetan bihurtzen direla ikusten du. Horrela, aktore bakoitzak ematen duen informazioa aztertzea eta ulertzea pertsonen arteko harremanaren zeregina bihurtzen da, aktoreak agerian uzten duen informazioa osatuta dagoen zeinuen irakurketa beharrezkoa da eta elkarren arteko hartu emanean bestea ezagutzen dugu, bere asmoak asmatzen ditugu eta norberarenak ere agerian geratzen dira.

Pertsonen arteko komunikazioan ageriko zeinuak (ahozko lengoia, emozioen adierazpenak soinu edo keinuen bitartez, gorputz-jarrera) eta ezkutatzeko diren edota kontrolatzen ez diren zeinuak informazioaren joan-etorria ahalbidetzen dute. Beraz, zeinuak deskodifikatzeko gaitasunak giza harremanetan pisua hartzen du, lortu nahi den helburuaren arabera eta arau sozialak jarraituz kooperaziozko edota aurkaritza giza harremanak bereizten dira eta, aldi berean, lehenengo interpretazioaren ondoren bigarren mailako esanahiak laguntzazko komunikazioa zena aurkaritzazkoan bihurtu daiteke. Giza harremanetan maiz gertatzen direnak. Adibidez, haur eta gazteen borroka jolasetan ezkutuko zeinuen jolastan dabilzala adierazten dute baina ageriko akzioan indarrez emandako zaplazteko bat ageri da, hartzailea lekuz kanpo utziz, zer gertatzen den galderari erantzun nahian berak irakurritako zeinuen beste esanahi bat adierazten zutela kontuan hartuz.

Edonola, gizabanako bat besteen aurrean aurkezten denean egon daitezkeen txarto ulertuak edo dagokion rolari egozten zaizkion portaerei uko egingez gero ondorioak hiru mailatan ikusten dira: giza elkarrekintzan, egitura sozialean eta gizabanakoaren nortasunean.

Horrela, besteekin harremanetan erakusten dena itxaroten denarekin bat ez datorrenean giza elkarrekintza eten egiten da, hau da, “sortutako giza sistema txikia nahasita geratzen da” (Goffman, 2001, 258 or.) eta eraikitako egoeran parte hartzaileak akzioaren norabiderik gabe aurkitzen dira. Aldi berean, besteen aurrean gizabanakoaren jokaera etengabe neurtzen da eta okerren baten aurrean aktoreak prestigio galdu dezake giza egitura eragina izanez. Baina, baita ere, norbere buruan konfiantza galtzen da aktorearen nortasunean eragina izanez.

Kirol jokoen errealitatean txarto ulertuak egon ez daitezkeen komunikazioak parte hartzaileen arteko “elkarrekintza motorren originaltasunaren alde erabakitzen du, psikomotrizitatea eta sozio-motrizitatearen arteko bereizketa oinarrituz” (Parlebas, 2001, 333 or.).

4.4.3. Esparru motorren komunikazioa

Pierre Parlebasek akzio motorren zientziaren oinarriak ezartzerakoan komunikazio motorra horrela definitzen du: “Kooperaziozko elkarrekintza motorra, berezkoa eta zuzena” (Parlebas, 2001, 81 or.). Eta “ekintza motorra egiten den bitartean, giza banako baten portaera motorrak bestearen edo

beste parte hartzailetan, behatu daiteken eran eragina duenean elkarrekintza motorra ematen dela” esaten da (Parlebas, 2001, 269 or.).

Bestetik, parte hartzaileen arteko kontra-komunikazio motorraz ere hitz egin daiteke, “oposiziozko elkarrekintza motorra, berezkoa eta zuzena” (Parlebas, 2001, 99 or.) bezala definitzen duena.

Berezko elkarrekintza motorra “ekintza motorraren gauzatze instrumentalararen zatia osatzen duen elkarrekintza motorra da, eta parte hartzaileek, joakoaren arauen arabera burutzen dutena” bezala definitzen da (Parlebas, 2001, 272 or.). Beraz, errugbi partidu batean, baloia duen jokalaria batek pasea egiten duenean edo boleibolean egiten den sakea, parte hartzaileen artean ematen diren elkarrekintza motorrak dira eta funtsezko eta berezkoak dira. Baina, ikusle eta parte hartzaileen artean edo 100 metroko abiadura lasterketan beste kaleetan doazen jokalarien artean ematen den komunikazioan, elkarrekintza sustatzen dela onartzen bada ere, berezkoa ez den elkarrekintzaz hitz egin behar da. Zalantzarik ere ez dago, berezkoa ez den elkarrekintza motorretan dagoen eragin afektiboa. Baina, jarduera motorretan sor daitezkeen harreman motorrak mugatzerakoan, parte hartzaileen akzio motorrek beste parte hartzailetan eragin zuzena duten egoeretan jartzen da arreta. Era honetan, jokalaria batek egiten duen pasea, sakea edota, baloia eskatzeko eskua altxatzen duenean, berezko elkarrekintza motorraz edo komunikazio praxikoaz hitz egiten da.

Behatutako gorputz hezkuntzan palak eta erraketak bikoteka⁹⁶ jarduera motorrean ikasleak bikoteka frontoian sakabanatuta kokatzen dira. Bikote bakoitzeko kideek aukeratzen duten pala edo erraketa bana hartzen dute eta, bikoteko, teniseko pilota bat dute. Helburua bikote bakoitzeko kideak bere kideari pilota pasatzea da. Horretarako kideak, bata bestearen aurrean kokatzen dira eta pilotari erraketarekin edo palarekin jo behar diote. Kideen arteko tarte bat mantendu behar badute ere, distantzia hori aldakorra izan daiteke eta ikasleen abileziaren arabera luzeagoa edo laburragoa izango da. Irakasleak minutu batzuen ondoren jarduera bukatutzat ematen du.

Neskek eta mutilek bikoteka bikote kidearengana pilota ondo heldu dadin pilotari jotzen saiatzen dira. Jarduera pilotaren joan etorri jarraituan oinarritzen da eta kide batek pilotari jotzen dion bakoitzean komunikazio motorra gauzatzen da, parte hartzaileek egoera honetan beti kooperaziozko elkarrekintzak erakusten dituzte.

Baina, palak eliminatzeraz⁹⁷ jarduera motorrean ikasgela osoak hartzen du parte. Frontoiaren aurreko hormaren aurrean kokatzen dira, larruzko pilota baterekin eta bakoitza egurrezko palarekin. Helburua pilota, palarekin joz, aurreko hormaren kontra eramatea da. Bete behar honetan, jokalariek, elimi-

natuta izan aurretik, bi akats egin ditzakete. Hirugarren akats ostean, jokalaria, eliminatuta geratzen da. Beraz, jokalaria bakoitzak bi bizitza ditu. Pilotari lurra birritan jo ostean emanez gero edo aurreko horman lurretik metro batera dagoen txapan edo txaparen azpian joz gero akatsaz hartzen da. Lehenengo sakea irakasleak egiten du eta akats egiten den bakoitzean aurretik ondo egin duen azkenak egiten du sakea. Jarduera jokalaria guztiak eliminatuta daudenean amaitzen da eta eliminatuta geratu ez den bakarra irabazlea da.

Neskek eta mutilek pilotarekin palari jotzeko aukera duten bakoitzean, hurrengoak pilotari jotzeko zailtasunak izatea bilatzen dute, helburua norbera akats egin barik hurrengoak akatsa egitea da eta zeregin honetan etengabe kontra-komunikazio motorra gauzatzen da. Oposiziozko komunikazioa ematen den adibide hau parte hartzaileen arteko elkarrekintzak burutzeko oztopoak jartzean datza.

Azaldutako bi adibide hauek berezko elkarrekintza motorra edo komunikazio praxikoa erakusten dute, “komunikazio praxikoak egoera soziomotorrak definitzen dituen ezaugarria osatzen du” (Parlebas, 2001, 82 or.). Eta bakarka gauzatzen den jardueran komunikazio praxikorik ez da ematen.

4.4.4. Esparru motorrean harremanak: egoera soziomotorrak eta psikomotorrak

Berezko elkarrekintza motorrak oposiziozkoak edota kooperaziozkoak izan, esan bezala, egoera soziomotorretan baino ez dira ematen. Horrela, egoera soziomotorrak “egoera motorrak berezko elkarrekintza motorrak (edo komunikazio praxikoak) eskatzen ditu” (Parlebas, 2001, 427 or.) eta egoera psikomotorretan parte hartzailea bakarka ari da, beraz, berezko elkarrekintza motorrak ezinezkoak dira.

Behatutako gorputz hezkuntzan pilota ehiztaria jarduera motorrean ikasgela osoak hartzen du parte baina harrapatzaileen eta jokalaria libreen rola bereizten dira. Irakasleak erabakitzen du gelaren X ikaslea eta bera harrapatzaileak izango direla. Harrapatzaile bi hauek zelaia erdia erabiltzen dute jokalaria libreak baloiarekin ukitzeko. Baloi esku baterekin hartzeko neurrikoa eta gomazkoa da”. Helburua jokalaria libre guztiak harrapatzea da. Horretarako harrapatzaileek baloi bat dute eta, euren artean paseak eginez, gertuen duen jokalaria librea baloiarekin ukitzen saiatzen dira. Harrapatzaileek baloia eskuan duten bitartean ezin dituzte lekualdaketak egin eta inoiz ez dute jokalaria libre bat harrapatuko baloia jaurtiz. Jokalaria libreak zelaitik desplazatzeko aukera dute. Harrapatzaileak jokalaria libre bat baloiarekin ukituz gero, azken hau harrapatzailean bihurtzen da, baina harrapatzaileek euren rola mantentzen dute. Jarduera jokalaria libre guztiak harrapatzailearen rola hartzen dutenean amaitzen da.

Neskek eta mutilek harrapatzaile rola dutenen arteko paseak egiterakoan funtsezko eta berezko elkarrekintza motorrak gauzatzen dituzte, kooperaziozkoak. Era berean, baloia duen harrapatzaile batek parte hartzaile libre bat

⁹⁶ Fitxategian 27. jarduera.

194 ⁹⁷ Fitxategian 29. jarduera

baloiarekin ukitzen duenean berezko eta funtsezko elkarrekintza gauzatu du, oposiziozkoa. Izan ere, akzio motor hauek (paseak egin, baloiarekin ukitu) beste parte hartzaileen erantzun motorra baldintzatzen dute: parte hartzaile libreak baloia norantz joan bera beste alderantz egiten du; baloiarekin ukitua bada, rol aldaketa ematen da eta libre izatetik harrapatzaile rola hartzen du.

Behatutako gorputz hezkuntzan zesta punta banaka 2. jardueran⁹⁸ ikasgela osoak hartzen du parte. Frontoian sakabanatuta daude, bakoitza bere xisterarekin eskuan lotuta eta pilotarekin. Helburua pilota xisteran sartzea da. Horretarako ikasle bakoitzak xistera ez duen eskuarekin pilota lurraren kontra jaurtitzeko du. Pilotak botea eman ondoren, ikasle bakoitzak, pilota beheantz egiten duenean, xisterarekin hartu behar du. Garrantzitsua da, behin pilota xistera barruan egoten denean, besoarekin pilotaren norabidea jarraitzea, besoa atzerantz eramanez, gero, pilota xisteratik gorantz ateratzeko, besoa aurrerantz eginez.

Jarduera honetan, neska eta mutil bakoitzak bere xistera eta pilota ditu eta frontoiaren gune batean egin beharreko keinua behin eta berriro errepikatzen ari da. Beraz, parte hartzaileen arteko berezko elkarrekintza motorra (edo komunikazio praxikoa) ez da ematen. Izan ere, zesta punta banaka 2 jarduera egoera psikomotorren adibide bat da.

Komunikazio praxikoak jarduera motor batean parte hartzaile bat baino gehiago daudenean egoera sozomotorraz hitz egiten dela azaltzen du. Beraz, jardulearen akzio motorrek ondoan duen jardulean eragina motorra ez dutenean egoera psikomotorraz hitz egiten da. Era honetan, berezko elkarrekintza motorra ematen denaren arabera egoera sozomotorrak edo psikomotorrak bereizten dira.

4.4.4.1. Egoera sozomotorrek sustatzen dituzten harremanak

Komunikazio praxiko zuzenak edo elkarrekintza motorra zuzenak, jarduera motorren arauak mugatuta "... parte hartzaileen arteko oposiziozko edota kooperaziozko harremanen ezaugarri teknikoak definitzen ditu" (Parlebas, 2001, 271 or.). Bestetik, komunikazio praxiko ez zuzenak (ikusleen eragin afektiboak, adibidez) edo elkarrekintza motorra ez zuzenak komunikazio praxiko zuzena eman dadin baldintzak osatzen baditu ere, ez dago jokoaren kodeen barruan.

Jarduera motorren azterketa egiterakoan, kontra-komunikazio eta komunikazio motorrak elkar osagarriak dira. Horrela, komunikazio motorren sarea eraikitzeak aukera ematen dute. Komunikazio motorren sarea "erpinak jokalariek adierazten dituzten eta arkuek, arauak baimentzen dituzten komunikazio edota kontra-komunikazio motorrak adierazten dituzten kirol joko baten grafoa da" (Parlebas, 2001, 387 or.). Termino matematikoa den grafoa, egoera motorrak aztertzeak ezin tresna hobetua da eta ematen diren aldaketak eta jokoaren dinamika azaltzeko erabil daiteke. Honekin batera, komunikazio motorren sarearen ezaugarriak definitzeko aukera zabaltzen da.

Jarduera motor batean parte hartzaileen artean gauzatzen den komunikazio praxikoaren arabera, oposiziozko, kooperaziozko edo oposizio/kooperaziozko harremanak bereizten dira. Gauzatzen den jarduera motorra hasi eta bukatu arte ematen diren elkarrekintza motorrek harreman mota desberdinak sustatzen dituzte. Banako esku pilotan, soilik oposiziozko harreman motorra ematen da; bikoteka egiten den eskaladan, soilik kooperaziozko harremana; eta boleibolean oposizio/kooperaziozkoa. Inguru sozialarekiko ziurgabetasuna oposiziozko edo kooperazio-oposiziozko harremanetan maila gorenean badago, kooperaziozko harremanetan ia desagertu egiten da, besteekiko ziurgabetasunaren arabera, funtzio semiotrixa areagotuz edo hutseratuz. Ematen den elkarrekintza motorren arabera, "besteek jokabideetatik datorren ziurgabetasunak" (Parlebas, 2001, 248 or.) "parte hartzaileen jokabide motorrekin zuzenean lotutako zeinuen sistemak" (Parlebas, 2001, 406 or.) deskodifikatu beharra ezartzen du. Zeinu bakoitzari esanahi bat ematen zaio eta horren arabera, jokalariek bere erabaki motorrak eta estrategia motorrak eraikitzen ditu.

Jarduera motorrak gauzatzeko parte hartzaileek etengabe erabaki motorrak hartu behar dituzte. Besteak egiten dituen akzio motorren arabera erabakitzen da. Honek, "bestearen lekuan ipintzen saiatzean, akzioan dagoen pertsonak bestearen ikuspuntua hartzen duen prozesua" (Parlebas, 2001, 146 or.) bezala definitzen den dezentrazio motorraz baliatzea eskatzen du. Eta prozesua berak, "elkarrekintzan aritzen den gizabanako bat beste parte hartzaile baten ikuspuntua ulertzen saiatu eta beraren akzioa erabakiaren jokabide motorrak gauzatzekoan kontuan hartzen duenaren prozesua" (Parlebas, 2001, 188 or.) bezala definitzen den enpatia motorra kontzeptua dakar.

Berezko elkarrekintza motorrean aritzen diren parte hartzaileek, besteak azaltzen dituzten zeinuen irakurketa eta interpretazioa egin behar dute. Gero, eginiko deskodifikazio motorren ondorioz, erabaki motorra hartzeko eta erabakia jokabide motorretan gauzatzeko, ingurune sozialarekiko ziurgabetasuna agerian dago. "Egoera baten ziurgabetasunari lotuta, jokabide motorra egiterakoan adierazten den aukera da. Erabaki honek, akzioaren fluxu beran, portaera motorrean islatzen dela originaltasuna du, eta ekintza motor baten ebazpena egiterakoan lekuan bertan hartzen du parte" (Parlebas, 2001, 101 or.) bezala definitzen den erabaki motorra oposiziozko edo oposizio/kooperaziozko harremanetan gauzatzen da. Emaizta arrakastatsua izan dadin eta porrota ekiditeko, parte hartzaileak, erabaki eraginkorrena hartzeko, deszentrazio motorraz baliatu behar dira. Honek dakarren enpatia sustatuz.

Gakoa besteari aurre hartzean datza. Aurre hartze motorra "baldintza hoberenetan ekiteko prestatzeko asmoarekin, espazioan eta denboran esku hartzearen garapenean, egoeraren ahalezko eboluzioa aktiboki kontuan hartzen duen jokalariek baten jokabide motorra da" (Parlebas, 2001, 48 or.). Zelai errean, besteak egingo dituzten portaera motorrei aurreratu behar da. Horrela, baloiak duen aurkari batek adierazten duen praxemari aurre hartzen bazaio norbera erreta ez izateko aukera bat egongo da.

Jokalariak “egoera motor zehatz batek proposatutako ekintza ebazteko xedearekin, lekuan bertan banako edo taldeko plan baten ezarpena” (Parlebas, 2001, 215 or.) den estrategia motorra eraikitzen du. Baina estrategiaz hitz egiten denean, definizioan azaltzen den bezala, jarduera motorrean parte hartzen den bitartean eraikitzen den estrategiaz hari gara. Eta ez aldeztu aurretik, adibidez, partidua hasi aurretik edo entrenamendu saioetan, aukera teorikoe-tan oinarrituz, eraikitzen den estrategia.

Adibidez, behatutako gorputz hezkuntzak proposatu duen errugbia partiduak jarduera motorrean ikasleak lau taldeetan banatzen dira: gorria, horia, urdina eta berdea. Irakasleak arbitroaren rola betetzen du. Lehengo bi taldeak, bakoitzak aukeratu duen zelaian kokatzen dira eta beste biak harmailetan. TAG⁹⁹ errugbiko arauak jarraituz, partiduak egingo dituzte. Jokalariak praktikatzen dituzte eta arbitroak txilibitu bat. Helburua norbere zelaian entsegua galaraziz, aurkako taldekoari entsegua egitea da. Horretarako, talde bi, futbito zelaian kokatzen dira, bakoitza bere zelaiaren aldean sakabanatuta. Baloia jokoan jartzeko, sakea¹⁰⁰ egin behar da, bikoiti edo bakoiti prozedurarekin zein taldeak egiten duen sakea zozkatzen da. Sakea egiten duen jokalaria, baloia eskuetan hartu behar du eta oinarekin joz, baloia aurkariaren zelai aldera jaurtitzeko. Behin baloia jokoan jarri ondoren, jokalariek aurkariaren entsegu gunerantz, aurrerantz beti, baloiarekin eta korrika abiatzen dira. Baina baloia mugitzeko era bakarra pasea da, hain zuzen ere, bi eskuekin atzerantz eginiko pasea. Entsegua egiteko baloia entsegu gunea konoek mugatzen duten lerroaren atze aldean eskuarekin utzi behar da. Entsegua eginez gero, baloia berriro jokoan jartzeko, entsegua egin den gunetik taldeko batek eskuekin, atera behar du. Gogoratu behar da, baloia berreskuratzeko aukera izateko baloia duenari tag egin behar zaiola (gerritik zintzilikatuta duen zinta bat kenduz). Ondoren, baloia zuenak, baloia lurrean utzi eta tag egin dionak hartzen du baloia. Bestetik, baloiaren pase bat aurrerantz eginez gero, falta da. Hau gertatzen denean, baloia jausi den lekuan, lurrean uzten da eta falta egin duenaren aurkako taldeko batek (gertuen dagoenak edo baloia dagoen tokira arinen hurbiltzen denak) baloia oinarekin ukitzen du eta jarraian eskuekin hartu behar du jokoarekin jarraitzeko. Jokalari honek bi aukera ditu: baloia eskuekin hartuta, korrika aurrerantz joan edo pase bat atzerantz egin. Partiduak bi entsegutara egiten dira. Talde bietako batek bi entsegu lortzen dituenean partidua bukatutzat ematen da.

⁹⁹ TAG errugbiaren berezitasun nagusia plakatzeo era da, baloia duen jokalaria ezin denez heldu, plakatzeo gerritik zintzilikatuta daramatzen zintetako bat kendu behar zaio. Era honetan, jokalaria plakatuta dago eta baloia galtzen du. Bete behar motor honi TAG egitea deitzen zaio.

¹⁰⁰ Sakea zein taldeak egingo duen sortez erabakitzen da (bikoiti bakoiti prozeduraz). Baina taldeko zeinek egingo duen sakea ez da erabakitzen eta edo jokalariren bat arinago ibili da eta sakea eskatzen duelako edo irakasleak baloia du eta gorantz jaurtitzeko duenean, baloia hartzen duen jokalaria egiten du sakea edo irakaslearen ondoan dagoen jokalaria hartzen du irakasleak eskuetan duen baloia eta egiten du sakea.

Errugbi partiduak jardueran jokalariek besteek egingo duenaren interpreta-zioa eraiki behar dute. Baloia duen aurkari bati jokalaria aurre hartu behar dio, tag egiten saiatuko da. Jokalaria aurkariaren ikuspuntuan jartzen dira etengabe, bestearen portaera motorrak adierazten duten intentzio motorri aurre hartzeko. Baloia ez galtzeko, aurkariari baloia kentzeko (tag egiteko), entsegu gunera heltzeko, pasea kideari errazteko strategiak eraikitzen dira eta hauek ikus daitezkeen portaera motorretan adierazten dira. Baloia duenaren kidearen atzean kokatzen den jokalaria aurkari baten lasterketa baloia duenari tag egiteko asmoarekin ikusten duenean pasea erraztu nahi dio, eta segundo gutxitan hartzen diren erabaki motorrak dira. Bestearen lekuan jartzen denean baino ezin dira eraiki, hark bidaltzen dituen keinuen interpreta-zioaren ondorioz, erantzun motor bat emanez: baloia duen kidearen atzean kokatu. Beraz, errugbia partiduak jardueran deszentrazio, enpatia, aurre hartze, erabaki eta estrategia motorrak, bestea ziurgabetasun iturria izanik, bestearen arabera erabiltzen eta gauzatzen dira.

Jarduera motorren arauak ezartzen dituzten komunikazio baldintzen ondorioz zereginak egituratzen dira. Egoera soziomotorren barruan bereizten diren oposiziozko, kooperaziozko eta oposiziozko/kooperaziozko egoeretan egitura desberdinak aurkituz:

Taula 29: Egoera soziomotorren egiturak.

Egoera soziomotorrak	Egiturak	Adibideak ¹⁰¹
Oposiziozkoak	Denok denon kontra	Palak eliminatza
	Banako dueluak	Zaldia eta zaldunak
	Bat denon kontra	Harrapaketa
Kooperaziozkoak	Denok denekin	Soka-saltoan taldeka
Oposizio-kooperaziozkoak	Talde duelu simetrikoak	Saskibaloia, beisbola, errugbia, ultimate, eskubaloia eta boleibola
	Talde duelu asimetrikoak	Errugbia bat lauen kontra
	Egoera paradoxikoak	Lau erpin

Iturria: Lagardera, F., eta Lavega, P. (2003). *Introducción a la praxiología motriz*. Barcelona: Paidotribo.

¹⁰¹ Behatutako gorputz hezkuntzan zehazten diren egiturak argitzeko jarduera motorren adibide batzuk dira. Fitxategian azaltzen direnak.

Taulak egoera soziomotorren arabera bereizten diren egitura sozialak azaltzen dira. Horrela, oposiziozko egoeretan denok denon kontra, banako dueluak eta bat denon kontra egiturak bereizten dira; kooperaziozko egoeretan denok denekin (kooperazioa) bereizten da; eta kooperazio/oposizio egoeretan taldeko dueluak eta egitura paradoxikoak.

Palak eliminatzen jarduerak motorrak denok denon kontra egitura islatzen du. Egitura honetan, parte hartzaile guztiak aurkariak dira eta “bakoitzak norbere interesaren pean lorpena bilatu behar du” (Lagardera eta Lavega, 2003, 102 or.).

Zaldiak eta zaldunak¹⁰² jarduerak motorrean ikasgela osoa bi taldeetan banatzen da. Irakasleak, talde bat zaldunen taldea bestea zaldien taldea izendatzen ditu. Futbito zelaietan, talde bat bestearen aurrean kokatzen da. Helburua zaldiak edo zaldunak harrapatzea da. Horretarako talde bakoitzeko kideak ilaran kokatzen dira, bata bestearen ondoan, eta ilara bakoitza kontrako taldeko ilararen aurrean eta lepoz kokatzen da. Irakasleak talde bat aipatzerakoan, adibidez, “zaldiak” oihukatzerakoan, hauek zaldiak bira erdi eman eta korrika hasten dira. Era honetan, zaldi bakoitzari dagokion zaldunak harrapa ez dezan. Irakaslearen erabakiaren menpe harrapatzailea eta iheslaria nor izango den geratzen da. Egoera hau, behin eta berriz, errepikatuko da. Irakasleak minutu batzuen ondoren jarduerak bukatutzat ematen du.

Jarduerak motor honetan etengabe banako dueluak sortzen dira, zaldiak eta zaldunen arteko elkarrekintza oposiziozkoa da eta duelua dagokion harrapakinaren atzetik korrika irtererakoan sortzen da.

Harrapaketa jarduerak motorrak bat denon kontra egitura adierazten du. Ikasgela osoak hartzen du parte. Futbito zelaiaren erdi batean daude kokatuta. Harrapatzaile bat dago, irakasleak aukeratu duena, eta beste guztiak jokalaririk libreak dira. Helburua jokalaririk libreak harrapatzea da. Horretarako, harrapatzailea eta jokalaririk libreak futbito zelaitik sakabanatzen dira. Harrapatzailea, korrika, jokalaririk libreen atzetik doa. Harrapatzeko, jokalaririk libreen bat eskuekin ukitu behar du. Horrela gertatzen denean rol aldaketa ematen da. Jarduerak motor honetan, jokalaririk bat beste guztien kontra aritzen da. Harrapatzaileak harrapakinaren atzetik doanean duelua ikus daiteke, baina, une batetik bestera beste edozein harrapakinaren (jokalaririk librearen) atzetik joatea erabaki dezake. Bat denon kontra egiturak “askotan, jokalaririk aurkaria harrapatzen lortzen duenean ohi-koena rola aldatzea da” (Lagardera eta Lavega, 2003, 104.).

Denok denekin egiturak kooperaziozko harremana baino ez du erakusten. Soka saltoan taldeak jarduerak motorrean parte hartzaileen arteko elkarrekintzak kooperaziozkoak izanik. Jarduerak honetan, irakasleak, lau koloreen arabera, lau taldeetan antolatzen dira. Talde bakoitzak soka luze bat du. Talde bakoitzean, soka ematen duten bi ikasle aukeratzen dira, taldeko beste parte hartzaileek sal-

toak egiten dituzte. Helburua, soka bira arazten duten bitartean, soka sartu, jauziak egin eta, soka zapaldu edo ukitu barik, irtetea da. Horretarako, talde bakoitzean ikasle bik soka mutur banatik eta eskuarekin hartzen dute. Hauek, soka eskumatik ezkerera bira arazten duten bitartean, besteak, ilaran bata bestearen atzean, soka ematen duten bi hauetatik baten ondoan kokatzen dira. Eskuma aldean kokatuz gero, jauziak egiteko, sokaren atzetik sartzen dira eta ezkerrean kokatuz gero sokaren aurretik. Ikasleak aukeratzen dute nondik sartu. Ikasleren batek soka sartzerakoan sokaren erritmoa apurtu edota soka zapaltzen badu, soka ematen duen bati rola aldaketa ematen da. Irakasleak minutu batzuen ondoren, jarduerak bukatutzat ematen du.

Neskek eta mutilek soka jauziak egiteko sartzen dira, soka ematen dutenek saltoka dagoenari zeregina errazteko soka ahalik eta hoberen mugiarazten dute eta ilaran daudenak bere txandaren zain daude. Zeregin motorrak laguntzeko betetzen dira.

Egoera motorrean komunikazio eta kontra-komunikazioa ematen diren elkarrekintzak adierazten dituzten egituren artean, esan bezala, talde duelua eta baita ere egoera paradoxikoak bereizten dira.

Talde dueluaren adibideak ugari daude, izan ere talde kirol moderno guztiak erakusten dute egitura da: saskibaloia, futbola, boleibola, errugbia, tenisa eta euskal pilota bikoteka adibide batzuk dira.

Behatutako gorputz hezkuntzan neskek eta mutilek talde duelua egitura erakusten duten saskibaloia, beisbaloia, errugbia, ultimate, eskubaloia eta boleibola jarduerak praktikatu dituzte. Guztietan, jokalaririk kopuru berdina duten bi talde antolatzen dira eta bata bestearen kontra egiten du. Talde bateko kideen arteko elkarrekintzak komunikaziozkoak izanik eta aurkariaren artekoak kontra-komunikaziozkoak. Ultimate jardueran kide bati egiten den pasea edo errugbian baloia duen kidearen atzean kokatzea pasea errazteko komunikazio elkarrekintzak dira. Baina, atera jaurtitzen den fresbea edo aurkari bati tag egitea kontra-komunikaziozko elkarrekintzak dira. Harremanak alde aurretik kirol bakoitzaren arauak mugatuta ezarrita daude eta aldaketak dira.

Era berean, nahiz eta taldeen arteko simetria galdu talde duelu asimetrikoak aurki daitezke. Adibidez, talde duelu asimetrikoa egitura behatutako gorputz hezkuntzan errugbia bat lauen kontra¹⁰³ jarduerak motorrak erakusten du. Jarduerak honetan irakasleak, hiru izan ezik, lau ilaratan antolatzen dira. Futbito zelaiaren sakon aldean kokatzen dira eta erasotzaileen rola betetzen dute. Beste hiru irakasleak tag egiten saiatzen dira. Jarduerak burutzeko errugbi baloia, tag¹⁰⁴ errugbi-erako gerrikoa eta zintak eta entsegu gunea mugatzeko konoak behar dira. Hel-

¹⁰³ Fitxategian 184. jarduerak.

¹⁰⁴ TAG errugbiaren berezitasun nagusia plakatzeo era da, baloia duen jokalaria ezin denez heldu, plakatzeo gerritik zintzilikatuta daramatzen zinta bat kendu behar zaio. Era honetan, jokalaria plakatuta dago eta baloia gailzen du. Bete behar motorra honi TAG egitea deitzen zaio.

burua, entsegu egitea da. Horretarako, ilara bakoitza zelaiaren sakon aldean, lepoz, kokatzen da eta tag egiteko ardura duten ikasleentzat bi zelaiaren albo bakoitzean bat kokatzen da eta hirugarrena zelaiaren sakon aldean, baina, beti entsegu gunea mugatzen duen murratik bizpahiru metro tara. Irakasleak ba! esaterakoan, ilara bakoitzetik ikasle batek bira erdi emango du eta irakasleak lauetako bati errugbiko baloia jaurtiko dio. Baina, lehenago, irakasleak tag egiteko ardura dutenei, bati keinu bat egin dio buruarekin. Keinu honek hiru horietatik tag egiteko asmoarekin nor irtingo den erabakitzen du. Jokaldia hasita dago, lau ikasle, erasotzaileak, errugbiko paseak eginez, aurrerantz doaz entsegua egiteko asmoarekin. Baina, bidean tag egingo dien aurkari bat dago. Tag eginez gero, baloia duen parte hartzaileak gelditu behar du eta baloia beste kide bati eman, jokaldiarekin jarrai dezaten. Jokaldiak etengabe errepikatzen dira eta ikasle gehienek bi roletatik igarotzen dute. Irakasleak minutu batzuen ondoren jarduerak bukatutzat ematen du.

Jarduera motor honetan tag egiten duen eta baloia duenaren artean oposiziozkoa elkarrekintza ematen da, eta entsegua egiteko asmoarekin irteten diren lau jokalarien arteko elkarrekintza kooperaziozkoa da. Beraz, kideen paseak komunikazio motorra adierazten dute eta gerritik zintzilikatuta daramaten zinta kentzeak kontra-komunikazio elkarrekintza erakusten du. Adibide honetan ere, harremanak alde aurretik ezarrita daude eta aldaezinak dira.

Baina, “jokalaria antagonismo-kooperazio joan etorrian” (Parlebas, 2001, 294 or.) kokatzen dituzten jarduerak egitura paradoxikoa erakusten dute. Hauetan, jokalarien arteko harreman garbiak desagertzen dira. Egitura paradoxikoa langunetzat hartzen dena une batetik bestera etsaian bihurtzen da. Harremanak aldakorrak dira. Behatutako gorputz hezkuntzan egitura hau garbi erakusten duen jarduera bakarra lau erpin jarduera izan da.

4.4.4.2. Egoera soziomotorretan ziurgabetasun egoerak sustatzen dituen adimena eta afektibitatea

Egoera soziomotorretan gauzatu behar diren akzioak elkarrekintzan oinarritzen dira. Jokalarien artean ematen diren elkarrekintza motorrak ezinbestekoak dira, egoera soziomotorren baldintzak dira. Zelai erreka, pilota ehiztaria, lau erpin eta errugbia partiduak jarduera motorrak komunikazio motorra barik ezin dira burutu. Neska eta mutilen nortasuna egoera soziomotorretan sustatzen diren berezko elkarrekintza motorren arabera eraikitzen da.

“Egoera motor baten osagaiei lotutako ustekabe maila” (Parlebas, 2001, 248 or.) bezala definitzen den ziurgabetasuna besteen portaerari lotuta dagoenean “ziurgabetasuna aritzen diren subjektuen jarrera, aukerak eta erabakiei dagokion ustekabe tartetatik ematen da” (Parlebas, 2001, 248 or.).

Horrela, kontra-komunikazio motorretan, hau da, oposiziozko harreman motorretan, neska eta mutilari oso konplexuak diren ahalezko kalkulak egitea eskatzen zaie. Arrakasta lortzeko, oposiziozko harreman honetan ematen

den enpatia soziomotorrak besteari aurre hartzeko aukera ematen du. Neskek eta mutilek deskodifikazio semiotorrek eskatzen duen prozesu kognitiboan ondorioz, ingurune sozial horrekiko ziurgabetasunean, porrota ekiditeko estrategia motorrak eraikiko dituzte. Ingurune sozialak oposiziozko harreman motorrean, bestea, aurkaria etengabe irakurtzea eskatzen du.

Era berean, komunikazio motorrak, “ikusuntu sozioafektibo batetik... taldearen kohesioan eragin nabarmen bat izan daiteke” (Parlebas, 2001, 271 or.). Mendira taldean egiten den zeharkaldian sustatzen diren kooperaziozko harremanek taldean elkartasun sentimendua sorrarazten dute. “Zeharkaldian parte hartzaile bakoitzaren portaera motorra ez da ulergarria taldetik kanpo... Aurretik zihoan gidak, talde guztiarentzako egokia zen erritmoa jartzen zuen” (Oiarbide, 2009a, 167 or.).

Bestetik, oposizio/kooperaziozko harremanak ematen diren jarduerak taldeki-deen arteko elkartasuna bultzatzeaz gain, neska eta mutila aurkariaren aurrean taldean aritzeak duen garrantziaz jabetzen dira. Kirol modernoan harreman eskusiboetan¹⁰⁵, arrakasta lortzeko abilezi semiotorrek aski ezaguna den aurkari aurre hartzean prozesu kognitibo konplexuaz baliatzea eskatzen du.

Baina, egoera soziala guztiz aldentzen da parte hartzaileen arteko harreman anbiguoen artean. Hainbat joko eta jolas paradoxikoetan, parte hartzaileak adierazten dituen zeinuen esanahiaren kontrako portaera motorrak burutzen ditu. Mundu erreala harreman anbiguoen hastapenerako, lau izkina edo pilota eserita jarduerak ezin aukera hobeago ematen dute. Giza harreman zital eta maltzuraren islak direnak. Parte hartzaileen arteko harreman anbiguoa ezaugarri beterrikoa jarduera motorrek ondorio ludiko maltzurra dute. “Boudonek egin duen ondorio maltzuraren azterketak jokalaria asmoa, erabakia eta autonomia gaitasunekin hornitu beharra dagoela baieztatzen du” (Parlebas, 2001, 177 or.). Kanpoko talde indarren egile soil bat izan beharrean, norberak bere erabakiak hartzea eskatzen dituzten jarduerak motorraz hitz egiten da. Lau erpin, jokalarien arteko ematen diren erpin trukeak jokalaria bakoitzaren menpe dago. Bakoitzak erabakitzen du erakusten duen asmoa egingo duenarekin bat etorriko den, arauetiko orden zehatz bati jarraitzerik ez dagoela autonomia osoarekin erabakitzen du.

Jarduera soziomotorren interes pedagogikoa “kognitibo, adierazpen eta erabakien gaitasunak egoera soziomotorretan elkarrekintzan aritzen diren pertsonengatik ezarrita” (Parlebas, 2001, 266 or.) den adimen soziomotorra garatzean datza. Eta taldeko egoeretan, elkartasun sentimendua sortzearen

¹⁰⁵ Sare eskusiboa “bi jokalaria, aldi berean lankideak eta aurkariak ezin direnean izan” bezala definitzen da (Lagardera eta Lavega, 2003, 147.). Jarduera motor hauetan, parte hartzaileak badaukite nortzuk diren lankideak eta nortzuk aurkariak. Zelai erreka eta boleibola sare eskusiboak bezala definitzen dira. Aipatutako adibide hauetan, parte hartzaileen arteko kooperaziozko edo oposiziozko harremanak gauzatu dira eta inoiz ez pertsona berarekin biak aldi berean.

garrantziak parte hartzaileen afektibitatean du eragina. Era honetan, jarduera soziomotorren eremu soziokognitiboa eta sozioafektiboa aintzat hartzen dira.

Bestetik, banako duela ematen den elkarrekintza motorra soilik oposiziozkoa diren jarduera motorretan, buruz buruko txapelketak dira. Ustez, baldintza berdinetan, norgehiagoka aritu behar da eta ez dago kooperazioa edota elkartasunerako lekurik. Sustatzen den harreman bakarra lehia da eta lehian elkarrekintza antagonikoak baino ez dira eragiten eta ematen. Atenaseko jainkoei eskainitako joko olinpikoetan bezala, pugilak galdu ala irabazi arte ekin egiten zuen, hil ala bizi.

Baina, dueluen egituratik urruntzeko aukera ematen duten jarduera motorrak ugari daude. Hauek ere, aintzat hartu beharko lirake eta eragiten dituzten adimen eta afektibitatea ezagutu. Horrela, kooperazioa, bat denon kontra, denok denon kontra eta egoera paradoxikoen egitura sozialen interes pedagogikoa ekartzen da gogora.

4.4.4.3. Egoera psikomotorrek sustatzen dituzten harremanak

Egoera psikomotorra, “berezko elkarrekintza motorrak ematen ez diren praktiken multzoa da” (Parlebas, 2001, 371 or.). Parte hartzaileak ez du bestearen zeinuak irakurri behar. Jarduera motorra burutzeko, ingurune sozialarekiko ziurgabetasun eza dago. Bera bakarrik, jarduleak ekintza burutuko du eta bere akzio motorretan eragin motorra izango duen beste akzio motorrik ez dago, elkarrekintza motorra hutsa da.

Bakarka egitura soziala adierazten dituzten jarduera motorren artean, adibidez, behatutako gorputz hezkuntzak proposatutako malabarismoa pilota bi¹⁰⁶ jarduera dugu: ikasleak... zelaian sakabanatzen dira eta bakoitzak malabarismoa praktikatzeko pilota bi ditu. Helburua, pilota esku baterekin jaurti eta esku berarekin jasotzea da. Horretarako, ikasle bakoitzak esku bakoitzean pilota bat izango du. Pilota bat jaurti eta esku berarekin hartuko du, gero beste pilota jaurti eta esku berarekin hartuko du. Pilotaren ibilbidea buru gainetik igaro dadin, pilota jaurtitzeko duen besoa luzatuta izateak laguntzen du. Eskuen mugimendu tartek txikia izan behar du. Pilota jasotzerakoan ez gara bere bila joan behar, pilota zuzenean eskura erortzen utzi behar dugu. Irakasleak minutu batzuen ondoren jarduera bukatutzat ematen du.

Malabarismoa praktikatzeko duen neska edo mutil bat, irakaslearen kontsigna teknikoak entzun ondoren, keinua errepikatzen ariko da. Pilotak lurrera jausi ez daitezkeen, keinu egokia lortu arte. Era berean, 100 metroko abiadura lasterketan, beste kaleetan dauden atleten eragin afektiboa aintzat hartzen bada ere, lehiakide bakoitzak entrenamenduetan eraikitako programa praxikoa baino ez du gauzatuko. Ez dago ustekaberako lekurik.

4.4.4.4. Egoera psikomotorrek sustatzen duten adimena eta afektibitatea

Adimen psikomotorra, “jarduera psikomotorren garapenean akzioan dagoen gizabanakoak ezartzen dituen irudikatze eta erabakitze gaitasun kognitiboa” bezala definitzen da (Parlebas, 2001, 265 or.). Komunikazio praxikoa ematen ez den jardueretan nekez gauzatuko da deszentrazioa. Jarduera psikomotorretan jokariak ez du jokaldia bestearen ikuspuntutik ikusteko ez beharrik ez aukerarik. Jarduera psikomotorretan gizabanako parte hartzailea da zeinuak jasotzen dituen bakarra; aukeren eta erabaki motorren abiapuntua parte hartzailea bera izanik. Informazio propiozeptiboan oinarrituta, keinua errepikatuko du estereotipo motorra lortu arte. Malabarismo pilota bi jarduera motorrean parte hartzaileak errepikapenaren ondorioz, programa praxikoa bat gartzeko du. Erabaki motorrak berak jaurti duen pilotak hartzen duen norabidearen arabera hartzen ditu. Jaurtitzeko duen pilota eskuan ez bada jausten, hurrengo saiakeran besoaren ibilbidea, indarra, besoa gelditzeko uneari buruzko erabakiak hartu behar dira. Horrela, jaso duen informazio propiozeptiboaren arabera bere hurrengo saiakera birprogramatuko du, estereotipo motorra eraiki arte.

Neskak eta mutilak, estereotipo motorrak eraikitzean jartzen dute arreta. Elkarrekintza motorrak ematen ez diren jarduera psikomotorrek giza onuraren garrantzia sustatzen dute. Esfortzuen ondorioz, ekin eta ekinez, itxaroten diren emaitzak lor daitezkeela ikasten da. Lana eta beraren ondorioaren arteko loturak neska eta mutilengan duen eragin afektiboa ezin da ukatu. Lorpenek neska eta mutilaren auto estimua igotzeko lagungarriak dira eta jarduerak psikomotorrak gizabanako bakoitzak, berak egindako ahaleginaren ondorioz, egin dezakeenaz ohartzeko aukera ezin hobeagoa dira.

4.4.5. Gorputz hezkuntzan harremanak

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan hezkuntza agenteen arteko etengabeko harremana beharrezkoa egiten da. Horrela, gorputz hezkuntza derrigorrezko arloan irakasle eta ikasleen arteko harremanen bitartez irakatsi eta ikasten denari buruzko nondik norakoak ezagutzen dira. Irakasleak saio praktikoa aurrera eramaten duenean irakasteko era bat erabiltzen du: azaldu behar dituen jarduerak azaltzerakoan ikasleekiko non kokatzen da, ikasleek jarduerak egiten duten bitartean zer egiten du, ikasleei egin dutenaren berri (feedback) ematen die. Guzti hauek irakasteko forma bat definitzen dute.

Bestetik, ikasgela bateko ikasleen arteko harremana ere ematen da. Horrela, gorputz hezkuntzako saioetan ikasleen arteko harremanak sustatzen dira. Gehienetan, ikasleak proposatzen diren jarduera motorrak egiteko baldintzatuta bikoteka, taldeka edo banaka jarri behar dira. Ikasleek jarduerak burutzerakoan harremana norekin jarri nahi duten erabaki dezakete, adibidez, baloi pasea egiterakoan.

Behatutako gorputz hezkuntzan irakasle-ikasleen arteko harremanak eta ikasleen arteko aztertzeak pertsonen arteko harremanei eman zaion trataera

ezagutzen da. Ezagutza hau generoaren ikuspuntutik behatutako gorputz hezkuntzak hartu dituen erabakietan erakusten duen hezkidetzako mugatzeko baliagarria izanik.

4.4.5.1. Irakasle-ikasleen arteko harremanak

Saio praktikoei hasiera ematen dien gertaera ikasleak futbito zelaian edo gimnasioan sartzeko da. Une horretan, irakasleak ikasturte hasieran azalduta korrikari¹⁰⁷ hasten dira, ilaran bata bestearen atzetik bost bira eman arte. Bitartean, irakasleak futbito zelaitik solairu bat beherago dagoen gimnasio barruan dauden material geletatik igotako objektuak antolatzen ditu.

Saioen bigarren unean irakasleak bere inguruan dituen neska eta mutilei egin beharreko jarduerak motorrak azaltzen die. Askotan, jolas tradizional bat bada, jolasaren izena esatearekin jolasa burutzeko rolak (harrapatzailea eta harrapakinak rolak harrapatzera jolasean edo ehiztariak eta harrapakinak rolak pilota ehiztari jolasean) nortzuk betetzen dituzten esaten du. Izan ere, irakasleak neskek eta mutilak antolatzeko (bikoteak edo taldeak antolatu) ardura du, nahiz eta ardura horretan erabakia ikasleek beraiek bahi duten bikotekidea edo taldearekin jartzeko aukera ematea izan bada ere.

Hurrengo jarduerari sarrera emateko, irakasleak ikasleak batzen ditu, keinu baten edo mezu baten bitartez, adibidez, hurbildu denak!. Ikasleak irakaslea inguratu eta adi daude, zer egin behar duten jakiteko eta argi ez bada gertzen galderak egin dituzte. Bestetik, neskek eta mutilak jarduerak burutzen dituztenean irakaslea adi dago, edo beraiekin parte hartzen du.

Taula 30: Irakasle-ikasle elkarrekintzan irakaslearen kontsigna mota.

	(t')	%
kontsignarik ez	2388	%51,7
jarrerarekikoa	125	%2,7
Irakasleak zein informazio mota ematen du	1042	%22,6
teknikarekikoa	131	%2,8
estrategiarekikoa	665	%14,4
arauekikoa	265	%5,7
besteak	4616	%100
guztira		

t' = iraupena minutuetan: % = iraupen osoaren portzentajea

¹⁰⁷ Irakaslea hirugarren zikloko ikasleak herri lasterketa batean parte hartzen zutenean, korrika abiadura handiarekin hasten zirela konturatu zen, ondorioz askok ez zuten lasterketa amaitzen (itolarra, barea helduta). Beraz, irakasleak hau ikusita gorputz hezkuntzako saio praktikoen hasieran neskek eta mutilek zelaira bost bira eman behar zituztela erabaki zuen. Eta gaur, neskek eta mutilak saioaren hasieran beti korrika egiten dute, irakasleak ezer esan barik, ikasleek badakite zein da lehenengo jarduerak motorra.

Taulan ikusten den bezala, irakasleak neskek eta mutilek jarduerak burutzen duten bitartean behatzen du eta beharrezkoa ikusi duenean kontsignak edo instrukzioak eman dizkie. Instrukzioak jarrerarekiko, teknikarekiko, estrategia eta arauarekiko dira. Horietatik irakasleak gehien erabili dituenak nagusiki neskek eta mutilek burutu behar duten jardueran gorputz teknikak garrantzia hartzen duenean teknikarekiko (%22,6) instrukzioak dira eta jarraian jardueraren arauari buruzkoak (%14,4) izan dira eman diren kontsigna motak.

Adibidez, zesta punta banaka 2 jarduerak motorrean irakasleak kontsigna teknikoak eman ditu. Neskek eta mutilak frontoian sakabanatuta daude, bakoitza bere xisterarekin eskuan lotuta eta pilotarekin. Helburua pilota xisteran sartzeko da. Horretarako ikasle bakoitzak xistera ez duen eskuarekin pilota lurrraren kontra jaurtitzeko du. Pilotak botea eman ondoren, ikasle bakoitzak, pilota beherantz egiten duenean, xisterarekin hartu behar du. Garrantzitsua da, behin pilota xistera barruan egoten denean, besoarekin pilotaren norabidea jarraitzea, besoa atzerantz eramanez, gero, pilota xisteratik gorantz ateratzeko, besoa aurrerantz eginez. Irakasleak minutu batzuen ondoren jarduerak bukatutzat ematen du.

Zesta punta kirolaren inguruan irakasleak proposatu duen jarduerak hau 2009ko abenduak 9, 14:30etako 6.B ikasgelarekin egin den saioan irakaslea berak ere xistera bat du eskuan eta ikasle batengana edo bestearengana hurbiltzen da, keinu egokia zein den azaltzeko eta erakusketa eginez. Orokorrean ikasleak buru belarri dabilta, keinu egokia lortu nahian. Tarteka ikaslearen batek irakasleari bere abilezia erakutsi nahi dio. Gertaera honetan arreta jartzekoan ikusten da mutilak izan direla nahi hura betetzen ahalegindu direnak.

Baina, 2010eko maiatzak 14, 5. B ikasgelako 11:30etako saioan irakasleak boleibol kirola proposatu du eta eman dituen kontsignak arauarekikoak izan dira. Bolei taldeko¹⁰⁸ jokatzeko jarduerak motorrean ikasgela lau kolore taldeetan antolatzen dira. Gimnasioan dauden boleiboleko bi zelaietan banatzen dira: zelai bakoitzeko talde bi eta bi talde bakoitzeko boleiboleko baloi bat. Talde bakoitza bere zelaietan sakabanatzen da eta sarearen beste aldean dagoen taldearen kontra jokatzeko du. Helburua, puntuak lortzeko, ateratzen den baloiak aurkarien joko eremuan jaustea da. Horretarako, ikasleak taldeetan bananduta, boleiboleko joko eremuan sakabanatzen dira. Talde bakoitza dagokion joko eremuan. Horrela talde batek bestearen kontra egingo du. Talde bietako batek sarea egiten du eta aurkako jokalaririk bat baloia eskuekin hartzen saiatuko da. Baloiak hartzen duenean, baloia sarearen beste aldera jaurti baino lehen, gutxienez taldekideen arteko pase bi egin behar dituzte. Handik minutu batzuetara aurkari taldea aldatuko da. Jarduerak talde bakoitzak beste hiru taldeen kontra egiten duenean bukatzen da.

Ikasleak boleibolera taldeka jokatzeko betiko lau kolore taldeetan antolatu dira. Talde bakoitza boleiboleko joko eremu batean sakabanatuta kokatu da. Hasierako minutuetan talde laranja talde urdinaren kontra egin du eta talde gorriak talde berdearen kontra. Irakaslea begira eta adi dago. Une batean talde urdineko neska batek egin duen sakean baloia aurkariaren joko eremuan jausi da. beraz puntu bat lortu dute. Irakasleak “puntu bat talde urdinarentzat” esan du. Azkenean aldaketa bakar bat baino ez da egon. Irakasleak aurkaria aldatzeko esan die. Orain, talde gorriak talde laranjaen kontra egiten du eta talde urdinak talde berdearen kontra. Talde gorriko neska batek egin du sakea eta aurkariak ez dute baloia hartu. Beraz puntu bat talde gorriarentzako. Baina talde laranja beste neska batek baloia sarea ukitu duela esaten du. Irakasleak entzun du neskak esan duena eta hurbildu da: “ baloia ez badu inork hartzen puntua sakea egin duen taldearentzako da” esan die.

Une batean, neska batek sakea egiteko dituen zailtasunak direla eta, sarerantz hurbiltzeko joera du. Aurkariak, ezetz atzera joateko esaten die, baina neska ez da ausartzen edo, eta berriro aurreratu da, sarerantz. Azkenean urkari bat berarengana joan da eta zehatz-mehatz zein marraren gainean egon behar den kokatuta esan dio. Noski hau dena oihu eta haserrearen artean gertatu da.

Jarduera bukatu denean, ikasle guztiak joan dira eta irakaslea sarea batzen geratu da. Zeregin honetan dagoela, neska bi hurbildu zaizkio. Neskek, talde laranja mutil bik okerraren bat eginez gero, oihuka eta haserre egiten dutela esan diote irakasleari.

Nola edo hala, ikasleek egin behar duten zeregin motorra argi dutenean egiten hasten dira. Une honetatik aurrera, irakasle-ikasleen arteko harremana eteten ez bada ere, ikasleen arteko harremanak zehazten dira, hau da, jarduera motor bakoitzean nortzuk nortzuekin arituko dira?

4.4.5.2. Ikasleen arteko harremanak

Behatutako gorputz hezkuntzan irakasleak jarduera motorrak burutzeko hartu dituen antolamenduekiko erabakiak ezarri ondoren, ikasleen arteko harremana norbere buruarekin, bikote kidearekin, taldekideekin edo arerioarekin eman da. Honen ildotik, generoarekiko hartu diren erabakiak garrantzitsuak bihurtu dira.

Irakasleak ikasturtearen hasieran ikasgela bakoitza lau taldetan¹⁰⁹ antolatzen ditu. Talde hauek mistoak dira eta bakoitzak kolore baten izena hartzen du: gorria, berdea, horia eta urdina. Lau talde hauetan ikasgela bakoitzean dagoen neska eta mutilen kopurua aintzat hartuta, generoarekiko orekatuak daude.

Irakasleak proposatzen duen kirol, joko, jolas eta jarduera motorrak burutzeko behar den antolamenduaren arabera ikasleak, neskak eta mutilak banaka, bikoteka, taldeetan edo bi taldeetan ipini behar izan dira.

¹⁰⁹ Ikusi taula 22: Behatutako gorputz hezkuntzan maila bakoitzeko generoarekiko taldeen antolaketa.

Taula 31: Jarduera motorrak egiteko ikasleen antolamendua.

	t'	%
bat	765	%16,6
bi	230	%5,0
talde koloreak	680	%14,7
bi talde koloreak	710	%15,4
Irakaslearen talde antolamenduaren ikuspuntutik ulertuta	1259	%27,3
bi talde	453	%9,8
taldeka	519	%11,2
besteak	0	%0,0
guztira	4616	%100

t' = iraupena minutuetan: %= iraupen osoaren portzentajea

Taulan ikusten den bezala, jarduera motor guztien iraupenaren %27,3an ikasgela osoa taldekatu barik antolatu dira. Baina, nagusitu den antolamendua talde koloreen arabera izan da, jarduera motor guztien iraupenaren %30,1arekin. Irakasleak talde koloreak antolatzerakoan talde mistoak eta orekatuak sortu dituzenez, generoarekiko oreka bat egon dela baieztatu da. Horrela, behatutako gorputz hezkuntzako irakasleak alde aurretik antolaturiko talde koloreen arabera antolamenduak neskei eta mutilei gustuko edo laguna duten ikaskidea aukeratzeko beta ukatu die. Hala ere, neskek eta mutilek ikaskidea hautatzeko beta izan dute: bikoteka, bi taldeetan edo taldeka jarri behar izan direnean (%26)

Taula 32: Jarduera motorrak egiteko ikasleak nork antolatu dituen.

	(t)	%
irakasleak	2901	%62,8
ikasleak	825	%17,9
besteak	890	%19,3
guztira	4616	%100

t' = iraupena minutuetan: %= iraupen osoaren portzentajea

Burutu behar den jardueraren egoera psikomotorra edo sozomotorra bada neskak eta mutilak banaka, bikoteka edo taldeka ipini behar izan dira. Baldintza horren arabera bikoteka eta taldeka antolatu behar izan direnean nagusiki irakasleak antolatu ditu (%62,8) eta neurri txikiago batean neskek eta mutilek norekin ipiniko diren erabakitzeko aukera izan dute (%17,9).

Taula 33: Jarduera motorrak egiteko ikasleak nork antolatu dituen arabera talde mistoak/ez mistoak.

	taldeak									
	mistoak		ez mistoak		banakoa		besteak		Guztira	
	(t)	%	(t)	%	(t)	%	(t)	%	(t)	%
irakasleak	2741	%94,5	0	%0,0	160	%5,5	0	%0,0	2901	%100
ikasleak	257	%31,2	532	%64,5	6	%0,7	30	%3,6	825	%100
Nork antolatu										
besteak	316	%35,5	55	%6,2	519	%58,3	0	%0,0	890	%100
ikastetxeak	0	%0,0	0	%0,0	0	%0,0	0	%0,0	0	%0,0
Guztira	3314	%71,8	587	%12,7	685	%14,8	30	%0,6	4616	%100

t' = iraupena minutuetan: %= iraupenaren portzentajea

Irakasleak ikasleak antolatu dituen %94,5ean talde edo bikote mistoak sortu ditu. Baina, antolaketa ikasleen eskuan utziz gero, %64,5ean ez mistoak izan dira. Neskek eta mutilek ikaskidea aukeratu dutenean nagusiki bikote edota talde ez mistoak sortu dituzte (%64,5).

Adibidez, errugbia launaka paseak ⁵¹¹⁰ jarduera motorrean ikasleak launaka jartzen dira eta futbito zelaiaren sakon aldean kokatzen dira. TAG errugbia praktikatzeko materiala erabiliko dute: errugbiko baloiak, gerrikoak eta zintak gerrikotik eskegitzeko. Beraz, laukote bakoitzak errugbiko baloi bat du eta ikasle bakoitzak, gerrikotik alde batera eta bestera zinta bana. Helburua korrika taldekideari eskuekin baloia atzerantz pasatzea da. Horretarako, taldekideak distantzia batera kokatzen dira eta aurrerantz, futbito zelai zeharkatzen dutenean entsegu bat egiten dute. Entsegu egiteko baloia, eskuekin, zelaiaren beste aldean dauden bi konoren arteko marraren beste aldean utzi behar da. Gogoratu behar da, baloia duenak, pasea atzerantz egiteko, bere taldekidea baino, gutxienez apur bat, aurreratuagoa egon behar duela. Era horretan, laukote bakoitzak diagonal bat osatzen du. Irakasleak minutu batzuen ondoren jarduera bukatutzat ematen du.

Durangoko errugbi taldearen entrenatzaile bezala aritzen denak irakaslearen rola betetzen du. Honek ikasleei launaka jartzea eskatu die eta talde bat ere ez da mistoa izan. Jarduera egiten hasi diren lehenengo laukoteak mutilek osatutakoak izan dira eta gero nesken bi laukoteak hasi dira.

Behatutako gorputz hezkuntzan ikaskideen eta beraz, neska eta mutilen arteko harremanak bermatu dira, eta, gorputz hezkuntzako irakasleak egoera mistoak sustatu ditu. Egoera honetan, neskek eta mutilek jarduera motorrak egiterakoan beraien arteko komunikazio motorra eman behar izan den neurrian (pasea egiterakoan, harrapakina harrapatzerakoan...), egoera mistoak sortzeko aukera egon da. Eta ikasleak talde edo bikote kideak aukeratzeko beta izan duenean, harreman ez mistoak nagusitu dira.

4.4.6. Gorputz hezkuntzak sustatu dituen harreman egoera

Giza harremanetan azalartzen diren portaerak eta jarrerak kulturak mugatzen dituen gizarte ereduaren arabera aldatzen direla kontuan harturik, oraingoan, alde batetik, behatutako gorputz hezkuntzak banakoari edo taldeari zein garrantzia eman dion ikusi nahi da eta bestetik, nagusitu den egitura islatu.

4.4.6.1. Harreman motorretan eta egitura sozialean iraupena


Aztertu den gorputz hezkuntzan harreman psikomotorren eta soziomotorren arabera berezko elkarrekintza motorren pisua ezagutu da.

Taula 34: Behatutako gorputz hezkuntzan berezko elkarrekintza motorren arabera egoeren iraupena.

	t'	%
Psikomotorra	659	%14,3
Soziomotorra	3957	%85,7
Guztira	4616	%100,0


t' = iraupena minutuetan: %= iraupen osoaren portzentajea

Behatutako gorputz hezkuntzak jarduera motorren iraupenari dagokionez, harreman psikomotorrak, %14,3arekin (659 min.), eta soziomotorrak, %85,7arekin (3957 min.), sustatu ditu. Betebehar soziomotorrak garrantzi handiago izan dute. Beraz, neskek eta mutilek, enpatia, erabaki, estrategia eta aurre hartze motorra gauzatzean hezi dira. Azken finean, inguru sozialaren deskodifikazio gaitasunean heziak izan dira.



Irudia 18: Komunikazio edota kontra-komunikazio motorren iraupena. Harreman soziomotorretan kooperaziozko elkarrekintzak %36,87ko pisua izan dute (1702 min.); kooperaziozko oposiziozkoak %45,14 (2084 min.); eta oposiziozkoak %3,7 (171). Harreman psikomotorren pisua %14,3koa izanik (659 min.)

Grafikoan ikus daiteken bezala, parte hartzaileen arteko oposiziozko, kooperaziozko eta kooperazio-oposiziozko harreman motorrak sustatu dira. Nagusitu diren harreman soziomotorrak kooperazio-oposiziozkoak izan dira, %45,14arekin (2084 min.), gero, kooperaziozko harremanak, %36,87arekin (1702 min.). Oposiziozko harremanak gutxien sustatu direnak dira, %3,7arekin (171 min.). Beraz, behatutako gorputz hezkuntzak iraupenari dagokionez. Kooperazio-oposizioan aurkaria gainditzeko elkarri laguntzeari eman dio pisua, kooperaziozko harremanekin batera, kideen arteko laguntzako balioak garrantzia hartuz. Neskek eta mutilak, batez ere, kidearekin edo taldekidearekin elkartasunean eta laguntzen eta aurkariari aurre hartzen hazi dira.



Irudia 19: Behatutako gorputz hezkuntzan islatu diren egitura sozialen iraupena. Pisu adierazgarria izan dutenen artean kooperazioan (denok denekin) egiturak %36,9ko pisua izan du (1704 min.); talde duelu simetrikokoak %32,1 (1481 min.); eta bakarka %14,3 (659 min.)

Grafikoak adierazten duen bezala, jarduera guztien artean, nagusitu diren egitura sozialak kooperazioan, talde duelu simetrikotan eta bakarka izan dira. Kooperazioak %36,9arekin (1704 min.), kide edota taldekideen arteko kooperazio harreman motorrak adierazten ditu; talde duelu simetrikokoak %32,1arekin (1481 min.), baldintza berdinetan, talde batek bestearen kontra egiten duen egoera motorrak adierazten du; eta bakarka egitura sozialak egoera psikomotorrak, %14,3arekin (659 min.), adierazten ditu. Soka saltoan kooperazioa, errugbia partiduak jokoan talde duelu simetrikoa, eta palak eta erraketak banaka jarduera motorrean bakarka egitura sozialen adibideak dira.

Palak eta erraketak bikoteka jarduera motorra kooperaziozko harreman motorren adibidea da eta errugbi partiduak kooperazio-oposiziozko harreman motorren adibideak dira.

Palak eta erraketak bikoteka jarduera motorrean, ikasleak bikoteka frontoian sakabanatuta daude. Bikote bakoitzeko kideek aukeratzen duten pala edo erraketa bana hartzen dute eta, bikoteko, teniseko pilota bat dute. Helburua bikote bakoitzeko kideak bere kideari pilota pasatzea da. Horretarako kideak, bata bestearen aurrean kokatzen dira eta pilotari erraketarekin edo palarekin jo behar diote. Kideen arteko tarte bat mantendu behar badute ere, distantzia hori aldakorra izan daiteke eta ikasleen abileziaren arabera luzeagoa edo laburragoa izango da. Irakasleak minutu batzuen ondoren jarduera bukatutzat ematen du.

Inguru fisikoarekiko ziurgabetasuna eza dagoen espazioan burutzen den jolasa-jokoa honetan bikotekidearen zeinuak laguntzako zeinuak dira eta ondorioz, parte hartzaileak ez dira inguru sozialarekiko ziurgabetasunean aritzen, baizik eta ziurgabetasun eza. Helburua ez da irabaztea, baizik eta denbora pasan, txandaka, pilotari jotzea da. Jotzen den pilota bikotekidearengana ondo hel dadin, jotzeko keinua, etengabe, berregokitzen da. Parte hartzaileek, palak edo erraketak eta pilotak erabili behar dituzte. Kooperazio harreman hau jarduera motorra hasi eta bukatu arte irauten du. Kooperaziozko harreman motorrek, ikuspuntu sozioafektibo batetik, bikotekideen arteko kohesioa nabarmentzen dute.

Bestetik, oposizio/kooperaziozko harremanak ematen diren jarduerak taldekideen arteko elkartasuna bultzatzeaz gain, neska eta mutila aurkariaren aurrean taldean aritzeak duen garrantziaz jabetzen dira. Kirol modernoaren harreman finkoetan, arrakasta lortzeko abilezi semiotorra aski ezaguna da. Errugbia partiduak kirol modernoaren adibide bat dugu. Taldekideen arteko elkartasuna bilatzen da aurkariari irabazteko.

Baina, harreman ez egonkorak sustatzen diren jarduera motorretan ere kooperazio-oposiziozko harremanak gauzatzen dira. Honen adibide bat kadeneta bikoteka da.

Horrela, behatutako gorputz hezkuntzan, egoera soziomotorren artean, kooperazioa eta talde duelu simetrikoa gehien irauten diren egitura sozialak izan dira. Neskek eta mutilek, nagusiki, elkartasunean eta aurkariari aurre egitearen garrantzian izan dira haziak. Urrunago, bakarka, onura lortu arte keinua errepikatzean ere hazi dira.

Taldeko kirolak kideen arteko kolaborazioa azpiproduktua badira, "emaitza nagusia kirol txapelketaren barne logikagatik ezarritako antagonismo erradikala ezartzen duen tanteoa da" (Parlebas, 2001, 165 or.). Ezer ez da dohainik ematen. Eta "interesak kontrajarrita dauden bi aurkariaren arteko konfrontazioa egoera" (Parlebas, 2001, 167 or.) bezala definitzen den duelu egoeretan baten irabaziak bestearen galerak dira.

4.4.7. Euskal Autonomia Erkidegoan egitura sozialak eta kirol parte hartzea

Eusko Jaurlaritzako kultura saileko kirol arloan eginiko kirolari federatuen lizentzien azterketak komunikazio praxikoari emandako garrantzia islatzen du. Euskal Autonomia Erkidegoan eskaintzen den kirol aniztasunean lehenengo egoera psikomotorrak eta soziomotorrak zein neurrian zabaltzen diren aztertu nahi da. Era honetan, egiten den eskaintzan agertzen diren egitura sozialak ere mugatzeko aukera baitago. Gero, kirolari federatuen lizentziak generoren ikuspuntutik aztertze.

Hala ere, kirol parte hartzeari dagokionez, generoekiko desberdintasunak nabariak dira eta Herbehereak eta Eskandinavia bezalako herrialdeetan emakumeen ariketa praktikoa gizonena baino handiagoa dela ikusten bada, Europaren beste herrialdeetan eta Estatu Batuetan edo Txinan “gizonek oraindino emakumeek baino gehiago hartzen dute parte kirolean” (Chalabaev, Sarrazin, Fontayne, Boiché, eta Guillotin, 2013b, 137 or.).

Baina zeintzuk dira bai gizonek edo emakumeek parte hartzen duten kirol horiek? Kirol batzuk femeninoak bezala sailkatu daitezke eta beste batzuk maskulinoak bezala? Izaeraren ezaugarri egonkorra duen genero nortasuna baloratzeko BSRI¹¹¹ eskalan oinarriturik, kirolek erakusten dituzten ezaugarri maskulino edota femeninoaren arabera kirolak maskulino edo femenino bezala sailkatzen dira, sexuarekiko kirol estereotipoa ezarriz. Horrela, kirol maskulinoak kontaktu fisikoa, aurrez aurre oposizioa, indarra eta oldarkortasuna bezalako ezaugarri maskulinoak nahasten dituzte eta kirol femeninoak adierazpena, estetika eta dohaina.

Kirol, joko, eta jolasen arauen arabera ematen diren elkarrekintza motor zuzenek egoera soziomotorretan ematen den komunikazio praxikoa erakusten dute. Parte hartzaileen arteko elkarrekintza motorrak kontra-komunikaziozkoak direnean karga distantziak pisua hartzen du. Elkarrekintza antagonikoetan kulturak baimentzen duen bortizkeria maila islatzen baita.

Praktika motorrek “argitzen eta sentsua hartzen dute sortu dituzten erkidegoen harrerako eremuan kokatzen direnean” (Parlebas, 2001, 151 or.), horrela, kontra-komunikazio motorretan gorputz konfrontazioa arautzen denean, praktika motorren bitartez sustatzen den sozializazioan pertsonen arteko harremanetan bortizkeria maila kontrolatzen da. Bereziki, kirol instituzioaren bitartez.

¹¹¹ BSRI Bem S.L. autoreak genero nortasuna baloratzeko eskala da eta maskulinitasuna eta feminitatea bi dimentsio askeak bezala ulertzen dituen lehenengo tresna da. Lau genero nortasunak bereiztu daitezkeela azalduz: “gizabanakoak maskulinoak dira ezaugarri maskulinoak sustatzen dituztenean, femeninoak ezaugarri femeninoak hartzen dituztenean, androginoak bien ezaugarriak sustatzen dituztenean eta ez berezituak ez bata ez bestearen ezaugarriak hartzen ez dituztenean” (Chalabaev, Sarrazin, Fontayne, Boiché, eta Guillotin, 2013a, 138.).

Era honetan, “kirol joko batean aurkari bi banatzen duen konfrontazioa distantzia motorra, bietako batek bestearen kontra kargatzen duenean” (Parlebas, 2001, 149 or.) bezala definitzen den eraso (karga) distantziaz hitz egiten da.

Taldeko eta banako dueluek egitura simetrikoa erakusten dute jokalarikopurua, zelaiaren baldintzak, erabili behar den objektua eta betebeharrak parte hartzaile guztientzako berdina direlako eta informazioa osoa dute zeren eta jokalariek erakusten duten informazioa parte hartzaile guztiek ikus dezakete. “Kirol txapelketa ea guztiak duela dira eta gainera, duela simetrikoak informazioa osoarekin” (Parlebas, 2001, 168 or.): boleibol, errugbi, futbol, beisbola edo eskubaloia, baina, tenis, eskupilota edo boxeokirolek duela egitura simetrikoa eta informazio osoarekin erakusten dute ere.

Horrela, kirol, joko eta jolasetan emaitza nagusia duten tanteean irabazteko konfrontazioa erasoak pisua hartzen dute eta arauak mugatzen dute zelakoa izan daitekeen.

Kirol arauak baimentzen duten eraso distantziaren arabera, nagusiki distantzia estua, gertukoa eta luzea bereiztu daitezke. Distantzia estua emaitzen onura jokalarien (aurkari) arteko kontaktu fisikoan datza. Eraso gertuko espazioan ematen denean jokalarien arteko kontaktu fisiko baldintza batzuetatik kanpo debekatuta dago eta jokalarien arteko harremanen objektu bat bitartekari bihurtzen da, adibidez baloia. Eta distantzia luzean joko eremuaren antolatetako ezartzen du, adibidez sarea edo horma.

Errugbian plakatzea edo melean karga distantzia oso estua da eta eskubaloian edo futboleko konfrontazioa gertuko espazioan ematen da. Bestetik, boleiboleko ez dago aurkari arteko kontaktu fisikorik, sarea aurkari arteko distantzia luzea mugatzen baitu. Eta boxeoko guardia distantziaz hitz egiten da, “aurrez aurre bi aurkari artean” (Parlebas, 2001, 150 or.) ematen dena. Adibidez, borroka kirolean guardia distantzia mantentzeak bortizkeria kontrolatzeko neurri bat da. Distantzia hau handitzen den neurrian, adibidez, boxeolariak abiada hartzeko aukera izan dezake eta ondorioz diana (helburua) den gorputza jotzerakoan bortizkeria (indar fisiko) areagotzen da.

Beraz, “konfrontazio zuzenaren unean, kirol joko bateko aurkari bi banatzen duen distantzia kodifikatua (batezbestekoa)” (Parlebas, 2001, 150 or.) den konfrontazio distantzia motorrean kirol, joko eta jolasen arauak baimentzen dituzten kontaktu fisiko eta bortizkeria maila islatzen dute.

Estetika edota dohaina femeninotzat hartzen diren kirolen ezaugarriak direla eta aurrez aurre oposizioa, indarra, bortizkeria eta kontaktu fisiko maskulinoztat hartzen diren kirolen ezaugarriak direla aintzat hartuz, eraso distantziak nola baimentzen diren ezagutzeak praktika motorrak maskulinizatu edo emetu diren mugatu daitezke. Eta bestetik, gizon eta emakumeek kirolen hautaketan erakusten duten joera ezagutzen da: gizon eta emakumeek hurrenez hurren maskulino edo femeninotzat hartzen diren kirolak hautatzen dituzte?.

Taula 35: Behatutako gorputz hezkuntzan proposatu diren kirolek erakusten dituzten egitura soziala eta ezaugarriak.

Jardueraren izena	Egitura soziala	Ezaugarriak	%
Errugbia	Talde duelu simetrikoa	Kontaktu fisikoa	%16
Beisbola	Talde duelua	Kontaktu fisiko eza	%12,7
Ultimate	Talde duelu simetrikoa	Kontaktu fisikoa	%7,3
Boleibola	Talde duelu simetrikoa	Kontaktu fisiko eza	%4,4
Eskubaloia	Talde duelu simetrikoa	Kontaktu fisikoa	%4,3
Futbito	Talde duelu simetrikoa	Kontaktu fisikoa	%1,2
Saskibaloia	Talde duelu simetrikoa	Kontaktu fisikoa	%0,4
Ariketa gimnastikoak	Banaka/kooperazioa	Dohaina eta estetika	%10,4
Belodromoa	Banako probak/taldeko duelu simetrikokoak	Kontaktu fisiko eza	%5,2
Trinketea	Talde/banako duelu simetrikoa	Kontaktu fisiko eza	%6,5
Zesta punta	Talde/banako duelu simetrikoa	Kontaktu fisiko eza	%2,1
Eskupilota	Talde/banako duelu simetrikoa	Kontaktu fisiko eza	%0,5
Guztira			%71

%= iraupen osoaren portzentajea

Taulan ikusten den bezala, talde duelu simetrikoa kontaktu fisiko eza iraupenaren %38,7an ikusten da, Kooperazioa, dohaina eta estetika %10,4an eta talde duelu simetrikoa kontaktu fisikoa %21,9an. Beraz, behatutako gorputz hezkuntzak ezaugarri femeninoak dituzten kirolen alde egin du. Kooperazioa, dohaina eta estetika, eta kontaktu fisiko eza ezaugarri femeninoak.

Taula 36: EAE-n kirolen egitura sozialaren arabera generoerako parte hartze maila.

Kirolak	Egitura soziala	Emakumeak%	Gizonak%
Boleibol	Talde duelua	%70,31	%29,69
Badminton	Banaka/binaka duelua	%61,15	%38,85
Beisbol	Talde duelua	%50,91	%49,09
Saskibaloia	Talde duelua	%39,58	%60,42
Eskubaloia	Talde duelua	%34,93	%65,07
Esgrima	Banako duelua	%33	%67
Borroka	Banako duelua	%27,33	%72,67
Judo	Banako duelua	%27,08	%72,92
Taekwondo	Banako duelua	%22,80	%77,2
Tenis	Banaka/binaka duelua	%22,02	%77,98
Hockey	Talde duelua	%16,38	%83,62
Karate	Banako duelua	%15,75	%84,25
Futbol	Talde duelua	%10,26	%89,74
Boxeo	Banako duelua	%8,45	%91,55
Errugbi	Talde duelua	%8,18	%91,82
Mahai-tenis	Banaka/binaka duelua	%7,41	%92,59
Euskal pilota	Banaka/binaka duelua	%5,62	%94,38
Squash	Banaka/binaka duelua	%4,82	%95,18

Iturria: EJV. (2013). Kirolarien lizentzia federatuen kopurua. Datuak sexuka 2012

Euskal Autonomia Erkidegoan duelu egitura erakusten duten kirolen eskaintzan arretoa jarri gero, badminton, borroka, boxeoa, esgrima, Euskal pilota, judo, karate, mahai tenis, squash, taekwondo eta tenis kirolek banako¹¹² duelu egitura dute. Eta areto futbol, beisbol, boleibol, errugbi, eskubaloia, futbola, hockey eta saskibaloia kirolek talde duelu egitura.

Taulan elkarrekintza motorra zuzenak eskatzen dituzten kirolak ikusten dira. Hauetan, jokalarien arteko konfrontazioan karga distantziaren arabera kontaktu fisiko eta bortizkeri maila sailatu edo areagotu daitezke eta horrela, emakumeek eta gizonak egiten duten kirol aukeran kirol genero ezaugarriek eragina duten ezagutu daitezke.

¹¹² Badminton, Euskal pilota, mahai-tenis eta tenisean banako eta binako txapelketak antolatzen dira

Euskal Autonomia Erkidegoan lizentzien kopuruak duela eta talde duela egitura soziala erakusten duten kirolak emakumeek badminton eta boleibolea baino parte hartze maila altuagoa erakusten dute. Badminton eta boleibola aurkariaren arteko eraso distantzia sarearen bitartez luzatzen den kirolak dira, zeinetan kontaktu fisikorako aukerak galtzen dira, bereziki aurkariaren artean. Eraso distantzia luzea dela eta, emakumeek gizonen baino parte hartzeko joera handiagoa erakustea ez da betetzen mahia tenisean eta tenisean, nahiz eta mahaiak eta sareak eraso distantzia luzatu. Era berean, squash eta Euskal pilotan hormak eraso distantzia luzatzen badu ere, emakumeek ez dute gizonen baino parte hartze maila handiagoa erakusten.

Edonola ere, emakumeek eta gizonen eraso distantziaren arabera erakusten duten kirol parte hartze maila desberdina dela ikusten da. Areto futbola salbuespena izanik, baina baita ere, mahai-tenis eta tenis, zeinetan gizonen parte hartze maila handiagoa dute, squash eta euskal pilotan bezala.

Era honetan, gizonen ageri uzten dute eraso distantzia estuetan parte hartzeko joera. Horrela, borroka, boxeoa, errugbi, judo, karate eta taekwondo kirolak oso parte hartze maila handia dute, emakumearen baino handiagoa. Hauetan emaitza kontaktu fisikoaren menpe dago. Eraso distantzia estuak baimentzen diren kirolak guardia distantzia mantentzeak bortizkeria leuntzen badu, indarra, bortizkeria eta kontaktu fisiko agerikoak izaten jarraitzen dute. Antzinako Grezian jaialdi handietan eta Joko Olinpikoetan "indarra, pasioa eta borrokarako erresistentziaren menpe zegoen" (Elias eta Dunning, 1992, 169 or.) boxeok gaur ere, nahiz eta onartzen den bortizkeria maila apalagoa izan, oldarkortasuna eta kontaktu fisiko bereak ditu. Boxeolariak aurrez aurre aurkariak azaleratzen dituen estrategiei erantzun motorrak ematen dihardu. Ezaugarri maskulinoak dituen boxeok kirolean emakume eta gizonen arteko parte hartzean aldea oso handia da, emakumeek boxeok kirolean federatuen lizentzien %9,88a erakusten baitute.

Gizonen indarra eta kontaktu fisiko baimentzen dituzten kirolak parte hartzeko joera nabarmentzen da. Hala ere, emakumeek kirol maskulinoetan erakusten duten parte hartze mailan arreta jarriz gero, kontaktu fisiko, oldarkortasuna, eta oposizioa ezaugarriak barneratzen dituztela inferitzen da. Era honetan, kirola genero-errekiko ezaugarriak barneratzeko tresna bihurtzen da genero nortasunean ezaugarri egonkorak itsatsiz. Euskal kirol kulturaren emakumeen izaeraren eraikuntzan ezaugarri maskulinoak finkatzen direla baieztatuz, "kirola eremu maskulinoa da eta parte hartzaileak ezaugarri maskulinoak sustatzen dituzten horiek dira" (Chalabaev eta lag., 2013a, 138 or.).

4.4.7.1. Gorputz hezkuntzan eta gizartean kirolak eraso distantzia generotik aztertuta

Gorputz hezkuntzan proposatutako jarduerak motorretan nagusitu den kirolak baimentzen duen eraso distantziaren arabera genero ezaugarriak EAE-n zabalitzen den kirol eskaintzan dauden konparatu nahi izan da.

Horretarako gorputz hezkuntzan eta EAE-n proposatu diren kirol eskaintza aztertu da. Eraso distantziaren arabera baimentzen den kontaktu fisikoak kirolei ematen dizkien ezaugarri femenino eta maskulinoak azterketa bideratzeko irizpidea izanik.

Taula 37: Gorputz hezkuntzan eta EAE-n kirol eskaintzan eraso distantzia.

ERASO DISTANTZIAK	GH (09-10 ikasturtea)		EAE ¹¹³ (2012)				
	kirola	%(t)	kirola	%(L)	% ♀	% ♂	
ESTUA	Errugbia	%16	Borroka	%0,08	%15,75	%84,25	
			Boxeo	%0,21	%8,45	%91,55	
			Errugbia	%1,08	%8,18	%91,82	
			Esgrima	%0,06	%33	%67	
			Judoa	%0,86	%16,38	%83,62	
			Karatea	%0,85	%27,08	%72,92	
			Taekwondo	%0,34	%22,80	%77,2	
	guztira	%16	guztira	%21,18			
GERTUKOA	Eskubaloia	%4,3	Eskubaloia	% 2,08	%34,93	%65,07	
	Futbito	%1,2	Futbola	%16,73	%10,26	%89,74	
	Saskibaloia	%0,4	Hockey	%0,44	%35,73	%64,27	
	Ultimate	%7,3	Saskibaloia	%4,64	%39,58	%60,42	
	guztira	%13,2	guztira	%24,6			
LUZEA	Beisbola	%12,7	Badminton	%0,17	%61,16	%38,85	
	Boleibola	%4,4	Beisbol	%0,20	%50,91	%49,09	
	Eskupilota	%0,5	Boleibol	%0,56	%70,31	%29,69	
	Zesta punta	%2,1	Euskal pilota	%1,67	%5,62	%94,38	
	Trinketea	%6,5	Mahai-tenisa	%0,17	%7,41	%92,59	
			Squash	%0,05	%4,82	%95,18	
			Tenisa	%0,89	%22,02	%77,98	
	guztira	%26,2	guztira	%3,71			
EZ DAGO	Ariketa gimnastikoak	%10,4	Aire-kirolak	%0,35	%3,83	%96,17	
	Belodromoa	%5,2	Arku-jaurtiketa	%0,41	%16,17	%83,83	
			Atletismo	%1,34	%30,47	%69,53	
			Bela	%0,81	%16,82	%83,18	
			Bolo	%2,46	%15,86	%84,14	
			Gimnastika	%10,62	%95,78	%4,22	
			Golf	%0,29	%33,34	%66,66	
			Halterofilia	%0,09	%9,40	%90,60	
			Herri kirolak	%0,53	%10,27	%89,73	
			Igeriketa	%1,40	%40,74	%59,26	
			Irristaketa	%0,37	%22,59	%77,41	
			Mendizale	%19,18	%27,33	%72,67	
			Negu kirolak	%1,19	%47,06	%52,94	
			Petanka	%0,13	%22,82	%77,18	
			Piraguismo	%0,55	%18,49	%81,51	
			Triatloi	%1,08	%9,63	%90,37	
			Txirindularitza	%4,93	%3,50	%96,5	
		guztira	%15,6	guztira	%27,6		

t= iraupena minutuetan
L= lizentzia kopuru guztien %
♀ = kirol bakoitzean emakumearen parte hartze maila lizentzia kopuruan (%)
♂ = kirol bakoitzean gizonaren parte hartze maila lizentzia kopuruan (%)

Iturria: EJV. (2013). Kirolarien lizentzia federatuen kopurua. Datuak sexuka 2012

Taulan ikusten den bezala, bai gorputz hezkuntzan eta EAE-n (gizartean) eraso distantzien aniztasuna eskaini da. Gorputz hezkuntzan datuek iraupean oinarritzen dira, neskek eta mutilek kirol bakoitzean praktikatzeko egon diren minutuak adierazten digute. Eta EAEko datuek kirol bakoitzean lizentzia kopuruen portzentajea adierazten digute. Datuen izaera gorputz hezkuntzan eta EAE-n desberdina bada ere, tendentzia bat adierazten dute. Eraso distantzia mota bakoitzean gorputz hezkuntzan eta gizartean dagoen tendentzia. Eta datuen azterketa baldintza honetatik abiatzen da, eraso mota bakoitzean arreta jarritz gero ikusten da:

Eraso distantzia estuan

- Eraso distantzia estua gizartean %21,18koa eta gorputz hezkuntzan %16koa dela ikusten da. Gorputz hezkuntzan eskaintza errugbi kirolera murriztu da.
- Gorputz hezkuntzan eraso distantzia estua leundu dela, TAG errugbiaren bitartez plakatzea gerritik zintzilikatuta daramatzaten zinta bat kentzearekin ordezkatu da, kontaktu fisikoa saihestuz. Gorputz hezkuntzak gizarteak eskaintzen duen kontaktu fisiko estua aukera hartu du baina kirol ezaugarri femininorantz eraman du.
- Gizartean eraso distantzia estua duten kirolean emakumearen parte hartze maila kasu guztietan baxuagoa dela.

Gertuko eraso distantzian

- Gertuko eraso distantzia gizartean %24,6koa eta gorputz hezkuntzan %13,2koa dela.
- Gizartean gertuko eraso distantziaz bailatzen diren kirolean emakumearen parte hartze maila baxuagoa dela.

Eraso distantzia luzean

- Eraso distantzia luzea gorputz hezkuntzan %26,2koa eta gizartean %3,71koa dela.
- Gizartean eraso distantzia luzeaz bailatzen diren kirolean emakumearen parte hartze maila bi kasuetan, badmintonean eta bolebolearen, gizonena baino handiagoa dela eta beisbolearen parte hartze mailan ia ez dagola desberdintasunik.
- Gorputz hezkuntzak kirolei ezaugarri femeninoa erantzen dion eraso distantzia luzeari bereziki garrantzia eman diola.

Eraso distantzia ez dagoenean

- Gizartean %27,6koa eta gorputz hezkuntzan %15,6koa dela.
- Gizartean emakumearen parte hartze maila baxuagoa dela eta negu kirolean gizonarekin ea parekoa dela.

- Gizartean gimnastikak lizentzia kopuru guztien indize adierazgarria duela, %10,62koa. Kirol honetan emakumearen parte hartze maila garrantzitsua da, %95,78koa.
- Gorputz hezkuntzak gizartean bezala estetika eta dohaina ezaugarri femeninoak dituen gimnasia sustatu duela (%10,4)

Gorputz hezkuntzak gizartean bezala ezaugarri maskulinoak eskaini baditu ere, leundu ditu (TAG errugbia¹¹⁴). Gorputz hezkuntzan ezaugarri maskulinoak saihesten dituen eraso distantzia luzeak gizartean ez bezala, pisu handiena izan du (%26,2), gizartean eraso distantzia luzea erakusten duten kirolean lizentzia kopuru guztien %3,71koa baita. Gorputz hezkuntzan eraso distantzia luzean ematen diren kirolak gizartean emakumearen parte hartze maila handiagoa den boleibola eta gizonarekin parekoa den beisbola proposatu diren arteko bi izan dira.

Kirolen arauak ezartzen duten eraso distantzia baldintzatik eginiko azterketak gorputz hezkuntzan kontaktu fisikoa saihestean alden egin duela ikusi da. Gorputz hezkuntzan kirolak emetu dira.

4.4.8. Gorputz hezkuntzak sustatu dituen harremanen zentzua gizartean

Behatutako gorputz hezkuntzan neska eta mutilen nortasuna egoera sozio-motorretan sustatu diren berezko elkarrekintza motorren arabera eraiki da. Talde duelua egituren bitartez, inguru sozialarekiko ziurgabetasunean neska eta mutilen jarrerak, aukerak eta erabakiak besteek sortzen duten ustekabearen arabera, eta denok denekin egituraren bitartez, zeinuak agerian uztean besteekiko kohesioan eman dira.

Egoera psikomotorretan bakarka eredu motorra lortu arte errepikapenak bigarren bailan urrun geratu direla.

Gizarte individualisten nartzisismo hutsean ez jausteko harreman sozialak eta kooperazioa giza praktiken ikurretan bihurtzen dira. Horien artetik, kirola eta jarduera fisikoa oro ar gizabanako nortasuna eraikitzeko giza praktikak izanik.

Horrela, neskek eta mutilek aurkariaren aurrean taldean aritzeak duen garrantziaz jabetzeko aukera izan dute. Kooperaziozko harremanek pisua hartu dute, ikuspuntu sozioafektibotik laguntzazko komunikazio praxikoek taldearen kohesioa indartu eta harremanak estutuz, irabaztea kideen arteko kooperazioan ulertzen da. Beraz, norberaren berehalako errealizazioa taldeekiko betekizunen zentzuagatik ordezkatzeko da. Eta kapital soziala nozioaren baitan bereizten den norbanakoaren onura ikuspegiak indarra galtzen du. Norbanako baliabideek komunitatean baino ez dute aukera eta lankidetzaren neurtu

¹¹⁴ TAG errugbiaren berezitasun nagusia plakatzeak era da, baloia duen jokalaria ezin denez heldu, plakatzeak gerritik zintzilikatuta daramatzan zinta bat kendu behar zaio. Era honetan, jokalaria plakatuta dago eta baloia galtzen du. Bete behar motorra honi TAG egitea deitzen zaio.

daitekeen onura lortzeko bidea litzateke. Kirol praktikan kontaktu fisikoak islatu dezaketen bortizkeria saihestuz eta kirol ezaugarri femeninoak areagotuz, talde kohesioa kooperaziozko harremanen bitartez.

Zentzu honetan, kooperazioan bata besteari laguntzen, babestuta sentiarazten eta zaintzen Euskal tradizioan emakumeek bete izan duten rola da zein kontaktua fisikoarekin lotutako oldarkortasuna saihesten da. Behatutako gorputz hezkuntzan baldintza mistoa dela eta, neskak eta mutilak laguntza eta zaintza, eta kideen (familia kideen) talde interesak babesteko kooperazioaren garrantzia hazi dira.

Laburbilduz, gizartearen kultura indibidualista eta kolektibistaren norberaren berehalako errealizazioa eta besteekiko erantzukizuna balioak dira urrenez urren. Besteekiko betekizunen zentzua emakumeek barneratu duten balioa izanik. Behatutako gorputz hezkuntzan harreman soziomotorrak nagusitu dira, kooperazio eta talde duelu egituren bitartez gizarte kolektibistaren talde kohesioa, lankidetzaren eta konfiantza balioen alde eginez, emakumearen rola areagotuz. Eta bortizkeria saihesten dituzten kirolen bitartez, emakumeen ezaugarri femeninoak sustatu dira. Lehen hezkuntzan neskak eta mutilak tradizioan eta gaur emakumeek zaintza rolean bereganatzen dituzten kooperaziozko harremanek garrantzia izan dute eta zeregin honetan bortizkeria ezak duen garrantzia areagotu da. Mutilek ere besteekiko harremanetan emakumezkoen zaintza balioan haziz. Lehen Hezkuntzan gorputz hezkuntzaren bitartez generoen arteko desorekan emakumearen alde egin da.

5. GORPUTZ HEZKUNTZAN GIZA GENERO EREDUAK

Aztertu diren jardura motorren barne logikaren aldagaiak banan-banan miatu dira. Bata besteekiko aldagai askeak bezala aztertu dira. Denbora, espazioa, objektua eta harremanak aldagai bakoitzak bultzatu duen genero eredu zehaztu da.

Horrela, memoria gabeko jardura motorren bi eren baino gehiagoko pisuak emakumei egotzi izan zaien denbora ziklikoa islatu du. Kurutziaga ikastolako antolatutako denbora zentzua maskulinoa izan bada (egutegia eta ordu-tegia), behatutako gorputz hezkuntzako denborak lehen hezkuntzan generoen arteko desorekan emakumearen denbora nozioa bultzatu du. Objektuen behar izateak izan duen lau bostenarekin gizonen akzioa ezaugarria azpimarratu da. Soilik artifizialki eraikitako espazio pribatuak baliatu den neurrian, tradizioan emakumei egotzi izan zaion espazio pribatua sustatu da. Eta nagusitu diren jardura sozio-motorren lau bosten baino gehiagorekin gizarte kolektibistaren talde kohesioa, lankidetzaren eta konfiantza balioak sustatu dira, tradizioan besteekiko betekizunen zentzua emakumeek barneratu duten balioa izanik. Barne logikaren aldagai bakoitza era askean aztertuz emakumei egotzi izan zaion giza generoa areagotu dela baieztatu da.

Orain arte barne logikaren ezaugarri bakoitzarekin ezarri den harremanaz arduratu bagara, Levis-Straussek (2012, 37 or.) mitoen fenomenoaren azaltzerakoan baieztatzen duen bezala, osagaien (ezaugarrien) arteko harremanaz arduratu behar gara. Ezaugarri mitologikoak dituzten istorioen azterketa egitean, hasierako itxurazko desordena horren atzean ordena mota bat zegoela ikusi zuen. Eraiki den jardura motorren korpusean ordena hori zein den deszifratzeko barne logikaren ezaugarriek elkartzeko erakusten duten joera aztertzea eskatzen da. Hain zuzen ere, barne logikaren ezaugarrien konbinaketek sortzen dituzten multzoak ezagutzeko.

Ezagupen horren interesa, alde batetik, zein multzo desberdin sustatu den jakitean dago. Eta, bestetik, multzo motor horiek erakusten dituzten giza genero ereduak mugatzean.

Gorputz hezkuntzan, alde batetik, barne logikaren kategorien arteko harreman joeraren azterketatik multzo motorrak zehaztuko dira eta, bestetik, proposatu diren jardura moten arteko harremanaren azterketatik islatu den hezkidetzaren ereduak ezagutzeko da. Batak curriculum ezkatuak azaleratzen

duen generoarekiko pentsamendua ezagutarazten digu. Irakasleak proposaturiko jarduera motorren barne logika ez du aintzat hartu eta, ondorioz, inkontzienteki gorputz hezkuntza bat proposatu du. Curriculumetik inkontzienteki gorputz hezkuntza ezkutua eraiki da. Besteak curriculum esplizituaren jarduera motak zehaztu ditu. Agerian dagoen curriculumetik, egoera motorren azpi multzoek gorputz hezkuntza metodo bat zehaztu dute. Era honetan, ikerketaren ildoak interesgarriak egiten zaizkigu curriculum ezkutua eta curriculum esplizituaren arteko konparaketa bat egin baitaiteke eta curriculum biek hezkidetzaren eredu bera sustatu duten ezagutu.

Multzo motorrak gorputz hezkuntzan proposatu diren egoera motorren azpi-multzoetan ageri diren jarduera moten barne logikez osatzen direla ohartu behar gara. Ageriko curriculumak ezkutuko curriculumara eraiki baitu.

5.1. Jarduera moten izaera eta gorputz hezkuntzan metodoa

Kurutziaga ikastolako gorputz hezkuntzan irakasleak proposatu dituen jarduera motorren izaera ezagutzeko. Parlebasek (2001, 174 or.) proposatzen dituen egoera motorren oinarritzeko kategorietan arreta jarri da. Gorputz hezkuntzari dagozkion egoera motorrak lau azpimultzo handitan taldekatu daitezkeela ohartzen gara.

Gorputz hezkuntzako irakasleok curriculum ildoak jarraitzerakoan oinarritzeko egoera motorren kategorien aukera bat egiten dugu, eta "aukerak azpi-arauei dagozkie" (Parlebas, 2001, 175 or.), hezkuntza curriculumari, hain zuzen ere. Kurutziaga ikastolako gorputz hezkuntzan irakasleak eginiko jarduera motorren proposamenean hezkuntza curriculumaren ildoak jarraitzen dituenean, egoera motorren aukeraketa bat egiten du, egoera motorren izaerak jarraitzen den metodoa azaltzen lagunduz. Jarduera motorrak proposatzerakoan "gorputz hezkuntzaren metodoak bereziki lau egoera motor motekiko jarrerarengatik dira bereizgarri" (Parlebas, 2001, 175 or.).

Azaltzen den sailkapenean kirol joko-jolasen eta orokorrean jarduera motor guztien ezaugarri bereizleak zehazten dira. Parlebasek (2001, 112 or.) kirolaren izaera azaltzeko definitzen dituen *egoera motorra*, *instituzionalizazioa*, eta *txapelketa* ezaugarri bereizleak, Hain zuzen ere. *Egoera motorra* ezaugarria bereizlea ahozko edota egoera kognitiboaren aurrean dagoen baldintza baino ez da, eta kirol joko-jolas guztiek betetzen dute. Era berean, egoera motor bat *instituzionalizatu* egon daiteke. Horrela denean, ofizialki onartzen den egoera motorraz hitz egin daiteke, egoera motorra antolatzeke eta bideratzeko orduan "federazioak, Estatu kontrolak, araudiak, agintarien eskabideak, egutegiak, protokoloak, jokozainak eta laguntzaileak, zigorrak, sariak eta penalizazioak" (Parlebas, 2001, 114 or.) gailuak dira. Egoera motor instituzionalizatuaren adibide argiena kirola da. Eta kirolean bezala, instituzionalizatzen den edozein egoera motor beti txapelketa eran gauzatuko da.

Txapelketa praktika instituzionalizatuaren giltzarria da. Adibidez, kirol bakoitzaren federazioak antolatzen duen txapelketa egutegia edota nazioarteko kirol erakundeek antolatzen dituztenak. Bestetik, egoera motor bat lehiakor izateak txapelketa ezaugarri bereizlea ez duela bermatzen konturatu behar gara. Adibidez, zelai errean jardueran talde bat bestearen kontra lehiari aritzen da, baina, txapelketa antolatua izan barik. Egoera motorren ezaugarri bereizleak gorputz hezkuntzan proposatzen diren jarduera motorrak kirolera hurbildu edo urrundu ditzake eta era honetan, jardueren izaera ezagutzen da. Ezagupen horrek gorputz hezkuntzan jarraitu den metodoa zehazten du.

Egoera motorren ezaugarri bereizleak (Parlebas, 200, 174. or.) ondoren zehazten den sailkapena antolatzeke irizpide bihurtzen dira:

- Txapelketa eta instituzionalizazioa nagusitzen diren egoera motorrak (hau da, kirola).
- Lehiakor kodifikatuak baina ez instituzionalizatuak diren egoera motorrak: kirol-joko tradizionalak eta naturan eginiko joko-jolasak.
- Kontsigna, aholku eta iradokizunengatik baldintzatutako egokitutako ariketak edo prestatzeko egoera motor didaktikoak: ariketa-problema, egokitutako egoerak, prestatzeko ariketak eta ariketa hezitzaile anitzak edo helburu anitzeko ariketen saioak (erlaxazioa, yoga, gorputz adierazpena, eutonia).
- Lehiakor eta instituzionalizatuak ez diren egoera motorrak: parte hartzailea askatasunarekin eta betebeharrak kodifikaturik gabe aritzen da. (...) Bereziki naturan praktika berrien eremua da, kirolen garapenarekin zerbait lorpeni etekina ateratzen diotenak (materialei dagokionez, batez ere), zeinetan txapelketa ez den araua (txangoak, abenturako ibilbideak).


Kurutziaga ikastolan irakasleak egin duen aukera pedagogikoari buruzko lehenengo izpiak ikusteko aukera izateko, proposaturiko jarduera motak, beraien izaera eta bakoitzak izan duen pisua azaltzen dira. Era honetan, bata bestearekiko duen harremana ezagutzen da eta gorputz hezkuntzan jarraitu den metodoa zehazten da:

- Korrika: gorputz hezkuntza osoaren %6,7a (307 min.) izanik, korrika jardueran ikasleak ilaran, bata bestearen atzean, zelaia bost bira ematen dizkiote. Bi helburu bete ditu. Bat, lasterketa txapelketetara begira neskek eta mutilek erritmoa eta lasterketa intentsitatea neurtzen eta kontrolatzen ikastea. Fondoko lasterketarako (iraupen luzeko lasterketa txapelketetarako) prestatzeko kirol batean trebakuntza lortzea du helburu. Eta bestea gorputza prestatzeko helburua da. Saio guztietan hasieran gauzatu da, bihotz taupadak egokitzeke eta lesioak saihesteko.
- Joko-jolas tradizionalak: gorputz hezkuntza osoaren %18,1a (836 min.) izanik, tradizioetik eratorritako jarduerak dira. Kodifikatuta baina ez instituzionalizatuak dauden praktika motorrak dira eta txapelketa ezaugarria

ez da beti betetzen. *Zelai errea* jokoan talde batek bestearen kontra egiten du eta helburua irabaztea da, lehia dago. Baina *soka-saltoan taldeka* denak denekin aritzen dira eta lankidetzako elkarrekintza dago, ez da lehiarik egoten. *Zelai errean* edo *soka-saltoan txapelketa* eza dago. Gorputz hezkuntzan joko-jolas tradizionalak bete duten helburua gorputzaren prestaketarekin jarraitzea izan da, ikuspuntu ludikoago batetik bihotz taupadak arintzea eta lesioak saihestea. Saio guztietan korrika jardueraren ondoren proposatu dira.

- Kirola: txapelketa eran kodifikatuta eta instituzionalizatua dagoen jarduera da eta gorputz hezkuntza osoaren %73,2ko (3.381 min.) pisua izan du. Beisbol partiduak, baina baita errugbia edo ultimate partiduak ere adibide batzuk izan dira. Gauzatu den kirol bakoitzaren aurretik kontsigna teknikoek eta taktikoez osaturiko prestatzeko ariketak egin dira. Prestatzeko ariketak gorputz jarrera egokia izateko, objektua menperatzeko edota besteekiko kokapen egokiena lortzeko ariketak dira. Adibidez, xisterarekin frontoian jokatu aurretik ikasleak xistera nola kolokatu ikasi ondoren, xisteran pilota sartu eta hormarantz ateratzeko keinua lantzen egon direnean prestatzeko ariketa egin dute. Saio guztietan kirola joko-jolas tradizionalen ondoren praktikatu da.

Gorputz hezkuntzako irakasleak, korrika, joko-jolas tradizionalak, eta kirola jarduera motak proposatu ditu. Parlebasek eginiko egoera motorren azpi-multzoen sailkapenean arreta jarriz gero, metodo gimnastiko bati (yoga edota erlaxazioa) lotutako egoera motor didaktikoak eta naturan praktika askeak ez direla proposatu oharzen gara.



Irudia 20: Gorputz hezkuntzan proposatu diren jarduera motak: Kirola %73,2arekin (3381 min.), joko-jolas tradizionalak %18,1arekin (836 min.) eta korrika %6,7arekin (307 min.).

Irudiak Kurutzia Ikastolako gorputz hezkuntzan proposatu diren jarduera motak eta beraien arteko harremana erakusten ditu. Nagusitasuna kirolak erakusten du. Joko-jolas tradizionalak eta bereziki, korrika, jarduera distantziara agertzen dira. Datu horiei jarduera mota bakoitzak saioetan izan duen lekua lotuz gero, kirolak leku pribilegiatua izan duela ikusten da. Izan ere, korrika eta joko-jolas tradizionalak gauzatuko diren kirolean gorputza prest izateko proposatu dira. Irakasleak kirol gorputz hezkuntzan posizio pedagogikoa hartu du. Irakaslearen pentsamenduan zerbaiterako prestatzea garrantzitsua dela egon da, zerbait hori garrantzitsua baita, kirola.

Neurketa ezaugarri nagusi duen kirolean parte hartzaileak merituak erakusteko aukera du, emaitza onena lortzean jartzen du arreta, "talde lanaren eta diziplinaren eskakizunak" (Brohm, 1982, 66 or.) portaera naturalak izanik. Parte hartzaileak "(...) ezin dira independenteak izan eta soilik dibertimendurengatik jokatu, baizik eta, besteari begira zuzenduta dagoen eta serioa den kirolean parte hartzera behartuta daude" (Dunning, 1992, 265 or.). Eta kirol hori da gorputz hezkuntzan proposatu dena, prestatzeko ariketen bitartez, heldu nahi izan den kirola. XX. mendearen bigarren zatian gorputz morfologiaren arabera irizpide anatomikoetan oinarriturik gorputzaren berreziketaren eta moralitatearen gorputz hezkuntzaren ildotik zabaldu zen kirola da.

Kirolarekin gorputz hezkuntza ikasleen osasuna hobetzen duen arlo gisa eraikitzeaz gain, moralitate bat ere garatzen da. Hain zuzen ere, esfortzua, leialtasuna, talde espiritua, diziplina eta altruismoa bezalako balioetan eraikitzen den moralitatea. Oinarri biologikoak aintzat hartuz, esfortzuaren pedagogian oinarritzen den gorputz jarrera, malgutasuna edota indarra lantzeko gorputz hezkuntzan industrializazioarekin batera kirola agertzen da. "(...) txapeladunen esfortzua prezio baten bitartez ebaluatzen den" (Brohm, 1982, 171 or.) kirola. Kirolaren ezaugarri hezitzaileak "akzioen eta adibidearen bitartez moral bat garatea ahalbidetzen duelako" (Dunning, 1992, 112 or.) gorputz hezkuntzan ardatz bihurtzen da. Gizonezkoen kirola elkar ulertzeko tresna unibertsal bihurtzen da. Kirola haurra helduen bizitzarako prestatzeko tresna eraginkorra bihurtzen da. Lanean, txapelketan eta ekintzan garatzen den pertsona heldua lortzeko tresna. Haurrak haur-lanean jardutea egokitzen ulertu beharrean, heziketaren kontra egiten duela onartzen da. Joko-jolasak dibertimendurako eta bigarren mailako jardueratzat hartzen dira.

Aztertu den gorputz hezkuntzan kirolaren menpe korrika eta joko-jolas tradizionalak ezarri dira, eta prestatzeko ariketak, kirolarekin batera, saio bakoitzaren ardatz nagusia osatu dute. Gorputz hezkuntzako irakaslearen pentsamenduak gizartearen dagoenarekin bat eginez: "Kirolaren espazioa, komunikazioa eta denbora kultura guztietarako berdinak dira" (Parlebas, 2001, 282 or.), kirola tresna hezitzaile unibertsaltzat hartuz. Irakasleak *kirol* metodoa jarraitu du.

Irakasleak hartzen duen posizio pedagogikoa aukeratzen duen gorputz hezkuntza metodoaren arabera definitzen da. Freirek (2005, 53 or.) adierazi

bezala, heztea askatasunaren praktika izan dadin, gizakia objektu anatomikotzat hartu beharrean, gizakiak errealtateari buruz dituen pentsamendua, hautemate mailak eta, azken finean, munduari buruz duen ikuspuntua, heziketaren ardatz nagusiak izan beharko liriateke. Naturan instituzionalizazio prozesutik kanpo dauden txapelketarik gabeko praktika motorren bitartez ikasleak baldintzatutako pentsamendutik kanpo bere nortasuna eraiki dezake. Hain zuzen ere, Freirek (2005, 121 or.) deituriko *egoera mugatu*en aurrean kirol metodoak otzanak eta pasiboak izan beharrean, “errealitate jakin baten dimentsio zehatzak eta historikoak” (Freire, 2005, 122 or.) (egoera mugatuak) baldintzatutako pentsamendua gainditzen eta ezeztatzen duen nortasuna eraikitze eskola berriak naturan praktiketara arreta jartzen du: mendi txangoak, itsasoan piraguarekin txangoa zein abenturako ibilbideak gauzatzean adibidez. Gorputz hezkuntzan proposatu ez diren praktikak dira.

Eskola berriaren metodoak “jardueraren praktikak ikaskuntzaren, hausnarketaren, besteekin topo egitearen, aurkikuntzaren eta sormenaren iturri gisa hartzen ditu” (CEMEA, 2013, 4 or.). Parlebasek (2001, 175 or.) baieztatzen duen bezala, eskola berriak joko-jolas tradizionaletan eta naturan eginiko txapelketarik gabeko praktiketara jartzen du arreta. Kultura tradizionala eta naturan egiten diren praktikak eskola berrien irizpide metodologikoen baliabide eta aldi berean helburu bilakatzen dira. Izan ere, instituzionalizazioa eta txapelketa ezaugarriak jarraitzen dituen kirol metodoak araudi zorrotza betetzea eta espazio artifizialak eraikiz naturatik urruntzea eskatzen du. Eskola berriaren irizpidetik urrun geratzen den metodoa da. Kirol metodoak era askean sormenerako eta aurkikuntzarako hezteko leku gutxi uzten du.

5.2. Jarduera motak eta multzo motorrak

Kurutziaga ikastolako gorputz hezkuntzan proposatu diren jarduera motorek barne logika bat erakutsi dute. Eta barne logikaren ezaugarriek elkartzeko erakusten duten joeraren azterketatik zein multzo motor eraiki diren ezagutu daiteke. Ezagupen horrek neskak eta mutilak jardun diren multzoak ezagutarazten digu. Izan ere, harrapatzera jolastu direnean edo zelai errera jokatu dutenean aldi berean denborarekin, objektuarekin, espazioarekin eta besteekin, harreman bat ezarri dute. Eta horren interesa multzo motorek erakusten duten giza genero ereduak ezagutzeko dago.

Multzo motorrak dagokion gizaratearen balioak eta esanahiak daramatzaten egiturak izanik, garatzen den kulturarekin eta testuinguru sozialarekin harremanaren ikuspuntutik aztertu beharra dago. Ikerketa etnomotorra bideratzera koan, Euskal kulturaren bizitzeko formaren antolaketan generoaren ikuspuntua hartuz gero, gorputz hezkuntzan, inkontzienteki, antolatu diren multzo motorek dakartzaten giza genero ereduak zehaztu dira.

Euskal kulturaren balioen eta esanahien artetik etxearen balioak garrantzi berezia izan du. Familia instituzioarentzako berezkoa den etxea espazio fisikoa forma sozialaren ardatz nagusia izan da.

Euskal kulturaren “etxeok hitzak, etxe jakin batean bizi diren odol bereko eta belaunaldi ezberdinetako bizilagunak izendatzen ditu”, (Etniker, 2011, 83 or.). Etxebestek (2012, 23 or.) Euskal Herrian etxearen garrantziari buruz azaldu bezala, *etxea* ezaugarri ekonomikoa, soziala eta erlijiosoa dituen instituzio bat da. Eta auzoa, udalerrria eta probintzia bezalako instituzio handiagoetan atxikitzen da. Auzo berekoak askotan etxeok egiten ditugu. Lagunak dira eta senideekin batera etxeok dira.

Etxea instituziotik “etxeok jatorri anitzetako eskakizun publikoei erantzun behar izaten diete” (Etxebeste, 2012, 23 or.). Beste auzokoa, herrikoa edo bailarakoa den pertsona baten aurrean erantzun behar izaten dute, hura kanpoko etsaitzat hartuz. Etxeokaren eta kanpokoaren arteko mugak askotan argiak ez badira ere, *etxea* kontzeptuak bi eredu zehazten ditu: *etxeok* eredu eta *kanpokoak* eredu. Lehena “*etxeok* eredu harreman estuen” (Etxebeste, 2012, 71 or.) isla da. Eta bigarrena etsaien arteko harremanen isla da, hain zuzen ere, etxeokaren eta kanpokoaren artekoa.

Etxea, baita ere, etxeokaren betebeharrak banatzeko eta antolatze ardatz bihurtzen da. Etxe bateko bizilagunek bete beharreko zereginak etxean bertan egitekoak direnen edota, esan bezala, eskakizun publikoei erantzuteko zereginen artean bereizten da.

Etxeko betebeharez emakumea arduratu da, emakumeari erantsi zaizkio ugaltze-lanak. Etxeokaren jatorri anitzetako interesak babesteko kanpokoaren aurrean eskakizun publikoei erantzuteko ekoizpen-lanak gizonari egotzi zaizkio. Lagunek bezala, *etxea* espazio fisikoa etxeokaren arteko harreman estuak gauzatzeko lekua da. Etxea kontzeptutik *etxeok* eta *kanpokoak* mugatzean giza genero ereduak zehaztu dira.

Euskal haurren joko-jolas tradizionalak erakusten zuten aisiaren ezaugarriak Etxebestek (2012, 70 or.) aztertzen dituenean, *etxeok* eta *kanpokoak* giza ereduak ikerketaren ardatz bihurtzen dira. Etxebestek (2012, 50 or.) arlo motorrak bereizten ditu. Arlo motorren barne logikaren ezaugarrien azterketa giza ereduarekin uztartzerakoan arloek erakusten zuten giza genero ereduak oharitzen da, neskek eta mutilek erakusten zuten arloarekiko joera zehazten da.

Arlo bakoitzaren definizioa, esan bezala, barne logikaren ezaugarriek zehaztu zuten. Hain zuzen ere, Euskal haurren aisialdiko joko-jolas tradizionalen barne logikaren besteekiko harremana, espazioarekiko harremana, objektuen erabilera eta denbora nozio ezaugarriak elkartzeko joerak: ezaugarri bakoitzaren biko konbinaketaren ondorioz zabaltzen diren multzo motor posibleak 16 izanik. Etxebestek (2012, 44 or.) joko-jolas psikomotorrak objektuarekin ziurgabetasun eza eta puntuazioarekin berezko jokoak definitzen duen lehenengo multzo motorren ezaugarriak zehazten ditu eta, beste alde-

tik, joko-jolas sozio-motorrak, objektu barik, ziurgabetasunarekin eta puntua-zio memoria gabearekin berezko jolasa definitzen duen hamaseigarren multzo motorraren ezaugarriak.

Azterketaren ondorioz, bi mundu ikusten ditu, joko eta jolasa. Bi mundu ludikoen artean jolasa-jokoa agertuz. Berezko jokoaren lau ezaugarrietatik bat galduz gero, ia joko eredu zabaltzen da. Berezko jokoak eta ia jokoak biak joko irudi ludikoaren barnean sartzen dira. Eta berezko jolasaren lau ezaugarrietatik bat galduz gero, ia jolasa eredu zabaltzen da. Berezko jolasak eta ia jolasak biak jolasa irudi ludikoaren barruan sartzen dira. "Eskala berezko jokitik berezko jolaseraino doa, jolasa-jokoa deritzogun bi domeinu nagusien tarteko espaziotik pasatuz" (Etxebeste, 2012, 50 or.). Bi ertzen erdian eremu berria agertzen dela konturatu behar gara, jolasa-jokoarena. Jolasa-jokoa eredu motorrean elkartzen diren jokoaren bi aldagaien eta jolasaren bi aldagaien arabera eredu motor desberdinak aurki ditzakegu. Horrela, barne logikaren osagaien konbinaketan arabera aldi berean espazioari, besteari, denborari eta objektuari dagokienez hiru irudi ludiko zabaltzen dira: joko, jolasa-jokoa eta jolasa.


Hiru irudi ludikoek Euskal kulturaren *etxeokak* eta *kanpokoak* giza eredu-ekin uztartzerakoan irudiek islatzen duten giza genero eredu zehazten dute.

Jokoa mundua "plaza-gizon gizarte ereduaren jokabidea da. Kanpokoaren aurrean euskaldunok dugun jarrera erakusten du. Gizonezkoaren arloa dela" ikusi zuen (Garagorri (zuzendaria), 2004, 69 or.). Bai egoera piko-motorrean, bai sozio-motorrean, espazioarekiko ziurgabetasun ezan garailearekin eta objektu espezializatuarekin jarduten den arloa da. "Jokoa mundua gizonekin hertsiki lotuta dago" (Etxebeste, 2012, 70 or.), aurkaria (kanpoko) irabaztearen plazera gizonen eremua izanik.

Jolasa-jokoa mundua "neskentzako tradiziozko jolas-jokoak direla" ikusi zuen (Garagorri (zuzendaria), 2004, 69 or.). Jolasaren egoera sozio-motorra eta irabazlerik gabeko ezaugarriak eta jokoaren espazioarekiko ziurgabetasun eza eta objektuarekin ezaugarriak emakumeekin lotuta dagoen jolasa-jokoa islatzen dute. Etxekoak zaintzearen funtzioa etxeoandrea gizarte ereduaren jokabidearen isla da: egunero errepikatzen den lanaren plazera balioa emakumeari egotziz.

Jolasa mundua "etxearen arteko ereduaren jokabidea da. Lagun eta senideen aurrean euskaldunok dugun jarrera erakusten du. Arloa mistoa dela" ikusi zuen (Garagorri (zuzendaria), 2004, 69 or.). Egoera sozio-motorra nagusitzen da, edozein eremu fisikotan eta irabazle barik eta objektu barik jarduten den arloa izanik. Denak (etxeokak) elkarrekin aritzeko jolasa mundua emakumearekin zein gizonarekin lotuta dago, emakumearen eta gizonaren arteko elkarbizitzaren isla izanik. Hain zuzen ere, etxeokak ereduaren harreman estuak islatzen dira.

Era honetan, joko, jolasa eta jolasa-jokoa irudi ludikoak giza genero ereduaren erakusgarri bihurtzen dira. Euskal haurren joko-jolas tradizionalak erakusten zuten aisiaren azterketan Etxebeste (2012) jarraitu zuen ibilbidea, Kurutzia Ikastolako gorputz hezkuntzan azterketa ildo beretik jarraitzeko tresna dela ohartzen gara. Aztertu den gorputz hezkuntzan eraiki diren multzo motorretatik irudi ludikoetara jauzi eginez, sustatu diren giza genero ereduak deskubritzeko.



Irudia 21: Aztertu den gorputz hezkuntzan multzo motorrak. Sozioromotorra, ziurgabetasun eza, memoria gabea, objektuarekin multzoa % 40,34arekin (1862 min.), sozioromotorra, ziurgabetasun eza, memoriaduna, objektuarekin multzoa %30,43arekin (1405 min.), sozioromotorra, ziurgabetasun eza, memoria gabea, objektu barik multzoa %14,80arekin (683 min.) eta psikomotorra, ziurgabetasun eza, memoria gabea, objektuarekin multzoa %13,87arekin (640 min.). Besteak aldagaian hiru multzo motor desberdinak batzen dira, hirurek %0,56a osatzen dute (26 min.).

Kurutzia Ikastolan proposatu den gorputz hezkuntza praktika motorrean jardueren barne logikaren ezaugarriek elkartzeko joerako multzo motorrak erakutsi dituzte. Barne logikaren kategorien arteko konbinaketa posibleetatik lau multzo motor azaleratu dira. Sozio-motorra, ziurgabetasun eza, memoria gabea eta objektuarekin barne logika kategoriek %40,34arekin (1.862 min.) nagusitu den multzoa osatu dute. Sozio-motorra, ziurgabetasun eza, memoriaduna eta objektuarekin kategoriek %30,43arekin (1.405 min.) garrantzi handia erakutsi duen multzoa osatu dute. Distantzia batera sozio-motorra, ziurgabetasun eza, memoria gabea eta objektu barik kategorien multzoak %14,80a adierazi du (683 min.) eta psikomotorra, ziurgabetasun eza, memoria gabea eta objektuarekin kategorien multzoak %13,87a adierazi du (640 min.).

Besteak atalean batzen diren multzo motorrek %0,56ko (26 min.) pisua izan dute: psikomotorra, ziurgabetasun eza, memoriaduna eta objektuarekin kategorien multzoa %0,35arekin (16 min.); sozio-motorra, ziurgabetasun eza, memoriaduna eta objektu barik kategorien multzoa %0,15arekin (7 min.); eta

psikomotorra, ziurgabetasun eza, memoria gabea eta objektu barik kategorien multzoa %0,06arekin (3 min.) hutsean geratu dira.

Sozio-motorra, ziurgabetasun eza, memoria gabea eta objektuarekin kategorien multzoa (%40,34) tresnarekin (objektuarekin) espazio egonkorrean (ziurgabetasun eza) taldean (sozio-motorra) denbora pasan (memoria gabea) aritzearen eredu motorra da. Adibidez, behatutako gorputz hezkuntzan taldeko soka saltoa, jarduera motorra multzo horren adierazlea da. Neskek eta mutilek besteekin soka behin eta berriro eragin dute, abesti baten etengabeko erritmora jauziak egokituz jardun dira. Aztertzen ari garen multzo motorrean elkartzen diren barne logikaren kategoriak osatzeko taldeko soka saltoa adibide bat dugu, tradizioetik datorrena eta, beraz, joko-jolas tradizionala dena. Horrela, egoera motorren azpi-multzoetatik gorputz hezkuntzan bereiztu diren jarduera moten artetik, soka saltoa *joko-jolas tradizionalak* izeneko jarduera motan kokatzen da. Kodifikatuta baina ez instituzionalizatu, multzo motor hori osatzen duten joko-jolas tradizionalen ezaugarriak izanik.

Sozio-motorra, ziurgabetasun eza, memoriaduna eta objektuarekin kategorien multzoa (%30,43) tresnarekin (objektuarekin) espazio egonkorrean (ziurgabetasun eza) eta besteari irabazteko (sozio-motorra memoriaduna) aritzearen eredu motorra da. Adibidez, behatutako gorputz hezkuntzan, errugbi partiduetan neskak eta mutilak aurkako taldeari irabazteko taldekideen arteko kohesioaz eta lankidetzaz baliatu dira. Aztertzen ari garen multzo motorrean elkartzen diren barne logikaren kategoriak osatzeko errugbia adibide bat dugu, taldeko kirol modernoan adibidea da. Horrela, egoera motorren azpi-multzoetatik gorputz hezkuntzan bereiztu diren jarduera moten artetik errugbia *kirola* jarduera motan kokatzen da. Txapelketa eta instituzionalizazio multzo motor hori osatzen duten kirolen ezaugarriak dira.

Sozio-motorra, ziurgabetasun eza, memoria gabea eta objektu barik kategorien multzoa (%14,80) tresnarik gabe (objektu barik) espazio egonkorrean (ziurgabetasun eza) taldean (sozio-motorra) denbora pasan (memoria gabea) aritzearen eredu motorra da. Adibidez, behatutako gorputz hezkuntzan luzaketak jardueran¹¹⁵ neskek eta mutilek irakaslearen aurrean jarrita, imitazioz, irakasleak egiten dituen gorputz atal luzaketak errepikatzen dituzte. Beso bat luzatu, bestea, sorbaldak eta enborra, hankak. Irakasleak posizio bat hartzen du, gorputz atal bakoitza luzatzeko eta segundo batzuetan geldik geratzen da, luzaketak egiten. Ikasleek imitatzen diote. Aztertzen ari garen multzo motorrean elkartzen diren barne logikaren kategoriak osatzeko luzaketak adibide bat ditugu. Egoera motorren azpi-multzoetatik gorputz hezkuntzan bereiztu diren jarduera moten artetik luzaketak *korrika* jarduera motan daude. Gorputzaren prestaketan lesioak saihestea helburu duten jarduerak multzo motor hori osatzen duten jardueren ezaugarriak dira.

Psikomotorra, ziurgabetasun eza, memoria gabea eta objektuarekin kategorien multzoa (%13,87) tresnarekin (objektuarekin) espazio egonkorrean (ziurgabetasun eza) bakarrik (psikomotorra) denbora pasan (memoria gabea) aritzearen eredu motorra da. Adibidez, behatutako gorputz hezkuntzan malabareak jardueran neskek eta mutilek pilotak kontrolatzeko duten abilezia erakusteko aukera izan dute. Aztertzen ari garen multzo motorrean elkartzen diren barne logikaren kategorien erakusle malabareak adibide bat ditugu, zirku jokoen adibide bat dira. Horrela, egoera motorren azpi-multzoetatik gorputz hezkuntzan bereiztu diren jarduera moten artetik malabareak *joko-jolas tradizionalak* jarduera motan kokatzen dira. Instituzionalizazio eza multzo motor hori osatzen duten joko-jolas tradizionalen ezaugarria da. Hala ere, abilezien erakusketatik txapelketara, parte hartzaileek erakusten dituzten abileziak puntuatuz sailkapena erraz sortzen da. Multzo motor hori erakusten duten malabareak bezalako jarduerak txapelketarantz jo dezaketen jarduera mota bilakatu, "*kirol joko-jolas ez instituzionalizatuak*" (Parlebas, 2011, 49 or.)

Curriculum ildoak jarraituz, jokabide motorren eremua eta natura den motrizitateetik eta genero ikuspuntua aintzat hartu barik, ezkutuko curriculumak Kurutzia Ikastolako gorputz hezkuntzan hamasei multzoetatik lau multzo motor erakutsi ditu. Gorputz hezkuntzan proposatu diren jarduera motorren barne logika aintzat hartu barik multzo motorrak eraiki dira eta murrizketa bat egon da. Motrizitatearen ikuspuntutik ezkutuko curriculumak erakusten dizkigun lau multzo motorrek gorputz hezkuntzan sustatu diren giza genero ereduak deskubritzen dizkigute.

5.2.1. Multzo motorrek erakusten duten giza genero ereduak

Kurutzia Ikastolako gorputz hezkuntzan bereiztu diren multzo motorrek erakusten dituzten irudi ludikoak zehazteko, multzo bakoitza osatzen duten barne logikaren kategorien esanahian jarri da arreta. Esanahiek zein irudi ludikoak eta ondorioz, zein giza genero ereduak, hitz egiten den jakiteko.

Sozio-motorra, ziurgabetasun eza, memoria gabea eta objektuarekin multzo motorrak jokoaren ziurgabetasun eza eta objektuarekin ezaugarriak eta jolasaren sozio-motorra eta memoria gabea ezaugarriak hartzen ditu. Jolasa-jokoa irudi ludikoa erakusten da %40,34arekin (1.862 min.). Errepikatzearen plazeraren balioa islatzen duen jolasa-jokoa irudi ludikoak emakumeari egotzi izan zaion zaintza balioa islatzen du. Etxeko bizilagunen zaintzaren balioa. Eta etxeko bizilagunen zaintza emakumeari egotzi izan zaio, adibidez, ugaltze lanak betetzera: "emakumeek etxeko lanetan batez beste ematen duten denbora soziala gizonena baino bi ordu baino gehiagokoa da egunean" (Emakunde, 2010, 151 or.). Aztertzen den multzo motor honek adierazten duen irudi ludikoak *etxeok* ereduak islatzen du, etxeoandarearen giza genero ereduak. Emakumeari egotzi izan zaion giza genero ereduak da: zereginak isolatuta egongo balira bezala errepikatzean kideen mesederako betetzen dira, etxeko mesederako. Emakumeari, bere burua ahaztea eta besteen beharretan sartzea, norbere asmoak eta helbu-

ruak ahaztu eta besteen helburuei (haurren eta gizonaren helburuei) garrantzia ematea eta zaintzen dutenen arteko harremanak bideratzeko maitekorra, bakezalea eta sortzailea izatea eskatu zaio. Eskakizun horiek eman akzioan txertatzen dira. Eta “emakumeek gizonak baino askoz denbora gehiago egiten dute emateari buruz hitz egiten” (Baker, 1992, 68 or.). Jolasa-jokoa irudi ludikoaren bitartez etxekoandreaken giza genero ereduak sustatu da.


Sozio-motorra, ziurgabetasun eza, memoriaduna eta objektuarekin multzo motorrak jokoaren hiru ezaugarri eta jolasaren ezaugarri bat, sozio-motorra, hartzen ditu. Gizonari egotzi zaion irabaztearen plazeraren balioa islatzen duen joko sozio-motorrak irudi ludikoa islatu du %30,43arekin (1.405 min.), gizonen eredu gorenaren adierazten duen harreman psikomotorra ukatuz. Besteekin harremanak indartu dira. Besteekin harreman horietan kideekiko kohesioaren garrantzia aurkariari irabazteko estrategia bihurtzen da. Aurkaria etxekoa ez den legez hartzen da. Aztertzen den multzo motor horrek adierazten duen irudi ludikoa *kanpokoak* ereduaren erakusgarri bihurtzen da: “(...), gizonari ahul edo babesgabe sentitzeari beldur izaten, gaitzesten edo uko egiten irakasten zaiola” baieztapena (Baker, 1992, 45 or.), *kanpokoak* giza ereduaren izaera ulergarriagoa bihurtzen da. Izan ere, gizonak besteari, kanpokoari irabazteko izan beharreko ahaleginak ez du ahultasunerako lekurik. Hori da, hain zuzen ere, gizonari egotzi izan zaion giza genero ereduak: zereginek helburu jakina dute, kanpokoari irabaztea. “Kiolaren sorrera neurketa sartzearekin korrelatiboa” izanik (Brohm, 1982, 35 or.), taldeko kirol modernoek adierazten duten giza genero ereduak ari gara, aurkaria (kanpokoak) irabazteko ereduak, eta bertan, talde kohesioa arerioari irabazteko estrategia eraginkorrean bihurtzen da. *Kanpokoak* giza ereduaren ezaugarria kanpokoekin ditugun harremanetan nor gehiago aritzea da. Jokoa irudi ludikoaren bitartez, plaza-gizonaren giza genero ereduak islatu da. Gizonak munduari bakarrik aurre egin ordez, taldean aritzeak pisua hartu du. Beraz alde batetik, joko arloaren irabazteko plazeraren balioa bultzatu da, eta bestetik, kanpokoari irabazteko bidea taldeekiko kohesioa dela sustatu da. Hori egiterakoan, behatutako gorputz hezkuntzak gizonari egotzen zaizkion ezaugarriak leundu ditu eta joko arloa ematu dela inferitu daiteke.

Sozio-motorra, ziurgabetasun eza, memoria gabea eta objektu barik multzo motorrak jolasaren hiru ezaugarri eta jokoaren ezaugarri bat, ziurgabetasun eza, hartu ditu. Pertsonen arteko harremanaren plazeraren balioa islatzen duen ziurgabetasun eza jolasa irudi ludikoa islatu du %14,80arekin (683 min.). *Etxekoak* ereduaren harreman estuen isla da. Emakumearen eta gizonaren arteko harreman estuak eta bizitza konpartitzea balioak islatzen ditu. Emakumeari egotzi izan zaion espazio pribatuaren babes eta berotasun ezaugarrien pean besteekin denbora gabeko denboran egotean disfrutatzeko giza genero ereduak izanik. Emakumearen eta gizonaren arteko elkarbizitza proiektuan harreman pertsonalen plazeraren balioa islatu da. Gizonaren eta emakumearen arteko harremanen ereduak: “loari eta lanari ematen ez diegun denbora libre” (CRONOS, 1996, 17 or.) den aisialdian etxekoen arteko eta lagu-

nen arteko harreman estuaren ereduak. Gizonaren eta emakumearen arteko harreman estuen giza genero ereduak. Adibidez, “bikote batek lehenengo seme-alaba edukitzean, (...) familia izan dute” (Etniker, 2011, 84 or.) esaten da. Harreman heterosexualei dagokienez, emakumearen eta gizonaren harreman pertsonalak eta pribatuak eskatzen duen egoera da.

Psikomotorra, ziurgabetasun eza, memoria gabea eta objektuarekin multzo motorrak jokoaren hiru ezaugarri eta jolasaren ezaugarri bat, memoria gabea, hartzen ditu. Trebezia erakusteko ereduak da. Erakusketatik neurketara oso distantzia laburra dagoenez, multzo honek irabaztearen plazeraren balioa islatzen duen memoria gabeko jokoak irudi ludikoa erakutsi du %13,87arekin (640 min.). Gizonari egotzen zaion balioa da. Multzo motor horrek gizona bakarrik aritzen denean lehiarik gabeko egoeran izatea bultzatu badu ere, ezkutuko lehia dela inferitu daiteke. Izan ere, “gizabanakoa besteen aurrean agertzen denean (...) jokabide bakoitzean bere legitimitatea proban jartzeko joera dago” (Goffman, 2001, 258 or.). Eta eredu motor horren ezaugarria besteen aurrean erakustea da, norbere burua aurkeztea. Parte hartzaileak duen abilezia erakusteko aukera da, nahiz eta denbora nozio ziklikoan izan. Bere burua aurkezteko unea da. Parte hartzaileak betetzen dituen “akzioak guztien begiradarekiko menpe daude” (Parlebas, 2011, 32 or.). Multzo motor horrek *Kanpokoak* giza ereduak islatzen du. Gizonari egotzi izan zaion plaza-gizon ereduak: besteen (kanpokoek) aurrean gaitasunak erakusteko beharra, etxekoak babesteko gai dela erakutsiz. Azken finean, “legebiltzarren kide gisa gizonak aurkitzea emakumeak aurkitzea baino hamar aldiz errazagoa da (munduko herrialde guztiak aintzat hartuz)” (Connell, 2003, 124 or.).

Aztertu diren multzo motorrek jokoak, jolasa-jokoa eta jolasa irudi ludikoak islatu dituzte. Tradiziozko kulturaren bezala, gizonaren mundua, emakumearen mundua eta neutroa den mundua islatu dira.



Irudia 22: Aztertu den gorputz hezkuntzan figura ludikoak. Jokoa %44,3arekin (2045 min.), jolasa-jokoa %40,34arekin (1862 min.) eta distantzia batera jolasa arloa %14,8arekin (683 min.).

Zentzu handi batean, gure datuak gorputz hezkuntzako eduki motorren argazki bat dira, gorputz hezkuntzak egin duen eredu motorren aukeraketa azaltzen dute. Irudi ludikoak sustatu diren giza genero ereduak mugatzeko eta beraien arteko harremana zehazteko lagungarri bihurtu direnak.

Jokoa eta jolasa-jokoa arloek garrantzia izan dute. Irudi ludiko horiek erakusten duten giza genero ereduak aintzat hartuz, gizonari egotzi zaion plaza-gizonaren giza genero ereduak eta emakumeari egotzi zaion etxeko-andre ereduak pisua izan dute. Emakumearen eta gizonaren arteko harreman estuen giza genero eredu bigarren mailan utzi da.

Kurutziaga ikastolako gorputz hezkuntzak plaza-gizonaren eredu maskulinoa hegemonikoa eta etxekoandreaken menpekotasun eredu femeninoa sustatzerakoan tradizioetik eratorritako gizartean dauden genero irizpideak jarraitu ditu. Baina, emakumearen eta gizonaren mundu pribatua gutxi-esterakoan gizarte tradizionalen eredutik urrundu da. Hori horrela den arren, Etxebestek (2012, 53 or.) eginiko azterketaren emaitzak gorputz hezkuntzan aldatu egin direla ikusten da. Alde batetik Euskal haurren aisiaren azterketan jokoa, jolasa-jokoa eta jolasa arloen banaketa orekatuagoa ikusi zuen eta bestetik, aztertu den gorputz hezkuntzan bezala, jokoa arloaren garrantzia ikusten bada, jolasa-jokoa arloak garrantzia galtzen du, jolasa arloren azpitik ageriz. Alde batetik, gizonari egotzi zaion eredu maskulino hegemonikoak garrantzia zuen eta bestetik, emakumearen eta gizonaren arteko harreman estuek ere garrantzia zutela inferitzen da. Emakumeari egotzi zaion mundua atzerago geratu da. Prozesu historiko honetan, nagusiki gizonaren munduari garrantzia ematetik, emakumearen munduari ere garrantzia ematera igaro da; eta emakumearen eta gizonaren arteko mundu pribatua garrantzia adierazgarria izatetik lotsakor agertzera igaro da. Beraz, alde batetik, gizarte modernoaren berehalako banako errealizazioaren balioa eta bestetik, gizartean genero gaiak hartu duen garrantzia gorputz hezkuntzak ekarri ditu.

5.3. Giza genero ereduaren eta jardueraren arteko uztarketa

Gorputz hezkuntzan proposatu diren jardueraren motorren jatorria zehazterakoan, bereiztu diren jardueraren motak egoera motorren azpi-multzo orokorrekin parekatzerakoan jardueraren izaera ulertzeko lagungarri bihurtu zaizkigu. Jardueraren motak barne logikaren azterketatik bereiztu diren giza genero eredu motorrak osatu dituztenak dira. Zalantzarik gabe, saioetan jardueraren mota bakoitzak izan duen lekua argitzeak argi izpiak zabaldu baditu ere, giza genero ereduak eta jardueraren moten arteko erlazioa zehazteak aztertzeko den errealitatea bere osotasunean ezagutzeko aukera ematen digu.

Azterketa horren irizpide nagusia barne logikatik bereiztu diren giza genero ereduak, alegia, jokoa, jolasa-jokoa eta jolasa eremu motorrek islatu dituztenak, eta jardueraren moten arteko erlazioa zehaztea da. Izan ere, azterketa horren interesa giza genero eredu bakoitza zein jardueraren motak osatzen duen ezagutzeko dago. Era horretan, kanpo logikaren (gizarte, irakaslearen pentsamendua) eta barne logikaren arteko uztarketa lortzen da. Kirol gorputz hezkuntza posizio pedagogikotik sustatu den hezkidetzaren eredu ezagutu behar da. Izan ere, neskek eta mutilak korrika, joko-jolas tradizionalak eta kirola jardueraren motak egiterakoan jokoa, jolasa-jokoa eta jolasa eredu motorrak islatzen dituzten giza genero eredu hazi dira.

Horretarako, sarreraren bakoitza duen kontingentzia taula eraiki da, eta bertan, "sarrera bakoitzak sailkapen irizpide bat (aldagai bat) adierazten du" (SPSS, 2009, 62 or.). Jardueraren mota eta giza genero eremu motorra aztertzean, aldagaien arteko erlazio mota zehazteko "behartutako maiztasunen (...) eta itxaroten ziren maiztasunen artean konparatzen" (SPSS, 2009, 66 or.) duen *Chi laukia* aukera erabili da. *Chi laukia*, aldagaien arteko independentzia harremanaren hipotesia kontrastatzen duen estatistikoa da. Horrela, itxaroten dena baino gutxiago behatu bada, aztertu diren bi aldagaien arteko erlazioa ez dagoela baieztatuko da. Eta itxaroten dena baino gehiago behatu bada, bi aldagaien arteko erlazioa dagoela baieztatuko da. Aldagaien artean erlazioa dagoela baieztatzeak, giza genero eremu bakoitza zein jardueraren motaz osatu den erakusten digu.

Aztertu den erlazioa jardueraren motak eta giza genero eremu motorrak aldagaien artekoari dagokiona da: jardueraren mota aldagaian korrika, joko-jolas tradizionalak, prestatzeko ariketak eta kirola azpi-aldagai bakoitzak giza genero eremu motorren jokoa, jolasa-jokoa eta jolasa azpi-aldagai bakoitzarekin independentzia harremanaren hipotesi kontrastatu egin da. Ikusten denez, jardueraren mota aldagaian *prestatzeko ariketak* bereiztu dira. Kontsigna teknikoarekin eta taktikoarekin osaturiko *prestatzeko ariketak* kirol aurreko jardueraren gisa azaldu zaizkigu eta *kirola* jardueraren mota gisa sailkatu dira. Baina, oraingo honetan, aldagaien arteko harremanaren azterketan xehetasunak gorputz hezkuntzaren errealitatean heltzeko lagungarri bihurtuko direlakoan gaudenez, jardueraren motaren beste azpi-aldagai gisa tratatu dira.

Taula 38: Jarduera mota eta giza genero eremu motorra aldagaien arteko erlazioaren kontingentzia.

	jokoa		jolasa-jokoa		jolasa		guztira
	0	114,7	11	147,3	296	45,0	
korrika	0	114,7	11	147,3	296	45,0	307
joko-jolas tradizionalak	193	312,2	341	401,2	302	122,6	836
prestatzeko ariketak	483	871,3	1771	1119,5	79	342,2	2333
kirola	1048	391,4	0	502,9	0	153,7	1048
besteak	0	34,4	92	44,1	0	13,5	92
	1724		2215		677		4616

Chi karratua berdin 4569,11
0,000ko esanahi-maila elkartuaz (<0,05)

Taulak, korrika, joko-jolas tradizionala, prestatzeko ariketa eta kirola jarduera moten eta jokoa, jolasa-jokoa eta jolasa giza genero eremuen arteko erlazioa erakusten du. Aldagaien arteko erlazioa ezagutzeko iraupena aztertu da. Lauki bakoitzean behatu dena eta itxaron dena zehazten da. Azken datu hori parentesien artean agertzen da.

Gure datuek, jokoa giza genero eremu motorrak kirolean adierazteko joera erakusten dute, eta jolasa-jokoak prestatzeko ariketetan adierazteko joera erakusten dute, jolasak korrikan eta joko-jolas tradizionaletan. Harreman horiek erakusten duten joerak, generoerikiko pentsamendua azaltzen digu gorputz hezkuntzan: jokoa kirolean adierazteko joerak neskei eta mutilei plaza-gizon ereduaren hazteko aukera eman die; jolasa-jokoaren prestatzeko ariketetan adierazteko joerak etxeko andrearen ereduaren: eta jolasaren korrika eta joko-jolas tradizionaletan erakusteko joerak emakumearen eta gizonaren arteko harreman estuen ereduaren.

Behatutako gorputz hezkuntzan nagusitu diren bi mundu, emakumearena eta gizonarena, alegia, prestatzeko ariketaren eta kirolaren bitartez, hurrenez hurren, osatu dira. Beraz, neskek eta mutilak prestatzeko ariketen bitartez emakume gisa hazi dira, eta kirolaren bitartez gizon gisa. Gizartean kirolak

duen garrantzia gorputz hezkuntzan islatu dela ikusten da, prestatzeko ariketen helburua kirola izan baita. Eta horrela, neskek eta mutilak emakume gisa prestatzen dira gizon gisa lehiatzen ikasteko. Gizarte tradizioaletan bezala, emakumearen mundua gizonaren munduaren menpe dago. Behatutako gorputz hezkuntzak eredu maskulino hegemonikoerikiko menpekotasunaren hezkidetzaren eredu bultzatu du.

Egoera mistoek eskola banatuarekin duten alde nagusia neskek eta mutilak aldi berean pentsamendu bera barneratzea denez, behatutako gorputz hezkuntza praktika motorrean etorkizuneko helduak izango diren haurrak genero banaketan eta maskulinitasun hegemonikoaren garrantzian hazi dira. Gizarte tradizionalaren eredu jarraitu da. Irakaslearen posiziotik, eskola mistoaren baldintza giza genero eredu suspertzaile berrien berme ez dela izan ikusi da.

5.4. Giza genero ereduaren proposamenaren ondorioak

Nazio Batuen erakundeak 1979. urtean bultzatu zuen *emakumearen kontrako era guztietako diskriminazioa ekiditeko hitzarmenean*, hezkuntzan gizonarekin eskubideen berdinketa bermatzeko hartu beharreko neurrien artean bat hezkuntza mistoa izatea zehazten da. Emakumearen kontrako diskriminazioa saihesteko “kirol eta gorputz hezkuntzan era aktiboan parte hartzeko aukera berdina” egon daitezkeen neurriak hartu behar direla zehazten da (NBE 34/1979 Hitzarmena, abenduaren 18koa, 226 or.). Hezkuntzan emakumearen eta gizonaren arteko botere oreka lortzeko baldintza ezarri zen, eskola mistoa. Hain zuzen ere, ordutik gaur egunera hezkuntza legeen eta dekretuen bitartez azpimarratu den baldintza. Kuruziaga ikastolako eskola mistoaren baldintza bere egin du.

Izan ere, aztertu den gorputz hezkuntzan neskek eta mutilek une eta gune berean curriculum bera jaso dute. Eta egoera horren lehenengo ondorioa, bai neskek eta bai mutilak gorputz hezkuntzak bultzatu dituen giza genero ereduaren hazi direla izan da. Kuruziaga ikastolako neskek eta mutilek emakumearen eta gizonaren munduen arteko orekan hazi dira. Burutu dituzten jarduerak motorren bitartez irabaztearen plazeraren balioan eta errepikatzearen plazeraren balioan hazi dira, plazagizon eta etxekoandre giza genero ereduaren. Barne logikaren azterketatik eratorritako datuek erakutsi duten errealitateak emakumeari eta gizonari egotzi izan zaien giza generoen balorazio berdina izateko aukera egon dela erakutsi du. Genero gaiak gizartean duen garrantzia saioetara ekarri du gorputz hezkuntzak. Desberdintasunaren feminismoaren premisa nagusian “emakumeek egiten dutena gizonak egiten dutena beste balio duela” (Pérez, 2012, 230 or.) baieztapenarekin aztertu den gorputz hezkuntzak bat egin du. Alde batetik, emakumearen mundua eskolara eramateagatik eta bestetik, mutilek ere emakumearen munduaz jabetzeko izan duten aukerarengatik. Sistema patriarkalaren ereduaren errepikatu izan duen hezkuntza sistemak mutikoen eskola tradizioaletik sortu den mendebaldeko

curriculum hegemonikoa areagotu bazuen ere, gaur gorputz hezkuntzak diferentzian oinarritutako hezkidetzak sustatu du. Gorputz hezkuntzako giza praktika motorraren bitartez, sozializazio prozesu bakarrean neskek eta mutilek emakumearen eta gizonaren munduez jabetzeko aukera izan dute. Baiezta-pen horrek “etengabe sortzen diren esanahi eta balio berriak, etika berriak” (Del Valle eta la., 2002, 31 or.) bultzatu ditzake. Izan ere, besteei egozten zaizkien giza genero balioetan bustitzeko aukera egon da.

Hala ere, datuek erakutsi duten errealitateak bigarren irakurketa bat izan dezake. Izan ere, desberdintasunaren feminismoaren ildotik “sozializazio maskulino eta femenino prozesuen elementu positiboak aitortu eta balioetsi” badira (Eusko Jaurlaritza, 1992, 111 or.), maskulino eta femenino binomioen atzaparretan gaude. Emakumearen eta gizonaren arteko berdintasuna lortzeko diferentzian oinarrituz gero, behatu den gorputz hezkuntzan bezala, bi munduen arabera hezteak ezarri lezake. Aldi berean izan arren, tradizioetik eratorritako giza generoen balioetan haztean, neskei eta mutilei bi munduen banaketaz ohar-tzeko aukera luzatu zaie. Eskola mistoa baldintza pean gorputz hezkuntzak sustatu duen emakumearen eta gizonaren munduen arteko orekak giza genero eredu suspertzaileak sustatu beharrean, sexuen arabera tradizio luzetik eratorritako bi munduen pean geratzeko arriskua bermatu dezakeela ohartuz.

Bestetik, gorputz hezkuntzak erakutsi duen eredu motorren murrizketak hirugarren giza genero eredu bat sustatu badu ere, hori gutxietsi egin du. Hain zuzen ere, jolasaren eredu motorrak islatzen duen emakumearen eta gizonaren arteko harreman pertsonalen eta pribatuen giza genero eredu gutxietsi egin da. Emakumearen eta gizonaren arteko elkarbizitzan harreman estuen plazeraren balioan hazteko aukera saihestu da. Bizitza bera konpartitzearen balioak ez du pisurik izan eta ondorioz neskek eta mutilek, taldeetik edo bikotetik kanpoko jokabide sozialak garrantzitsuagoak direla ulertu dezakete. Gizarte kolektibistaren “senideen eta lagunaren sare sozialak, pertsonenganako (...) konfiantza” (Zubero, 2007, 251 or.) giza balioak bigarren mailan utzi dira eta ondorioz emakumearen eta gizonaren arteko elkarbizitza konpartitzearen garrantzi eza areagotu egin da. Neskek eta mutilek bizitza proiektua eraikitzekeko bestearen beharra saihesteko aukera guztiz legitimoa dela uler dezakete. Bestearen beharrak, adibidez, epe luzera familia bat eraikitzekeko bide berriak aurkitu ditzake. Izan ere, feminismo erradikalaren “gizartearen egitura patriarkalak harreman sexualen formak menderatze harremanak izanarazten zituen” (Pérez, 2012, 216 or.) baieztapenak, “sexuaren eta amatasunaren arteko banaketa” (Pérez, 2012, 223 or.) eragin zuen. Ikuspuntu heterosexualetik, sexua emakumeen eta gizonen arteko harreman forma natural gisa barneratzerakoan, gizonetik menperatze harremanak bermatzea feminismo erradikalaren gai bihurtzen da, askatasun sexualaren bidean gizonetik menpekotasuna saihesteko prozesua zabaltzen dela defendituz.

240 Gaur, bioteknologiaren erregulazioaren ondorioz intseminazio artifiziala, obuluen edo haziaren donazioa, edota ordezkotako amatasuna bizi proiektua

eraikitzekeko banakotasun printzipioaren sustatzaileak dira. Aurrerapen teknologikoen sexuaren eta amatasunaren arteko banaketa erraztu diote gizakiari, emakumeari zein gizonari. Aldi berean, horrek gizarte indibidualisten giza balioen trenera igotzeko aukera bermatu du. Norbanakoaren berehalako errealizazioa familia mota bat eraikitzekeko unean ere legitimoa da. Familia eraikitzekeko bestearekin elkarbizitza pribatua bilatzeak helburua aldatzen du eta “ezkontzako harremanak maitasunarengatik eta erakarpen sexualarengatik baino ez dira legitimatzen, aferak beti pribatuak dira, eta ez nahitaez aldaezinak” (Pérez, 2012, 191 or.) dioen familia tradizionala ere kolokan jarri arte. Hain zuzen ere, aztertu den gorputz hezkuntzak emakumearen eta gizonaren arteko harreman pertsonalen eta pribatuen plazeraren balioa bizitza proiektua eraikitzekeko bidean gutxiesterakoan bultzatu duen giza eredu da. Hau da, gizarte indibidualisten giza ereduak.

Aztertu den gorputz hezkuntzan bereiztu diren irudi ludikoek, alegia, jokoak, jolasa-jokoak eta jolasak, hezkidetzak sustatu dute. Barne logikaren azterketatik plazagizon eta etxeokandrea giza generoen artean oreka egon dela, eta emakumearen eta gizonaren arteko harremanak saihestu dela ikusi da. Alde batetik, emakumearen eta gizonaren arteko berdintasuna desberdintasunetik sustatu da, eskola mistoan giza genero eredu suspertzaileen lekukoa den baiezta-pen horrek sexuen arabera tradizio luzetik eratorritako bi munduen pean geratzeko arriskua bermatu dezakeela ohartzen gara. Eta bestetik, emakumearen eta gizonaren arteko elkarbizitza gutxiesterakoan gizarte indibidualisten norbanako berehalako errealizazioa izeneko ezaugarria areagotzen da.

Gorputz hezkuntzako irakasleak gorputz hezkuntza bat proposatu du. Barne logikaren ikuspuntua aintzat hartu barik, curriculum ildoak jarraituz gorputz hezkuntza bat eraiki du. Jatorria Lehen Hezkuntzako gorputz hezkuntza curriculumak ezartzen dituen lau eduki multzoetan egon da. “Mugimendua egoera berrietara egokitzeko erabakiak hartzea (...); mugimendua eta komunikazioa sustatzeko edukiak sartzea (...); jardura fisikoa egiteko ohitura hartzeko edukiak sartzea (...); eta jolasak metodologia-estrategia modura eta eduki gisa aztertzea” (Dekretua 175/2007, urriaren 18koa, IV. eranskina 88 or.) lau eduki multzoen bitartez, helburuek aztertu den gorputz hezkuntza eraiki dute. Irakasleak eduki multzoek ezartzen dituzten norabideak jarraituz jardura motak proposatu ditu. Eta gorputz hezkuntza metodo bat ezarri du, kirol gorputz hezkuntza metodoa. Metodoaren ildoak jarraituz, inkontzienteki, irudi ludikoak bereizituz, alegia, giza genero ereduak eta beraien arteko harremanak.

Lehenengo eta behin, behaketa parte hartzailea, irakasleak curriculumetik eraikitako gorputz hezkuntza ezagutzeko bidea izan da. Eta ezagupen horrek barne logikatik aztertu den gorputz hezkuntzaren norabide metodologikoa zehazteko aukera eman digu. Zehaztapen horrek Kurutziaga ikastolako gorputz hezkuntzak sustatu duen hezkidetzak ereduak azalerazi du:

Naturatik urrunduz, neurketa eta emaitza ezaugarri dituen kirolaren menpe, neskek eta mutilek sormenerako leku gutxi duten hezkidetza, zeinean emakume gisa hazi diren, gizon gisa lehiatzen ikasteko. Maskulinitasun hegemonikoarekiko menpekotasunaren hezkidetza.

6. GENERO GAIARI GORPUTZ HEZKUNTZAK EGIN DIEZAIOSKEEN EKARPENA

Gizarteratze prozesuan “bi sexuen nortasunak era sozialean eraikitzen dira” (Mead, 1963, 339 or.). Gizartean bultzatzen diren praktiken konfigurazioek giza genero eredu desberdinak sustatu ditzaketela ohartzen gara. Praktikak “aldaketa sozialaren norabidean eta gizartearen interesen orekan eragina duen prozesu politiko gisa” (Connell, 2003, 72 or.) ulertu behar dira. Irakaslearen posizioaren eraketan hezkuntza legeak prozesu politiko horren baitan daude.

Kirol joko-jolasen barne logikaren ezaugarrien izaera arauak aldatu ezean, berdina da, beti. Hezkuntza legeetan zehazten den norabide politikoei gorputz hezkuntza formak margotzen dituzte eta irakasleok pintzela hartu eta han eta hemen jarduerak proposatzen ditugu. Jarduera motorren barne logikaren ezaugarrien izaera aintzat hartu barik.

Ikerketa etnomotorrak izeneko barne logikaren azterketatik gorputz hezkuntza bat deskubritu digu, curriculum ezkututik eraikitakoa. Eta ageriko curriculumak beste bat azaleratu zaigu. Hain zuzen ere, behatutako gorputz hezkuntzan barne logikatik emakumearen eta gizonaren munduen arteko orekaren hezkidetza ikusi da, eta ageriko curriculumetik bultzatu denarekin uztarketa egitean gorputz hezkuntzak erakutsi duen eredu hegemoniko maskulinoarekiko menpekotasunaren hezkidetza ikusi da. Lehenak bi munduen arteko oreka bultzatu du, eta bigarrenak emakumeak gizonarekiko duen menpekotasun tradizionala sustatu du. Gorputz hezkuntza bat behatu da, baina bi gorputz hezkuntza aurkitu ditugu, curriculum ezkutuarena eta ageriko curriculumarena.

Era horretan, gorputz hezkuntza praktika motorrak generoen arteko harremanak konfiguratu ditu. Neskek gizonen genero ereduaz hazteko aukera izan dute eta mutilek emakumearen genero ereduaz. Batzuk eta besteak besteen munduaz jabetzeko bermea sustatu da. Baina, gure buruari galdetu beharko genioke, barne logikaren azterketatik ikusi den emakumearen eta gizonaren munduen arteko orekak emakumearen eta gizonaren arteko berdintasunean noraino laguntzen duen. Diferentzian oinarritzen den berdintasun generoa justizia sozialaren bermea barik, nesken eta mutilen genero munduak mugatzeko aukera ez ote den izango. Izan ere, bi munduetan hazteko aukerak pertsonen arteko desberdintasunak errespetatzetik baino, sexuaren arabera generoarekiko ezaugarriak preskribatzeko aukera zabaldu daiteke. Emaku-

mearen mundua eskolara eramateak maskulinitasun hegemonikoarekin apurtzeko nahikoa ez dela izango inferitzen da. Are eta gutxiago, hezkuntzaren posizioetik maskulinitasun hegemonikoarekiko menpekotasuna sustatzen bada.

Genero eredu hegemonikoarekiko menpekotasunak neskak eta mutilak bestea izatetik hazteko arriskua ekar dezake. Beste horren ereduak lehiakortasuna, hierarkizazioa, indarra, trebezia eta bortizkeria ezaugarriak dira, hegemonia maskulinoarenak. "Genero ordenaren barne harremanak" (Connell, 2003, 121 or.) menperatze eta menpekotasun harremanak bultzatzen ditu. Eta gizona egotzitako nortasunetik eraikitzen den maskulinitasun hegemonikoa kirolaren bitartez bermatzen da.

Menpekotasun harremanak pertsonen ahalduzko prozesutik saihestu daitezkeenak dira. Gizartearen objektu izatetik subjektu bilakatzeko ahalduzko prozesuak pertsonen autonomia eta beraien bizitzaren kontrola izatea dira helburuak. Genero harreman osasuntsuak, bakoitza "bere burua berresteko, ausartzeko, erabakiak hartzeko eta horiek existitzen diren bitartean gauzatzeko" (Emakunde, 2014, 83 or.) gai denean lortzen baitira. Ahalduzko pertsonalak eragin positiboa izango du auto-estimuan. Pertsona bakoitzak "esateko, jakinarazteko, esperimendatzeko eta sortzeko legimititatea" (Emakunde, 2014, 88 or.) duela pentsatzen eta sentitzen duenean ahalduzko kolektiboa lortu dela baieztatzen da. Pertsona gizartearen subjektu bilakatzeko generoa dela eta menpekotasun harremanak saihesteko aukera handitu egiten da.

Gorputz hezkuntzako irakasleok "jokabide motorren pedagogia" (Parlebas, 2001, 172 or.) egin nahi badugu, eskuartearen ditugun kirol joko-jolasetatik eta orokorrean jarduera motorrek bultzatzen dituzten jokabideen ezagupenetik hasi behar gara.

Malabareak¹¹⁶ jokoan neskek eta mutilek arreta handia jartzen dute bete beharreko keinua lortzeko. Ez da zarata handirik entzuten. Neskek eta mutilek bakardadean bakoitza bere pilotekin keinua behin eta berriro errepikatzen dute. Okerren bat eginez gero, begi-bazterrekin nor konturatzen den ikuskatzen dute.

Errugbi¹¹⁷ partiduetan jokoan jokalariek behin baloia eskuetan dutenean, aurrerantz egiten dute, ahalik eta arinen. Aurkariak tag¹¹⁸ egiten ez dien bitartean jokalariek aurrerantz egiten dute entsegua egiteko asmoz. Entsegua lortzea puntua lortzearen sinonimo eta, azken finean, irabaztearen sinonimo baita. Baloia

¹¹⁶ Fitxategian 323. jarduera motorra

¹¹⁷ Fitxategian 218. jarduera motorra

¹¹⁸ TAG errugbiaren berezitasun nagusia plakatzeo era da, baloia duen jokalaria ezin denez heldu, plakatzeo gerritik zintzilikatuta daramatzen zintzetako bat kendu behar zaio. Era horretan, jokalaria plakatuta dago eta baloia galtzen du. Betebehar motor horri TAG egitea deitzen zaio.

arriskuan ikusten badute, gertuen dagoen taldekide bati egiten diote atzerantz pasea. Hainbatetan, baloia duenak tag egingo diotela begiestean, atzerantz jaurtitzen du baloia, bere taldeko batek hartuko duen esperantzaz. Taldekideen arteko kooperaziozko elkarrekintzak (paseak) aurkariak tag (oposiziozko elkarrekintza) egin ez dezan bilatzen dira, irabaztea dute helburu.

Taldeko Soka saltoan¹¹⁹ jolasa-jokoan sortu diren taldeak mistoak dira. Lau mutil eta neska bi dauden talde batean neskek sokari eragiten diote. Mutil bat dago sokan sartzeko une egokiaren zain, baina ez da ausartzen. Azkenean, sokari eragiten dioten neska bi horiek noiz sartu esan diote mutilari. Neskek badakite, sokan sartzeko une egokia soka goian dagoenean dela. Talde berean, lau mutil horietatik, sokan sartu ondoren, hiruk irteteko zailtasunak erakusten dituzte. Neskek barre egiten dute baina, azkenean, bi mutilek irteterra ona egin dute eta neskek ondo!, ondo! oihukatzen diete. Berriro ere, mutil bat sartu da sokan, ezin ditu jauziak lekuan egin, asko mugitzen da eta sokari eragiten dioten neska biak, lagundu nahian, mutilak jauziak egiten dituen lekurantz mugitzen dira. Neskak eta mutilak besteei laguntzen jardun dira, sokari behin eta berriro eragiten diote, saltoka dabilzanean laguntzeko. Soka saltoan jolasten dabilzanean talde bat osatzen dute eta parte hartzaile guztiek badakite kideek zer egingo duten. Ezaugarri horrek "jauzien kadentzia eritmikoen errepikapena ahalbidetzen du" (Etxebeste eta Urdangarin (koordinatzaileak), 2005, 94 or).

Harrapatzera¹²⁰ jolasetan neskak eta mutilak zelaian sakabanatuta daude eta nahastu egiten dira. Lehengo bi harrapatuak mutilak izan dira, gero beste neska bi, hiru neska, neska bi, mutil ... Beste batean, harrapatzera¹²¹ jolastean irakasleak neska bat aukeratu du harrapatzaile izateko. Lehengo hiru harrapatuak neskak izan dira eta hurrengoak ere bai. Izan ere, mutilak bazter batean daude, geldik eta lasai. Behin neska guztiak harrapatuak izan ostean, harrapatzaileak, bikoteka mutilengana hurbiltzen hasi dira. Baina mutilak geldik jarraitzen dute eta inolako oztoporik jarri gabe, euren burua harrapatzen utzi dute. Besteen hurbilketa ez da aurkarizko harremana baizik eta besteekin denbora pasan egotearen harremana da. Eta nesken eta mutilen pentsamendua, erakusten dituzten jokabide motorretan islatu da.

Azaldu diren adibide horietan afektibitate eta adimen desberdinak sustatzen dira. Baieztapen horren garrantzia barne logikaren azterketatik, kontzi-enteki, nahi dugun gorputz hezkuntza zehazteko aukeran dago. Ulertzen dugu, zenbat eta eredu motor gehiago proposatu orduan eta pertsona gehiagorengan helduko garela. Giza genero eredu tradizionaletik hezi beharrean, jarduera motorren logikatik hezten da.

¹¹⁹ Fitxategian 262. jarduera motorra

¹²⁰ Fitxategian 423. jarduera motorra

¹²¹ Fitxategian 443. jarduera motorra

Ikerketa horren garrantzi soziala justuagoa den gorputz hezkuntza bat bideratzean dago, hain zuzen ere. Giza genero tradizionaletik at beste gorputz hezkuntza bat bideratu daiteke. Eta sexu maskulinoaren eta femeninoaren atzaparretan jarraitu beharrean, berdin neska edo mutila izan, pertsonen ahalmen guztiak sustatzen duen gorputz hezkuntza eraiki daiteke. Pertsonen auto-estimuan eta autonomian modu positiboan bultzatzeko eta nesken eta mutilen ahalduzko pertsonala eta kolektiboa bermatzeko. Eta horrela, gorputz hezkuntzatik ere, genero bortizkeria ezabatzeko bidean ekarpena egin daiteke.

Ikerketa egiteko hartutako erabakiek helmugara eramane gaituzte. Hain zuzen ere, Kurutziaga ikastolako gorputz hezkuntzan giza genero ereduak deskubritzera. Zalantzarik ere ez dago, emaitzak ikastetxe batean mugatzen direla. Eta honek ondorioen oihartzuna ere murrizten duela.

Baina, ikerketa honek agerian uzten du ere gorputz hezkuntzako edozein irakaslek barne logikaren azterketa eginez zein giza genero eredu bultzatzen dituen ezagutu dezakeela. Eta ezagupen hau Euskal Herriko ikastolen ereduak gorputz hezkuntzatik bultzatzen duen giza genero ereduaren ezagupenean bilakatu daiteke. Bilakaera hau bizi garen mundu globalizatuaren zehar gorputz hezkuntzak generoarekiko jarraitzen dituen ildoen ezagupenera heldu arte ia bukaezina bihurtzen dela ohartuz. Jarraitu den ikerketa metodologia praktika motorren azterketa tresna bihurtzen da, gizartearen dauden balioak eta korronteak deskubritzeko bidea zabalduz.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Adarra. (1978). ADARRA Pedagogi erakundea. 2012ko apirilaren 1ean <http://www.adarra.org/ADARRA/QuienesE.html> gunetik eskuratua.
- Alario, T. eta García, C. (1997). *Persona, género y educación*. Salamanca: Amarú.
- Báez, J., eta Pérez, T. (2007). *Investigación cualitativa*. Madrid: Esic.
- Baker, J. (1992). *Psicología de la mujer*. Barcelona: Paidós.
- Barberá, E. (2006). Aportaciones de la psicología al estudio de las relaciones de género. C. Rodríguez (Arg.), *Género y currículo: aportaciones del género al estudio y práctica del currículo*. Madrid: Ediciones Akal.
- Barbero, J. I. (1993). Sarrera. En J. M. Brohm, P. Bourdieu, E. Dunning, J. Hargreaves, T. Todd eta K. Young (Arg.), *Materiales de sociología del deporte*. Madrid: La Piqueta.
- Barbosa, L. (2003). *Igualdade e meritocracia. A ética do desempenho nas sociedades modernas*. Rio de Janeiro: Editora FGV.
- Basabe, N., eta Ros, M. (2005). Cultural dimensions and social behavior correlates: Individualism-Collectivism and Power Distance. *Revue internationale de psychologie sociale*(1), 189-225.
- Bourdieu, P. (2007). *La dominación masculina*. Barcelona: Anagrama.
- Brohm, J. (1982). *Sociología política del deporte*. México: Fondo de cultura económica.
- Caillois, R. (1958). *Teoría de los juegos*. Barcelona: Seix Barral.
- Caro Baroja, J. (1971). *Los Vascos*. Madrid: Ediciones Istmo.
- Caro Baroja, J. (1974). *Estudios Vascos IV: de la vida rural vasca*. San Sebastián: Editorial Txertoa.
- Caro Baroja, J. (1976). *III Semana de Antropología Vasca. El hombre y la técnica*. Universidad de Deusto.
- Celorio, G., eta Lopez de Muniain, A. (Eds.). (2007) Diccionario de educación para el desarrollo. Bilbao: Hegoa EHU/UPV.
- CÉMEA. (2013). *Pour la culture dans l'éducation*. Paris. 2012ko otsailaren 20an http://www.cemea.asso.fr/IMG/pdf/charte_culture.pdf gunetik eskuratua.
- Cevedio, M. (2003). *Arquitectura y género*. Barcelona: Icaria.
- CIS. (2013). Indicador de confianza del consumidor. 2013ko apirilaren 20an http://datos.cis.es/pdf/Es2983sd_A.pdf gunetik eskuratua.
- Connell, R. W. (1997). *Escuelas y justicia social*. Madrid: Morata.

- Connell, R. W. (2003). *Masculinidades*. México: Universidad Nacional Autónoma de México.
- Connell, R. W. (2005). *Masculinities*. Berkeley and Los Angeles: University of California.
- Cook, T. D., eta Reichardt, C. S. (1986). *Métodos cualitativos y cuantitativos en investigación evaluativa*. Madrid: Morata.
- CRONOS. (1996). *Trabajo, paro y ocio*. Madrid: Ediciones de la Torre.
- Chalabaev, A., Sarrazin, P., Fontayne, P., Boiché, J., eta Guillotin, C. (2013b). The influence of sex stereotypes and gender roles on participation and performance in sport and exercise: review and future directions. *Psychology of sport and exercise*, 136-144.
- De Beauvoir, S. (2008). *El segundo sexo*. Madrid: Ediciones Cátedra.
- Del Valle, T., Apaolaza, J. M., Arbe, F., Cucó, J., Díez, C., L., E. M., eta lag. (2002). *Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género*. Madrid: Narcea.
- Dunning, E. (1992). La dinámica del deporte moderno: notas sobre la búsqueda de triunfos y la importancia del deporte. N. Elias eta E. Dunning (Eds.), *Deporte y ocio en el proceso de civilización*. México: Fondo de cultura económica.
- Dunning, E. (2003). *El fenómeno deportivo*. Barcelona: Paidotribo.
- During, B. (1992). *La crisis de las pedagogías corporales*. Málaga: Unisport.
- EJGV. (2013). Kirolarien lizentzia federatuen kopurua. Datuak sexuka 2012. 2014ko martxoaren 17an http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/contenidos/informacion/berdintasuna_estadistikak/eu_eu/adjuntos/2004-2012_Hist%C3%B3ricoLicencias_eu%20CAV.pdf gunetik eskuratua.
- Elias, N. (1989). *Sobre el tiempo*. Madrid: Fondo de cultura económica.
- Elias, N., eta Dunning, E. (1992). *Deporte y ocio en el proceso de civilización*. México: Fondo de cultura económica.
- Emakunde. (2007). Zaintzaren ondorioak. Uztartze estrategiak EAEko gizon-emakumeen eguneroko bizitzan. 2012ko otsailaren 20an http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/eu/contenidos/informacion/pub_informes/eu_emakunde/adjuntos/consecu_cuid_concil_eu.pdf gunetik eskuratua.
- Emakunde. (2008). *Sare 2007 Nazioarteko Kongresua: "Maskulinitatea eta eguneroko bizitza"*. Gasteiz: Emakunde, Eusko Jaurlaritza.
- Emakunde. (2010a). EAEko emakumeen lanbide ibilbide eta egoerako desberdintasuna. Emakumezkoen talentuen alferrik galtzearen kostu erlatiboa. 2011ko abenduaren 9an http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/eu/contenidos/informacion/pub_informes/eu_emakunde/adjuntos/trayectoria_prof_eu.pdf gunetik eskuratua.
- Emakunde. (2010b). Zifrak: Emakumeak eta gizonak Euskadin 2012ko martxoaren 6an http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/eu/contenidos/informacion/cifras_ant/eu_emakunde/adjuntos/cifras_2010_eu.pdf gunetik eskuratua.

- Emakunde. (2014). EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. plana. 2014ko urriaren 6an http://www.emakunde.euskadi.net/contenidos/informacion/u72_iv_plan/eu_emakunde/adjuntos/VIPlan_final_eu.pdf gunetik eskuratua.
- Etniker (Ed.) (2011). *Casa y Familia en Vasconia*. Euskalerriko atlas etnografikoa. Bilbao: Eusko Jaurlaritza.
- Etxebeste, J. (2001). Gorputz hezkuntza. 2014ko martxoaren 23an http://www.gorputzheziketa.net/datos/docs/75/Gorputz_Hez.eusk.Xuxen2.pdf gunetik eskuratua.
- Etxebeste, J. (2002). Aisiaren bi euskal kontzeptua: jokoa eta jolasa. 2012ko ekainaren 5ean <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/congresos/15/02770282.pdf> gunetik eskuratua.
- Etxebeste, J. eta Urdangarin, C. (Koordinatzaileak). (2005). *Euskal jokoa eta jolasa, transmitiendo una herencia vasca a partir del juego*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Etxebeste, J. (2012). *Á cloche-pied: les jeux sportifs traditionnels et la socialisation des enfants basques*. Saarbrücken: Éditions universitaires Européennes.
- Europarlamentu. Carta de los derechos fundamentales de la Unión Europea, (C 364/01), 2000ko abenduaren 18koa. Diario Oficial de las Comunidades Europeas, 1-22 o. 2012ko martxoaren 11an http://www.europarl.europa.eu/charter/pdf/text_es.pdf gunetik eskuratua.
- Espainia. Lege Organikoa 3/1979, abenduaren 18koa, Euskal Herriko Autonomia, Estatutuarena, EKN/BOCG Aldizkari Ofiziala 32 zbka. 2012ko apirilaren 5ean http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-2312/eu/contenidos/informacion/estatuto_guernica/eu_455/estatu_e.html gunetik eskuratua.
- Espainia. Legea 14/1970, abuztuaren 4koa, Hezkuntzaren Orokorra. BOE, 1970ko abuztuaren 6koa, 187 zbka, 12525-12546 or.
- Espainia. Lege Organikoa 8/1985, uztailaren 3koa, Heziketarako Eskubidearen Erregulatzailerena. BOE, 1985ko uztailaren 4koa, 159 zbka, 21015-21022 or.
- Espainia. Lege Organikoa 1 /1990, urriaren 3koa, Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorrena. BOE, 1990ko urriaren 4koa, 238 zbka, 28927-28942 or.
- Espainia. Lege Organikoa 10/2002, abenduaren 23koa, Hezkuntzarena Kalitatearena. BOE, 2010ko abenduaren 24koa, 307 zbka, 45188-45220 or.
- Espainia. Lege Organikoa 2/2006, maiatzaren 3koa, Hezkuntzarena. BOE, 2006ko abuztuaren 4koa, 106 zbka, 17158-17207 or.
- Espainia. Lege Organikoa 3/2007, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorarentzakoa. BOE, 2007koko martxoaren 23koa, 71 zbka, 12611-12645 or.

- Eusko Jaurlaritzak. (1992). *Euskal Autonomi Elkarte Oinarrizko Curriculum Diseinua. Lehen Hezkuntza. Zehar Lerroak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eustat. (2006). Evolución de la estructura familiar en la C. A. de Euskadi. 1986-2006. 2014ko abuztuaren 14an http://www.eustat.es/elementos/ele0005000/ti_Evolucion_Estructura_Familiar_2006_Analisis_de_resultados_pdf_65_KB/inf0005051_c.pdf gunetik eskuratua.
- Eustat. (2009). Batez besteko gizarte-denbora, parte hartzailearen eta tasaren, jarduera-motaren, asteko egunaren eta lurralde historikoaren arabera. 2012ko abenduaren 5ean http://eu.eustat.es/elementos/ele0000400/ti_Batez_besteko_gizarte-denbora_parte_hartzailearen_eta_tasaren_jarduera-motaren_asteko_egunaren_eta_lurralde_historikoaren_arabera_hhmm_2008/tbl0000452_e.html#axzz2EIIQ0WWO gunetik eskuratua.
- Eustat. (2010). Ekonomia: lehiakortasuna ardatza. 2012ko abuztuaren 18an <http://www.eustat.euskadi.net/t35-20689x/eu/t64aVisorWar/t64aCreaFicha.jsp?R01HNoPortal=true&lan=1&code=48027> gunetik eskuratua.
- Eustat. (2011a). Durangoko biztanleria. 2012ko abuztuaren 18n <http://www.eustat.es/municipal/Dialog/Saveshow.asp#axzz23vDLBfm7> gunetik eskuratua.
- Eustat. (2011b). Euskal AEn 16 urte edo gehiagoko biztanleria, etxeko lanak jardueretan aritzen diren maiztasunaren, hiruhilekotan, sexu eta jarduerarekiko erlazioaren arabera (milakoetan) 2012ko martxoaren 11an http://eu.eustat.es/elementos/ele0004900/ti_Euskal_AEn_16_urte_edo_gehiagoko_biztanleria_etxeko_lanak_jardueretan_aritzen_diren_maiztasunaren_hiruhilekotan_sexu_eta_jarduerarekiko_erlazioaren_arabera_milakoetan_1_2011/tbl0004918_e.html#axzz1oo3Fcg2Q gunetik eskuratua.
- Eustat. (2012a). Emakume eta gizonen arteko berdintasuna. 2012ko martxoaren 11an http://eu.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0008300/inf0008361_e.pdf gunetik eskuratua.
- Eustat. (2012b). Euskal AEn landunak, uztartzearen inguruko beste alderdi batzuei lotuta dauden kalteei jarraiki (amatasuna, aitatasuna eta eszedentzia), ezaugarri soziodemografikoen arabera (batez bestekoa).I. 2013ko ekainaren 15ean http://eu.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0007500/ti_Euskal_AEn_landunak_uztartzearen_inguruko_beste_alderdi_batzuei_lotuta_dauden_kalteei_jarraiki_amatasuna_aitatasuna_eta_eszedentzia_ezaugarri_soziodemografikoen_arabera_batez_bestekoa_2012/tbl0007585_e.html#axzz2WJ1W8fL4 gunetik eskuratua.
- Eustat. (2012c). Jaiotzak. 2012ko abuztuaren 18an <http://www.eustat.es/municipal/Dialog/Saveshow.asp#axzz23vDLBfm7> gunetik eskuratua.

- Eustat. (2013a). Batez besteko errenta pertsonala, errenta-motaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera (euro). 2011. 2014ko ekainaren 7an http://www.eustat.es/elementos/ele0002100/ti_Batez_besteko_errenta_pertsonala_errenta-motaren_lurralde_historikoaren_eta_sexuaren_arabera_euro_2011/tbl0002167_e.html#axzz33xjctUV0 gunetik eskuratua.
- Eustat. (2013b). Kapital soziala. 2013ko uztailaren 13an http://eu.eustat.es/ci_ci/estadisticas/tema_362/opt_0/tipo_1/ti_Kapital_soziala/temas.html#axzz2YwPSQyt3 gunetik eskuratua.
- Eustat. (2014). Euskal AEn gizarte ekonomian enpleguaren banaketa sexuari jarraiki (%). 2014ko abenduaren 21an http://eu.eustat.es/elementos/ele0009600/ti_Euskal_AEn_gizarte_ekonomian_enpleguaren_banaketa_sexuari_jarraiki_2012/tbl0009601_e.html#axzz3MYGaxdc3 gunetik eskuratua.
- Firestone, S. (1976). *La dialéctica del sexo*. Barcelona: Kairós.
- Foucault, M. (2009). *Vigilar y Castigar*.
- Foxsports. (2012). Londres 2012: Tecnologías en trajes de baño. 2013ko abuztuaren 28an <http://www.foxsportsla.com/videos/24457003-tecnologia-en-trajes-de-bano> gunetik eskuratua.
- Freud, S. (1930). El malestar en la cultura. 2012ko ekainaren 5ean <http://www.slideshare.net/Gatojazzy/sigmund-freud-el-malestar-en-la-cultura-8355677> gunetik eskuratua.
- Garagorri (zuzendaria), X. (2004). *Euskal curriculum: kultur ibilbidea*: Ikastolen Elkarte. Eusko Jaurlaritzak.
- Gershuny, J. (2011). Increasing Paid Work Time? A New Puzzle for Multinational Time-diary Research. *Social Indicators Research*, 101(2), 207-213.
- Giddens, A. (2000). Un mundo desbocado: los efectos de la globalización en nuestras vidas. 2014ko ekainaren 14an http://www.postgrado.unesr.edu.ve/acostece/es/todosnumeros/num13/05_02/resumen_libro_unmundodesbocado.pdf gunetik eskuratua.
- Goetz, J. P., eta Lecompte, M. D. (1988). *Etnografía y diseño cualitativo en investigación educativa*. Madrid: Morata.
- Goffman, E. (2001). *La presentación de la persona en la vida cotidiana*. Buenos Aires: Amorrortu.
- Hall, E. T. (1973). *La dimensión oculta. Enfoque antropológico del uso del espacio*. Madrid: Instituto de estudios de administración local. Colección "Nuevo urbanismo".
- Hargreaves, J. (1993). Promesa y problemas en el ocio y los deportes femeninos. En J. Brohm eta Besteak (Eds.), *Materiales de sociología del deporte*. Madrid: La piqueta.
- Huizinga, J. (2000). *Homo ludens*. Madrid: Alianza.
- Ikastolen Elkarte. (2009). Ikastolen VI. batzarra. Ikastolak, orain eta gero. 2013ko abuztuaren 2an <http://jakintza.net/wp-content/uploads/2009/05/vi-batzararen-3saioa-deialdiaproposamena.pdf> gunetik eskuratua.

- INE. (2010a). Condenados según lugar de condena, tipo de delito y sexo del infractor. 2012ko martxoaren 11n <http://www.ine.es/jaxi/tabla.do?path=/t18/p466/a2010/10/&file=04001.px&type=pcaxis&L=0> gunetik eskuratua.
- INE. (2010b). Condenados según número de delitos, nacionalidad y sexo. 2012ko martxoaren 11n <http://www.ine.es/jaxi/tabla.do?path=/t18/p466/a2010/10/&file=04001.px&type=pcaxis&L=0> gunetik eskuratua.
- INE. (2011). Participación política, mujeres con cargos ejecutivos y en el gobierno. 2012ko martxoaren 6an http://www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INESeccion_P&cid=1259925558048&p=1254735110672&pagename=ProductosYServicios%2FPYSLayou¶m3=1259924822888 gunetik eskuratua.
- Iza, I. (2011). *El movimiento de las ikastolas, un pueblo en marcha. El modelo Ikastola 1960-2010*. Bilbao: Euskal Herriko Ikastolak-Euskaltzaindia.
- Eusko Jaurlaritz. (2008). Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa. 2012ko irailaren 9an <http://www1.euskadi.net/harluxet/> gunetik eskuratua.
- Klein, N. (2001). *No logo*. Barcelona: Paidós Ibérica.
- Kurutziaga Ikastola. (2010). Hezkuntza proiektua. Ikastolen Elkarte.
- Lagarde y de los Ríos, M. (2011). *Los cautiverios de las mujeres: madresposas, monjas, putas, presas y locas*. Madrid: horas y HORAS.
- Lagardera, F., Lavega Burgués, P., Sáez de Ocáriz, U., Serna, J., eta Aires Araujo, P. (2011). Emociones y género en la práctica de situaciones motrices cooperativas. 2014ko martxoaren 22an http://www.memoria.fahce.unlp.edu.ar/trab_eventos/ev.1431/ev.1431.pdf gunetik eskuratua.
- Lagardera, F., eta Lavega, P. (2003). *Introducción a la praxiología motriz*. Barcelona: Paidotribo.
- Lau, P., Cheing, M., eta Ransdell, L. (2008). Sport identity and sport participation: a cultural comparison between collective and individualistic societies. *International journal of sport and exercise psychology*, 66-81.
- Le Boulch, J. (1995). *El desarrollo psicomotor desde el nacimiento hasta los 6 años*. Barcelona: Paidós Ibérica.
- Lee, D. (1950). Lineal and nonlinear codifications of reality. [Artikulu]. *Psychosomatic Medicine*, 12(2), 89-97.
- Lehendakaritza. 2/1988 Legea, otsailaren 5ekoa. Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoa. EHAA-BOPV, 1988ko martxoaren 4koa, 45 zbka.
- Lehendakaritza. Dekretua 237/1992, abuztuaren 11koa, Euskal Herriko Autonomia Elkarterako Lehen Hezkuntzako curriculum ezartzen duena. EHAA/BOPV, 1992ko abuztuaren 27koa, 167 zbka.
- Lehendakaritza. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. EHAA-BOPV 2005ko martxoaren 2koa, 42 zbka. 3217-3268 or.

- Lehendakaritza. Dekretua 175/2007, urriaren 16koa. Euskal Autonomia Erki-degoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa. AHAA-BOPV, 2007ko azaroaren 13koa, 218 zbka.
- Lehendakaritza. Dekretua 175/2007, urriaren 16koa. Euskal Autonomia Erki-degoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa. I. eranskina. AHAA-BOPV, 2007ko azaroaren 13koa, 218 zbka.
- Lehendakaritza. Dekretua 175/2007, urriaren 16koa. Euskal Autonomia Erki-degoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa. III. eranskina. AHAA-BOPV, 2007ko azaroaren 13koa, 218 zbka.
- Lehendakaritza. Dekretua 175/2007, urriaren 16koa. Euskal Autonomia Erki-degoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa. IV. eranskina. AHAA-BOPV, 2007ko azaroaren 13koa, 218 zbka.
- Lehendakaritza. Dekretua 175/2007, urriaren 16koa. Euskal Autonomia Erki-degoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa. V. eranskina. AHAA-BOPV, 2007ko azaroaren 13koa, 218 zbka.
- Leibbrandt, A., Gneezy, U., eta List, J. A. (2013). Rise and fall of competitiveness in individualistic and collectivistic societies. *Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America*, 110(23), 9305-9308.
- Lévi-Strauss, C. (2012). *Mito y significado*. Madrid: Alianza editorial.
- Lipovetsky, G. (1986). *La era del vacío*. Barcelona: Anagrama.
- Lipovetsky, G. (1998). *El imperio de lo efímero*. Barcelona: Anagrama.
- Marinas, J. M. (2012). *Investigar la cultura del consumo*. Madrid: Síntesis.
- Mauss, M. (1991). *Sociología y antropología*. Madrid: Editorial Tecnos.
- McDowell, L. (2000). *Género, identidad y lugar*. Madrid: Ediciones Cátedra.
- Mead, M. (1963). *Sexo y temperamento en las sociedades primitivas*. Barcelona: Editorial Laia.
- MECD. (2012). Alumnado matriculado, por curso y modalidad. Todos los centros. Mujeres 10-11. 2014ko martxoaren 17an <http://www.mecd.gob.es/dms-static/bcb8cccce-c649-4960-920d-7fe788775adc/bach-logse10-pdf.pdf> gunetik eskuratua.
- Millett, K. (1995). *Política sexual*. Madrid: Cátedra.
- Nadal, J. (2003). *Atlas de la industrialización de España*. Bilbao: Editorial Crítica.
- NBE. *Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer*, Naciones Unidas, 34/180 Hitzarmena, 1979ko abenduaren 18koa, 93-110 or. Nueva York y Ginebra 2014.
- NBE. *Protocolo Facultativo de la Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer*, Naciones Unidas, 34/180 Hitzarmena, 1979ko abenduaren 18koa, 111-118 or. Nueva York y Ginebra 2014.
- Odríoloz, A. (2014). El auge de la colaboración entre moda y deporte. *Glamour*. 2014ko ekainaren 7an <http://www.glamour.es/moda/tendencias/articulos/el-auge-de-la-colaboracion-entre-moda-y-deporte/19496> gunetik eskuratua.

- Oiarbide, A. (2009b). *Mendi zeharkaldi, aerobic eta futbolaren etnomotrizitateak*. Argitaratu gabeko tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea., Vitoria-Gasteiz.
- Oiarbide, A., Martínez-Santos, R., Usabiaga, O., Etxebeste, J., eta Urdangarin, U. (2014). Efectos de los juegos de cooperación-oposición en el ánimo de los universitarios. 2014ko martxoaren 23an http://www.retos.org/numero_25/58-62.pdf gunetik eskuratua.
- OMPI. El deporte y la tecnología. 2014ko ekainaren 7an <http://www.wipo.int/ip-sport/es/technology.html> gunetik eskuratua.
- NBE. *Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer*, Naciones Unidas, 34/180 Hitzarmena, 1979ko abenduaren 18koa, 93-110 or. Nueva York y Ginebra 2014.
- NBE. *Protocolo Facultativo de la Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer*, Naciones Unidas, 34/180 Hitzarmena, 1979ko abenduaren 18koa, 111-118 or. Nueva York y Ginebra 2014.
- Otxotorena, M. (2009). Genero-ikuspegia garapenerako lankidetzaprozesuetan ari diren gizonekin. 2014ko abenduaren 20an http://www.berdingune.euskadi.net/contenidos/informacion/material/eu_gizonduz/adjuntos/7_genero-ikuspegia_garapenerako_lankidetzaprozesuetan_ari_diren_gizonekin.pdf gunetik eskuratua.
- Palau, J. (1994). *Nuevos deportes de aventura y riesgo*. Barcelona: Planeta.
- Parlebas, P. (2001). *Léxico de praxiología motriz*. Barcelona: Paidotribo.
- Parlebas, P. (2011). Jeux Sportifs traditionnels et éducation nouvelle. *L'éducation nouvelle*. Paris,: CEMEA. 542, 24-49.
- Pérez, F. (2007). Capital y crecimiento: El capital social en las comunidades autónomas y provincias. 2013ko uztailaren 13an http://eu.eustat.es/documentos/datos/CV07_08.pdf gunetik eskuratua.
- Pérez, J. (2012). *Historia del feminismo*. Madrid: Catarata.
- Pounds, N. (1992). *La vida cotidiana: historia de la cultura material*. Barcelona: Crítica.
- Ramos, R. (1990). *Uso del tiempo y desigualdad entre mujeres y hombres en España*. Madrid: Instituto de la Mujer.
- Rosado, M. A. (2006). *Metodología de investigación y evaluación*. Sevilla: Trillas.
- Rubio, M. J., eta Varas, J. (2004). *El análisis de la realidad en la intervención social: métodos y técnicas de investigación*. Madrid: CCS.
- Sabaté, A., Rodríguez, M. J., eta Díaz, M. A. (1995). *Mujeres, espacio y sociedad: hacia una geografía del género*. Madrid: Editorial Síntesis.
- Sáez de Ocáriz, U. (2011). Conflictos y educación física a la luz de la praxiología motriz. Estudio de caso de un centro educativo de primaria. 2014ko martxoaren 23an <http://hdl.handle.net/10803/53637> gunetik eskuratua.

- Schaub, H., eta Zenke, K. (Eds.). (2001) Diccionario Akal de pedagogía. Madrid: Akal.
- Segal, B., eta Podoshen, J. (2012). An examination of materialism, conspicuous consumption and gender differences. *International Journal of Consumer Studies*, 189-198.
- Sempere, J. (2009). *Mejor con menos: necesidades, explosión consumista y crisis ecológica*. Barcelona: Crítica.
- SPSS. (2009). *SPSS, manual teórico*. Bilbao.
- Stein, K. (2012). Time Off: The Social Experience of Time on Vacation. *Qualitative Sociology*, 35(3), 335-353.
- Timón, L. M., eta Hormigo, Fran. (2010). *La coeducación en la educación física del siglo XXI*. Sevilla: Wanceulen.
- Titze, C., Jansen, P. eta Heil, M. (2011). *Single-sex school girls outperform girls attending a co-educative school in mental rotation accuracy*. *Sex Roles* (65):704-711. Springer.
- Tomé, A. (2002). El estado de la cuestión: la coeducación en la etapa de infantil y primaria. Abad, M.L.; Arias, A.; Balco, N.; ... (Ed.), *Género y educación: la escuela coeducativa*. Barcelona: Graó.
- Urdangarin, C. (2009a). *Bailando jauzi bajo barras y estrellas: una etnografía del zazpiak bat group of dancers de Reno, Nevada*. Argitaratu gabeko tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Vitoria-Gasteiz.
- Urtxintxa. (2010). Harrapaketa jolasa: Azeriak, olioak eta sugeak. 2014ko martxoaren 31an <http://www.aisia.net/jolasak/korrika-harrapaketa-jolasa/azeriak-oiloak-eta-sugeak> gunetik eskuratua.
- Wedgwood, N. (2009). Connell's theory of masculinity: its origins and influences on the study of gender". *Journal of Gender Studies*, 18:14, 329-339.
- Wikipedia. Techo de cristal. 2013ko abuztuaren 6an http://es.wikipedia.org/wiki/Techo_de_cristal gunetik eskuratua.
- Zubero, I. (2007). Kapital soziala. 2013ko uztailaren 13an http://www.eustat.es/elementos/ele0009800/ti_Informe_Socioeconomico_de_la_CA_de_Euskadi_2012_Capital_social_PDF_294KB/inf0009893_c.pdf gunetik eskuratua.
- Zulaika, J. (1990). *Ehiztariaren erotika*. Donostia: Erein.

8. ERANSKINA

Behaketaren ondorioz gorputz hezkuntzan aztertu diren Jarduera motorren fitxategia eranskina atalean beste koadernaketa batean agertzen da.

